

2025
70-2

euskera

IKERKETA ALDIZKARIA

REVISTA DE INVESTIGACIÓN REVUE DE RECHERCHE RESEARCH JOURNAL



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE
ROYAL ACADEMY OF THE BASQUE LANGUAGE

EUSKERA IKERKETA ALDIZKARIA 2025, 70 (2). Bilbo. ISSN 0210-1564

E U S K E R A

IKERKETA ALDIZKARIA



2025
70-2
BILBO
ISSN 0210-1564



EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Telefona: 94 415 81 55

Posta elek.: euskeraaldizkaria@euskaltzaindia.eus

Webgunea: <https://euskera-ikerketak.euskaltzaindia.eus>

Aldizkari hau beste agerkari batzuekin trukutzen da.

Esta revista admite el intercambio con otras publicaciones.

Cette revue s'échange avec d'autres publications.

This journal can be exchanged for others by agreement.

Testuen hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia Zerbitzua (HIZBEA)

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN 0210-1564

Lege-gordailua: BI-1244-58

Diseinua: www.ikeder.es

Aurreinprimaketa: Composiciones Rali, S.A.

Costa, 12-14, 7. ezk. – 48010 Bilbo

Inprimategia: Printhaus, S.L.

EUSKERA IKERKETA ALDIZKARIA

Euskera Ikerketa Aldizkariaren aurrekari gisa, *Euskera* Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala izan da 1920. urtetik 2022ra bitartean. 2023tik aurrera bi argitalpen dira: batetik, *Euskera Ikerketa Aldizkaria* eta bestetik, *Euskaltzaindiaren Buletina*. Lehenak Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasotzen ditu, eta paperean eta euskarri informatikoan argitaratzen da. Bigarrenak Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa biltzen ditu eta modu elektronikoa argitaratzen da.

Euskera Ikerketa Aldizkariak bi zenbaki argitaratzen ditu urtero. Lehena, martxo edo apirila inguruan (urtarrila-ekaina aldiari dagokiona) eta bigarrena, irailean edo urrian (uztaila-abendua aldikoa). Ikerketa-artikuluak argitaratzeko, Idazketa Batzordeak, anonimotasuna bermatuz, kanpo ebaluatzaileen iritzia jasoko du PEER REVIEW itsu bikoitza sistema erabiliz.

***Euskera Ikerketa Aldizkaria* honako katalogo eta datu-baseetan dago:**

- Azkue Bibliotekaren katalogoan
- Latindex katalogoan
- Inguma datu-basean
- Dialnet datu-basean
- InDICES-CSIC datu-basean
- Dulcinea datu-basean
- Linguistic Bibliography datu-basean
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

Kalitate-adierazleak:

- Journal Citation Reports (JCR) (2024): JIF 0.3; JCI 0.01, LANGUAGE & LINGUISTICS, Q4
- Dialnet Metrikak (2023) / Inpaktua: 0.0, FILOLOGÍA HISPÁNICA 93/127 (Q4), FILOLOGÍAS 247/318 (Q4)
- CIRC (2025): C maila
- MIAR (2024): c1+m1+e1+x1. ICDS (2021): 8.0

Como publicación previa a *Euskera Ikerketa Aldizkaria*, la revista *Euskera* ha sido la publicación oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia y se ha publicado desde 1920 hasta 2022. A partir de 2023, son dos las publicaciones: *Euskera Ikerketa Aldizkaria* y *Euskaltzaindiaren Buletina*. La primera publica artículos de investigación originales, reseñas de libros y otros contenidos del ámbito de investigación de Euskaltzaindia, y se publica en papel y en formato electrónico. La segunda recopila la vida y el trabajo académico de Euskaltzaindia y se publica de forma electrónica.

Euskera Ikerketa Aldizkaria cuenta con dos números anuales: el primero (enero-junio) entre marzo y abril y el segundo (julio-diciembre) entre septiembre y octubre. Para publicar los artículos de investigación el Consejo de Redacción recaba, utilizando el sistema de doble ciego PEER REVIEW, la opinión de evaluadores externos.

La revista *Euskera Ikerketa Aldizkaria* está disponible en los siguientes catálogos y bases de datos:

- Catálogo de la Biblioteca Azkue
- Catálogo Latindex
- Base de datos Inguma
- Base de datos Dialnet
- Base de datos InDICES-CSIC
- Base de datos Dulcinea
- Base de datos Linguistic Bibliography
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

Indicadores de calidad:

- Journal Citation Reports (JCR) (2024): JIF 0.3; JCI 0.01, LANGUAGE & LINGUISTICS, Q4
- Dialnet Métricas (2023) / Impacto: 0.0, FILOLOGÍA HISPÁNICA 93/127 (Q4), FILOLOGÍAS 247/318 (Q4)
- CIRC (2025): categoría C
- MIAR (2024): c1+m1+e1+x1. ICDS (2021): 8.0

Précurseure d'*Euskera Ikerketa Aldizkaria*, la revue *Euskera* a été la publication officielle de l'Académie de la langue basque – Euskaltzaindia de 1920 à 2022. À partir de 2023, il y a deux publications : d'une part, la revue *Euskera Ikerketa Aldizkaria* et, d'autre part, *Euskaltzaindiaren Buletina*. La première contient des articles de recherche originaux, des comptes rendus de livres et autres dans les domaines de travail de l'Académie, et est publiée sur papier et sur support informatique. La seconde couvre le travail et la vie de l'Académie ; elle est publiée électroniquement.

Euskera Ikerketa Aldizkaria publie deux numéros par an : le premier vers mars-avril (correspondant à la période janvier-juin) et le second en septembre-octobre (correspondant à la période juillet-décembre). Avant de publier les articles de recherche, le Comité de Rédaction recueille l'avis d'évaluateurs externes en utilisant le système PEER REVIEW double aveugle, qui garantit l'anonymat.

La revue *Euskera Ikerketa Aldizkaria* est présente sur les catalogues et bases de données suivants :

- Catalogue de la Bibliothèque Azkue
- Base de données InDICES-CSIC
- Catalogue Latindex
- Base de données Dulcinea
- Base de données Inguma
- Base de données Linguistic Bibliography
- Base de données Dialnet
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

Indicateurs de qualité :

- Journal Citation Reports (JCR) (2024): JIF 0.3; JCI 0.01, LANGUAGE & LINGUISTICS, Q4
- Dialnet Métrique (2023) / Impact: 0.0, FILOLOGÍA HISPÁNICA 93/127 (Q4), FILOLOGÍAS 247/318 (Q4)
- CIRC (2025): catégorie C
- MIAR (2024): c1+m1+e1+x1. ICDS (2021): 8.0

As a publication prior to *Euskera Ikerketa Aldizkaria*, the review *Euskera* was the official publication of the Royal Academy of the Basque Language - Euskaltzaindia, published from 1920 to 2022. From 2023 onwards there are two publications: *Euskera Ikerketa Aldizkaria* and *Euskaltzaindiaren Buletina*. The former publishes original research papers, book reviews and other content in the research area of Euskaltzaindia, and is published on paper and in electronic format. The second documents the academic life and work of Euskaltzaindia, and is published electronically.

Euskera Ikerketa Aldizkaria comes out twice a year: the spring issue (January-June) published between March and April and the second (July-December) between September and October. To publish research papers the Editorial Committee requests the opinion of external assessors, using the double-blind PEER REVIEW system.

***Euskera Ikerketa Aldizkaria* is available in the following catalogues and databases:**

- Catalogue of the Azkue Library
- InDICES-CSIC database
- Latindex catalogue
- Dulcinea database
- Inguma database
- Linguistic Bibliography database
- Dialnet database
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

Quality indicators:

- Journal Citation Reports (JCR) (2024): JIF 0.3; JCI 0.01, LANGUAGE & LINGUISTICS, Q4
- Dialnet Metrics (2023) / Impact: 0.0, FILOLOGÍA HISPÁNICA 93/127 (Q4), FILOLOGÍAS 247/318 (Q4)
- CIRC (2025): category C
- MIAR (2024): c1+m1+e1+x1. ICDS (2021): 8.0

EUSKALTZAINDIA



IDAZKETA BATZORDEA – CONSEJO DE REDACCIÓN – COMITÉ DE RÉDACTION – EDITORIAL COMMITTEE

Burua: Andres Urrutia (*euskaltzainburua*)
Idazkaria: Miren Agur Meabe (*Euskaltzaindiaren idazkaria*)

Kideak – Miembros – Membres – Members

MIXEL AURNAGUE
CNRS. *Paris*
ENEKO BIDEGAIN
HUHEZI. *Arrasate/Mondragon*
JEAN-BAPTISTE COYOS
Euskaltzaindia
EBA GAMINDE
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

ASUN GARIKANO
Euskaltzaindia
PATXI JUARISTI
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Leioa
PATXI SALABERRI ZARATIEGI
Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)
Iruñea/Pamplona

AHOLKU BATZORDEA – CONSEJO ASESOR – COMITÉ CONSULTATIF – ADVISORY BOARD

OLGA ANOKHINA
CNRS. *Paris*
MIREN AZKARATE
Euskaltzaindia. Donostia/S. Sebastián
JOXE AZURMENDI †
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Donostia/S. Sebastián
XARLES BIDEGAIN
Paueko eta Aturri herrialdeetako Unibertsitatea
Baiona
HERVE LE BIHAN
Université Rennes 2. Rennes
JOSU K. BIJUESCA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo
GIDOR BILBAO
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Vitoria/Gasteiz
ANA ISABEL BOULLÓN AGRELO
Universidad de Santiago de Compostela
Santiago de Compostela

IÑAKI CAMINO
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Vitoria/Gasteiz
PHILIPPE CHAREYRE
Université de Pau et des Pays de l'Adour. Pau
JEROEN DARQUENNES
Namur University. Belgium
BENASET DAZÉAS
Lo Congrès permanent de la lenga occitana. Pau
ANA ETXAIDE
Nafarroako Unibertsitatea. Iruñea/Pamplona
JOSE RAMON ETXEBARRIA
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Bilbo
MAITE ETXENIKE
Universitat de València. Valencia
PILAR GARCÍA MOUTON
Profesora ad honorem ILLA-CSIC. Madrid

EUGÈNE F.-X. GHERARDI
Università di Corsica Pasquale Paoli. UMR CNRS
LISA. Corsica

PATXI GOENAGA
Euskaltzaindia. Vitoria/Gasteiz

RICARDO GOMEZ
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Vitoria/Gasteiz

MANUEL GONZALEZ
Real Academia Galega. A Coruña

MARTIN HAASE
University of Bamberg. Alemania

BERNHARD HURCH
Graz University. Austria

JOSE IGNAZIO HUALDE
University of Illinois. USA

ITZIAR IDIAZABAL
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Vitoria/Gasteiz

IÑAKI IRAZABALBEITIA
Elhuyar Fundazioa. Usurbil

JACINTO ITURBE
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Leioa

XABIER ITZAINA
CNRS, Centre Emile Durkheim,
Sciences Po Bordeaux
Bordeaux

JABIER KALTZAKORTA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JOSEBA ANDONI LAKARRA
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Vitoria/Gasteiz

JON LANDABURU
CNRS. Paris

ALBERTO LOIZATE
Basurtuko Ospitalea. Bilbo

JUAN MADARIAGA
Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)
Iruñea/Pamplona

JOAN MARTÍ
Institut d'Estudis Catalans, Secció Filològica
Barcelona

JÈP DE MONTOYA
Institut d'Estudis Aranesi. Vielha (Llèida)

ENEKO OREGI
Eusko Jaurilaritza. Vitoria/Gasteiz

JON ORTIZ DE URBINA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

ROSA MIREN PAGOLA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JOSE ANTONIO PASCUAL
Real Academia Española. Madrid

ANDONI SAGARNA
Euskaltzaindia. Donostia/S. Sebastián

IBON SARASOLA
Euskaltzaindia. Donostia/S. Sebastián

ANA TOLEDO
Euskaltzaindia. Donostia/S. Sebastián

MIRIAM URKIA
UZEI. Donostia/S. Sebastián

HANS VAN DER VELDE
Fryske Akademy / Utrecht University. Leeuwarden
(Netherland)

MIKEL ZALBIDE
Euskaltzaindia. Donostia/S. Sebastián

JUAN JOSE ZUBIRI
Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)
Iruñea/Pamplona

Teknikariak: JON ARTZA. *Euskaltzaindia. Bilbo*

IBON USARRALDE. *Euskaltzaindia. Donostia*

ANDREA UNZURRUNZAGA. *Euskaltzaindia. Donostia*

Aholkulariak: JOSEBA ZABALETA eta ERRAMUN OSA. *Euskaltzaindia. Bilbo*

E U S K E R A

IKERKETA ALDIZKARIA

AURKIBIDEA

IKERKETA ARTIKULUAK

- [11-52] *Non gogo, han zangoa?* Demolinguistika aurreikuspenak: hizkuntza-politikaren ibilbidearen oinarriak marrazteko tresna Ipar Euskal Herrian?
ANIN, Amande, MALMOSE, Christian eta BOILLET, Virginie
- [53-80] Ipar Euskal Herriko poesiaren argiak eta itzalak, 1940tik hona
DOLHARE ZALDUNBIDE, Katixa
- [81-123] Arikala: aisialdi antolatua eta euskararen hizkera informala-
ren lanketa hezkuntza-testuinguru formalean
GUIRADO IRASUEGI, Odei
- [125-165] Noketaren hingatzea Ortzaizen
JAUNARENA, Ana
- [167-188] Euskal hizkeren erritmoa
ORMAZABAL, Maddi, BERRO, Ane eta DE LA CRUZ-PAVÍA, Irene
- [189-228] BAM (Baiona-Angelu-Miarritze) eremuko eta inguruetakoko
gazteen euskarazko hizkera arrunta
KINTANA MORCILLO, Maddi

- [229-260] Lagunarteko hizkera langai ikastolan: bi ikasturteko esku-hartzearen inplementazioa eta emaitzak
ALONSO, Idurre, BEREZIARTUA, Aritz, MENTXAKATORRE, Jon eta LASA, Xabier
- [261-301] Hilabeteak: ikuspegi etnolinguistikoa
DIÉGUEZ, Kepa

OHARRAK

- [305-316] De noms, de cognoms i de llengües subordinades
ARGENTER, Joan A.
- [317-337] Ander Manterola Aldekoa: zeanuriztar etnografoari elkarrizketa
MENTXAKATORRE ODRIÓZOLA, Jon

LIBURU AIPAMENAK

- [341-345] *Charrando aragonés. La lengua aragonesa en su Zona de Uso Predominante*
ARTZA, Jon
- [347-353] *Literatura, lengua y lugar. Termodinámica aplicada*
URRUTIA, Andres

Ikerketa artikuluak

Artículos de investigación

Articles de recherche

Research articles

Non gogo, han zangoa? Demolinguistika- aurreikuspenak: hizkuntza-politikaren ibilbidearen oinarriak marrazteko tresna Ipar Euskal Herrian?

**Proyecciones demolingüísticas: ¿una herramienta
de definición y discusión de la política lingüística
en el País Vasco Norte?**

**Projections démologiques: un outil de définition
et de discussion de la politique linguistique en Pays
Basque Nord?**

**Demolinguistic projections: a tool for defining and
discussing language policy in the Northern Basque
Country?**

ANIN, Amande¹

Euskararen Erakunde Publikoa (EEP/OPLB)
a.anin@mintzaira.fr

MALMOSE, Christian²

Euskararen Erakunde Publikoa (EEP/OPLB)
c.malmose@mintzaira.fr

BOILLET, Virginie³

Geografoa
Atlantiko eta Pirinioetako Hirigintza Agentzia (APHA/AUDAP)
v.boillet@audap.org

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2025i70.317>

¹ Ikerkuntza-lan honen lanketa teorikoa, diseinu metodologikoa, datuen azterketa, idazketa eta berrikuspena.

² Ikerkuntza-lan honen lanketa teorikoa, diseinu metodologikoa, datuen azterketa eta idazketa.

³ Ikerkuntza-lan honen diseinu metodologikoa eta datuen azterketa.

Jasotze-data: 2025/01/10

Behin-behineko onartze-data: 2025/06/26

Behin betiko onartze-data: 2025/07/14

Bost urterik behin egiten den inkesta soziolinguistikoa da gaur egun erabiltzen den tresna nagusia, Ipar Euskal Herrian euskararen bizitasuna nolakoa den jakiteko. 2021eko inkesta zazpigarrena dela eta, gaur egun euskalgintzako eragileek eta erabakitzaile politikoeak dute lurraldean euskararen egoeraren bilakaerari buruzko datu-iturri sendo bat, azken 30 urteetan hizkuntza-politika plangintzaren arloan egin diren pausoekin korrelazioan jar daitekeena. Alabaina, gaur egun arte Ipar Euskal Herrian datu soziolinguistikoak ez dira erabiliak izan etorkizuneko hizkuntza-politikaren planifikazioan. Bestalde, prozesu eta dinamika anitzek euskararen biziberritze-prozesuan eragina badute ere, gutxik ematen dizkigute aurreikuspenak, batez ere epe luzean. Demografia da horietako bat. Azterketa-lan honetan, soziolinguistika- eta demografia-datuen uztartze-metodologia proposamen bat egin dugu, hurrengo 25 urteetan Ipar Euskal Herriko euskaldun-kopuru eta -proportzioen bilakaeraren 3 hipotesi eraikitzeko. Hipotesi horiek dituzten muga metodologiko, teoriko eta filosofikoak kontuan hartuz, tresna hori proposatu duen lan-taldearen helburu nagusia izan da, hizkuntza-plangintzaren erabakitzaile eta eragileei tresna gehigarri bat eskura ematea, euskararen etorkizunaren norabideak Ipar Euskal Herrian eztabaidatzeko.

Gako-hitzak: soziolinguistika, demografia, prospektiba, hizkuntza-plangintza, Ipar Euskal Herria.

La encuesta sociolingüística realizada cada cinco años es hoy en día la herramienta principal utilizada para conocer la vitalidad del euskera en el País Vasco Norte. Siendo la encuesta llevada a cabo en 2021 la séptima de este tipo, los actores y los decisores políticos que trabajan en favor de la lengua vasca disponen hoy de una fuente de datos sólida sobre la evolución de la situación del euskera en el territorio, que puede ponerse en perspectiva con las iniciativas emprendidas durante los últimos 30 años en el ámbito de la planificación de las políticas lingüísticas. Sin embargo, hasta ahora, estos datos sociolingüísticos no han sido explotados con fines de planificación de las políticas lingüísticas futuras para el territorio del País Vasco Norte. Por otra parte, si múltiples procesos y dinámicas influyen en el proceso de revitalización del euskera, a día de hoy existen pocas o ninguna herramienta de previsión, sobre todo a largo plazo. La demografía es uno de estos procesos que influyen en la situación sociolingüística, pero poco estudiado desde este ángulo. El trabajo que sigue es por tanto una propuesta metodológica de articulación de los datos sociolingüísticos y demográficos, con el objetivo de construir 3 hipótesis sobre la evolución de la cantidad y de la proporción de vascos hablantes en el País Vasco Norte durante los próximos 25 años. Teniendo en cuenta las limitaciones metodológicas, teóricas y filosóficas de estas hipótesis, el objetivo principal

del equipo que ha trabajado esta herramienta, es poner a disposición de los decisores y actores de la planificación lingüística una herramienta más, que fomente el debate sobre las orientaciones del futuro del euskera en el País Vasco Norte.

Palabras clave: sociolingüística, demografía, prospectiva, planificación lingüística, País Vasco Norte.

L'enquête sociolinguistique réalisée tous les cinq ans est aujourd'hui l'outil principal utilisé pour connaître la vitalité de l'euskara au Pays Basque Nord. L'enquête conduite en 2021 étant la septième du genre, les acteurs et les décideurs politiques oeuvrant en faveur de la langue basque disposent aujourd'hui d'une source de données solide sur l'évolution de la situation de l'euskara sur le territoire, qui peut être mise en perspective avec les démarches entreprises ces 30 dernières années dans le domaine de la planification des politiques linguistiques. Cependant, jusqu'à présent, ces données sociolinguistiques n'ont pas été exploitées à des fins de planification des politiques linguistiques à venir pour le territoire du Pays Basque Nord. Par ailleurs, si de multiples processus et dynamiques influencent le processus de revitalisation de l'euskara, il n'existe à ce jour que peu ou pas d'outils de prévision surtout à long terme. La démographie est un de ces processus influant la situation sociolinguistique pourtant peu étudiée sous cet angle. Le travail qui suit est donc une proposition méthodologique d'articulation des données sociolinguistiques et démographiques dans le but de construire 3 hypothèses d'évolution du nombre et de la proportion de bascophones au Pays Basque Nord sur les 25 prochaines années. En tenant compte des limites méthodologiques, théoriques et philosophiques de ces hypothèses, l'objectif principal de l'équipe ayant travaillé cet outil est de mettre à disposition des décideurs et acteurs de la planification linguistique un outil parmi d'autres, pour nourrir le débat sur les orientations de l'avenir de l'euskara au Pays Basque Nord.

Mots-clés : sociolinguistique, démographie, prospective, planification linguistique, Pays Basque Nord.

The sociolinguistic survey conducted every five years is today the main tool used to assess the vitality of Basque language in the Northern Basque Country. With the 2021 survey being the seventh of its kind, actors and political decision-makers working in favor of the Basque language now have a solid data source on the evolution of Euskara's situation in the territory, which can be put into perspective with the initiatives undertaken over the past 30 years in the field of linguistic policy planning. However, until now, these sociolinguistic data have not been exploited for the purpose of planning future linguistic policies for the Northern Basque Country territory. Furthermore, while multiple processes and dynamics influence the revitalization process of Euskara, there are currently few or no projection tools, especially for the long term. Demographics is one of these processes that influences the so-

ciolinguistic situation, yet it remains little studied from this angle. The work that follows is therefore a methodological proposal for articulating sociolinguistic and demographic data with the aim of constructing 3 hypotheses for the evolution of the number and proportion of Basque speakers in the Northern Basque Country over the next 25 years. Taking into account the methodological, theoretical, and philosophical limitations of these hypotheses, the main objective of the team that developed this tool is to provide decision-makers and actors in linguistic planning with one tool among others, to serve the debate on the future directions of Euskara in the Northern Basque Country.

Keywords: sociolinguistics, demography, prospective, language planning, Northern Basque Country.

ANIN, Amande, MALMOSE, Christian eta BOILLET, Virginie (2025). «Demolinguistic projections: a tool for defining and discussing language policy in the Northern Basque Country?», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 70 (2): 11-52.

1. Sarrera
 - a) Demolinguistikaren arloan kokatu nahi den lana
 - b) Hizkuntza-politikaren planifikazioari lotutako azterketa-lana
 - c) Hizkuntza-gaitasuna, azterketa demolinguistikoaren eta hizkuntza-plangintza-ren adierazle: interesak eta mugak
 - d) Ipar Euskal Herriko demografia espezifikoaren ezagutza egokiaren garrantziaz
 - e) Testuinguru teorikotik azterketa-galderetara
2. Metodologia
 - 2.1 Lehen fasea: 2050erako euskaldun-kopuru eta -proportzioen estimazioaren prestaketa metodologikoa (gaurko egoeran oinarritua, «ahalegin egonko-rren» hipotesia)
 - 2.1.1 Lanaren oinarriak eta tresnak
 - 2.1.2 Lan-oinarrien egokitzea: nola komunikarazi tresna demografikoa eta tresna soziolinguistikoa?
 - 2.1.3 2022ko euskaldunen estimazioa: eredu-oinarriaren eraikitzea
 - 2.2 Bigarren fasea: garapen-hipotesiak eta euskaldunen proportzioak 2050. epemuga-urtean
3. Emaizak
 - 3.1 Lehen fasearen emaitzak: euskaldun-proportzioen estimazioa 2050. epemuga-urtean
 - 3.2 Bigarren fasearen emaitzak: perspektibetatik plangintza soziolinguistikora (hipotesi alternatiboak eta horien inplikazioak)
4. Eztabaida

Bibliografia

1. Sarrera

Mendebaldeko gizarte guztiek aldaketa demografiko garrantzitsuei aurre egingo diete datozen bi hamarkadetan, eta Ipar Euskal Herriko lurraldea ez da salbuespena. Aldaketa demografikoek eragin nabarmena dute lurralde baten egoera soziolinguistikoan. Hizkuntza-politikaren etorkizuneko beharrei buruzko ebaluazio-lan baten esparruan, Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) lurraldeko egoera demografikoaren berezitasunak, etorkizuneko aldaketak eta horrek Iparraldeko euskararen egoeran izan ditzakeen ondorioak galdekatu ditu.

Horretarako, EEP, Atlantikoko eta Pirinioetako Hirigintza Agentziarekin (APHA) elkarlanean aritu da, 2050erako egoera soziolinguistikoaren bilakaera posiblearen inguruko hipotesiak ezartzeko eta garapen-eszenatokiak lantzeko, aferaren eragile-erabakitzaileei zuzendutako ibilbide-oinarriak marrazteko gisan.

Azterketa-lan honetan proposatutako proiektzio-ereduak APHA agentziak eta Bordeleko Unibertsitateko Demografia Institutuak (IEDUB) lankidetzan eraikitako proiektzio demografikoetan eta hizkuntza-gaitasunari buruzko datu soziolinguistikoen uztartzean oinarrituak dira. Lan hori testuinguru jakin baten barnetik abiatu zen, ez ikerketa-galdera soil batetik, baizik eta erabaki publikoak hartzen dituztenen eskaera batetik, norabide politiko zehatzak hartzeko asmoz.

Nahiz eta azterketa hau Ipar Euskal Herriari berezitutako hein honetako lehen demolinguistika-prospektiba proposamena izan, irakurlearen zuhurtasunari dei egin nahi zaio azterlan honen testuinguruak bere irismena baldintzatzen duelako. Hain zuzen ere, lan honen helburu eta interes nagusia hizkuntza-politikaren alde egin beharreko norabide nagusien identifikazioan laguntzea eta etorkizuneko ikerketa eta ebaluazioak sakontzeko aukeren aztertzean kokaturik dago.

Lan honen ekarpenak eta mugak hobeto ulertzeko asmoz, lehenik eta behin, soziolinguistikaren eta demolinguistikaren testuinguru teorikoan ezarriko dugu lana bera.

a) Demolinguistikaren arloan kokatu nahi den lana

XX. mendean hizkuntzen kontaketa edo errolda instituzionalizatuaren garapen nabarmenak, estatistika-tresnen bidez, jakintza- eta ikerketa-alor espezifikoek sorrera ahalbidetu du. Horien artean demolinguistika; horrek demografia- eta hizkuntza-datuaren arteko gurutzaketatik abiatuta analisi makrosoziolinguistikoak egiteko helburua du (Humbert, Coray eta Duchêne 2018).

Demolinguistikaren definizioak askotarikoak baldin badira ere, UZEI (2010) erakundeak emandakoa atxikiko da hemen, hots: «Hizkuntza baten egoera soziolinguistikoaren eta hiztunen ezaugarri demografikoen arteko harremana aztertzen duen diziplina».

Nahiz eta diziplina hau XX. mendean agertu den, ez da soziolinguistikaren arloan garapen handiena izan duen diziplina, ezta urrundik ere. Iurrebasok (2023) dioten bezala bere tesian, hainbat ikerlari aipatuz —De Vries, besteak beste—, arlo honetako literatura zientifikoa nahiko urria da.

Hemen aurkeztu diren lanen helburua, arlo zientifiko honetan ezagutza berria sortzea baino, norabide politikoak argitzea izan baldin bada ere, planteatu dituen galderen bitartez, demolinguistikaren esparruan kokatutako lan gisa har daiteke. Azterlan honen berritasunak, epe ertain eta luzeko prospektiben eraikitze helburua duen datu soziolinguistiko eta demografikoen erabileran oinarria du. Izan ere, orain arte Euskal Herrian hizkuntzari lotutako estatistikak batez ere gaitasunaren eta erabileraren bilakaerak lurraldeka eta adin-tarteka neurtzeko erabiliak izan badira, demolinguistika, hemen aurkeztutako lan honek esparru horretan paratzea onartzen bada, ez da sekula erabilia izan planifikazio soziolinguistiko helburuarekin, gutxienez Ipar Euskal Herrian.

Izan ere, metodologia-atalean aztertuko den bezala, hemen jaso diren lanak ezaugarri demolinguistiko jakin batzuen eta irizpide soziolinguistiko bakar baten (hizkuntza-gaitasuna) arteko loturaren azterketara mugatzen dira.

b) **Hizkuntza-politikaren planifikazioari lotutako azterketa-lana**

Maheurentzat (1985), ikerketa demolinguistikoek lurralde bereko hizkuntza-taldeen ezaugarri demografikoak alderatzea helburu izanki, ezin zaio demolinguistikari funtsezko dimentsio politikoa ukatu.

Izan ere, Humbert, Coray eta Duchêne (2018) azpimarratu zuten beza-la, herri anitzetan estatistika linguistikoak interes politikoak betetzeko erabiltzen dira, baina erabilpen horien helburu zehatzak eta ondorioak oso aldakorak izan daitezke munduko leku batetik bestera, juridikoak, finantzarioak edo lurralde-antolaketari lotutakoak baitira.

Herrialde batzuetan, hala nola 1930eko hamarkadan Belgikan, hizkuntza-estatistikak hizkuntzaren arabera lurralde-antolaketak kudeatzeko erabiliak izan ziren; beste leku batzuetan, Kanadan esate baterako, hizkuntzei buruzko legeak sortzeko abiapuntu izan ziren (*Ibidem*: 41). Beste herri batzuetan, hizkuntzen kontaketa hizkuntza gutxituen babesaren aldarrikapenaren barne garatzen da eta estatistikak argudio-oinarri gisa erabiliak dira, babes eta zaintza hobeago baten alde. Zentzu horretan, XX. mendean zehar, «arriskuan» diren hizkuntzen inguruko estatistikak asko garatu dira.

Hizkuntza-estatistiken erabileraren adierazletariko bat da hein edo kuoten erabilera eztabaida publikoan. Humbert eta besteren arabera (2018), egiteko manerak oso desberdinak dira, hein horien erabileraren helburuaren, hautatutako adierazleen (adibidez, hiltunen ehunekoa edo lehen hizkuntza jakin bateko hiltunen ehunekoa) edo erabilitako heinen arabera. Kasu batzuetan, heinak hizkuntza-eskubideak bermatzeko erabiliak dira, beste kasu batzuetan lurralde soziolinguistikoak definitzeko edo politikaren eta zerbitzu publikoen antolaketarako (adibide gisa, gobernu galesak argitaratutako *Cymraeg 2050: A million Welsh speakers* lana). Kanadaren kasua berriro aipatzeko, «lortu beharreko» hiltunen gutxieneko heinak desberdinak izaten dira probintziatik probintziara, baina ere lurralde berdin baten barruan (*Ibidem*: 45).

Eragile guztiek erabil dezaketen tresna baita, erakunde publikoetakoak zein gizarte zibilekoak izan, estatistika linguistikoak eta bereziki demolinguistikak dimentsio politikoa dakar. Euskara ez da salbuespena eta harago

joanik, Urlak (2018) azpimarratu zuen bezala, hizkuntzaren gizarte-egoeraren inguruko eztabaida publikoan, hizkuntza-estatistikaren erabileraren kasua nahiko adierazgarria da.

Hein edo kuotei dagokienez, Ipar Euskal Herria ez dago horretatik at. Gaur egun, erabaki publikoak hartzen dituztenek hein edo kuotak ez dituzte erabiltzen hizkuntza-politikaren planifikazioan; aldez, lurraldeko gizarte zibilaren parte batek —batez ere euskalgintzako eragileek— aipatuak ditu eztabaida publikoan. Kasu zehatz honetan, hein eta kuoten erabilera euskararen babesa edo biziraupena lortzeko diskurtsoaren barne sartzen da Ipar Euskal Herrian, legitimatutako eta zabaldutako heina % 30ekoa delarik eta lehentasunezko adierazlea euskaldunen ehunekoa delarik (Euskal Konfederazioa 2023; Thommen 2023). Emaizten atalean hurrengo garatuko den bezala, eta ikuspegi honek eskatzen dituen zuhertasun eta mugei helduko badiugu ere, aurkeztuko den lana azken urteotan Ipar Euskal Herriko hizkuntza-egoerari buruzko eztabaida publikoan nabarmendu den argudiaketaren jarraipenean eraikia izan da.

c) Hizkuntza-gaitasuna, azterketa demolinguistikoaren eta hizkuntza-plangintzaren adierazle: interesak eta mugak

Lehenago erran bezala, lurralde jakin bateko egoera soziolinguistikoa aztertzeko erabiltzen diren aldagaiak askotarikoak badira ere, hizkuntza-gaitasuna intereseko aldagai garrantzitsua da herrialde askotan (Humbert, Coray eta Duchêne 2018). Ipar Euskal Herriari dagokionez, gaitasuna da, erabilerarekin batera, euskarak lurraldean duen bizitasunaren neurtzeko aldagai nagusia, eta hiztunen ehunekoaren adierazlea erabiliz adierazten da. Arriskuan dauden hizkuntzen estatistikaren garapenaren jarraipenean, adierazle horri eztabaida publikoan emandako garrantzia ia erabat, gizarte zibilak eta politikoak UNESCOko aditu-taldearen lanari begira lortutako kontsentsuan oinarriturik dago (Euskal Konfederazioa 2023). Nolanahi ere, ondoren azalduko den moduan, adostasun horrek, nahiz eta zilegitzat jo daitekeen, iturri bakarrera mugatzeaz gain, aditu-taldeak proposatutako erreferentzia-markoaren irakurketa makur bati erantzuten dio.

Izan ere, UNESCOk 1992an munduan arriskuan zeuden (eta dauden) hizkuntzei buruzko lan sistematikoa hasi zuen, lehenik eta behin tokiko aditu desberdinen txostenak bilduz eta 1993an *Arriskuan dauden Hizkuntzen Liburu Gorria* argitaratuz, eta gero, 1994an, Tokioko Unibertsitatean bere ikerketa-zentro dedikatua sortuz (*International Clearing House for Endangered Languages*), eta handik bi urtera, 1996an, *Arriskuan dauden Munduko Hizkuntzen Atlas*a lanaren lehen bertsioa argitara emanez. 2001eko azarotik 2003ko martxora, hizkuntzalari eta hizkuntza-defendatzaile batzuek osatutako talde bat —UNESCOekin— lankidetzan aritu zen, hizkuntzen bizitasuna ebaluatzeko sistema bat sortzeko helburuaz; 9 faktore biltzen dituen norabide-multzo bat definitu zuten. Faktore bakoitza 0tik 5erako eskalan ebaluatzea proposatu zen (UNESCO 2003). Faktore horietako bat hiztunen ehunekoa da. Atlasaren hirugarren argitalpenaren ondotik 2010ean, UNESCOk bere bide-orria aurkeztu zuen 2016an, eta 2021ean abian jarri zuen online tresna (UNESCO 2010 eta 2021). Gobernuek, erakunde publikoek eta komunitate akademikoek dokumentutako 8.324 hizkuntza (zeinetatik 7.000 inguru oraindik erabiltzen diren) biltzen dituen atlas horretarako, hizkuntzaren bizitasuna ebaluatzeko 35 deskribatzailez osatutako algoritmoa garatu da, hiru garrantzi- edo lehentasun-mailaren arabera sailkatutakoak. Lehentasuneko edo garrantzi handiko deskribatzaileen artean, sistemak honako hauek proposatu ditu: hiztun-kopurua, hiztunen ehunekoa biztanleria osoari begira, baina ere hizkuntzaren estatusa, erabiltzaileen ehunekoa erreferentziazko komunitatearen barnean, belaunaldien arteko hizkuntza-erabilera, hizkuntza-gaitasuna, dimentsio soziogeografikoa eta dimentsio funtzionala (alegia, hizkuntza zein gizarte-eremutan erabilia den galdekatuz) (UNESCO 2021).

UNESCOk eratutako ereduak hizkuntzen bizitasunaren analisi multifaktoriala egitea eskatzen du, hiztunen ehunekora mugatu gabe. Bestalde, ebaluazio-sistema honen sortzaile diren adituek azpimarratu dute, hizkuntza-komunitateen esku dagoela eredu horretaz jabetzea eta beren hizkuntzaren biziberritzearen laguntzeko egokienak diren palankak hautatzea (UNESCO 2010). Ildo horretan gaudelarik, eta lehenago aipatu bezala, UNESCOren erreferentziak Ipar Euskal Herrian duen nolabaiteko adostasun sozialarengatik, hiztunen ehunekoan oinarritutako prospektiba-tresna bat sortzeak,

erabaki politikoak hartzen dituztenen eta gizarte zibilaren arteko elkarriketarako lanabesa eskaintzeko aukera ematen du.

Zilegitasun sozialaren argudioaz harago, nagusiki hiztunen ehunekoan oinarritutako tresna baten hautua eskuragarri diren datuen arabera ere bada. Izan ere, euskaldunen tasa inkesta soziolinguistikoa den euskararen egoera neurtzeko tresnaren osagai nagusia da eta, beraz, proiektzio-eredu baten eraikitzeak erraz eskura daitekeena.

Azkenik, UNESCOko adituek identifikatu bezala, Ipar Euskal Herriko euskararen bizitasuna ezin da hiztun-tasaren adierazle bakarrera mugatu eta ikuspegi konplexuago baten beharra dago. Hala eta guztiz ere, euskaldunen ehunekoak intereseko adierazlea izaten segitzen du, hizkuntza-azterketarako nahi-planifikaziorako.

Hiztunen kontzentrazio geografikoa hizkuntza gutxituaren epe luzerako bizitasunaren aldeko faktorea dela zalantza gabekoa da, familia bidezko transmisioan, ikaskuntzan eta erabilera-dinamiketan eragina izanez (Templin, Wickstrom eta Gazzola 2018). Hiztunen ehunekoak, beraz, eragina du euskarak gizartean duen presentzian, alde batetik, bere «normalizazio sozialean» eta bestetik, bere praktika-aukeretan (*Ibidem*). Hizkuntzaren erabilerrako aukera konkretu gehiago ahalbidetzen duen estatus sozial «normalizatu» horrek, eragina izan dezake hizkuntzaren bizitasuna baldintzatzen duten beste faktore batzuetan, hala nola hiztunen hizkuntzarekiko jarreran, hizkuntza erabiltzeko motibazioan («erabiltzaileen ehunekoa erreferentziazko komunitatearen barnean») eta ikasteko motibazioan («hezkuntza-emaitezak»), etab. Azken finean, hiru faktore horien aktibazioak potentzialki eragina izan dezake hiztunen gaitasunean. Laburbilduz erran dezagun, soziolinguistikak agerian uzten dituen elkar lotutako dinamika konplexuak onartuta, erabilerak gaitasun eta motibazio handiagoak sor ditzakeela eta horrek, *feedback loop* baten bidez, erabilpenaren handitzean eragina izan dezakeela (Civico eta Grin in Gazzola, Templin et Wickstrom 2018). Hizkuntza-politikak abiarazi behar duen biziberritzearen «gurpil bertutetsua» da hori. Ondoren aurkeztuko dugun prospektiba-ereduaren helburua ez da dinamika konplexu horien funtzionamenduaren eredu matematiko zehatzik baztertzea edota proposatzea. Hala ere, hiztunen ehunekoa adierazle nagusi

si baina ez bakar gisa hartzen du, hurrengo urteetako egoera soziolinguistikoaren bilakaeraren berri emateko.

d) Ipar Euskal Herriko demografia espezifikoaren ezagutza egokiaren garrantziaz

Inkesta soziolinguistikoa aldi berean egiten bada ere euskararen hiru lurraldeetan, azterketa-helburu eta ardatz metodologiko berberekin, hala eta guztiz ere, lurralde bakoitzak berezko dinamika demografikoak ditu. Prospektiba-ikerketa bat gauzatzea justifikatuta zegoen, bere garapenerako hain mesedegarria ez zen estatus juridiko-politiko batez harago, Ipar Euskal Herriko euskararen egoeraren bilakaera lurralde horretako dinamika demografikoek bereziki eragina izan zezaketelako ideiarekin. Nafarroako Gobernuak eta Euskal Autonomia Erkidegoak ez bezala —zeinek estatistika erakunde propioak dituzten (NASTAT eta EUSTAT), beren lurraldeko egoera sozio-demografikoari buruzko ezagutza zehatza izateko eta sortutako datuak publiko orokorrari eskura jartzeko (<https://www.eustat.eus> eta <https://www.nastat.navarra.es>)—, Euskararen Erakunde Publikoak ez du orain arte antzeko tresnarik izan bere jardun-eremuko biztanleriaren ezaugarriak ulertzeko eta ezagutzeko. Hala, APHAk eta IEDUBek egindako lanaren lehen onura izan da Ipar Euskal Herriko lurraldearen berezko ezaugarri demografikoak hobeto ulertzea, bai eta etorkizuneko bilakaeraren aurreikuspenak egitea ere.

→ Hazkunde azkarreko eta itsasertzean kontzentratutako biztanleria

Lehen ezaugarri demografiko nabarmena lurraldearen hazkunde-tasa azkarra da: Ipar Euskal Herriko biztanleriak 3.000 biztanle irabazi ditu urtero 2010. eta 2021. urteen artean, urteko batez besteko hazkunde-tasa % 0,96 izanik, azken 6 urteetan bizkortuta. Datozen 25 urteetan, ordea, hazkunde demografiko hori anitz motelduko da, eta % 0,41 ingurukoa izanen da 2040. eta 2050. urteen artean. Biztanleriaren hiperkontzentrazioa Lapurdin —eta zehazkiago mendebaldeko kostaldean— delarik (biztanleria osoaren % 73,7 bilduz), Ipar Euskal Herriaren ezaugarri demografikoetariko bat da. Biztanleen irabaziaz ere ia Lapurdin bakarrik dira (% 99) (APHA eta IEDUB 2024).

→ *Adineko biztanleria eta zahartze-prozesua oraindik bidean*

Hurrengo azalduko den bezala, biztanleriaren adinaren arabera egituraren azterketa da etorkizuneko bilakaera demografikoak ulertzeko gakoe-tako bat, bai eta euskararen egoeran duten eragina ulertzeko ere. Lurraldeko biztanleria nahiko zaharra da, izan ere, adinekoek (65 urte eta gehiagokoak) biztanleriaren laurdena osatzen dute. Konparaketa gisa, 2023an EAEn, biztanleriaren % 23 ziren eta Nafarroan, % 20 (Euskararen Adierazle Sistema 2024). Azken 10 urteetan, Ipar Euskal Herriak 17.600 adineko irabazi ditu eta horietako 4.000, 85 urtetik gorakoak dira. Alderantziz, 15-24 urte bitarteko gazteen proportzioa txikia da, belaunaldi-berrizt-penerako erronka sortuz hurrengo 10 eta 20 urte arteko epean. 40-64 bitarteko belaunaldia, aldiz, proportzio handian dago, eta hori ere biztanleriaren zahartze-prozesuaren gako bat izanen da datozen 20 urteetan. 2020an, zahartze-indizea⁴ 1,23koa izan zen eta 2050ean, 2,01ez igoko dela aurreikusten da. Bestela erranik, adinekoek gazteak baino bi aldiz gehiago izanen dira 2050ean (APHA 2023). Azkenik, azpimarratzekoa da, biztanleriaren oraingo eta etorkizuneko zahartze-prozesu hori ez dela intentsitate berean ageri Iparraldeko lurraldeen arabera: askoz nabarmenagoa da Nafarroa Beherean eta Zuberoan, Lapurdiko itsasertzean baino. Adibide gisa, Lapurdin adin-talde guztiak emendatu ziren 2009. eta 2020. urte artean (65 urte eta gehiagokoentzat proportzio askoz handiagoetan bada ere), Nafarroa Beherean eta Zuberoan 20-49 urte bitarteko biztanleak galdu dira ber garaian (APHA eta IEDUB 2024).

→ *Migrazio-saldoak eragindako populazioaren hazkundera*

Faktore bakarra ez bada ere, adinaren arabera egiturak biztanleriaren saldo naturalean eragina du. Hau negatiboa da HTHP⁵ guztietan eta azken hamarkada osoan. Joera hori areagotu egingo da mekanikoki, adinekoen kopuruaren handitzearekin batera (eta beraz, heriotza-kopuru handiagorekin) eta ugalketa-adinean diren emazteen kopuru txikiagoarekin.

⁴ Zahartze-indizea 65 urte eta gehiagoko biztanleriaren eta 20 urte baino gutxiagoko biztanleriaren arteko aldeari dagokio.

⁵ Herri arteko tokiko hirigintza plana.

Ondorioz, Ipar Euskal Herriko populazio-hazkundera migrazio-saldoak eraman du azken urteetatik. Hala ere, migrazio-saldo hori ez da modu berean ageri lurralde guztietan, eta batez ere adin-tarteen arabera begiratzeko bada. Izan ere, azterketak aurrerago sakonduko duen bezala, adin-tarte gazteenak oso mugikorrak dira (bereziki goi-mailako ikasketengatik, edo enplegu-aukera eskasarengatik arlo berezi batzuetan Ipar Euskal Herrian), eta horrek migrazio-saldo negatiboa du ondoriotzat, kategoria horietan. Faktore horrek ere populazioaren zahartze-dinamikaren indartzean parte hartzen du.

e) Testuinguru teorikotik azterketa-galderetara

Eraikitako metodologiak eta aurkeztuko diren emaitzek, beraz, honako galdera hauei erantzutea izanen dute helburu:

- i) 2021eko inkesta soziolinguistikoaren datuetan eta demografia-proiektzioei buruzko ezagutzetan oinarrituz, zein aurreikuspen egin ditzakegu 2050. epemuga-urtean euskaldun-kopuru eta -proportzioei begira?
- ii) Irakaskuntzaren eta helduen euskalduntzearen datu historikoetan oinarrituta, zer garapen-hipotesi eraiki daitezke 2050. urterako?

Lehen aipatutako elementu demografikoen irakurketaz erran bezala, gogorazi behar da, aurkeztutako emaitzak Ipar Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren etorkizun posiblearen ibilbide gisa irakurri eta interpretatu behar direla, eta ez ziurtasun gisa.

2. Metodologia

2.1 Lehen fasea: 2050erako euskaldun-kopuru eta -proportzioen estimazioaren prestaketa metodologikoa (gaurko egoeran oinarritua, «ahalegin egonkorren» hipotesia)

Lanaren lehen fasean, 2022-2050 urte-epaaldiko euskaldun-kopuru eta -proportzioen estimazioa 4 urteko tarteetan egin da, 2021eko inkesta

soziolinguistikoaren emaitzetatik (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa 2021) eta prospektiba demografikoetatik abiatuz (APHA eta IEDUB 2023). Lehenik, 2021eko inkestatik eratorritako gaitasun-tasak epealdiaren hasierako adin-tarteen araberrako populazio-estimazioei aplikatu zaizkie. Ondotik, aztertutako 7 denbora-tarteetako tasak (2022tik 2050era) estrapolatuak izan dira, sortze-urte bereko populazioei 2021eko inkestaren unean zituzten euskaldun-tasak denboraldi batetik bestera ekarriz. Hori egin baino lehen, egokitzapenak egin dira bi datu-iturrien arteko elkarreki-kotasuna ahalbidetzeko. Ondotik azaldu ditugu metodologiaren elementu nagusiak.

2.1.1 Lanaren oinarriak eta tresnak

a) Inkesta soziolinguistikoa

Inkesta soziolinguistikoa 5 urterik behin egiten da 1991etik aurrera, euskararen lurralde guztietan, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako lurraldean eta Ipar Euskal Herriko lurraldean. Inkestak honako helburu hauek ditu: hizkuntzaren bizitasuna eta bilakaera erregulariki segitzea eta hizkuntza-politikaren norabidean argi egitea (EEP 2023). Inkesta soziolinguistikoak lau esparru neurtzen ditu: hizkuntza-gaitasuna, hizkuntzaren transmisioa, hizkuntzaren erabilera eta euskararen erabileraren sustatzeari buruzko jarrera.

Ipar Euskal Herrian, 16 urte eta gehiagoko 2.000 biztanleko laginari zuzendutako telefono bidezko galdetegi baten bidez biltzen dira datuak.

Lagina generoaren, adin-tartearen eta lurralde soziolinguistikoaren arabera osatua da (Iparraldean hiru lurralde soziolinguistiko kontuan hartzen dira: Baiona-Angelu-Biarritz, Lapurdi —BAB kanpo—, eta Nafarroa Beherea eta Zuberoa bateratuta) eta INSEEn biztanleria-datuetan oinarritua da. Azken inkestari dagokionez (2021ekoa), laginketa-lanak egiteko, erabilitako biztanleria-datuak 2016koak izan ziren (ikus hurrengo).

b) Prospektiba demografikoak

Prospektiba demografikoei buruzko DataLab esparruaren barnean, Atlantikoko eta Pirinioetako Hirigintza Agentzia (APHA)⁶ Bordeleko Unibertsitateko Ikerketa Demografikoen institutuarekin (IEDUB) lankidetzan ari da 2050. urteari begira, Akitania hegoaldeko lurraldeetan bizi diren populazioak estimatzeko. IEDUB institutuak erabilitako metodoek INSEEn Omphale ereduaren (INSEE 2021) printzipio nagusiak berriaz hartzen dituzte, parametro batzuk hobetuz, besteak beste, 50.000 biztanle baino gutxiagoko eremuetakoa emaitzak aurkeztu ahal izateko.

IEDUBekin duen lankidetzak APHARI aukera ematen dio Ipar Euskal Herriko zonalde guztietarako (Lapurdi mendebaldeko kostaldea, Lapurdi ekialdea, Amikuze, Zuberoa eta Nafarroa Beherea) 2050erako populazioen estimazioak izateko. Emaitzak 2018-2050 urte-epealdian aurkezten dira, 4 urteko tartee-tan, dinamika naturalen (jaiotzen eta heriotzen arteko desberdintasunak) eta migrazio-dinamiken (etorreren eta irteeren arteko desberdintasunak) zehaztapenekin. Proiektzio demografikoak ugalkortasunaren bi hipotesitan oinarrituta daude: «ugalkortasun apala» (1,6 haur emakumeko) eta «joerazko ugalkortasuna» (1,8 haur emakumeko) hipotesietan, hain zuzen ere. Lehen ugalkortasun-hipotesia Pirinio Atlantikoetako departamenduko ugalkortasun-tasatik hurbilena baita, horixe hautatu da lan-oinarri gisa.

2.1.2 Lan-oinarrien egokitzea: nola komunikarazi tresna demografikoa eta tresna soziolinguistikoa?

a) Inkesta soziolinguistikoaren eta proiektzio demografikoen zonaldeen bateratzea

Bi datu-iturriek, inkesta soziolinguistikoak eta proiektzio demografikoek, zona demografiko desberdinekin dihardutenek, bi lan-oinarriak bateratu ditugu hurrengo «giltzaren» arabera.

⁶ APHaren zeregina da herriak eta elkargoa laguntzea beren proiektu eta politika publikoen definitzean eta obratzean. APHAk gogoeta prospektiboak sustatu, diagnostiko eta ikerketa tematikoak egin (etxebizitza, ekonomia, ingurumena, mugikortasuna...) eta hirigintza- eta plangintza-dokumentuen lanketan parte hartzen du.

1. taula. Inkesta soziolinguistikoaren eta proiektzio demografikoen zonaldeen bateratzea

	Inkesta soziolinguistikoaren lurraldeak	Proiektzio demografikoen lurraldeak
LAPURDI	Baiona-Angelu-Biarritz Lapurdi (BAB gabe)	Lapurdi Mendealdeko Itsasertza Lapurdi Ekialdea
BARNEALDEA	Nafarroa Beherea / Zuberoa	Amikuze, Zuberoa Nafarroa Beherea

Inkesta soziolinguistikotik ateratako tasak, beraz, bi lurralde handi hauen eskalan birkalkulatu dira: Lapurdi eta (Ipar Euskal Herriko) Barnealdea.

b) Inkesta soziolinguistikako biztanleriaren (unibertsoa) egokitzea

2004az geroztik, INSEEk urteko inkestak (partzialak) egin eta urtero populazioaren estimazioak argitaratzen ditu, 5 urtez bildutako informazioetik abiatuz («milesimak» deitutakoak). Errolda partzial horiek lehen aldiko 2006an egin ziren (2004-2008. urte bitarteko inkestetan oinarritua) eta 2009an argitaratu. Ordutik hona, hurrengo urteetako emaitzak urtero ekoizten eta zabaltzen dira, hiru urteko atzerapenarekin argitalpen-dataren eta informazioaren baliozkotasun-urtearen artean.

Horren ondorioz, soziolinguistika-inkestan euskaradunen eta euskara ulertzen dutenen kopurua kalkulatzeko erabili diren populazio-datuek inkesta soziolinguistikoen urteetako datuak baino lehenagoko fidagarritasuna dute. Ondorengo taulak denbora-desfase hori erakusten du 2016ko eta 2021eko inkestetarako.

Ipar Euskal Herriko azken 10 urteetako hazkunde demografikoa ikusita, 2021eko inkesta soziolinguistikako populazio-bolumenak nabarmen gutxie-tsiak dira eta ondorioz, euskaldunen kopuruak ere bai. Ondotik aurkeztutako lana hasterakoan, INSEEn 2021. urteko datuak argitaratuak zeuden, eta hortaz, populazio horiek kontuan hartzea erabaki zen. Egokitzapen horrek euskal-

dunen kopuruaren goranzko zuzentzea eragiten du, gaitasun-tasak biztanleria-bolumen handiagoei aplikatzen zaizkielako. Era berean, Ipar Euskal Herriko «azpilurraldeetako» populazio-dinamikak kontuan hartuta (Lapurdiko erakar-garritasun handia vs Barnealdeko populazio-galerak), euskaldunen banaketa lurralde soziolinguistikoen artean ere aldatu egiten da. Horren arabera, beraz, Lapurdiko euskaldun-kopuruaren goranzko joera berrikusia izan da.

Egokitu diren euskaldun-populazio horiek izan dira ondoren azterlanaren abiapuntu-urteko (2022) euskaldun-populazioak kalkulatzeko oinarria (ikus hurrengo).

2. taula. INSEE datuen argitalpenaren eta inkesta soziolinguistikoetarako erabiltzen diren azterketa-populazioen arteko aldea (16 urte eta gehiagoko biztanleria)

urtea, INSEE iturria	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
BAB	99 554	100 354	101 713	102 499	102 383	103 094	104 620	106 121	107 510	108 441	109 663	
Lapurdi BAM gabe	109 688	111 072	113 309	114 315	115 557	117 143	118 614	119 816	121 541	123 328	125 553	
Barnealdea	32 449	32 507	32 464	32 540	32 591	32 552	32 625	32 556	32 525	32 585	32 718	
Ipar Euskal Herria	241 691	243 933	247 486	249 354	250 531	252 789	255 859	258 493	261 576	264 354	267 934	
urtea, inkesta soziolinguistikoa							2016					2021
BAB							102 216					104 384
Lapurdi BAM gabe							114 548					118 956
Barnealdea							32 676					32 597
Ipar Euskal Herria							249 440					255 937

N.B.: 2021eko inkesta soziolinguistikoaren kasuan, laginketa-plana bidali zitzaion EEPri 2020. urte bukaeran, hala nola une horretan eskuragarri ziren datuetan oinarritutakoa.

c) Populazioen birbanaketa egokitutako adin-tarteen arabera

Inkesta soziolinguistikoek agerian uzten dute adin-faktorearen garrantzia euskara-gaitasunari buruzko datuen irakurketan: euskaldun-kopuru eta **euskaldun-ehunekoak**, eta batez ere denboran zehar izan dituzten bilakaerak.

Adibidez, 65 urte eta gehiagokoen populazioak dira beti euskaldun-tasarik handienak dituztenak, batez ere Barnealdeko lurraldeetan. Alta, 2016ko eta 2021eko inkesten artean, tasa horiek nabarmenki egin dute behera. Alde batetik, 80 urte eta gehiagokoak emeki desagertzen, hiltzen ari baitira,

eta bestetik 50-64 urtekoen adin-tarteak euskaldun-tasa apalagoak dituztelako; eta tasa horiek biztanleriaren zahartzea segitzen dute (edo bestela errateko, zahartzerakoan, adin-tarte horrek «apalarazi» egiten du adin-tarte zaharrenaren euskaldun-tasa). Halaber, populazioaren bilakaera «naturalak» euskaldunen tasa jaisten du zaharrenen artean, Barnealdean zein Lapurdin.

Populazio gazteenak (16-34 urte bitartekoak), neurri batean inkesta berri bakoitzeko «sartu berriei» dagozkie (16-20 urte bitartekoak). Berri horiek gaitasun-tasa txikiagoak dituzte baina progresio etengabea inkesta batetik hurrengora. Hala ere, adin-tarte hori bi azpiadin-tartetan bereizten den heterogeneotasun batez ezaugarritzen da, honako bi populazio-profil desberdin hauen bidez deskribatzen ahal dena: bigarren mailako hezkuntza-ibilbidearen amaieran diren gazteak, alde batetik eta gazte aktiboak, beste aldetik, goi-mailako formakuntzan, lan bila edo lanean dihardutenak, alegia. Bi populazio edo azpiadin-tarte horiek, motibazio desberdinengatik eta proportzio desberdinetan, oso mugikorrak dira: parte esanguratsu bat Ipar Euskal Herriatik ateratzen da goi-mailako ikaskuntzak segitzeko edo lana aurkitzeko beste toki batean. 2020-2021. urte bitartean, Ipar Euskal Herriko populazioen mugikortasunaren azterketak erakutsi digu, kanpora joaten ohi direnen % 11,6, 15-19 urte bitartekoak direla eta ateratzen ohi direnen % 19,3, 20-24 urte bitartekoak. Adin-tarte hori da, beraz, lurraldetik irteten den jario nagusia (urtean 1.700 lagun inguru) (APHA 2024 eta INSEE 2021). Hala, populazioaren adin-tarteen araberako etorreren eta irteeren arteko desberdintasunak zenbatuta, Ipar Euskal Herriak 15-19 urte bitarteko gazteak galtzen ditu (adin-kategoria horretatik ateratzen direnen % 80 ikasleak dira, beraz, oso adin-tarte mugikorra da). 20-24 urte bitarteko gazteek, aldiz, migrazio-balantze neutroa dute. Ateratzen ohi diren 20-24 urte bitarteko horietako batzuk euskaldunak dira baina tarte horretan sartzen direnen euskaldunen proportzioa, ordea, logikoki txikiagoa dela uler daiteke, nahiz eta aspektu hori zehazki argitzen duen daturik ez izan. Elementu horiek erakusten dute, migrazio-dinamikek populazioaren zahartzea indartu egiten dutela eta, logikoki, baita euskaldunen ehunekoei eragiten ere.

Ondorioz, migrazio-fenomeno horiek eta, hipotesi gisa, sozializazio-prozesuak eskola-ibilbidearen ondotik dituen ondorioek (eremu profesional gehie-

nak erdaldunak izatea, eskola-sistematik kanpo gehienbat euskaldunak ez diren harreman-sareen garatzea...) eragin desberdinak dituztela euskaldunen ehunekoetan adin-tarteen arabera kontsideratuz, 20-24 urte bitartekoak eta 16-19 urte bitartekoak bereiztea garrantzitsua dela agerian ezarri da.

Euskaldunen tasak ahal bezain xuxen tratatzeko eta horien bilakaeren azterketa egokiena ahalbidetzeko, ezinbestekoa dugu honako bi talde hauek albait zehaztasun handienaz bereiztea:


Adinekoentzat: 65 urte eta gehiagokoen adin-tartea 5 urteko adin-tartee-tan «moztea».

Gazteentzat: 16-19 urte bitartekoak eta 20-24 urte bitartekoak modu berdinean tratatzea.

Adin-tarteen zehaztasun horri esker, bi datu-iturriak, azterlanaren lan-baseak, bateratzea lortu da, lurraldeen zatiketa mailan egin den bezala, azterketa-eremuak definituz.

Hurrengo eskema honek agerira dakartza egindako egokitzapen-eragiketak.

1. irudia. Populazioen birbanaketaren eskema adin-tarteen arabera




Hizkuntza-politikaren erabakitzaile eta beste eragileen ikuspuntutik emaitzen irakurketa eta irakurgarritasuna errazteko gisan, prospektiba-

lanak ahalbidetzeko sortutako adin-tarte horiek berriro bateratu eta aurkeztu dira inkesta soziolinguistikoen aurkezpenaren arabera.

2. irudia. Adin-tarteen bilketa, egokitzapenaren ondotik

Adin-tartekako **euskaldun-tasen** kalkulua
3 zona soziolinguistikoen zat



2.1.3 2022ko euskaldunen estimazioa: eredu-oinarriaren eraikitzea

Lehenik, 2021eko euskara-gaitasunaren tasak 2022ko populazioei esleitu zaizkie adin-tartearen arabera, ondotik emaitzak bi azterketa-lurraldeetara bilduz: Lapurdira eta Barnealdera (ikus gorago). 2022. urtea arrazoi desberdinengatik hautatua izan da. Alde batetik APHaren biztanleria-estimazioak 4 urteka egitaratuak direlako 2018tik 2050era (ikus gorago) eta beste aldetik lehen adin-tarteak 4 urte biltzen dituzenez (16-19 urtekoak), «sartu berrien» tratatzea azterketa-tarte bakoitzean erraztua da, lau urteko aitzinamenduak aritmetikoki 2050. urtera iristea ahalbidetuz.

a) 16-19 eta 20-24 urte bitartekoen euskaldun-kopuru eta -ehunekoen estimazioa

16-24 adin-tartearen barnean diren bi azpikategoriei dagokienez, honako banaketa-gako hau aplikatu zaie:

- $\frac{2}{3}$ ak euskaldunak 16-19 adin-tartean eta
- $\frac{1}{3}$, 20-24 adin-tartean, migrazio-dinamikak kontuan hartuz.

Lehenik, 2024ko populazio-datuei buruzko azpikategorietako tasen estimazioaren kalkulua urrats desberdinetan egituratu da:

- 2021eko biztanleria-datu egokituei (ikus INSEE 2021eko urtekoa), 2021eko inkesta soziolinguistikoaren gaitasun-tasak aplikatu zaizkie lurraldeka (BAB, Lapurdi, Barnealdea) eta adin-tarteka, 16-24 adin-tarteko euskaldun-kopuruak lurraldeka lortzeko gisan.
- 2/3-1/3 banaketa-giltzaren aplikatzea azpiadin-tarte bakoitzeko euskaldunen kopuruak lortzeko, beti inkesta soziolinguistikoaren lurraldeen arabera (BAB, Lapurdi, Barnealdea).
- Euskaldun-kopuruaren itzulpena euskaldun-ehunekotan, azpiadin-tarteka eta lurraldeka.
- Lapurdi azterketa-lurraldearen «berrosatzea» lehenik kopuruak kalkulatz eta ondotik euskaldunen ehunekoak azpiadin-tarteka.
- Bukatzeko, ikerlanaren bi lurraldeetarako (Lapurdi eta Barnealdea), 2022ko biztanleriari (APHA iturritik jasotako populazio birbanatuak, ikus gorago) lortutako tasa horien aplikatzea, 16-19 eta 20-24 urte bitarteko euskaldunen bolumenak lortzeko.

Honako taula hauek laburbilduta dakarte erabilitako prozesua:

3. taula. 16-19 urte bitartekoen eta 20-24 urte bitartekoen euskaldun-kopuruaren eta -ehunekoen banaketa, hiru azpilurraldeen artean

	BAB			Lapurdi (BAB kanpo)			Barnealdea		
	Bizt. 2021 (INSEE)	Euskaldunak (kopuruak)	Euskaldunak (%)	Bizt. 2021 (INSEE)	Euskaldunak (kopuruak)	Euskaldunak (%)	Bizt. 2021 (INSEE)	Euskaldunak (kopuruak)	Euskaldunak (%)
16-19 urtekoak	5.835	848	% 14,5	5.748	2.174	% 37,8	1 496	739	% 49,4
20-24 urtekoak	5.945	424	% 7,1	5.857	1.087	% 18,6	1.397	369	% 26,4

4. taula. 16-19 urte bitartekoen eta 20-24 urte bitartekoen euskaldun-kopuru eta -ehunekoen birkonposaketa bi zona linguistikotan

	Lapurdi			Barnealdea		
	Bizt. 2022 (APHA)	Euskaldunak (kopuruak)	Euskaldunak (%)	Bizt. 2022 (APHA)	Euskaldunak (kopuruak)	Euskaldunak (%)
16-19 urtekoak	12.506	3.263	% 26,1	1.623	801	% 49,4
20-24 urtekoak	12.741	1.631	% 12,8	1.516	401	% 26,4

Azalpena: Kalkulu baten adibidea 16-19 urte bitartekoentzat:

2021 $\rightarrow (848 + 2\,174) / (5.835 + 5.748) = \% 26,1$.

2022 $\rightarrow 12.506 \times \% 26,1 = 3\,263$.

b) Aztertutako gainerako adin-tarteetarako euskaldun-kopuru eta -ehunekoei buruzko estimazioa

Gainerako adin-tarteen kasuan, 2021eko inkesta soziolinguistikotik ateratako euskaldunen proportzioak 2022ko biztanleriari aplikatu zaizkio, 5 urteko urratsetan (ikus gorago). Halaber, biztanleria orokorrarentzat, euskaldun-kopuru eta -ehunekoentzat, honako abiapuntu hauek hartu dira, adin-tarteei (oroit, inkesta soziolinguistikoaren egituraketa) eta lurraldeei dagokienez.

5. taula. Euskaldun-kopuru eta -ehunekoen banaketa adin-tarteka eta lurraldeka, 2022ko biztanleriaren datuen arabera

	Lapurdi			Barnealdea		
	Bizt. 2022 (APHA)	Euskaldunak (kopuruak)	Euskaldunak (%)	Bizt. 2022, (APHA)	Euskaldunak (kopuruak)	Euskaldunak (%)
16-19 urte	12.506	3.263	% 26,1	1.623	801	% 49,4
20-24 urte	12.741	1.631	% 12,8	1.516	401	% 26,4
25-34 urte	29.198	4.494	% 15,4	3.463	1.136	% 32,8
35-49 urte	53.859	6.611	% 12,3	6.566	2.449	% 37,3
50-64 urte	57.633	9.384	% 14,5	8.310	4.006	% 48,2
65 urte eta +	71.797	14.210	% 19,8	11.288	6.875	% 60,9
Orotara 16 urte eta + (*)	237.734	38.594	% 16,2	32.767	15 667	% 47,8

(*) $(38.594 + 15.667) / (237.734 + 32.767) = 54.267 / 270.501 = \% 20,1$ (2021eko inkestaren tasa orokorra).

Populazio-datu horiek eta euskaldunen banaketa izan dira, beraz, aurre-rago azalduko diren 3 hipotesien lan-oinarriak.

2.2 Bigarren fasea: garapen-hipotesiak eta euskaldunen proportzioak 2050. epemuga-urtean

Emaitzen atalean azalduko den bezala, prospektiba-ereduaren bidez 2050. epemuga-urteari begira 3 hipotesi landu dira. Lehena, «ahalegin egonkorren hipotesia», hizkuntza-politikan emandako indar edo ahalegin gehigarririk gabeko hipotesiari dagokio. Beste biak hipotesi landuak dira, «garapen hipotesiak» izendatuak, adierazle operatiboekin, erabaki publikoak hartzen dituztenei hitzun berrien ahaleginen maila nolakoa izan litekeen erakusteko, eta, aldi berean, emaitzen jarraipen erregularra ahalbide-

tzen duen adierazle-sistema bat proposaturik. Azaldua izan den bezala, gaitasun-tasa edo euskaldunen ehunekoa hainbat faktoreren elkarreaginaren emaitza da. Hala eta guztiz ere, azken 20 urteetan Ipar Euskal Herrian hizkuntza-politikaren garapenean, hiztun euskaldun berriak sortzeko bi palanka nagusiak eskola bidezko irakaskuntza eta helduen euskalduntzea izan dira. Datu demografikoez eta inkesta soziolinguistikoetako datuez harago, hortaz, bi garapen-hipotesien eraikitzea EEPk azken 20 urteetan bildutako datu historikoetan oinarritzen da. Konkretuki, garapen-hipotesien modelizaziorako erabilitako datuak, honako hauek dira:

— Ikasle-kopuruei buruzko datu historikoak, batez ere urtero haur-eskolatik lizeoaren bukaeraraino euskarazko irakaskuntza-ibilbidean (murgiltze-sistema edo sistema elebiduna) diren ikasleen kopuru eta ehunekoak.

— Euskara ikasten duten helduen kopuru eta profilei buruzko datuak.

Datu horietatik abiatuz, 4 adierazle eraiki dira hiztun berrien ekarpen-maila islatzeko:

— Euskarazko hezkuntza-ibilbidean sartzen diren ikasleen tasa edo haur-hezkuntzako lehen urtea hasten duten ikasle guztien artean, euskarazko hezkuntza (elebidunean edo murgiltzean) hasten duten ikasleen proportzioa.

— Jarraipen-tasa haur-hezkuntzatik «hirugarrenetara» (kolegioaren azken urtea⁷): haur-hezkuntzako lehen urtea euskaraz hasi eta kolegioa bukatu arte eskolatzea euskaraz egiten jarraitzen duten ikasleen proportzioa.

— B2 maila lortzen eta mantentzen duten «hirugarrenetara» proportzioa: ikasketak euskarazko hezkuntzan burutzen jarraitzen duten ikasleek, 16 urtetik aurrerakoak (inkesta soziolinguistikoetan konfiantza hartua izateko 16 da gutxienezko adina); zehazkiago erranik, kolegioa bukatu eta bi urte berantago, euskaldun bihurtzeko probabilitatea dutenen proportzioa.

— Euskalduntzen diren helduen kopurua 4 urteka.


⁷ DBH 3 mailaren parekoa.

3. Emaitzak

3.1 Lehen fasearen emaitzak: euskaldun-proportzioen estimazioa 2050. epemuga-urtean

Proiektzioek 4 urteko urratsetan eraiki dira, 2018tik 2050era. 4 urteko bi tarteren artean biztanleak 4 urtez zahartzen dira, honako eskema honek erakusten duen bezala:

3. irudia. Adin-tarteen aldaketa fenomenoak inkesta batetik bestera



Adin-tarteen zabaltasunaren eta bi daten arteko 4 urteko tartearen arteko desfaseak, populazioak eta dagozkien euskaldun-tasak berriro banatzea eskatzen du. Horiek proiektzio-eredu matematikoan integratuak izan dira.


Landutako proiektzio-eredutik ateratako kalkuluen arabera, dinamika demografikoak mantenduz gero, 2050. epemuga-urtean aurreikus daiteke, euskaldunen bolumenaren jarraipena, 65.900 euskaldunetara iristeko 28 urte barne, hau da, 11.650 hiztun gehiago izanen litzatekeela. Joera hau dinamika anitzen elkarreraginaren emaitza litzateke:


- Lapurdiren pisuaren handitzea Iparraldeko euskaldunen ehuneko orokorrari begira.
- Irakaskuntzaren arloan egiten diren ahaleginak (bereziki eskaintzaren garapenaren bidez) euskaldun-belaunaldi berriengan hedatzen jarrai-

tzen dutenak. Eskola-irakaskuntzak, egungo joeren arabera, Ipar Euskal Herriko hiztun berrien hornitzaile nagusia izaten jarraituko luke.

Aldiz, hiztunen tasari dagokionez, dinamika demografikoen anplifikazioaren ondorioz, euskaldunen proportzioa oso gutxi igoko litzateke, % 21 ingurukoa izateko 2050ean. Alta, euskaldun-kopuru eta -ehunekoak 2050. epemuga-urtean, proposatutako prospektiba soziolinguistikoen ereduak oso joera desberdinak agerian uzten ditu Iparraldeko azpilurraldeen arabera, hots, Lapurdiko eta Barnealdeko joerak.

4. irudia. Ipar Euskal Herria: 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren eta euskaldun-tasaren bilakaeraren prospektibak 2050. epemuga-urtean (2022-2050)




a) **Lapurdi: hazkunde demografiko eta linguistikoaren motorea****5. irudia.** Lapurdiko 16 urte eta gehiagokoen euskaldun-kopuru eta -ehunekoen prospektiba (2022-2050)

2050ean 51.500 euskaldun lirateke Lapurdin, proposatutako proiektzio-ereduaren arabera, hau da, ia 13.000 euskaldun irabaziko lirateke 28 urtean. Hezkuntzaren arloan egindako ahaleginen bidez lortutako hiztun gehigarriek, euskaldun-tasa handiak dituzten adin-tarte zaharrenen galera eta etor-kin erdaldunen pisua orekatuko lituzkete. Hiztun-irabazte horren ondorioz, Lapurdiko euskaldunen ehunekoa 2 puntuz emendatuko litzateke.

b) Nafarroa Beherea eta Zuberoa: euskaldun-tasa nabarmen handiagoak, baina aurkako dinamika demografikoa

6. irudia. Barnealdeko 16 urte eta gehiagokoen euskaldun-kopuru eta -ehunekoen prospektiba (2022-2050)



2050ean, euskaldunen kopurua 14.500 hitzun ingurukoa litzateke, erran nahi baita 1.000 euskalduneko galera 28 urte barne. Adinekoen pisua Barnealdeko demografian areagotu egingo da datozen bi hamarkadetan: 75 urtetik gorakoak biztanleriaren laurdena izanen dira, eta 19 urtetik beherakoek Nafarroa Behereko eta Zuberoako biztanleriaren % 4 osatuko dute. Adinekoen pisua hainbestekoa izanen da, non eta belaunaldi gazteek ezin-go baitituzte adin-tarte horretako galerak konpentsatu.


3.2 Bigarren fasearen emaitzak: perspektibetatik plangintza soziolinguistikora (hipotesi alternatiboak eta horien inplikazioak)

a) % 30eko euskaldun-hiztunen hipotesia 2050ean: ezaugarriak eta egin beharreko ahaleginak

Landutako bi garapen hipotesietariko bat % 30eko hipotesia da. Hipotesi horren hautua, hein batean, aipatua izan den bezala, Ipar Euskal Herriko gizar-

te zibilaren parte batek eta zehazkiago, euskalgintzako elkarteen parte handi batek, hizkuntza baten biziraupena bermatzeko gutxieneko ehuneko hori lortzeko beharraren aldarrikapenean oinarritzen da (Euskal Konfederazioa 2023).

7. irudia. 3 adierazleen bilakaera, 16 urte eta gehiagoko
% 30eko euskaldun-hiztunen hipotesiaren arabera 2050. epemuga-urtean




Irakurketarako argibideak: Grafikoaren eskuinaldean diren datuak horrela irakurri behar dira: 2037an, irakaskuntza-ibilbidean sartzen diren haurren % 70ek, batez beste, irakaskuntza elebiduna izan beharko lukete (parekotasunezko irakaskuntza elebiduna eta murgiltze-ereduak barne), hau da, egungo tasa baino 1,4 aldiz gehiago. Haietariko % 80k irakaskuntza elebidunean jarraituko luke hirugarrenetara, 2048an eta % 57k (+ 39 puntu), haien burua euskaldun gisa deklaratuko lukete 2050ean, gaur egungo proportzioa baino hiru aldiz gehiago.

Aldarrikapen eta kontsentsu horren oinarrian, % 30eko euskaldunen proportzioa aplikatu zaio 2050eko biztanleriari. Hipotesi horren arabera,

epemuga horretan beraz, 94.000 hiztun lirateke Ipar Euskal Herrian (+ 40.000 gaurko egoerarekin konparatuz eta 4 aldiz gehiago «ahalegin egonkorren» hipotesiarekin alderatuz gero).

Hizkuntza-politikaren obratzeari dagokionez, proiektzioek ahalegin handiak egin beharra agertu dute, bai irakaskuntzan, bai helduen euskalduntzean.

8. irudia. «Ekoiztu» beharreko euskaldun berrien kopuruak 4 urte guziz




Irakurketarako argibideak: Iparraldean eskaintzen diren ikaskuntza-modu desberdinen bidez (gau-eskolak, formakuntza trinkoa, ikastaldiak), urtero euskalduntzen diren helduen kopurua 150 dela estimatzen da gaur egun. Datu-eskasez, estimazio horrek bakarkako ikaskuntza baztertzen du, baita hegoaldeko formakuntza zentro batetara joaten diren pertsonak ere. Hala ere, azken bi kasu horiek gutxiengoa direla uste dugu.

% 21tik % 30erako progresioak suposatuko luke, gaurko egunean urtean euskalduntzen diren 150 helduetatik 1.350 heldu euskaldun berrietara pasatzea 2046. urtetik eta 2050.era bitartean, hau da, hiztun helduen ekoizpena 9 aldiz biderkatuko litzateke.

Bestalde, 2050. urteari begirako adinen araberako biztanleria-egituraren anplifikazioa kontuan hartuz, EEPk eta APHak landutako % 30eko helburuak, indarren kontzentrazioa 49 urte eta beheragoko belaunaldietan izatea

ekarriko luke, baina baita 50-64 adin-tartean ere. % 30eko euskaldun-hiztunen hipotesiaren arabera, adin-tartekako euskaldunen proportzioaren banaketa horrelakoa izanen litzateke:

9. irudia. % 30 euskaldun 2050. epemuga-urtean: euskaldunen ehunekoen bilakaera adin-tarteka eta 2022. eta 2050. urteen artean



2050ean % 30eko euskaldun-tasa lortzeak erran nahi luke, 50 urtetik beherako 6 adin-kategorietatik lauk gutxienez % 40ko euskaldun-tasa izatea.


b) % 26ko euskaldun-hiztunen hipotesia 2050ean: ezaugarriak eta egin beharreko ahaleginak

Beste hipotesia ez da 2050erako lorpen-helburua izateko ikuspegiaz landua izan, baizik eta Ipar Euskal Herriko hizkuntza-politikaren garapen «jasangarria» izateko ikuspegiaz, hurrengo puntu hauek kontuan hartuz:


- Azken 10 urteetako joerak irakaskuntza-eskaintzaren garapenean eta sail elebiduneko ikasleen kopuruetan, baita garapen-aukerak ere (besteak beste, zein lurraldeetan diren aukera horiek galdakatuz).
- Gaur egungo helduen euskalduntzearen arloko egituraketa eta eskaintzaren garapen-aukerak (adibidez, formatzaileen formakuntzan, formakuntza-zentro berrien irekitze-aukeretan, ikasprozesuen areagotzean...).
- Gauzatu beharreko ahalegin gehigarriek urraskako logikaren arabera-koak izan behar dutela, batez ere helduen euskalduntze-arloan.

Ondoko grafikoan proposatutako adierazle bakoitzaren garapen-hipotesiek (irakaskuntzari lotutako hiru adierazleak eta helduen euskalduntzeari lotutako adierazleak) % 26ra eramango lukete euskaldunen proportzioa Ipar Euskal Herrian, 2050.epemuga-urtean.


10. irudia. 3 adierazleen bilakaera, 16 urte eta gehiagoko % 26ko euskaldun-hiztunen hipotesiaren arabera, 2050. epemuga-urtean



11. irudia. «Ekoiztu» beharreko euskaldun berrien kopuruak 4 urte guziz
(% 26ko euskaldun-hiztunen hipotesia)



12. irudia. % 26 euskaldun 2050. epemuga-urtean:
euskaldunen ehunekoen bilakaera adin-tarteka eta 2022. eta 2050. urteen artean



c) Hipotesien konparaketa eta ondorioak

Landutako bi garapen-hipotesiek hizkuntza-politikaren egituraketan eta garapenean ahalegin handiak egitea dakarte. Hipotesi bata edo bestea izanik ere, ahalegin horiek adin-tarte desberdinetan aldi bereko indarrak eta jarraikitasun- eta iraunkortasun-ikuspegia izatea eskatzen dute. Nahiz eta bi hipotesiak desberdinak izan datozen 25 urteetan irakaskuntzaren arloan egin beharreko indarrei begira, desberdintasuna helduen euskalduntze-arloan nagusitzen da. Ipar Euskal Herrian % 26ko euskaldun-tasa lortzeak, urtero B2 mailara iristen diren helduen kopurua hirukoiztea erran nahi luke; aldiz, % 30eko euskaldun-tasara iristeak kopuru hori bederatzi aldiz biderkatzea suposatuko luke.

Bi hipotesien arteko desberdintasuna adin-tarte bakoitzeko ahaleginen banaketan ere nabarmentzen da. Izan ere, % 30eko euskaldun-tasa lortzeak hiltunen proportzioa azkarki emendatzea eskatuko luke adin-tarte guztietan, ez gazteenetan bakarrik. % 30eko euskaldun-hiltunen hipotesiak, bereziki, 35-49 urte bitartekoen artean % 40ko euskaldun-proportzioa lortzea eskatuko luke 2050. epemuga-urtean (eta % 26ko euskaldun-hiltunen hipotesiarekin konparatuz, 10 puntu gehiago), jakinez adin-tarte horretan kontzentratutako ahalegina 2038tik aurrera hasi beharko litzatekeela. Ondorioz, helduen euskalduntze-arloko politikaren egokitzea ekarriko luke, epe laburrean. Azken desberdintasun handia 50-64 adin-tartean da. Proposatutako ereduaren arabera, % 30eko hipotesiak adin-tarte horri eragitea eskatuko luke («naturalki» eta ahalegin gehigarririk gabe beherantz joanen delako euskaldunen ehunekoa adin-tarte horretan), biztanleria orokorrari begira proportzionalki handituko den adin-kategoria baita.

4. Eztabaida

— *Biztanleriaren adinaren arabera egituraren eragina kontuan hartu behar da plangintza soziolinguistikoan.*

Ipar Euskal Herriak dinamika demografiko propioak ditu, Hego Euskal Herrikoak ez bezalakoak, eta berezitasun horiek egoera soziolinguistikoari modu berezian eragingo diote. Izan ere, Ipar Euskal Herriak mendebaldeko

gizarteei dagozkien erronka demografiko orokorreari aurre egin behar die eta egin behar izanen die (hots, biztanleriaren zahartze azkarra, ugalkortasun-tasaren eta saldo naturalaren apaltzea) aurrerantzean ere. Hala ere, erronka horiek modu desberdinetan islatzen dira eremu soziolinguistikoen arabera eta horren ondorioz eraginak ere, euskaldun-ehunekoari begira, handiagoak edo txikiagoak izanen dira.

Orain arte, dinamika demografiko horiek oso gutxitan aintzat hartu izan dira hizkuntza-politikaren eraikuntzan, «belaunaldi gazteak helburu» gisa hartuz. Alta, hemen proposatzen diren perspektibek erakusten dute, euskaldunen ehunekoaren irakurketa egitea beharrezkoa dela, lurraldearen eta adin-tarteen arabera, egungo eta etorkizuneko dinamika demografikoen garrantzia nabarmentzeko. Adibide gisa, biztanleria orokorrean euskaldunen proportzioak 6 edo 10 puntu irabazteak ekarriko luke, 30etik 40 puntura arteko irabazi bat, 25 urtez belaunaldi gazteenetan. Garapen-hipotesiek, beraz, zehazki adin-taldean eta lurraldeen arabera egin behar diren ahaleginen ikuspegia ematen digute.

Euskaldunen euskararen bizitasun-adierazle gisa gaitasun-tasa soilik hartzen bada, argi dago etorkizuneko aldaketa demografikoek hizkuntza-politikaren proiektio eta helburuetan eragina izanen dutela, bereziki belaunaldi gazteenengan ahaleginak kontzentratzean (EEP 2006).

— *Proiektzioetatik hizkuntza-plangintzara: obratzearen erronkak zein diren.*

Edozein garapen-hipotesi dela ere, 2050. epemuga-urterako hizkuntza-politikaren garapenak eta, harago joanda, iraunkortzeak maila handiko ahaleginak egitea ekarriko ditu, aldi berekoak hainbat adin-tartetan, bai hizkuntzaren transmisioan, bai erabilpen-aukeretan, biak elkarri lotuak baitira, eta ahaleginen eustearen prospektiba batean. Landutako hipotesiek, 30 urteko epealdian euskaldun-hiztunen ehuneko jakin batera iristeak, euskaldun-hiztunen kopuruetan islatzeaz gain, arduradun politikoei adierazle soziolinguistiko osagarriak proposatzeko aukera ematen diete, hizkuntza-politikaren jarraipen erregularraren tresna gisa.

Bestalde, euskararen egungo eta etorkizuneko egoeraren irakurketa demolinguistikoak erakusten du hizkuntza-politika ezin dela isolatuta planteatu.

tu (Civico eta Grin in Gazzola, Templin eta Wickstrom 2018). Izan ere, lurraldeen eta adin-kategorien arteko erronka demografikoen desberdintasunek, bereziki gazteen migrazio-saldo negatiboaren gaiak, hizkuntza-politikaren eta beste politika publikoen (lurralde-antolaketa, gazteen formakuntza eta enplegua-...) arteko lotura galdekatzen dute.

Erabaki politikoaren argitze-lana errazteko eta sinplifikatzeko asmoz, datuen eskuragarritasunari esker erraz uler daitezkeen palanketan oinarrituak diren garapen-ereduak landu dira, beti hiztunen ehunekoaren adierazletik eraikiak, erabilpena eta euskararen errotze sozialaren eragina eta «kontabilizazioa» kontuan hartu gabe. Alta, euskaldun-hiztunen ehunekoaren emendatzea, hizkuntza-politikaren helburuetariko bat bada, modu konplexuan elkarriz lotutako faktore anitzetan oinarritzen da (aipatzen ahal dira hemen aztertu ez diren prozesu psikosozialak, soziokulturalak, ekonomikoak, etab.).

Nahiz eta ziurgabetasunak izan, EEPko talde teknikoak 2023an egindako eta ikerketa honi lotutako hizkuntza-politikaren beharren azterlanak zenbait pistaren identifikatzea ahalbidetu du. Horien artean: hezkuntza elebidunetik atera baina hiztun aktibo gisa funtzionatzeko euskararen gaitasun-maila aski garatua ez duten gazteei zuzendutako formakuntza-estrategien abiatzea, euskara-formatzaileei zuzendutako formakuntza akademikoen garatzea, irakasleen formakuntza indartzea, familia erdaldunei zuzendutako laguntza, etab. (EEP 2023). Laburbiltzeko erran dezagun, hemen aurkeztutako lana, eztabaidaren eta erabaki politikoaren besteugarri-tresna bat baino ez da. Politika publiko guztien obratzean bezala, tresna horren jabetzea, egokitzea eta erabiltzea nolakoa izanen den ez dago jakiterik oraindik ere erabaki publikoen bideratzean. Eta planteatutako aurreikuspenak gauzatzeko, zehazki zer heinetako baliabideak behar diren neurtzea ezinezkoa bada, argi eta garbi agerian ezarri dute lorpenik ez dela izanen, ahalegin eta baliabide gehigarriak gabe.

— *Ipar Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren azterketa-metodologiak egokitu eta garatzeko behararen garrantziaz hausnartu behar da.*

Metodologiaren atalean aipatu bezala, inkesta soziolinguistikoaren obratzea hiru lurralde administratiboetako erakunde publikoen (Eusko Jaurlari-

tza, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa) arteko elkarlanaren emaitza da. Inkestaren metodologia eta emaitzen azterketa eta aurkezpena amankomunean eginak badira, inkesta horietan erabilitako biztanleria-datuak eraikuntzari oinarri ematen dioten tresnak, metodoak eta ikerketa demografikoak bideratzen dituzten institutuak oso desberdinak dira hiru lurraldeetan. Dela erronka metodologikoentzat, dela emaitzen irakurketa-gakoentzat, elkarrekiko ulermena oraindik garatzekoa dago. Ipar Euskal Herriaren kasuan adibidez, inkesta soziolinguistikoaren obratzearen ardura duten teknikariak, INSEEn biztanleria-datu eguneratuen argitaratzearen hertsapenaren menpe daude. Hertsapen horrek akats tarte bat ekar dezake (gorantz edo beherantz) euskaldun-kopuru eta -ehunekoen estimazioan. IEDUBen lanetatik heldu diren irakaspenak gogoan dauzkagularik, hausnarketa bat eramatekoa da gogoeta eta tresna horien integratzeari buruz hurrengo inkesta soziolinguistikoaren prestakuntza-lanetan. Orokorkia-go, euskararen demolinguistikaren arloan ikerlarien inplikazio handiagoa aberasgarria litzateke, emaitzen oinarri teorikoaren gaineko hausnarketa egituratzeko eta datu-bilketaren inguruko metodologiaren garapenean laguntzeko (Iurrebaso 2023: 233-236).

Azterlan honetan aurkeztutako prospektiba demosoziolinguistikoen eztabaidari dagokionez, beharrezkoa da zenbait hautu edo metodologia-erabaki azpimarratzea, horiek, berez, emaitzak errealitatearen islatzerakoan, eraginak izan ditzaketelako. Aldi berean, ohartarazi behar da, ikerlan-mota hori, lehen aipatu ditugun soziolinguistikari buruzko inkesta eta ikerlan ezberdinak bezala, hein bateraino errealitateetik urrun daudela beti, metodologiaren zein emaitzen aldetik. Maila batean, elementu diskurtsiboak sortzeko tresnak besterik ez dira, arras menperatzen ez dugun errealitate horretaz hitz egiteko balio dutenak, Heideggerek dioen bezala. Horretaz hitz egin eta elkarrekin definituriko egiaren eraikitze, eta eztabaida horren oinarrian diagnostiko partekatu baten arabera zer egin behar den adostu ahal izateko. Hautu metodologiko horiek eginak izan dira, Ipar Euskal Herrian euskarari buruzko datuen eskuragarritasun-eskasa bada ere, tresna eta ereduaren hutsune-testuinguru batean.

Ilustrazio gisa, landutako eredu desberdinetan, hizkuntza-gaitasuna aldagai egonkortzat hartzea erabaki da, nahiz eta prozesu dinamikoa izan bizi-

tzan zehar (gaitasuna murriztu edo handitu daiteke, euskara partez edo osoki ahantz daiteke edo alderantziz, hobetu). Gaitasun desberdinak ere izan daitezke erabileraren testuinguru edo gizarte-eremuen arabera (Arte-txe 2024). Egindako hautua era batez artifiziale da beraz, proiektzio-ariketa egingarria izan dadin, gaitasunaren alderdi dinamikoa eta aldakorra modu konkretuan ereduan integratzea ezinezkoa baita gaur egun ditugun ezagu-tzekin. Hain zuzen ere, hautu hori gaur egun demolinguistikaren arloan eskuragarria den jakitatearen ondorioa da. Hala ere, hizkuntzaren jabetze-prozesu dinamiko eta ebolutiboa kontuan hartzen duen eredurik edo tres-narik ez da orain arte garatua izan (Iurrebaso 2021). Hizkuntza-gaitasuna-ren dimentsio dinamikoa aintzat ez hartzearen beste adierazle edo adibide bat da, beren burua «euskaldun» deklaraturako pertsonak bakarrik hiztun gisa atxikitzearen hautu metodologikoa. Hautu horrek gaitasun ebolutiboa ukan dezaketen euskaldun-hartzaileak baztertzen ditu, bai eta gaitasun «er-latiboko» hiztunak ere, aitortutako gaitasuna ez ezik, hiztunek adierazitako euskaraz komunikatzeko erraztasuna ere kontuan hartzen ez duelako. Bu-katzeko, prozesu linguistiko indibidualen dinamismoa aipatzerakoan, proze-su soziolinguistikoen izaera dinamikoa ere azpimarratu nahi da. Gaitasuna-ren garapena eskola-irakaskuntzaren eta helduen euskalduntzearen ildotik aurreikusia izan da, gogoan hartu gabe, lehenbizi, euskaldun-kopuruaren handitzeak izan dezaken eragina transmisio naturalari begira (edo familia bidezko transmisioa) eta bigarrenik, fenomeno horrek berak izan dezakeen atzeraeragin linguistikoa.

Datu soziolinguistiko kuantitatiboen inguruko erronkak, hiztunen ingu-ruko helburua eta datuak biltzeko metodologia eta aukerak baino harago joanik, Urla eta Burdickek (2018) eztabaida zabaltzea proposatu zuten, errealtate konplexuen maila desberdinak islatzeko eta politika publikoek norabideak oinarritzeko, datu horiek duten egokitasunari buruz. Beste era batera erranik, euskararen bizitasunaren estimazioaren eta biziberritzearen alde taxutu beharreko politiken zerbitzuko hautatu behar liratekeen adie-razle kuantitatibo eta kualitatiboen inguruko eztabaida, eragile desberdinen artean, oraindik ere egin gabe dago, gutxienez Ipar Euskal Herrian. Erronka berdina da Ipar Euskal Herriko egoera soziolinguistiko bereziari buruzko datu-bilketa zabal eta zientifikoaren garapenari dagokionez ere.

Bibliografia

ANIN, Amande eta BOILLET, Virginie (2024). «Prospektiba soziolinguistikoak: euskara 2050eko epemugan. Ipar Euskal Herriko euskaldunen estimazioa eta 2050eko epemugaren prospektiban jartzea», in *Euskararen Erakunde Publikoko Aholku Batzordea*. Baiona: EEP/OPLB.

Kontsultagai: [https://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Aktualitateak/20240610_EEP_EUS.pdf].

AGENCE D'URBANISME ATLANTIQUE ET PYRÉNÉES (2023). *Perspectives démographiques en Pays Basque et usage de la langue basque*. (Argitaratu gabea).

— eta INSTITUT D'ETUDES DÉMOGRAPHIQUES DE L'UNIVERSITÉ DE BORDEAUX (2024). *Projections démographiques locales à horizon 2050. Quotients de fécondité tendance ; quotient de migrations comparables à la période 2014-2019*. Baiona: Euskal Hirigune Elkargoko Kontseilu Exekutiboa.

ARTETXE, Miren (2024). «Ahozko hizkera informalerako gaitasuna eta harreman-sare informaletako hizkuntza-erabilera: azterketa kuantitatibo bat unibertsitateko gazteen testuinguruan», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 69 (1): 49-78.

COHDA IKERKETA KUANTITATIBOEN INSTITUTUA (2014). *Processus d'apprentissage de la langue basque par les adultes en formation*. (Argitaratu gabea).

CRUSSON, Laure eta FABRE, Jérôme (2021). *Des projections nationales aux projections locales*. INSEE: Mesurer Pour Comprendre. (Argitalpen digitala).

Kontsultagai: [<https://www.insee.fr/fr/statistiques/5055862>].

DUGUINE, Isabelle (2016). *Projet AIPBA. Etude des facteurs motivationnels dans l'apprentissage du basque par les adultes francophones*. Baiona: EEP/OPLB.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA (KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA) (2010). *Soziolinguistika hiztegia euskal soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

— (2019). VI. Inkesta Soziolinguistikoa. *Euskararen eremu osoa. Laburpen-txostena*. (Argitalpen digitala).

Kontsultagai: [https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLG-EH_eus.pdf].

— (2024). VII. *Inkesta Soziolinguistikoa 2021*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. (Argitalpen digitala).

Kontsultagai: [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eas_ikerketak/eu_def/adjuntos/VII._Inkesta_Soziolinguistikoa_2021.pdf].

EUSKAL KONFEDERAZIOA (2023a). *Euskararen geroa orain trenkatzen da*. (2023ko urriak 10).

— (2023b). *Kanboko Manifestua: Hizkuntza politika berrirako urratsak*. (2023ko abenduak 16).

EUSKARAREN ADIERAZLE SISTEMA (2024). *Biztanleria adinaren eta sexuaren arabera. Nafarroa eta EAE*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA (EEP/OPLB) (2006). *Hizkuntza Politika Proiektua*. Baiona: EEP/OPLB.

Kontsultagai: [https://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Documents_OPLB/Hizkuntza_Politika_Proiektua/2006_eep_oplb_hizkuntza_politika_proiektua.pdf].

— (2023a). *Lehen eta bigarren mailako irakaskuntza datuak*. (Argitaratu gabea).

— (2023b). VII. *Inkesta Soziolinguistikoa. Ipar Euskal Herriko datuak. Laburpen-txostena*. Baiona: EEP/OPLB.

Kontsultagai: [https://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Aktualitateak/Pren-tsaurrekoak/2023/2023_03_30/Eraitzen_laburpena-eus.pdf].

GALESKO GOBERNUA (GALES HIZKUNTZA ZERBITZUA) (2017). *Cymraeg 2050: A million Welsh speakers*. Cardiff: Welsh Government.

Kontsultagai: [<https://www.gov.wales/sites/default/files/publications/2018-12/cym-raeg-2050-welsh-language-strategy.pdf>].

GAZZOLA, Michele, TEMPLIN, Torsten eta WICKSTRÖM, Bengt-Arne (2018). «How important is demolinguistic concentration for the survival of minority languages in a world of increasing mobility?», in F. Grin (arg.), *The MIME vademecum: Mobility and Inclusion in Multilingual Europe*. Switzerland: Artgraphic Cavin: 64-65.

HUMBERT, Philippe, CORAY, Renata eta DUCHÊNE, Alexandre (2018). *Compter les langues: histoire, méthodes et politiques de recensements de population. Une revue de la littérature*. Freiburg: Institut de Plurilinguisme.

Kontsultagai: [https://institut-mehrsprachigkeit.ch/sites/default/files/2018.001_census_def_web_0.pdf].

INSEE (2009, 2014 eta 2020). *POP1b - Population par sexe et âge. Recensement partiel. Données de 2009, 2014 et 2020*. (Argitalpen digitala).

Kontsultagai: [<https://www.insee.fr/fr/statistiques/7633062?sommaire=7633086&geo=FE-1>].

IURREBASO, Iñaki (2021). «Euskarazko hizkuntza-gaitasuna eta erabilera: zer dago indartsuen?, zer ahulen?», *HERMES: Pentsamendu eta Historia Aldizkaria* 69: 24-39.

— (2023). *Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoak garatzen. Euskal Herrirako aplikazio praktikoak*. (Doktorego-tesia). (Argitalpen digitala).

Kontsultagai: [<https://addi.ehu.es/handle/10810/60061>].

MAHEU, Robert (1985). «La démolinguistique: objet et enjeux», *Cahiers Québécois de Démographie* 14 (1): 3-5.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.7202/600554ar>].

MOSELEY, Christopher eta NICOLAS, Alexandre (2010). *Atlas des langues en danger dans le monde*. Paris: Unesco.

THOMMEN, Félix (2023). «Un tournant pour l'avenir de la langue basque», *Mediabask*, 2023ko urriak 19.

Kontsultagai: [https://www.mediabask.eus/eu/info_mbsk/20231019/un-tournant-pour-l-avenir-de-la-langue-basque].

UNESCO (GROUPE D'EXPERTS SPÉCIAL DE L'UNESCO SUR LES LANGUES EN DANGER) (2003). *Vitalité et Disparition des Langues*. Paris: Unesco.

Kontsultagai: [<https://ich.unesco.org/doc/src/00120-FR.pdf>].

— (2021). *Atlas mondial des langues de l'Unesco. Document de synthèse*. Paris: Unesco.

Kontsultagai: [https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000380132_fre].

URLA, Jacqueline eta BURDICK, Christa (2018). «Counting matters: quantifying the vitality and value of Basque», *International Journal of the Sociology of Language* 252: 14-16.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.1515/ijsl-2018-0015>].

Ipar Euskal Herriko poesiaren argiak eta itzalak, 1940tik hona

Luces y sombras de la poesía del País Vasco Norte,
desde los años 1940

Lumières et ombres de la poésie du Pays Basque Nord,
depuis les années 1940

Lights and shadows of the poetry of the Northern
Basque Country, from the 1940's

DOLHARE ZALDUNBIDE, Katixa
Bordele Montaigne Unibertsitatea (IKER-UMR 5478)
Literatura-irakaslea
katixa.dolhare@u-bordeaux-montaigne.fr

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2025i10.306>

Jasotze-data: 2025/01/27

Behin-behineko onartze-data: 2025/02/22

Behin betiko onartze-data: 2025/02/26

Artikulu honen helburua da 1940ko hamarkadatik landako Ipar Euskal Herriko poesiaren aurkezpen orokorra eskaintzea, ahozko eta idatzizko tradizioetatik datozen lanak kon-tuan hartuz. Badago olerkari erraldoi bat, Itxaro Borda, zoinen obra oparoak itzal egin die-zaiokeen gainerateko ekoizpen poetiko guziari: isilduko dugu haren aipamena, ilunpean geldituak agerrarazteko. Ez dugu talde poetikorik aurkitu: poeta bakoitza bere berezitasuna-rekin presentatzea komeni da. Bururatzeko, Ipar Euskal Herriko poesiaren etorkizunaz go-goetatuko dugu.

Gako-hitzak: Ipar Euskal Herriko poesia, olerti garaikidea, poesiaren historia, poesiaren etorkizuna, poesiaren argiak eta itzalak, ahozko eta idatzizko poesia.

El objetivo de este artículo es ofrecer una visión general de la poesía del País Vasco Nor-te desde la década de 1940, teniendo en cuenta obras tanto de tradición oral como escrita. Destacamos a una gigante de la materia, Itxaro Borda, cuya prolífica obra podría dejar en la

sombra las producciones de todos los demás poetas: no la mencionaremos, precisamente para sacar a la luz a los poetas que permanecen en la oscuridad. No hemos reparado en un grupo poético: cada poeta debe presentarse según su propia singularidad. Finalmente, reflexionaremos sobre el futuro de la poesía en el País Vasco Norte.

Palabras clave: poesía del País Vasco Norte, poesía contemporánea, historia de la poesía, futuro de la poesía, luces y sombras de la poesía, poesía oral y escrita.

L'objectif de cet article est de proposer un panorama général de la poésie du Pays Basque Nord depuis les années 1940, en prenant en compte les travaux issus des traditions tant orale qu'écrite. Nous remarquons une géante en la matière, Itxaro Borda, dont l'œuvre prolifique pourrait laisser dans l'ombre les productions de tous les autres poètes: nous ne l'évoquons pas, afin de mettre au jour les poètes restés dans l'obscurité. Nous n'avons pas observé de groupe poétique: chaque poète doit être présenté selon sa propre singularité. Pour terminer, nous réfléchirons à l'avenir de la poésie au Pays Basque Nord.

Mots-clés : poésie du Pays Basque Nord, poésie contemporaine, histoire de la poésie, avenir de la poésie, lumières et ombres de la poésie, poésie orale et écrite.

The objective of this article is to provide a general overview of the poetry of the Northern Basque Country since the 1940's, taking into account works from both oral and written traditions. We see a giant on the subject, Itxaro Borda, whose prolific work could leave the productions of all the other poets in the shadows: we will not mention her, in order to bring to light the poets who remained in obscurity. We have not noticed a poetic group: each poet must be presented according to his own singularity. Finally, we will reflect on the future of poetry in the Northern Basque Country.

Keywords: poetry from the Northern Basque Country, contemporary poetry, history of poetry, future of poetry, lights and shadows of poetry, oral and written poetry.

DOLHARE ZALDUNBIDE, Katixa (2025). «Lights and shadows of the poetry of Northern Basque Country, from the 1940's», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 70 (2): 53-80.

1. Sarrera
2. Ahots liriko nagusiak
3. Ahots batzuk gehiago
4. Ipar Euskal Herriko poesiaren norabideak

Bibliografia

1. Sarrera

Bigarren mundu gerlatik landako Iparraldeko poesiaren aurkezpen orokor bat bilatu nahiko lukeenak nekez atzeman lezake holakorik. Jon Kortazarrek zuzendu *Eguno euskal poesiaren historian*, adibidez (Kortazar 2009), Iparraldeko zortzi izen baizik ez dira aipu: Iratzeder, Aurelia Arkotxa, Itxaro Borda, Henriette Aire, Auxtin Zamora, Jon Casenave, Jakes Ahamendaburu eta Ur Apalategi. *Maiatz* literatura-aldizkaria izendatua da, eta bi olerkarien liburu bana dira sakonki barnatuak: Álvaro Rabellik Itxaro Bordaren lehen olerki-bilduma aztertu zuen (*Bizitza nola badoan*, 1984), eta Miren Billelabeitiak Aurelia Arkotxaren lehen argitalpena, *Atari ahamantziak* (1993). Baina, «*non hago, zer larretan*, Iparraldeko poeta?», pentsa lezake tokikoa ez den poesia zaleak. Tematuko balitz, beharko luke lehenik Interneteko Armiarma sarean poeta-izen gehiago bilatu, Literaturaren Zubitegian eta Basque Poetry Euskal Poesiaren Atarian. Julen Urkizaren Bertso eta Olerkien Hemeroteka baliosa ere kontsulta lezake. Joan liteke, ondotik, liburutegietan barreiatuak diren aleen xerka. Gero, denbora harturik, *Maiatz* aldizkariaren laurogei bat zenbakiak hostokatu beharko lituzke, bai eta Hatsa elkarteak plazaratu Hatsaren Poesia deitu bildumaren hogeita sei olerki-sortak ere. Hondarrean, Iparraldeko kulturaren memoria bizia daukatenak galdekatu beharko lituzke, eta liburuez haratago poesia gorde lezaketen euskarri ezberdinen gibeletik ibili.

Gure bilatzailea ohartuko litzateke, orduan, bere miaketak bideratu arau, nekez bereiz daitezkeela poesia, kantagintza eta bertsogintza: holako bertsolariaren koblek edo halako kantariaren konposizioek balio poetiko handia daukate; beste poeta horrek olerkiak idatzi zituen eta hauek kantu bihurtu ziren, berak ezarri baitzieten doinua, musikari baten egitasmoan sartzen baitziren ala ustekabeen, beren bidea horrela egin baitzuten... Nola mugatu, nola sailkatu, Iparraldeko poesiagintza? Nola ezberdindu olerki idatzia, olerki kantatua, bertso poetikoa? Autorearen proiektuaren arabera? Intimitatearen alorrean egon diren ala jendartean zabaldu diren kriterioen arabera? Xedetan den hartzailearen kultura-mailaren arabera? Testuaren «erraztasun» edo «zailtasun» intelektualaren arabera? Testuaren ibilbidearen arabera? Irizpide estetiko, moral edo sozialen arabera?

Zentzu handirik gabeko buruhauste horietan ito gabe, Ipar Euskal Herriko lirikaren historia berezia ukatzen dutelako, gure olerki zaleak poesiatzat hartuko lituzke, naski, eta sinpleki, erritmo eta soinuekin jostatzen diren testu guziak, irudiak eta emozioak sorrarazten dituzten ber. Eta azkenean, lan horretatik lekora, ez lituzke zortzi baina hirurogeita hamar bat izen zerrendatuko, % 60 gizon eta % 40 emazte, guti gorabehera.

Artikulu honetan, saiatuko gara holako ikerlanak ukan lezakeen emaitza eskaintzera, franko xumeki. Zonbait orrialdez Ipar Euskal Herrian azken laurogeita bost urteotan hazi den poesiaren azterketa sakonik osatu ezinean, panorama orokor bat bederen aurkeztuko dugu, olerkari nagusi zein ezezagunak erakarriz, eta beren lanaz bi hitz erranez.

Poesiaren ikuspegi zabala eman nahi izan duten batzuek, beste kulturalor batzuetan, konstelazioaren metafora erabili izan dute, poeta anitzek okupatu eremua itxuratzeko. Philippe Jaccottetek, adibidez, gustatzen zitzaizkion bi bilduma pertsonal argitaratu zituen, honelako izenburuak jarritz: *Une constellation, tout près* (Jaccottet 2002) eta *D'autres astres, plus loin, épars* (Jaccottet 2005). Baina zeru urruneko izarrak baino, nahiago dut, gure olerkarien testuak aipatzerakoan, lur hurbileko loreen metafora, lore-bildumarena (antologia bat, besterik ez baita). Ipar-lurraldeko lore guziak ez baititzaiket hemen bildu, goazen halere ikustera nork, non eta nola erein dituen.

Ipar Euskal Herriko olerkarietan, badira biziki emankorrak, gogo-bihotz muineraino eta oroz gainetik POETAK —letra larriz— direnak. Horiek, egiazko obra osatu dute, liburu- (edo testu-)kantitateari eta kalitate estetikoari begira. Haien mundu berezian murgil daiteke irakurlea; haien ekoizpen poetikoaren aniztasuna edo bilakaera azter lezake ikerlariak; haien lana eredugarritzat erakutsi, irakasleak. Olerkari horiek liliz beteko baratze zabalak eskaintzen dizkigute, non ibil daitekeen hamaika kolore, forma, usain, erritmo, musika, erro, abar, landare eta fruitu gozatuz. Badira ere produkzio oparorik egin ez duten poetak, baratze joritan ez, baina pentze edo larre loredunetara eramaten gaituztenak, lilura eta atsegina sorraraziz hantemenka, noizbehinka, ustekabeen bezala.

Ez nuke, artikulu honetan, hierarkia epaitzailerik adierazi nahi bi mota-tako idazle horien artean. Ene xedea izanen da, besterik gabe, azaltzea Ipa-

rraldeko olerkariak zoin diren gure aro garaikidean, zer nolako testuak idatzi dituzten, zoin leku duten Iparraldeko literaturan eta jendearen oroimenean. *Maiatzeko* erredaktoreek idatzi dute 2015eko azaroko 61. zenbakian, «poeta guziak [...] ahazduraren bidean sart[zen]» direla: lan hone-tan, ahal bezainbat ahanztura horretatik babestu nahiko nituzke, bai poeta baratzezainak, bai poeta soro- edo larre-zainak.

Narrazio eta eleberri alorrean baino zailago da, oraino, poesia mugimen-du edo korrante literariotan sailkatzea: egile bakoitzak mundu intimo bere-zia irekitzen digu, eta artifizia litzateke talde homogeneoak arbitrarioki eraikitzea. Julien Gracq idazle frantsesak zioen zorion handia zitzaiola auto-re baten unibertsoan sartzea —«*Si je pousse la porte d'un livre de Beyle, j'entre en Stendhalie, comme je rejoindrais une maison de vacances*» (Gracq 1980)—. Berdin erran genezake poeta banaren munduaz: sarrarazten gaituzte bata-k eta besteak beren *etxean*, beren *etxe-* (edo *eko-*)*sisteman*, beren *-baitan*, beren *-enean* —Iratzederrek, *Iratzeder-Baitan*, Erdozaintzi-Etxartek, *Erdozaintzi-Etxartenean*—.

Halere, bana-bana ezin aurkeztu daitezkeelako hamarnaka olerkari, mul-tzoka aipatuko ditut, nahiz eta bakoitzaren berezitasunak azpimarratuko ditudan: lehenik, «baratzezainak», zoinetarik anitz klasiko bilakatu diren, poesia-zaleen apalategietan, bihotzean, memorian, ezpainetan daudenak; ondotik, «soro- edo larre-zainak», lehenbizikoen atzean egonez Iparraldeko poesiaren osaketan parte hartzen dutenak ere.

Nahitara ez dut hemen Itxaro Bordaren obra aipatuko: bera dugu poeta emankorretan emankorrena: lumatik jalgitzen zaizkio olerkiak, ura iturritik bezala. Baratzea ez, lurralde oso bat sortu du, bere argi eta iluntasunekin, bere azal eta sakontasunarekin. Askatasun, trebetasun eta umore zoragarritz azaltzen ditu sentimenduen prekarietatea, bakartasun etsigarria, bizirauteko salbabidea den maitasuna. Itxaro Bordaren obra duinki aztertze-ko, bizpahi-ru tesi beharko lirateke eta ez zonbait paragrafo, hemen gehienik eskain nezakeen (baina eskainiko ez dudan) bezala.

Bururatzeko, hainbat galderari laburki erantzuten saiatuko naiz, perife-riaren periferian ezkutatua den Iparraldeko poesiaren norabidea marraztuz.

2. Ahots liriko nagusiak

Iparraldeko lirika garaikidea hasi zen, ene ustez, Xalbador urepeldarraren (1920-1976) bertsoekin. Bertsolaritza idatzia eta olerkigintza arte berdinak dira, Ferrando Aireren ustez: «Badira gizonak, beren erran beharrak gogoratu arau jendearen aintzinean goraki kantatu behar dituztenak; bertze batzu aldiz, munduari edo Jainkoari bakartasunean mintzo zaizkionak. Hauek, enetzat, pertsu idazleak edo kantu egileak dira, eta zonbaitek deitzen dituzte “olerkariak”» (Xalbador 1976: 65-66).

Xalbador, kasu horretan, olerkaria izan zen, Etxahun Iruri (1908-1979), Berjinanto (1912-1987), Larreko (1924-2013) eta beste hainbat bezala.

Gaietan, Xalbadorrekin etxea, etxeokak, euskara, herria uztartu ditu; tonu errealista, lirika ezkor hunkigarriarekin nahasi du, etorkizunerako itxaropena Jainkoaren baitan ezarri.

Burua gordez han hasi nintzan berriz Jaunari lo galdez,
bainan amentsa nuen bilatzen, ez nindabilan logalez;
amodioa, gaur egun ere hoin sendo bada ahalez,
bihotzez bihotz mundu guzia kurri dezala hegalez,
tristura eta herra lurpean sar ditzen haren ahalgez,
sar ditzen haren ahalgez.

(Amentsetan, Xalbador 1976: 322)

* * *

Xalbadorren adinkidea izan da Xabier Iratzeder (Jean Diharce) fraide beneditarra (1920-2008), poeta oparoa, hamabost bat olerki-bildumekin. Munduaren edertasun eta misterioaz liluraturik, dena zaio bertsogai Iratzederri, dena kantagai:

Nahi nintuzke denak pertsutan ezarri.
Zuhaitz azpi batean aurkitu orduko,
begiak zuri, xutik, pertsuka naiz ari.
[...]
Hori gabe bizia hain da hits, hain pisu...
Doi bat airatu gabe egun bat ez nauke,
hain dut airaldi hoitan gogoa dohatsu.

(Pertsutan, Iratzeder 1983: 23)

Testuetan, gehienik aipatzen duen gaia natura da, bereziki hain maite dituen itsasoa eta mendia, fede kartsuarekin lotuz.

Itsasoan, itsasoan,
uhain zabal zoroan,
urrunerat itsasoan.
Zurekin maiz nindoan.

Ez zen han neurririk,
Ez zen han mugarik!
Zu kapitain ni lemazain,
ez zen han gu bezain
Bihotzez alarik.
Urrunerat itsasoan
zurekin maiz nindoan.

(*Itsasoan*, Iratzeder 1983: 234)

Oi mendien gainetik bazterren zabala
goiz et'arrats kantari airoski nabila.
Gaizkian dabiltzanak ilunik daudela:
Nik bihotza arin dut xoriak bezala.
[...]
Mendi gainen gainetan elurra zoin xuri!
Bego nere bihotza hekien iduri.
Bizian nausi bedi ilunbe orori
hel nakizun, oi Jauna, goiz batez kantari.

(*Oi mendien gainetik*, Iratzeder 1983: 267)

Baina etxekoez ere ari da, gai sozialez, gizarteaz, euskaraz, gazteriaz, herriaz.

Kolpatu hori,
dena zauri
den hil-hurren hori
euskaldungoa dugu orai.
Badu zauri,
badu etsai.
Nor du alde?
betitik eta betiko

nor du orai
bihotz-odol emaiteraino
adiskide?

(*Berrogoita hameka urte...*, Iratzeder 2000: 57)

Intimitatean sentitzen dituen pozak, dudak eta penak umilki eta manera hunkigarri eskaintzen ditu Iratzederrek. Metrikan aniztasuna eta joko atsegina erakusten du, bai ohiko formak, bai forma berritzaileak erabiliz. Itxura sinpleko testuak ehuntzen ditu, zinez atseginak eta gozagarriak. Hortaz, bat nator Jean-Louis Davantek idatzi duenarekin:

Aditu batzuen arabera, kantua gauza bat da, eta poesia bertze bat, arras bertzelakoa. Iratzederrek ez ditu bereizten, nik ere ez [...]. Beti aditu zenbaiten arabera, olerki herrikoia —ala herritarra?— eta goiko poesia bereizi behar laitezke. Iratzederrengan ez dut holako haus-turarik nabaritzen [...]. Batzuen ustez orain, olerkia hetsiago, miste-riotsuago, ulergaitzago eta hobe da, konprenitzea bekatu balitz bezala. Ez dut ikusten zergatik eta zertako holakoa izan behar lukeen.

(*Maiatz* 61, 2015eko azaroa: 94)

Sinple, natural, herritar eta ulergarri idazteak ez du erran nahi, lanik ez duela hartzen Iratzederrek. Ezen, batek daki anitzez errazagoa dela korapilatsu eta ilun idaztea, leun eta argi baino.

Gaietan, Iratzederren olerkiak dira, gehienetan, esperantzaz beteak, airo-sak eta freskoak: goibeltasunari uko egiten diote, eta fede handia erakusten dute edertasunean, bizian, gazterian, etorkizunean eta Jainkoaren baitan.

* * *

Xalbador eta Iratzederren belaunaldi berekoa dugu, ondotik, Mixel Labe-guerie (1921-1980), kantagintza arraberritu zuen poeta abertzalea. Ez digu holako obra nasairik utzi, baina haren hogeita hiru kantuak osoki erroto dira gure kultura herritarrean. Mixel Itzainak argitaratu zituen 1999an, beste olerki batzuekin ere (Itzaina 1999). Hauxe bereizi dugu, besteak beste, euskal gizartearen baitako bortizkeria eta borroka armatua gaitzesten duena:

Aberriaren askatasunaz profetak mintzo denetan,
zauri guzien erremedioa dadukate hitz batean.

Nik ere nahi dut Askatasuna,
izaitekotan gizonarena.

Xori txikiak, kaiolan denak, askatasuna zertako?
Libratu eta erortzen bada arranoaren meneko!

Euskal Herrian ere badugu mendietako arrano,
euskal xoriak daduzkatenak beren menean esklabo.

(Itzaina 1999: 95)

* * *

Natura, herria, euskara, euskaltasuna, esperantza sutsuki goraipatu zuten aitzineko hiru poeten ondotik datorkigu Jon Mirande (1925-1972), garratz eta etsikor.

Ai! goragotik ethorri-haizeek
ailezate jo ene landetan
et'eiharraraz «itxaropena»
izena duen zithal-lili haur!

(*Lili bat*, Mirande 1984: 78)

Darabilzkien gaiek, izua eta nazka eragiten dute, baina haren hizkuntza erabiltzeko trebetasunak miresmena sorrarazten du. Poeta polemiko bezain patetikoa dugu, Mirande zirrargarria, gorroto ziola mundu guziari, eta lehen-lehenik bere buruari.

Et'ezpainetan zure ezpaina,
Potka... Orduan atzarri naiz:
Nihaur ninduzun berriz ere...
Zertako, ai, atzarri naiz!

(*Ametsetarik*, Mirande 1984: 74)

* * *

«Haur ilortu[z]» eta «maitagailu[z]» (*Paranoia*, Mirande 1984: 122), edo «paiderasten maitarzun minkorr[ez]» (*Larunbat arrats*, Mirande 1984: 123) ari zela Mirande, haurrenganako goxotasuna eta ardura adierazi digu Marijane Minaberrik (1926-2017) bere olerkietan. Maiz bereizten dira heldu-literatura eta haur- eta gazte-literatura, baina ene ustez, horrek ez du, fun-

tsean, zentzu handirik, dena literatura baita. Natxo de Feliperekin batera, aitor diezaiogun, bada, Marijane Minaberriri, zinezko poeta izatea, hain da jostakina erritmo eta soinuekin. Gainera, zinez hunkigarria izan daiteke:

Maite dut gauaren bakea,
lagun esku baten beroa,
izar ihintzaren freskoa
amak haurrari egiten
duen irriño ezia,
zeru urdinean den
goibel arin xuria,
idortzen ari den
belarraren usaina,
eta uda euri ondoan
lurraren hats beroa,
maite dut bizia.

(*Maite dut bizia*, Minaberri 2019: 184)

* * *

Jon Miranderen adiskide izan zen Txomin Peillenek (1932-2022) ere olerkiak idatzi zituen. Ariketa estilistikoak edo poesia intelektualistak dira, gehienetan: gai tradizional bat edo literatura-hertsadura bat hautatu eta, autoreak testu landu eta eruditua proposatzen dizkigu. Ohargarriak dira testu exotikoak, orientalistas, hala nola Abd El Kaderren omenezko testu epikoak.

Bi lagunek, hamar lagunek
ehun lagunek
hamar mila mudjahidek
Saidi Abd El Kader emira
leialki hire deiari erantzun:
Djihad!
Djihad!
Kanpora Rumi kristauak
Abdaka El Kebir!
Allah Akbar!

(*Abd El Kader*, Peillen 2003: 61)

* * *

1930eko hamarkada horretan sortu zen Manex Erdozaintzi-Etxart baxenabartarra (1934-1984), Iparraldeko maisu handia. Bizi osoan idatzi zuen poesia, euskara, euskaltasuna eta herria aipatuz, lehenik erbestea arintzeko, gero jendearen kontzientzia pizteko. Itxaro Bordak idatzi bezala, ahots liriko berezia atzeman zuen Iparraldeko poesia erlijiosoaren eta Hegoaldeko poesia politizatuaren artean (*Maiatz* 1995). Haren poesia libreak berehala harapatzen du irakurlearen bihotza, eta nahi duen lekura eramaten, goxoki bezain segurki. Etorkizunerantz konfiantzaz begiratzen du, inozenteki ez baina baikorki, mundu berri bat amestuz.

Ikusten dituztan gauzak
 Senditzen dituztan gauzak
 Jastatzen dituztan gauzak...
 ederrak, gozoak, onak direla
 Sinesten dut.

Entzuten dituztan hotsak
 bereizten dituztan soinuak:
 abereen garrasiak, gizaki oren mintzoak
 kantatzen diren abestiak
 biziaren mugimendu daldara izaki orotan...
 amiagarriak, atsegingarriak, pozgarriak direla
 Sinesten dut.

Biziaren mugimendu hots desberdina
 Izaki eta gizaki guzietan
 hunkigarria, zoragarria, lilluragarria dela
 Sinesten dut.

Loreak loretze betean
 fruituak fruitutze betean
 zuhaitz eta harri eta burdin
 lurraren lurtatze mugimendu daldaran
 mendiak eta itsasoak
 izaki eta gizaki guziak
 izadiaren ekilibrio betean iraunen dutenean...
 Sinesten dut
 gizonaren zoriontze betean.

Esperantzak
gizon guzien
izerdiaren izerdiaz
burrukaren burrukaz
mundu berri bat
erdiko duenean...
Sinesten dut
gizonaren zuentasun batean
gizonaren askatasun betean
gizonaren amodio betean.

Loreen loretze betean
Fruituen fruitutze batean
lurraren lurtatze mugimendu daldaran
izaki eta gizaki guziak
irautearen betean dantzatuko direnen...
Sinesten dut
hastapeneko, gaurko eta betirako
Amodio haren Izenean
eta, berriz ere, deituko diot:
Biziaren Jaun Goikoa
hastapenetik betirakoa...

(*Sinesten dut*, Erdozaintzi-Etxart 1994: 64-65)

Manex Erdozaintzi-Etxarten hainbat olerki musikatuak izan dira, eta herri-kulturan sustraitu dira. Berezi dugun *Sinesten dut*, adibidez, Peio Ospital eta Pantxoa Karrere abeslariak gizarteratu zuten, *Euskalduna naiz eta maite dut herria* diskoan, 1978an. Poeta eredugarria izan da, kultura-eragile, gazteen laguntzaile. Gogo-bihotzez engaiatu da jendartean, Agurtzane Ortiz Lopetegik erakutsi bezala, bere tesian lehenik, eta ondotik *Manex Erdozaintzi-Etxart, herriaren poeta* liburuan.

* * *

Poeta gisa ez da hain ezaguna Jean-Louis Davant (1935) antzerki-, pastoral-, saiakera-egilea. Bizkitartean, zazpi olerki- edo bertso-bilduma baditu argitaratuak. Itxura naturala duten testuek izugarriko barnekotasun eta erudizioa erakusten dute. Historiaz, herriaz, euskalduntasunaz, euskaraz,

izadiaz, gure figura eredugarriez ari zaigu, alegia deus ez bezala, umore finarekin eta metrika biziki zainduarekin, ohiko formak, forma jasoak (hamalauduna) edo forma libreak aldizkatuz.

Txibuli, txibula
ozpina, eztia
martxoko txirula
usu da bustia.

Tzipisti, tzapasta
handituz dabila
hodei bat kiskila
kazkabarra bastan.

Uharren artetik
ekia kukuxka
neguen atetik
uda kuxka-kuxka.

Irria, negarra
zeruan behera
martxoan ezteiak
maiz ditu axeriak.

Txoria txiruli
txirulan iduri
sasian kantari
han bera dantzari.

Ez dago bakarrik
aldaxka hartarik
lanean isila
sortu da muskila.

Apexa xixari
negarrez irria
ekiaz euria
martxoan ernari.

(Bedatsea, Davant 2003: 9-10)

* * *

Eñaut Etxamendi (1935) Jean-Louis Davanten adinkidea da. Irakasle, ikerlari eta bereziki kantaria da —Eñaut Larralde adiskidearekin ibiltzen zelararik—. Hainbat ikasle- eta entzule-belaunaldi sakonki markatu ditu. Haren testuak engaiatuak eta umoretsuak dira, bai eta amultsutasun handikoak ere bai. Ipar Euskal Herriaren kontzientzia eta memoria kolektiboaren akuilatzailerik da, dudarik gabe. Hitzekin libreki jostatzen da, ñabardurak maisuki baliatuz, lirika herritar hunkigarria erabiliz. Biziki landua den poesia sortzen du, itxuraz sinple eta ulerterraza baldin bada ere: poesia hurbila bezain zaindua.

Tiki-taka, tiki-taka ibilki da astottua goizik
bidez bide hinki-hanka doa elizarako bidetik
Tinki-tinki soka dauka amañok eskuetan tinkirik
astoa so bepazterka ez zakion zaia koka
bazterretako laparretarik
biak, biak krika-krika jausten ziren gaztaina maldatik
meza saildurat otoizka
biak, biak tiki-taka, tiki-taka, tiki-taka.

(*Tiki-taka*, Etxamendi 2013: 30)

* * *

Manex Pagola (1941-2018), olerkari kantaria izan zen hura ere. Manera eraginkorrez bideratu zituen abertzaletasuna eta salaketa politiko-sozialak. Zuzengabekeriaren kontra oldartzera deitzen zuen, aberria eta justizia sozialaren alde borrokatzera, umorea eta lirika hunkigarria aldizkatuz. Manex Pagolak ere Ipar Euskal Herriko kontzientzia piztu nahi izan zuen, eta eragin handia izan zuen jendearengan. Beti ttipien alde ezartzen zen, eta herri-jakitatea handi-mandien kulturaren heinekoa ikusten zuen. Nahiz eta errealtate latza begi-bistan atxiki, haren testuek esperantza-emaile izan nahi zuten, bereziki gazteria gogoan.

Bihar Herri huntan zorion eta bake
herritar guziendako!
Bihar Herri huntan denentzat bozkario
denek bizi behar baitute!

Ezagutzen ditugu bertzetaz baliatzen direnak
bertzen izerdiz dituzte egiten aise ontasunak

bainan lanik gabe dago hortxe gure auzo lehena
barne-oro ehailia: bihotz barneko iluna.

Gure herri askotan berexgoa sartu nagusi
kanpotik ta barnetik batzuk daukute dena hautsi!
Jaunxkila batzu lan hortan ari baititugu ikusi
herritarrak xutitzean joan dirare ihesi.

Lanbideak moztu nahiz baderamate ele zuri
laguntzak oro emanez beren kideko horieri.
Bainan azkenez jendea ohartzen joko hits horreri
lantegiak berak sortuz esku emanez elgarri.

Guri hurbil hurbilean zabaltzen da mundu nasaia
horren zoriontzen gaiten guziak bihotzez lehia:
Gure haurrek eta gaztek eder ukan dezen bizia...
Gizonaren helburua hortan sartzen da guzia...
(*Bihar herri huntan*, Pagola 1988: 42)

* * *

Auxtin Zamora (1943) poeta isila da. Ahots liriko sentikorra entzunarazten du olerkiz olerki. Bizitzaren une iragankorrak harrapatu nahian bezala, sentimendu bat, gertakari natural bat, eguneroko keinu bat, anekdota irringarri bat «betierekotu» nahi du hitz hautatuetan. Tartean, euskaltasuna eta herriaren gorabeherak ere aipatzen ditu. Testu laburrak dira, gehienetan, hitz urrikoak, neurtitz librean idatziak.

Biluziko naiz neure hitzez,
biluziko naiz neure olerkiez,
neure larru eta pentsamenez,
eta, lehenbiziko horma haizeak,
ñakatuko dauzkit,
hitzak eta olerkiak,
hilarrietako harrien itzalek
xirtxifikatuko,
larrua eta pentsamena,
eta
neure ixiltasun biluzgorritik,
ziuztatuko zauzkit,

itsutuki,
«izanaren izenen» xilkosokak.

(*Biluziko naiz*, Zamora 1988: 59)

* * *

Henriette Aire (1943) poetak olerki-bilduma bakarra plazaratu du, *Egiarren egarri*, 1989an, baina hainbat testu argitaratu ditu *Maiatz* aldizkarian. Ez du jaso merezi duen ezagupenik, momentuko: ahantzia bezala da, aipatu gizonezkoak baino are gehiago. Bizkitartean, Ipar Euskal Herriko poesiara erakarri ditu hainbat gai berri, emazte-ikuspuntutik, hala nola nork bere bidearen hautua egiteko eskubidea, gizartean onartua izateko zailtasuna, maitasunaren baitako sinesmena, konbenio sozial guziez gain. Imanol Larzabalek musikatu zuen ondoko olerki hau, *Iratze okre geldiak* diskoan (2016):

Haurraren aita da,
zorionezko parabisu batean,
maitasunaren baratzeko loreez,
haurraren ama amultsuki,
apaintzen duen gizona.

Haurraren aita da,
eztitasunaren gozoaz inguratuz,
maitasunaren sukarraz,
haurraren amari bihotza
berotzen dion gizona.

Haurraren aita da,
bere besoen artean tinkatuz,
bihotza bihotzaren ondoan,
haurraren amari bizi bizi,
sendiarazten dion gizona.

Haurraren aita da,
besoetan amultsuki kulunkatuz,
begietako nigar-xorta xukatuz,
amaren haurrari, maitasunaren loreak
eskaintzen dizkion gizona.

... Eta ez,
ezkontza sakratu,
legezko batasunaren izenean,
egin-bidea bete beharrez,
nahi edo ez,
mehatxuzko ondorioen beldurrez,
emazteari bere gorputza
ebasten dion gizona.

(*Haurraren aita*, Aire 1989: 19)

Izaki minduaren ahotsa dugu hautematen olerki horietan, fede kontsola-tzailea hitzetan ezarri duenarena, zer gerta ere burua xut iraun nahi duenarena.

Egunak urteak
kaska ta kaska
fereka eta kaska
odola ere dario
orai xilopia bakoitzetik
xortaka-xortaka
eta azkenean
zure egiaren egarritz
eta bakartasunean
munduarentzat duzu
zure harrian kokatu
betiko
hilgarri ez den
bizia.

(Aire 1989: 41)

* * *

Beste errealismo mota bat adierazten digu Daniel Landartek (1946) bere poesian, hau da, 80eko eta 90eko hamarkadetako arazo sozialak: etxesalmentak arrotzei, turismo-masak, lantegietako lan baldintza oldargarriak, abertzaleen kezka eta itxaropena etorkizunari begira.

Baina horra!
Nagusiek ez dituzte maite

horrelako langileak.
Langile buruargiak...
zeren horrelakoak (oi gaixtoak!)
horrelakoek baitituzte
beste langileen kaskoak berotzen,
sua pizten, saltsa muntatzen
eta, eta... nagusiaren interesak
arriskuan ezartzen!

Beraz, beraz,
gauzak sobera sumintzera utzi aitzin,
eta dirudunak beti errege egon daitezen...
gaixo, gaixo, gaixo nagusi
euskaldun fededun kartsuak,
hau dela eta hura dela,
dena estakuru-mestakuru
eta bixtan da lantegiaren onerako:
eta langile laguna
kanpora igorri du!

Erranen didazue gero
euskaldunen artean
klase arazorik ez dela...
Hauxe bada gezur ustela!

(*Laneko lagun bati*, Landart, *Maiatz* 1984, 7: 34)

Daniel Landarten testu anitz ezagutarazi zituzten Anje Duhalde eta Mi-xel Ducau musikariek, memoria kolektiboan luzerako txertatuz.

Gure lantegian eguzkirik ez
Ta langileok gaude herabez
Gure lantegian burrunba gaitza
Usain zikina ta lan bortitza
Gure lantegian tresnak dagotzi
Nausien orde z gure gidari.

(*Goizero, goizero*, Landart,
Euskaldunak-Le peuple basque 1975, 12: 6)

Baina Daniel Landart maitasunezko testu-sortzailea ere bada ere, denok dakigun bezala, *Zure begiek* lanarekin, bereziki, Mikel Laboa euskal kanta-riak betirako musikatu zuen kantua.

* * *

Mayi Pelot (1947-2016) ezaguna da zientzia-fikziozko narrazioengatik, baina olerkiak ere idatzi zituen *Maiatz* aldizkarian. Bere kontaketen beza-la, mundu arrunt berezia osatzen du testu poetikoetan ere, soinu, irudi eta erritmoekin jostatuz, irakurlea desbideratuz, ustekabeen harrituz. Senti-menduen eta giza harremanen konplexutasunean sarrarazten gaitu, olerki sinbolista eta erudituetan.

Gorputza liraina
urratsa arina
ile horail-nabarrak bizkarrean ixurtzen
dituen
neska hori
ni baino
eder azkarragoa zela
banekian
[...].
Orain mendira joatera
ez nauk atrebitzen
zuen gorputzen besarkaturik aurkitzeko
beldurrez.

Baitzekiat
ta bait dakik
neska hori
herioa
dela.

(Pelot, *Maiatz* 1988, 15: 28)

* * *

Jon Casenave (1957) ere gogora ekarri nahiko nuke hona. Bi olerki-bildumatan, maitasunaren gaia du nagusiki jorratzen, neurtitz librean eta lirika bereziaz.

Baina DESIOA indar gotorra da...
Desioaren aintzurak iraultzen nau,
beroak gorritzen
ta mihia toteltzen zait,
zirimolak, su-emaile, aireatzen,
uherdurak karazkoka, zarrasten gorapena!

Agian tenorez ito nauzu errezale trebea...

(Casenave 1978)

* * *

Aurelia Arkotxak (1953), poesia biziki landua eta jasoa dakarkigu, bai *Maiatz* aldizkarian, bai *Atari ahanziak* lanean, bai *Septentrio* liburu geopetikoan, baita Hatsaren Poesia bilduman ere. Hainbat irakurketak osatu irudimen kultua uztartzen du bere bizipen eta bidaiekin, olerki arras original eta pertsonalak eskainiz.

Marmol xurizko zutabeen artean
nindagon aspaldi zure esperoan
mila urte huntan gaztelu xurian
nindagon zure begi-ibaiak gogoan.

Bide-bazterretako muga-harri gainean
nago gaur bakarrik haize latz basean
mila urte huntan bide-gurutzean
nago gaur zu gabe eremu hutsean.

Zihoazen hedoiak
flamenko arrosak
pelikano argiak
ibis sakratuak.

Zeramatzan urak
desira laranjak
lillura urdiñak
amets esmeraldak.

(Nausikaa, Arkotxa 1993: 55)

3. Ahots batzuk gehiago

Xabier Zubelet (1953) eta Jakes Ahamendaburu (1961-2022) erakar-tzean, orain, erran daiteke bakoitzak bere intimitatearen baratzean sarraraz-ten gaituela. Zubeletek, hizkuntza jostakinaren bidez, testu pindartsu, zapar-tatzaile edo gogoetagarriak eskaintzen dizkigu, Ahamendaburuk barne-bizi bakarti bezain aberats eta hunkigarrian barna eramaten gaituelarik.

Aipatzekoak ere baditugu, hemen, noizbehinkako poetak, edo isilka bi-zitzan zehar idatzi dutenak eta beren lana berriki baizik plazaratu ez dute-nak: Manex Lanatua (Ahatsa, 1948), Txomin Hegi (1956), Joseba Aurke-nerena (1956), Marikita Tanburin edo «Mari Ameztói» (1946), Ttotte Etxebeste (1960) eta Luixa Gilzu.

Olerkari gazteagoetan, hor ditugu Ur Apalategi (1972), olerki-bilduma bakarraren sortzaile eta aspaldi narrazioari buruz itzuli dena, Eric Dixarri (1969), arte kontzeptuala garatzen duena eta sei liburu plazaratu dituen, Odon Noblia (1974)...

Berrogeita bi urte hauetan diharduen *Maiatzetik*, antologia bat publikatu zuen Euskaltzaleen Biltzarrak (2016), baina aldizkariaren altxorak ez dira modu akademikoan nehoiz behar bezala aztertuak izan, ez eta hogeita sei urtez euskal poesiari (ez bakarrik iparrekoari, baizik eta Euskal Herri oso-koari, eta diasporakoari ere bai) arnas berri bat eman dion Hatsaren Poesia bilduma urtekaria ere. Bi gune horietan, Ipar Euskal Herriko ondoko idazle hauen poesiak bilduta daude: Daniela Albizu, Arantxa Hirigoien, Patxika Etxalai, Pantxoa Etxegoin, Maite Delia, Alots Nesprias, Josiane Valencia, Jakes Lafitte, Graxi Solorzano, Xerar Urrutia, Txomin Hegi, Maddi Zubel-dia, Peio Jorajuria, Luzien Etxezaharreta, Maialen Etxegoin, Nikole Etxart, Piarres Aintziart... eta baita beste batzuenak ere.

4. Ipar Euskal Herriko poesiaren norabideak

Panorama laster horren ondotik, ohartu gara, ia ez dela Ipar Euskal Herrian olerki-bildumarik publikatu duen berrogeita hamar urtez petiko poetarik. Ha-

tsaren Poesia bildumaren barna, olerkari berriak eta gazteak ikus daitezke, azken urteetan, baina kasik denak Hego Euskal Herrikoak dira. Batek dio, olerkigintzatik urrun, gazteek beste adierazpen-bideak nahiago dituztela: adierazpen-bide kolektiboagoak, plazan agertzen direnak, ikusgarritasun gehiago dutenak, gertakari sozial handiekin hertsikiago uztar daitezkeenak (poesia, hortaz, bertsogintzaren, kantagintzaren edo prosa poetikoaren adierazpideekin lehia desorekatuan ikus daiteke). Ikuskizun-gizarteak horrela manaturik omen da, eta gazteak ez dirateke denetan izan, militantzia eraginkorrean eta poesia alorrean. Orobat zehaztu behar da, dugun poesia apurraren transmisioa nekez egiten dela, etxeetan zein eskoletan. Orduan, literatura idatziaren hautua egiten duten gazteek, «eskuak» «baratzean zikin[tzen]» dituzten bakar horiek, Amaiur Ephherren gisara (*Maiatz* 73, 2021eko azaroa: 80), euskal kultura osoan nagusitasuna hartu duen eleberrigintzari buruz itzultzen dira.

Hasierako galderara garamatza ohar mingarri horrek: Non dago, egun, Ipar Euskal Herriko poesia? Desagertua ote da?

Gordea, bai, baina ez desagertua: poetak badaude, isil-isilean, xuhurrik, erreposki, baratxe-baratxe baldin badabiltza ere. Beharrik, hor dugu Itxaro Borda, zoinen obra poetiko erraldoia aitzina badoan beti. Eta nola ez aipa 2024an agertu zaigun ustekabeko perla, Maddi Sarasua Laskariren *Biharko hegietan* bilduma? «Idazkera txarreko[a]» (Sarasua 2024: 94) denik ez dut uste, eta esperantza atxikitzekoa da berak edo bera bezalako beste gazteek segituko dutela neurtitzak ereiten.

Desagertua dela, poesia? Ez: beste bide batzuetatik badabil: beharbada onartu behar da poesia liburu eta aldizkari idatzietatik kanpo eramaten dutela belaunaldi gazteek, bertsogintzara edo kantagintzara, hastapenean erran bezala, ez baitira horiek arlo bereizgarriak. Ezen «ez da bukatzen erri-mategia / ez dut eskola zaharra ukatzen» dio ØDEI rap-kantariak, «Ene lurretatik» kantuan (*Terapia* diskoa, 2022).

Onartzen badugu muga irazgaitza ez dela olerki idatzia, bertsogintzaren eta kantugintzaren artean, Ipar Euskal Herrian, hain murritza den jendarte euskaldunaren baitan, ez daiteke erran poesia hiltzorian dela. Idatzizko arte eta intimitatean gozatzeko (idazteko zein irakurtzeko) genero literario gisa, ez dabil osasun onean; baina beste forma batzuen bidez dirau, betiko rol salbatzaileekin: oldartu, kontsolatu, biziraunarazi, esperantza eta zentzua eman, galdetu, eraiki.

Bibliografia

Ipar Euskal Herriko poesia

- AHAMENDABURU, Jakes (1988). *Isilka misilka*. Baiona: Maiatz.
- (1990). *Gauean ontuts*. Baiona: Maiatz.
- AIRE, Henriette (1989). *Egiaren egarriř*. Baiona: Maiatz.
- APALATEGI, Ur (1995). *Erdi guneak*. Baiona: Maiatz.
- ARKOTXA, Aurelia (1993). *Atari ahantziak*. Iruñea: Pamiela.
- (2001). *Septentrio*. Irun: Alberdania.
- AURKENERENA, Joseba (2017). *Bideetan barna*. Amalur-Baita.
- (2022). *Larrun azpitik*. Booktegi.
- BORDA, Itxaro (1984). *Bizitza nola badoan*. Baiona: Maiatz.
- (1986). *Krokodil bat daukat bihotzaren ordeř*. Zarautz: Susa.
- (1988). *Just Love*. Baiona: Maiatz.
- (1991). *Bestaldean*. Zarautz: Susa.
- (1998). *Orain*. Zarautz: Susa.
- (2002). *Hautsak errautsa bezain*. Baiona: Maiatz.
- (2007). *Noiztenka*. Baiona: Maiatz.
- (2009). *Ogella line*. Tarbes: La Malle d'Aurore.
- (2012). *Medearen iratzartzea*. Baiona: Maiatz.
- (2014). *Zure hatzaren ez galtzeko*. Donostia: Elkar.
- (2020). *Abaro*. Donostia: Balea Zuria.
- (2022). *Uhartearen mugetan*. Baiona: Maiatz.
- (2024). *Itzalen tektonika*. Zarautz: Susa.
- CASENAVE, Jon (1978). *Zutaz amoroski*. Donostia: Hordago, «Ustela».
- (1985). *Ordu alferren segida*. Donostia: Elkar.

- DAVANT, Jean-Louis (1982). *Denboraren aroak*. Bilbo: Bilboko Aurrezki Kutxa.
- (1985). *Nahi gabe*. Iruñea: CAM Pamplona.
- (1986). *Itsasoak iraultzan*. Baiona: Maiatz.
- (1990). *Ihesi*. Baiona: Maiatz.
- (2003). *Harri txintxolak*. Donostia: Elkar.
- (2015). *Bidean kantaltsez*. Baiona: Maiatz.
- DIXARRY, Eric (2012). *Hormatik hormaraino*. Baiona: Maiatz.
- (2014). *After Banksy*. Baiona: Maiatz.
- (2016). *Errudun*. Baiona: Maiatz.
- (2018). *Duchampen inguma*. Iruñea: Pamiela.
- (2020). *Eros*. Iruñea: Pamiela.
- (2022). *Deus*. Iruñea: Pamiela.
- ETXAMENDI, Eñaut (2013). *Kantu eta olerkiak*. Baiona: Maiatz.
- ETXEBESTE, Ttotte (2018). *Ez in erranezko hitzak*. Baiona: Maiatz.
- ERDOZAINZI-ETXART, Manex (1978). *Hinki-hanka*. Donostia: Elkar.
- (1985). *Herri honen erraietan*. Baiona: Maiatz.
- (1994). *Bizitza pilpirak – Nafarroari poema irekia*. Baiona: Maiatz.
- (2000). *XX. mendeko poesia kaierak*. Zarautz: Susa.
- EUSKALTZALEEN BILTZARRA (2016). *Maiatzen bidean, 1982-1990*. Baiona: Euskaltzaleen Biltzarra.
- HATSAREN POESIA bilduma (1998-2024).
- HEGI, Txomin (1989). *Arteka marteka*. Baiona: Maiatz.
- (2022). *Lur ilaunduan loreak*. Baiona: Maiatz.
- IRATZEDER, Xabier (1940). *Zakalar*. Belokeko monasterioa, Urketa: Ezkila.
- (1945). *Jakes*. Baiona.
- (1947). *Pindar eta lanho*. Belokeko monasterioa, Urketa: Ezkila.

- (1951). *Aphez*. Belokeko monasterioa, Urketa: Ezkila.
- (1951). *Eguerri*. Belokeko monasterioa, Urketa: Ezkila.
- (1951). *Ezkila eta tirola*. Belokeko monasterioa, Urketa: Ezkila.
- (1953). *Ezkongai*. Belokeko monasterioa, Urketa: Ezkila.
- (1953). *Mortuan oihu*. Belokeko monasterioa, Urketa: Ezkila.
- (1956). *Amen besta*. Belokeko monasterioa, Urketa: Ezkila.
- (1959). *Zeru-menditik (1941-1946)*. Belokeko monasterioa, Urketa: Ezkila.
- (1967). *Euskal Herria eta Yainkoaren gizaldia*. Belokeko monasterioa, Urketa: Ezkila.
- (1969). *Argiz argi*. Belokeko monasterioa, Urketa: Ezkila.
- (1972). *Uhaineri nausi*. Belokeko monasterioa, Urketa: Ezkila.
- (1977). *Fededunen arbasoa*. Durango: Leopoldo Zugaza.
- (1983). *Biziaren olerkia*. Bilbo: Gero.
- (2000). *XX. mendeko poesia kaierak*. Zarautz: Susa.
- ITZAINA, Mixel (1999). *Mixel Labeguerie, kantu berritzaile eta politika gizon*. Donostia: Elkar.
- JORAJURIA, Peio (2008). *Uzkinazo luma*. Baiona: Maiatz.
- LANATUA, Manex (1984). *Hegatz urratua*. Egilea editore.
- (1987). *Kilim. Okabeko gauak*. Baiona: Maiatz.
- LANDART, Daniel (1968). *Hogoi urte*. Baiona: Goiztiri.
- MAIATZ aldizkaria (1982-2024).
- MINABERRI, Marijane (1965). *Xoria kantari*. Uztaritze: Ikas.
- (2019). *Marijan Minaberriren meategitik*. Baiona: Euskaltzaleen Biltzarra.
- MIRANDE, Jon (1976). *Orhoituz*. Donostia: Kriselu.
- (1976). *Jon Miranderen idazlan hautatuak*. Bilbo: Gero.
- (1984). *Ene jainko-eidol zaharra, lur!* Donostia: Elkar.

— (1984). *Poemak 1950-1966*. Donostia: Erein.

— (1992). *Ilhun-argiak*. Leioa: EHU/UPV.

— (1999). *Obra osoa*. Alegia: Hiria Liburuak.

— (2002). *XX. mendeko poesia kaierak*. Zarautz: Susa.

NOBLIA, Odon (2009). *Ametsa*. Baiona: Maiatz.

— (2011). *Biziaren bideak*. Baiona: Maiatz.

PAGOLA, Manex (1988). *Biziaren altzotik. 80 kantuen bilduma*. Baiona: Baionako Euskal Erakustokiaren Adiskideak.

PEILLEN KARRIKABURU, Txomin (2003). *Mende joanazi*. Baiona: Maiatz.

PELOT, Mayi (2019). *Olerki, ipuin eta eleberririk*. Baiona: Maiatz.

SARASUA LASKARAI, Maddi (2024). *Biharraren hegietan*. Baiona: Maiatz.

TANBURIN, Marikita (2018). *Olerki bilduma*. Baiona: Maiatz.

XALBADOR (1969). *Ezín bertzean*. Tolosa: Auspoa.

— (1976). *Odolaren mintzoa*. Tolosa: Auspoa.

— (1981). *Herria gogoan*. Tolosa: Auspoa.

ZAMORA, Auxtin (1986). *Ezín errana*. Baiona: Maiatz.

— (1988). *Hatsaren bustia*. Baiona: Maiatz.

— (2002). *Trapuetan haizea*. Senpere: Hatsa Elkartea.

— (2009). *Zernahi izan eta ere*. Senpere: Hatsa Elkartea.

ZUBELET, Xabier (2009). *Bizil eta oldar*. Alegia: Hiria Liburuak.

— (2011). *Iza ote iza*. Baiona: Maiatz.

— (2015). *Elektroxok*. Baiona: Maiatz.

— (2017a). *Gazte olerkiak 1*, Amalur-Baita saila. Zarautz: Dakit.

— (2017b). *Gazte olerkiak 2*, Amalur-Baita saila. Zarautz: Dakit.

Aipaturiko beste erreferentziak

GRACQ, Julien (1980). *En lisant, en écrivant*. Paris: José Corti.

JACCOTTET, Philippe (2002). *Une constellation, tout près*. Genève: La Dogana.

— (2005). *D'autres astres, plus loin, épars*. Genève: La Dogana.

KORTAZAR, Jon (zuz.) (2009). *Egungo euskal poesiaren historia*. Leioa: EHU/UPV.

ORTIZ LOPETEGI, Agurtzane (2010). *Manex Erdozaintzi-Etxart, herriaren poeta*. Donostia: Elkar.

Arikala: aisialdi antolatua eta euskararen hizkera informalaren lanketa hezkuntza-testuinguru formalean^{1, 2}

Arikala: el ocio organizado y el cultivo del registro informal del euskera en el contexto de la educación formal

Arikala : loisirs organisés et pratique du discours informel du basque dans un contexte éducatif formel

Arikala: organised leisure and the practice of informal Basque speech in a formal educational context

GUIRADO IRASUEGI, Odei

Hezkuntza Saila (Hezkuntzarako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak)

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV)

odei.guirado@ehu.eus

ORCID: <https://orcid.org/0009-0007-5205-4595>

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2025i10.304>

Jasotze-data: 2024/10/09

Behin-behineko onartze-data: 2025/05/28

Behin betiko onartze-data: 2025/06/03

¹ Ikerketa-lan hau 2023-24 ikasturtean, euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko Gradu eta Master Amaierako Lanak saritzeko, Euskaltzaindiaren Mintzola deialdian saritua eta diruz lagundua izan zen.

² Eskerrak eman nahi dizkiet, bereziki, ikerketan parte hartu duten haurrei, euren ahotsa eta bizipenak eskuzabaltasunez nirekin partekatzeagatik. Era berean, esker ona adierazi nahi diet hurbiltasunez eta lankidetzarako prestutasunez neurekin aurrera eta atzera aritu diren irakasleei, hezitzaileei eta ikastolei. Halaber, eskerrik asko Euskaltzaindiari —ikerketa hau babestu eta egi-teko aukera eman didalako—, bai eta prozesu osoan ondo-ondoan izan ditudan guztiei. Azkenik, nola ez, bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi dizkiot Master Amaierako Lanaren gidaritzan jardun zuen zuzendariari, neure gogo-motibazioak bizkortu eta dudan onena aterarazteagatik. Mila-mila esker guztioi.

Ondorengo orrialdeetan, hizkera informala, aisialdi antolatua, hezkuntza formala, motibazioa eta atxikimendua lotzen dituen marko teorikoan kokatutako ikerketa-lana aurkeztu da. Hala, metodologia ludikoaren eta aisialdi antolatuaren bitartez euskararen hizkera informala landu ostean, esku-hartzeek haurrengan utzitako bizipenak eta izandako inpaktua aztertu dira. Ikerketa-metodo mistoaren eta diseinu konkurrentearen barruan garatu da, eta Arikala programan parte hartu duten Nafarroako bi ikastolatako haurrek ($n = 86$) eta Euskal Herriko beste zortzi ikastolatan programa bera aplikatzen duten irakasleek zein hezitzaileek ($n = 32$) parte hartu dute. Emaitzak datu kualitatiboak eta kuantitatiboak triangulatuz aztertu dira, eta ateratako ondorio nagusien artean nabarmendu da, esku-hartzeen bitartez haurrek euskararekiko motibazioa eta atxikimendua garatu dutela. Era berean, programaren aplikazioak parte-hartzaileen gehiengoan inpaktu positiboa izan duen arren, egindako analisi estatistikoetan desberdintasun esanguratsuak atzeman dira 1Haren (lehen hizkuntza) eta generoaren arabera: euskara 1H dutenek eta neskek onura handiagoak hartu dituztelakoa daukate. Orobat, irakasleen eta aisialdiko hezitzaileen bizipenei erreparatuta, hizkera informala lantzeko prestakuntza espezifikokoaren beharra dagoela ondorioztatu da.

Gako-hitzak: euskara, eskola, hizkera informala, aisialdi antolatua, motibazioa, hizkuntza-atxikimendua.

En las siguientes páginas se presenta un trabajo de investigación enmarcado en un marco teórico que relaciona el habla informal, el ocio organizado, la educación formal, la motivación y el apego lingüístico. Así, tras trabajar el habla informal del euskera a partir de una metodología lúdica y el ocio organizado, se analizan las experiencias vividas por los niños y niñas y el impacto de las intervenciones. La investigación se ha desarrollado dentro de un enfoque mixto y con un diseño concurrente, y han participado en ella niños y niñas de dos *ikastolas* de Navarra ($n = 86$) que han tomado parte en el programa Arikala, así como docentes y educadores/as de tiempo libre ($n = 32$) que aplican el mismo programa en otras ocho *ikastolas* del País Vasco. Los resultados se han analizado triangulando datos cualitativos y cuantitativos, y entre las principales conclusiones destaca que, a través de las intervenciones, los niños y niñas han desarrollado motivación y apego hacia el euskera. Asimismo, aunque la aplicación del programa ha tenido un impacto positivo en la mayoría de participantes, los análisis estadísticos han revelado diferencias significativas en función de la primera lengua (L1) y del género: quienes tienen el euskera como L1 y las niñas han sido quienes han sentido mayores beneficios. Del mismo modo, según las experiencias del profesorado y del personal educador de ocio, se ha concluido que existe la necesidad de una formación específica para trabajar el habla informal.

Palabras clave: euskera, escuela, habla informal, ocio organizado, motivación, apego lingüístico.

Les pages suivantes présentent un travail de recherche inscrit dans un cadre théorique qui articule langage informel, loisirs organisés, éducation formelle, motivation et attachement linguistique. Ainsi, après avoir travaillé le langage informel en basque à travers une méthodologie ludique et des activités de loisirs organisées, l'étude analyse les expériences vécues par les enfants ainsi que l'impact des interventions. La recherche a été menée selon une approche méthodologique mixte et un design concurrent. Y ont participé des élèves de deux *ikastolas* de Navarre (n = 86) ayant pris part au programme Arikala, ainsi que des enseignants et éducateurs/éducatrices de loisirs (n = 32) mettant en œuvre le même programme dans huit autres *ikastolas* du Pays basque. Les résultats ont été analysés par triangulation des données qualitatives et quantitatives. Parmi les principales conclusions, on observe que les interventions ont permis aux enfants de développer leur motivation et leur attachement à la langue basque. Par ailleurs, bien que l'application du programme ait eu un impact globalement positif sur la majorité des participants, les analyses statistiques ont révélé des différences significatives selon la langue première (L1) et le genre : les enfants ayant le basque comme langue première et les filles ont perçu davantage de bénéfices. De plus, d'après les expériences des enseignants et des éducateurs de loisirs, l'étude conclut à la nécessité d'une formation spécifique pour travailler le langage informel.

Mots-clés : basque, école, langage informel, loisirs organisés, motivation, attachement linguistique.

The following pages present a research study framed within a theoretical model that interrelates informal language, structured leisure, formal education, motivation, and linguistic attachment. The study explores the experiences and impact of interventions following the implementation of informal Basque language use through playful methodologies and organised leisure activities. The research employed a mixed-methods approach with a concurrent design. Participants included children from two *ikastolas* in Navarre (n = 86) who took part in the Arikala programme, as well as teachers and leisure-time educators (n = 32) who implemented the same programme in eight additional *ikastolas* across the Basque Country. Findings were analysed through the triangulation of qualitative and quantitative data. Among the main conclusions, it was found that the interventions fostered increased motivation and attachment to the Basque language among the children. Although the programme generally had a positive impact on most participants, statistical analyses revealed significant differences based on first language (L1) and gender: those who spoke Basque as their L1 and girls reported experiencing greater benefits. Furthermore, based on the experiences of teachers and leisure-time educators, the study concludes that there is a clear need for specific training aimed at developing informal language use.

Keywords: Basque, school, informal language, organised leisure, motivation, language attachment.

GUIRADO IRASUEGI, Odei (2025). «Arikala: organised leisure and the practice of informal Basque speech in a formal educational context», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 70 (2): 81-123.

1. Atarikoa
2. Oinarri teorikoa
 - 2.1 Hizkuntza estandarra eta hizkera-komunitateak
 - 2.2 Hizkuntza-erregistroak eta hizkera informala
 - 2.3 Hizkuntzaren ikaskuntzan eta sozializazioan testuinguruari begiratu beharra
 - 2.3.1 Testuinguru emozionala, atxikimendua, motibazioa eta hizkuntza-hautua
 - 2.4 Pedagogia soziolinguistikoa
 - 2.5 Aisialdiaren dimentsio hezitzailea
 - 2.6 Jolasa ahozkitasuna lantzeko hizkuntza-estrategia gisa
 - 2.7 Programen zehaztapena eta hezitzaileen rola garrantzia
3. Ikerketa-helburua eta -galderak
4. Metodologia
 - 4.1 Parte-hartzaileak
 - 4.1.1 Haur parte-hartzaileak
 - 4.1.2 Irakasle eta aisialdiko hezitzaile parte-hartzaileak
 - 4.2 Datuak biltzeko teknikak eta instrumentuak
 - 4.3 Datuen prozedura eta analisia
 - 4.4 Estandar etikoak
5. Emaizak
6. Eztabaida
7. Ikerketa-lanaren mugak
8. Ondorioak eta etorkizuneko erronkak

Bibliografia

1. Atarikoa

Euskararen biziberritze-prozesuan, eskolak euskara batua irakatsi du; hau da, euskararen aldaera estandarra. Eta horrek gure hizkuntzaren ezagutza zabaltzeko egindako ekarpena kolosala izan bada ere, emaitzak ez dira hasiera batean espero bezain onak. Besteak beste, ezagutzak erabilera informala ekarriko zuela pentsatu zelako (Amonarriz 2015). Haatik, ezaguna denez, euskararen ezagutzaren eta erabileraren arteko arrakala gero eta handiagoa da (Artetxe eta beste 2024), eta egiten den erabileran, baliabide linguistiko informalei dagokienez, hizkuntza ahulagoa da (Zalbide 2020). Ildo horretan, haur eta nerabeen³ arteko hizkera informalari erreparatuz gero, nabaria da erdaretara jotzen dutela adierazkortasun bila (Juaristi 2008; Zalbide 2011). Hori dela eta, haur eta nerabeek euskaraz eremu informaletan komunikatzeko gai izan daitezen, espazio ezberdinetan lanketa berezia egitea ezinbestekoa dela aipatua dute hainbat autoreek, baita eskoletan beretan ere (Aleman 2023; Antero eta beste 2023; Olasagarre 2023).

Testuinguru horretan, kokatuta dago, beraz, artikulu honetan aurkeztu dugun ikerketa-lana. Arikala pogramaren bitartez (Euskaltzaindia 2023), aisialdi antolatua, jolasa eta jarduera ludikoak ardatz direla, euskararen hizkera informala lantzen ari diren Nafarroako bi ikastolatako haurren, ikasleen eta hezitzaileen esperientziak jorratuko ditugu, hain zuzen ere.

Hala, ikerketaren helburu nagusia da, hezkuntza formalean euskararen hizkera informala ikasgelatik kanpoan eta ikasgela barruan lantzeak haur eta nerabeen euskararekiko atxikimenduan eta motibazioan eragina izan ote dezakeen aztertzea; bereziki hiltun berriengan (*new speaker*), hau da, euskara 2H edo 3H dutelarik ikasi dutenengan arreta jarri (Jaffe 2015; Ortega eta beste 2015), eta baita irakasleek eta hezitzaileek identifikatutako erraztasun eta zailtasunetan ere. Bada, artikulu honek hezkuntza-prozesuetan gutxi ikertua den hizkera informalaren arloari (Antero eta beste 2023) ekarpena egin nahi dio, eta, orobat, euskararekiko motibazioan eta

³ Autoreek, oro har, gazte-hizkerari erreferentzia egiten diote. Lan honetan, ordea, parte-hartzaileak aintzat hartuz, egilearen erabakia izan da artikuluan garatu den markoaren barruan haur eta nerabeei erreferentzia egitea.

atxikimenduan atzerakada atzeman duten ikerketen osagarri izan nahi du (Muñoa eta beste 2024; Ortega 2024).

Hurrengo orrialdeetan garatu dugun edukiari dagokionez, honako egitura honi jarraituz antolatua da: lehenik, ikerketa-lana kokatzen duen oinarri teorikoa atondu dugu; bigarrenik, ikerketaren galderak, metodologia, parte-hartzaileak eta datuak baliatzeko prozedura azaldu dugu; hirugarrenik, emaitzak aurkeztu ditugu; eta amaitzeko, eztabaida, ikerlanaren mugak eta ondorioak agerira ekarri ditugu.

2. Oinarri teorikoa

2.1 Hizkuntza estandarra eta hizkera-komunitateak

Hizkuntza definitu duten autore asko topa daitezke. Fishmanentzat (1993), komunikatzeko tresna da hizkuntza, bere baitan nortasun soziala eta identitate pertsonalaren osagai garrantzitsu bat duena. Pinzonek (2005) gehiago xehatu zuen aurreko hori eta hizkuntza gizarte-talde batek garaturiko komunikazio-iturria dela esan zuen; historia, kultura, etnia eta geografia jakin baten barruan sortua. Hizkuntza guztiak bana-banakoak dira, bat eta bakarra bakoitza, gizarte-talde baten kultura ondarea eta beronen idiosinkrasiaren isla. Sarasuak (2013), ildo beretik joanda, hizkuntzak kulturen bihotza direla baieztatu zuen eta «komunitateen existentzia sozialari oinarria ematen dioten eraikin kultura sofistikatuak» (22. or.) esanez definitu zituen. Beraz, kultura, hizkuntza eta komunitatea elkarrekin hertsiki loturik daudela esan daiteke, eta hizkuntza bera da horiek lotzeko haria iruten duena.

Hizkuntza bat eta bere testuingurua aldagai konplexuak dira eta hizkuntzak testuinguruaren arabera hartzen dituen komunikazio-formek analisi zehatza eskatzen dute (Gregory eta Carroll 2019). Era horretan ere, Zalbidetik (2020) hizkera estandarra eta herri-hizkerak bereizten ditu, nork bere funtzioak betetzen dituelako. Tickookek (1991), aldiz, hizkera estandarraz hitz egitean irakaskuntzari erreferentzia egin zion, eskolatzaren emaitza dela azalduz.

Herri-hizkerek aldaera asko izan ohi dituzte. Hala, Labovek (2006a) hizkuntza-komunitatea eta hizkera-komunitateak bereizi zituen, herri-hizkerak aldaera ezberdinak dituela erakutsi zuen: lehena, hizkuntza-komunitatea alegia, hizkuntza bat partekatzen duen lagun orori dagokio; bigarrena, aldiz, hau da, hizkera-komunitatea, hizkuntzaren aldaera bera partekatzen duen gizarte-taldeari. Ildo beretik doa Iurrebaso (2022), eta hauxe dio: hizkuntza-komunitatea hizkuntza bat partekatzen duen pertsona-taldeari dagokiola, eta hizkera-komunitatea, ordea, azterketa xeheagoetarako dela; nolabait, aldaera lokalizatuagoetara jotzen duena. Horren adibide dira euskara batua, euskalkiak eta herriz herri garaturiko aldaerak.

2.2 Hizkuntza-erregistroak eta hizkera informala

Hizkuntzak izan ditzakeen aldaera-sorta edo barietateez harago, hizkuntzaren erabilerarako erregistro-mota ezberdinak daude, esan nahi baita, testuinguruaren arabera erabiltzen diren hizkera ezberdinak (Barrios eta beste 2008). Labovek (2006b), testuinguruaren eta pertsonarekin/pertsonekin dugun harremanaren arabera, hots, hizkuntzak betetzen duen funtzioaren arabera, hiru erregistro bereizi zituen: testuinguru formaleko hizkera zaindua; testuinguru formaletik kanpoko aldizkako hizkera; eta lagunartekoa edo familia testuinguruan erabiltzen dena, bat-batekoa eta gertukoa. Muñoak (2020) testuinguru formaletik kanpo erabiltzen den lagunarteko hizkerari gazte-hizkera edo hizkera ez-formala deritzo; Amonarrizek (2015), berriz, «hizkera informala» eta «hizkera kolokiala» terminoak erabiltzen ditu. Alabaina, lan honetan, «hizkera informala» izendapena erabili dugu, hain zuzen ere, haurren lagunen arteko hizkeran jarri delako begirada.

Hizkera informalaren ezaugarriei dagokienez, hainbat autorek haren ezaugarri afektiboa azpimarratu dute: Vigarak (1998) afektibitatea jo zuen ezaugarri guztien artean nagusitzat; Travaliak (2008) afektibitatearekin batera bat-batekotasuna eta izaera naturala nabarmendu zituen. Ibarra (2020) harago doa: gaurkotasuna, bat-batekotasuna, adierazkortasuna, eta etxekoa, naturala eta berezkoa izatea dira hizkera informalaren ezaugarriak. Halaber, azpimarratu zuen, hizkera informalak duen araurik eza haur- eta

nerabe-hizkeraren, hots, lagunarteko hizkera informalaren oinarria dela, gizarte-taldea identifikatu eta elkarrekin hertsiki lotzen duena, kideak definituz eta nabarmenduz.

2.3 Hizkuntzaren ikaskuntzan eta sozializazioan testuinguruari begiratu beharra

Hizkuntza ikasteko prozesua diziiplina anitzetatik aztertu izan da —soziologia, psikologia eta antropologia barne—, eta ikuspegi pedagogikotik gero eta nabarmenagoa da testuinguruaren eragin soziala azpimarratzeko joera (Etxeberria 2003). Ezagutza linguistikoa ez da huts-hutsean garapen kognitiboaren emaitza, gizarte-harremanen eta testuinguru kulturalen barnean sortzen den prozesua baizik. Beste modu batera esanda, hizkuntzaren erabilerak testuinguru soziolinguistikoa eraikitzen du. Aldi berean, testuinguru horrek hizkuntzaren erabilera baldintzatu egiten du, harreman dinamikoan daudelarik elkarri eraginez (Apodaka eta Morales 2017).

Vygotskyk (1995) argi utzi zuen, hizkuntza ez dela inoiz hutsune sozial batean garatzen, eta elkarrekintzek funtsezko eginkizuna dutela jabekuntza-prozesuan (Vygotsky 1978; Fantini 1982; Cenoz 2021). Haurrak inguruko helduen bidez hasten dira hizketan, baina geroago, testuinguru kulturalak eta sozialak moldatzen du erabilera hori, aldaera, erregistro eta hizkeren hautaketa barne direlarik, eta zenbait kasutan hizkuntza-hautua bera ere bai (Barrios eta beste 2008; Arratibel eta beste 2021). Hizkuntza ez da soilik komunikazio-tresna: adimen kolektiboaren zutabea ere bada, ezagutza eta bizipen partekatuak eraikitzeko gakoa (Lasa 2023).

Brofenbrennerrek (1977) proposatutako lau sistemek —mikrosistemak, mesosistemak, exosistemak eta makrosistemak— erakusten dute, lagun bakoitzaren garapena inguruneen arteko elkarrraginean oinarritzen dela. Ekosistema bakoitzean garatzen diren harremanek hizkuntza-erregistroak baldintzatzen dituzte, eta hizkera informala, esaterako, gertutasunezko giroetan ageri da modu natural eta espontaneoan (Guirado eta Rua 2023b). Horren harira, «hizkuntza-ekosistemak» kontzeptua erabilgarria dela ikusiko dugu, hizkuntza-praktiken aniztasuna eta testuinguruaren eragina ulertzeko (Baraibar eta Bereziartua 2023).

2.3.1 *Testuinguru emozionala, atxikimendua, motibazioa eta hizkuntza-hautua*

Pertsonen jarrerek ez dute beti norberaren sinesmenetan oinarririk; testuinguruak ere eragina du (Ramos 2023). Harremanek funtsezko rola dute, eta hiru behar-multzo bereiz daitezke (Lopez 1993): atxikimendua, harreman-sarea eta kontaktu fisikoaren beharra. Atxikimendua da horietarik sendoena eta iraunkorrena (Iarnoz 1994).

Motibazioa, hizkuntza bat ikasteko eta erabiltzeko erabakian oinarri emozional eta identitarioa da (Gardner 1985; Barandiaran 2023; Dörnyei 2020), eta esperientzia positiboek eragin handia dute ikaskuntza-prozesuan (Gutiérrez 2014). Gutxiagotutako hizkuntzen testuinguruan, atxikimendua eta motibazioa elkarrekin estu-estu loturik daude, hizkuntzarekiko zein talde jakin batekiko loturak eragin zuzena baitu bai ikaskuntzan, bai erabileran (Vilches eta beste 2019). Hitzun berriek —euskara 2H edo 3H dutelarik ikasi dutenek— hizkuntza gutxiagotuaren biziberritzean eta ikaskuntza-prozesuetan duten rola kontuan hartuta (Jaffe 2015), hizkuntza baten jabe-kuntza- eta sozializazio-prozesuetan alderdi afektiboa aintzat hartzea funtsezkoa da (Dewaele 2010, 2022; Guirado eta Rua 2023a, 2023b; Migelena eta beste 2024). Izan ere, hizkuntza-antsietatea, oro har, 2Haren (3H, 4H...) jabe-kuntza-prozesuan ageri da, eta motibazioan zein atxikimenduan eragin negatiboa izan ohi duen aldagai afektiboa da; hizkuntza-mailak, testuinguruak eta generoak, besteak beste, baldintzatua da (Cenoz eta Santos 2017; Santos 2023).

Atala hau amaitzeko esan dezagun, atxikimenduaren eta motibazioaren aldagaiei genero-ikuspegia txertatzea garrantzitsua dela. Izan ere, ikerketek adierazten dute, oro har, neskek mutilek baino euskararekiko atxikimendu eta motibazio handiagoa adierazi ohi dutela (Martinez de Luna eta beste 2023). Ildo horretan, Oruesagastik eta bestek (2014) azpimarratu zuten, nesken parte-hartzea nabarmenagoa dela euskarazko aisialdiko jardueretan —kultura, dantza edo musikarekin lotutakoetan, besteak beste—, eta horrek zentzua hartzen du, hizkuntzaren bidez partekatzen diren kultura eta bizipen kolektiboek atxikimenduan duten eragina kontuan hartzen bada (Urla 2015). Hortaz, hizkuntzaren sozializazio-prozesuetan gogoan hartzeko

aldagaiak dira: genero-ikuspegia (ohiko ikuspegi binariotik aldenduta) eta dimentsio afektiboa, komunitarioa eta soziala, beste batzuen artean.

2.4 Pedagogia soziolinguistikoa

Soziolinguistikak testuinguru sozialean gauzatzen diren hizkuntzarekin lotutako fenomeno sozialak azaltzen ditu, eta gero eta sarriago aintzat hartzen du ikuspegi afektibo eta komunitarioa. Bada, ikuskera honek hizkuntzen bidez garatzen diren harreman-munduetara gerturatzeko ikuspegi integratua eskaintzen du (Hornberger 2003; Silba eta Borba 2024).

Hezkuntzari doakionez, pedagogia soziolinguistikoak hizkuntza ez dela gramatika hutsa erakusten du; hau da, hizkuntza-hautuetan eragin zuzena duen bitartean (Erize 2016), erabilera sozial, komunikatibo eta afektiboaren bidez lantzen den errealitatera hurbiltzen du (Camardons 2011): hizkuntza-tik testuingurura eta testuingurutik hizkuntzara (Ramos eta Olasagarre 2022). Hala, euskara irakastearekin batera ikuspegi soziolinguistikoa txertatzeak, hizkuntzarekiko atxikimendua eta lotura emozionala susta ditzake (Ortega 2024). Bada, pedagogia soziolinguistikoaren ikuspegi horrek testuinguru sozialarekin eta sistemen ikuspegi ekologikoarekin bat egiten du, non hizkuntzak ez diren soilik komunikazio-tresna, ingurune sozial, politiko eta ekologikoetan errotutako sistemen zati bat baino (Guirado eta Rua 2023b; Hornberger 2003; Van Lier 2004). Hizkuntza-ikaskuntza ez da eduki didaktikoen transmisio soil. Aitzitik, esperientzia afektibo gisa ulertu behar da, testuinguru emozionalean eta kulturean kokatua dena. Esperientzia horrek hizkuntzarekiko atxikimendua eta komunitatearekiko lotura indartzen ditu (Wang eta beste 2023). Bide beretik joanda, Silva eta Borbak (2024) soziolinguistika eta itxaropena uztartu zituzten, zera esanez, hori ez dela soilik emozio edo ikuspegi pertsonala, dimentsio sozial, afektibo eta linguistikoa duen praktika bat baizik; diskurtsoaren bidez eraikia, eta komunitate marjinauak ahalduntzeko tresna gisa funtzionatzen duena. Hala, hauxe gaineratu zuten, hizkuntzaren ikaskuntza eta erabilera ezin direla afektibitate-tetik eta testuinguru sozialetik apartatu, eta, beraz, soziolinguistikak ekintzari oratutako ikuspegi emozionala txertatu egin behar duela, harreman- eta identitate-prozesuak ulertuko badira.

2.5 Aisialdiaren dimentsio hezitzailea

Hezkuntza ez-formalak —bereziki, aisialdi-antolatuak eta jolasak— eremu pedagogiko baliotsua eskaintzen dute hizkera informalaren garapenerako eta erabilerarako (Guirado eta Rua 2023a, 2023b). Halaber, motibazioa eta hizkuntzarekiko atxikimendua indartu egiten dute (Esnaola eta Egibar 2007), eta sormenari zein parte-hartzeari irekitako espazio askeak ere eskaintzen dituzte (Baraibar eta Bereziartua, 2023; Zabaleta 2007).

Jolasa da aisialdi hezitzailearen ardatz nagusia, eta haren bidez parte-hartzailearen dimentsio biologikoa, kognitiboa, emozionala eta soziala aktibatu egiten dira (Baraibar eta Bereziartua 2023; Millares eta beste 2017). Jolasak emozio positiboak eragiten ditu (Dosil eta beste 2023), eta ez da fenomeno neutroa, ezta soilik entretenimendura mugatua ere: kultura-eramaile eta komunitate kohesionatzaile moduan funtzionatzen du, belau-naldiz belaunaldi transmititutako egintza sozial eta partekatu moduan (Benítez 2009; Aizencang 2005; Falcettoni 2020). Horregatik, bada, herri bakoitzean aldaera propioak hartzen ditu; fenomeno horri etnoludikotasuna deritzo (Ramos eta Maya 2022; Baraibar eta Bereziartua 2023).

Hala, Euskal Herria bezalako testuinguru soziolinguistiko minorizatuan, eskolaz kanpoko aisialdiaren kudeaketa funtsezkoa bihurtzen da, euskararen erabilera informala sustatzeko ez ezik, tokian tokiko balio kultural eta etnoludikoa transmititzeko ere bai (Baraibar eta Bereziartua 2023). Hezkuntza arautuaren osagarri gisa eragiteko bidea ematen du (Sarasua 2024). Hortaz, esanguratsua da gaur egun eremu ez-formaleko espazioetan euskararen presentzia urri-urria izatea (Martínez de Luna eta beste 2023), eta, jakina, horrek hezkuntza ez-formalari so eginbeharra euskararen biziberri-tze-prozesuaren erdigunera dakar (Miglena eta beste 2024).

2.6 Jolasa ahozketasuna lantzeko hizkuntza-estrategia gisa

Ahozketasuna lantzeko jolasak hizkuntza ikasi eta beronen erabilera sustatzeko baliabide pedagogiko baliotsuak dira. Rodríguezen (2021) arabera, ahozko jolasek lexikoa aberastu eta ahozketasunaren garapenean eragin

positiboa dute. Horrez gain, hizkuntza lantzea helburu duten jolasek ikaskuntzaren/irakaskuntzaren prozesua motibagarriagoa bihurtzen dute. Horregatik, curriculumaren diseinuan kontuan hartu beharreko jarduera pedagogikoak dira, hizkuntzen irakaskuntzan, bereziki.

Jolasa 2Haren jabekuntza-prozesua errazteko baliabide garrantzitsua da (Díaz 2012). Izan ere, 2Haren ikaskuntza-prozesuetan hiztun berrien emozioei eta esku-hartzearen alderdi afektiboari erreparatzea funtsezkoa da (Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua 2009; Migelena eta beste 2024), hiztun berriek euskararekiko atxikimendu txikiagoa adierazi ohi baitute (Martinez de Luna eta beste 2023).

Euskal Herria eleaniztuna da (Guirado eta Rua 2023b) eta ikasle askok euskara 2H dutelarik ikasten dute, hau da, hiztun berriak dira (Cenoz eta Santos 2017; Jaffe 2015; Ortega eta beste 2015). EAEn, adibidez, 2011. eta 2019. urteen artean D ereduko ikasleen erdiek baino gehiagok erdara zuen 1H (Martinez de Luna eta beste 2023).

Alabaina, testuinguru horretan, jolasa baliabide pedagogiko eraginkorra izan daiteke: ikaslea motibatu egiten du, sormena eskatzen duten erronketan laguntzen du, hizkuntza-maila baxuagoko ikaskideei eusten die eta elkarrekiko kolaborazioa sustatzen du. Gainera, emozionalki lagungarria da antsietatea eta frustrazioa arintzeko (Ramos eta Maya 2023).

Beraz, jarduera ludikoen bidez, eremu formalean euskararen hizkera informala garatzeko sormen-espazioak eta esku-hartze pedagogiko eraginkorrak sor daitezke (Zabaleta 2007). Haurren aisialdiaren kasuan, esperientzia positiboek atxikimendua eta motibazioa sustatzen dutela baieztatuta dago, eta euskaraz hitz egiteko, ekiteko, ikasteko eta jolasaren bitartez gozatzeko aukera eman (Guirado eta Santos 2024).

2.7 Programen zehaztapena eta hezitzaileen rola garrantzia

Euskara gutxiagotutako hizkuntza da, eta, ondorioz, ezinbestekoa da eskola-testuinguruan hizkuntzaren sozializazioa garatzen den gela barruko zein kanpoko eremu pedagogikoei, hau da, hizkuntza-ekosistemei, errepa-

ratzea (Elorza eta beste 2009). Era berean, espazio horietan aurrezartzen diren hizkuntza-helburuek duten garrantzia aintzatetsi behar da (Antero eta beste 2023; Elorza eta beste 2009), izan ere, ekosistema formalek eta ez-formalek hizkera ezberdinak baliatzen dituzte, eta, horrenbestez, bestelako hizkuntza-estrategiak behar dituzte (Baraibar eta Bereziartua 2023).

Horrez gain, ezin da ahaztu irakasleek eta hezitzaileek ikastolako hezkuntza-ekosistema bakoitzean haurren, nerabeen aurrean betetzen duten rola-ren garrantzia. Haien hizkuntza-jarrerak, sustatzen dituzten hizkuntza-ohiturek eta euskararen erabilerak erreferente-lana egiten dute. Haurrek, hizkuntzaren jabekuntza-prozesuan, besteak (irakasle-hezitzaileak) entzutea eta imitatzea oinarri duten mekanismoak nagusietako batzuk direlako (Etxeberria 2003). Hortaz, hezitzaileek eskaintzen duten erreferentzialtasunak eragin zuzena du haurrek ondoren egingo duten euskararen erabileran (Artola 2013; Eizmendi eta beste 2007; Martinez de Luna eta beste 2023).

3. Ikerketa-helburua eta -galderak

Ikerlan honen ikerketa-helburua Nafarroako Eremu Mistoan kokatuta dauden bi ikastolatan aisialdi antolatuaren eta jarduera ludikoen bitartez euskararen hizkera informala landu duten haurren, irakasleen eta hezitzaileen bizipenak ezagutzea eta ulertzea da; modu horretan, esku-hartzeek haurren pertzepzioaren arabera euskararekiko motibazioan eta atxikimenduan izan duten inpaktua eta irakasleek eta hezitzaileek programa aplikatzeko izan dituzten erraztasun eta zailtasunak aztertzeko.

Hala, honako hauek dira planteatu diren ikerketa-galderak:

1. Hezkuntza formalean, hizkera informala aisialdi antolatuaren eta jarduera ludikoen bitartez lantzeak areagotu al dezake ikasleek euskara ikasteko eta erabiltzeko sentitzen duten motibazioa eta euskararekiko atxikimendua?

- Ba al dago bizipen eta pertzepzio horietan ezberdintasunik 1Haren eta generoaren arabera?
- Zein dira haurrekin euskararen hizkera informala landuz, motibazioa eta atxikimendua sustatzeko hizkuntza-estrategia eraginkorrenak?

2. Ikastola testuinguru formala izanik, zein dira hizkera informala lantzeko, irakasleek eta hezitzaileek identifikatu dituzten erraztasun eta zailtasun nagusiak?

— Eremu formalean hizkera informala lantzeko, beharrezkoa al da irakasle eta hezitzaileentzako prestakuntza espezifikoak garatzea?

4. Metodologia

Ondorengo orrialdeetan, paradigma pragmatikoaren aterkiaren pean garatutako ikerlan bat aurkeztu dugu. Hau da, arazo edo fenomeno baten analisisa egiteko erabiltzen diren metodologia-estrategia ezberdinetan oinarrituz, ikerketa-arazoaren ulermen zabalagoa izateko bidea ematen duen paradigmaz ari gara (Pereira 2011; Bernales eta beste 2015). Izan ere, metodo kualitatiboak eta kuantitatiboak uztartuz, horiek bakarka izan ditzaiketen hutsuneak bakoitzaren indarguneekin osatzen dira (Forni eta De Grande 2019; Campos 2009).

Ikerketa-diseinuari dagokionez, jarraitutako diseinuak eredu konkurrentea izan du oinarri. Diseinu horretan, datu kuantitatiboak eta kualitatiboak aldi berean jaso eta banaka aztertu dira, elkarren arteko loturak eta disonantziak azaleratzeko aukera emanez. Horrelako diseinuek, gainera, datu kuantitatiboen egiturazko joerak eta datu kualitatiboen testuinguru aberastasuna estekatzen dituzte, ikuspegi osatuago eta pedagogikoki esanguratsuagoa den baterako bidea zabalduz.

Hala, informazioa bananduta jaso eta ondoren erantzunak konparatu dira, ikuspegi bakoitzak eskaintzen duen informazioari berezko balioa aitor-tuz. Azkenik, bi metodoen arteko triangulazio konparatiboa egin dugu, emaitzak bata bestearen gainetik gailendu gabe interpretatzeko eta ondorio integratuak ateratzeko (Escalante eta beste 2020; Lukas eta Santiago 2016).

4.1 Parte-hartzaileak

Parte-hartzaileak Arikala programaren bitartez euskararen hizkera informalaren lanketa ikasgela barruko zein kanpoko eremuetan egiten ari diren

bi ikastolatako LH 5eko ikasleak izan dira ($n = 86$), baita irakasleak ($n = 4$) eta hezitzaileak ere ($n = 2$), Nafarroako testuinguruan kokatutakoak. Aitzitik, profesionalen kasuan, beste zortzi ikastolatako irakasle eta hezitzaileak ere parte hartu dute ikerketan, galdetegi baten bidez ($N = 32$).

Arikala 2022-23 ikasturtean hasi eta hiru urtez Euskal Herriko hamar ikastolatan aplikatu den programa da. Aisialdi antolatuaren bitartez, hezkuntza formalean euskararen hizkera informala lantzea eta haurrak baliabide linguistiko informalez hornitzea ditu xede. Hala, egitasmoa zuzentzen duen lantaldeak esku-hartzeek izandako eragina aztertu du, jolasgaraietako eta bazkalosteko aisialdi-uneetan gauzatutako elkarrizketak behatuz, esku-hartzea izan baino lehen eta horren ondoren ere bai (Bereziartua eta beste 2023; Euskaltzaindia 2023).

Bada, ikerlan honetan, bigarren ikasturtearen lanketaren ostean, erabilera-neurketek emandako emaitzetatik harago jarri da begirada. Hain zuzen ere, euskararen erabilera informalaren garapenean emaitza apalena utzi duen testuinguruan garatutako hezkuntza-prozesuan haurrek, irakasleek eta hezitzaileek izandako bizipenetan. Hau da, erabilera bera bezain behargarriak ez diren aldagaietan jarri da arreta, esku-hartzeek hizkuntzarekiko motibazioan eta atxikimenduan eduki ahal izan duten inpaktua aztertzeko, erabilitako hizkuntza-estrategiak egokiak izan diren jakiteko, eta hezitzaileen nahiz haurren esperientziak ezagutzeko, besteak beste.

Hautatutako bi ikastolen testuinguru soziolinguistikoari dagokionez, Euskararen Foru Legearen arabera, Eredu Mistoan kokatuta daude. Bada, ikastolon testuingurua, Eredu Misto hori, ez da, euskarari dagokionez behintzat, eremu erraza. Izan ere, euskaldunak soilik biztanleen % 12,6 diren eremuan daude^{4, 5} eskola horiek (Nafarroako Gobernua 2021).

⁴ Eredu Euskaldunean, biztanleen % 62,3 euskalduna da; Eredu Mistoan, % 12,6; Eredu Ez-euskaldunean, % 1,6 (Nafarroako Gobernua 2021).

⁵ Ikastolen eta haurren anonimitasuna zaintzeko ez dira testuinguruaren inguruan datu gehiago eman. Halere, Eredu Mistoan kokatuta dauden ikastolak direla zehaztea garrantzitsutzat jo da, haurren, irakasleen eta hezitzaileen hizkuntza-testuingurura hurbilpen bat eman beharra dagoelako.

4.1.1 *Haur parte-hartzaileak*

Ikerketan LH 5. mailako, hau da, 9-10 urte bitarteko $n = 86$ haur izan dira parte-hartzaileak. Horietatik % 53,48 ($n = 46$) neska gisa identifikatu⁶ dira eta % 46,51 ($n = 40$) mutil bezala.

Haurren 1Hari dagokionez, 1H gaztelania dutenak parte-hartzaileen % 30,2 ($n = 42$) dira. 1H beste erdara bat jaso dutenak % 5,8 ($n = 5$) dira. Euskara eta erdara dutenak % 48,5 ($n = 26$); eta % 15,1ek ($n = 13$) euskara dute jasotako lehen hizkuntza.

4.1.2 *Irakasle eta aisialdiko hezitzaile parte-hartzaileak*

Ikerketan parte hartu duten irakasleak eta aisialdiko hezitzaileak guztira $n = 32$ izan dira. Kasu honetan, irakasleak ikasle-taldeen tutoreak izan dira, beraz, Ingelera eta Gorputz-heziketa ikasgaien irakasleak ez beste ikasgai guztienak. Aisialdiko hezitzaileak, aldiz, beren-beregi esku-hartzea bideratzera joan direnak.

Ondorengo taulan, parte-hartzaile guztien laburpena aurkeztu dugu (ikus 1. taula).

⁶ Galdetegian generoa identifikatzeko 3 aukera eman dira: neska, mutila eta beste bat. Modu horretan, xedea izan da, ikuspegi binarioa baztertuta identitate guztiak aitortu eta ikerketan aintzat hartzeko bide ematea, hala, sexu eta identitate ezberdinen bazterketa ekidinez.

1. taula. Haur, irakasle eta hezitzaile parte-hartzaileak

	1. IKASTOLA	2. IKASTOLA	GUZTIRA
Haurrak	A gela: n = 20 B gela: n = 19	A gela: n = 24 B gela: n = 23	N = 86
Haurren profil linguistikoa	1H gaztelania: n = 16 1H beste erdara bat: n = 3 1H euskara eta gaztelania: n = 21 1H euskara: n = 4	1H gaztelania: n = 23 1H beste erdara bat: n = 4 1H euskara eta gaztelania: n = 11 1H euskara: n = 6	
Irakasleak	n = 2	n = 2	
Hezitzaileak	n = 1	n = 1	
Beste 8 ikastolatako irakasleak eta hezitzaileak	n = 26		

Iturria: Norberak egina.

4.2 Datuak biltzeko teknikak eta instrumentuak

Ikerketa honetan datu kualitatiboak eta kuantitatiboak jasotzeko teknikak erabili dira. Teknika kualitatiboa ikasleen sentimenduak, jarrerak eta emozioak jasotzeko baliatu da, hau da, bizipenak gureganatzeko eta interpretazio sakona egiteko (Santos 2023); eta teknika kuantitatiboa, gainontzeko ikasleengana iristeko.

Datu horiek biltzeko bi instrumentu erabili dira: elkarrizketa erdi egituratuak eta galdetegiak. Elkarrizketatu diren lagunak: 1. ikastolako 8 haur, 2 irakasle (tutoreak) eta aisialdiko hezitzaile 1 izan dira; guztiak ere boluntarioak. Haurrak 4ko 2 taldetan banatu dira euren 1Haren arabera, eta generoaren aldetik, 4 neska eta 4 mutil izan dira. Irakasleak emakumezko bat eta gizonezko bat izan dira, eta hezitzailea, gizonezkoa (ikus 2. taula).

2. taula. Elkarriketatuak

HAURRAK	1H euskara eta gaztelania	n = 4 3 (neskak) + 1 (mutila)
	1H erdara: – Arabiera – Gaztelania – Gaztelania/Alemaniera	n = 4 3 (mutilak) + 1 (neska)
IRAKASLEAK	n = 2 Gizonezko 1 (55-60 urte bitartekoa) eta emakume bat (30-35 urte bitartekoa)	
HEZITZAILEAK	n = 1 Gizonezko 1 (25-30 urte bitartekoa)	

Iturria: Norberak egina.

Bestalde, bi ikastolotako gainerako parte-hartzaileengana iristeko, pedagogian eta hizkuntzen jabekuntzaren arloan aditua den doktore batek eba-luatutako *ad hoc* galdetegi digitala diseinatu da, ondoren, Google Forms-en bidez ikerleen artean zabaldu da. Galdetegia 29 itenez osatu da, eta horie-tatik 8k EEAMA galdetegi-eskala osatu dute. Eskala hori mikroinstrumentu modura garatu da, hezkuntzaren esku-hartzeen eragina neurtzeko, marko teorikoarekin koherentziaz eta haurrek elkarriketetan erabilitako hizkera aintzat hartuta (Jornet eta beste 2012). Itemak 1etik 5era bitarteko Likert eskalaren bidez formulatu dira.

Hala, euskararekiko motibazioa eta atxikimendua jasotzeko, galdetegi-eskala osatzen duten lau itemek hiru aldagai nagusi barne hartu dituzte:

- a) jolasen bidez euskararekiko pizten den motibazioa eta euskaraz hitz egiteko aukera (Baraiar eta Bereziartua 2023);
- b) heziketa soziolinguistikoaren bidez sustatzen den atxikimendua (Ortega 2024);
- c) norbera komunitatearen parte sentitzeak hizkuntzarekiko eragiten duen hurbilpena (Guirado eta Rua 2023b).

Irakasle eta hezitzaileei zuzendutako galdetegiak, berriz, 11 item ditu, esku-hartzeek haurrengan izandako inpaktuarekiko eurek dituzten pertzepzioak eta programa aplikatzean izan dituzten erraztasunak eta zailtasunak jasotzeko; horiek ere 1etik 5era arteko eskalari jarraituz formulatuak izan dira. Amaieran, parte-hartzaileek erantzun irekia emateko aukera ere izan dute, ekarpen kualitatibo osagarriak egite aldera.

4.3 Datuen prozedura eta analisisa

Galdetegiaren ulermena eta barne-sendotasuna bermatzeko, edukiaren eta eraikuntzaren baliotasuna ebaluatu da (Salcines eta beste 2018). Horretarako, alegia, galdetegi osatzen duten itemen edukiaren baliotasuna ziurtatzeko, hiru ikastolatako haurrek ($n = 82$) erantzun dute galdetegi. Ulertzeko zailtasunak ekarri dituzten itemak birformulatu egin dira, modu horretan itemak adinari eta testuinguruari egokitzeko eta lagin handiagoa erabiltzeko aukera ziurtatzeko.

Ondoren, ikerketaren parte-hartzaile zuzenen ($n = 86$) erantzunek utzitako datuak estatistikoki aztertu dira. Lehenik, SPSS programaren 27. bertsioa erabiliz, EEAMA galdetegi-eskalaren analisi faktoriala egin da, item bakoitzaren karga faktoriala egokia dela egiaztatuz ($> .30$). Ondoren, eskalaren fidagarritasuna bermatzeko, Cronbachen alfa koefizientea kalkulatu da. Hala, probak emandako baloreak hizkuntzarekiko motibazioaren eta atxikimenduaren pertzepzioak neurtzen dituen dimentsioaren fidagarritasunaren maila altua dela adierazi du ($\alpha = .885$).

Bestalde, elkarrizketetan jasotako informazio kualitatiboa ordenatzeko eta galdetegien emaitzak interpretatzeko, kategorizazio-sistema mistoa (induktibo-deduktiboa) erabili da (Miglena eta beste 2024). Horretarako, haur parte-hartzaileekin bi talde-elkarrizketa egin dira ikastoletan bertan. Elkarrizketa bakoitzak 20 bat minutuko iraupena izan du. Grabatu eta transkribatu ostean, elkarrizketak kategorizatu egin dira. Helburua izan da, motibazio eta atxikimenduari buruzko adierazpenak jasotzea, eta, bereziki, hizkuntza-estrategien inguruko iritziak eta bizipenak ezagutzea. Irakasle eta hezitzaileekin, berriz, 30 minutuko elkarrizketa indibidualak egin dira, eta haurren talde-elkarrizketetan baliatutako prozedura bera aplikatu da.

Hala, hurrengo taulara ekarri ditugu artikulu honetan aurkeztu diren emaitzek barne biltzen dituzten kategoriak eta azpikategoriak (ikus 3. taula):

3. taula. Informazioaren tratamendua egiteko sortutako kategoriak

METAKATEGORIA	KATEGORIAK	AZPIKATEGORIAK
Euskararen hizkera informala	Atxikimendua eta motibazioa	Hizkuntza-estrategiak
	Irakasleen bizipenak eta pertzepzioak	Erraztasunak
		Zailtasunak
		Beharrak

Iturria: Norberak egina.

Datu kuantitatiboen tratamendurako, aurreko faseetan erabilitako programa estatistiko bera baliatu da. Lehenik eta behin, datuak normaltasunez banatzen diren jakiteko Kolmogorov-Smirnov proba aplikatu da. Lortutako emaitzek $p > .05$ dela adierazi dute, eta, beraz, agerian utzi dute datuak ez direla banaketa normalaren arabera banatzen edo bereizten. Ondorioz, analisi ez-parametrikoak egin dira. Emaizten arteko ezberdintasun esanguratsuak aztertzeko, Mann-Whitney U probak erabili dira generoaren eta Lehen Hizkuntzaren (1H) arabera. Halaber, efektuaren tamaina kalkulatzeko, Cohenen r adierazlea erabili dugu, interpretazio estandarrari jarraituz: $r = .10$ baxua, $r = .30$ ertaina eta $r = .50$ altua direlarik.

1Haren kasuan, haur parte-hartzaileak bi multzotan sailkatu dira: alde batetik, 1H euskara edo euskara eta gaztelania dutenak; eta, bestetik, 1H gaztelania dutenak (hiztun berriak). Banaketa hori koherentea da elkarriketetan parte hartu zuten haurren talde-egiturarekin.

4.4 Estandar etikoak

Campsen (2022) arabera, moralaren gaineko hausnarketa filosofikoa da etika. Hori horrela, ikerketa-eremu guztietan bezalaxe, hezkuntzaren arloko azterlanetan ere ezinbestekoa da ikerketaren orientazioa gidatuko duten printzipio etikoak argi eta garbi zehaztea (Parrila 2010; Paz 2018). Ikerlan honetan, ikerketa-prozesuan zehar etika-irizpideei buruzko hausnarketa egitea eta egikarituko diren praktiken inguruko konpromiso argia hartzea lehenetsi da, hala, ikerketaren fase guztietan parte-hartzaileen eskubideak, segurtasuna eta ongizatea bermatzeko neurriak ezarri dira.

5. Emaitzak

Emaitzen atala garatzeko, aurrez ipinitako ikerketa-galderen hurrenkera-ri jarraitu diogu. Horrela, ikerketa-galdera bakoitzari erantzuteko asmoz, lehenik, datu kuantitatiboak eta egindako analisi estatistikoak aurkeztu dira; ondoren, helburu bera duten datu kualitatiboak. Modu horretan, triangulazioaren osagarritasun-estrategia erabiliz, jasotako datuen interpretazioa egin da (Lukas eta Santiago 2016).

1IG (1. ikerketa-galdera): Programak ikasleengan sustatutako euskararekiko atxikimendua eta motibazioa

Jasotako datu kuantitatiboak dagokienez, galdetegi-eskala erantzun duten parte-hartzaileen ($n = 86$) erantzun estatistiko deskribatzaileak aztertuta, haurrek elkarriketetan adierazitako bizipen positiboak lagin osoan orokortu egin direla ikusi da. Halaber, haurren erantzunetatik eskuratutako datuak irakasleek adierazitako pertzepzioekin bat datozela egiaztatu da, item guztietan batezbestekoak 3tik gorakoak izan baitira (ikus 4. taula).


4. taula. Motibazioa eta atxikimendua, haurren pertzepzioak jasotzeko itemen emaitzen datu estatistikoek bidez

ESTATISTIKOAK					
		11. Euskararekiko motibazioa jolasaren eta jarduera ludikoen bitartez	13. Jolasaren eta jarduera ludikoen bitartez euskaraz hitz egiteko motibazioa	14. Soziolinguistikaren lanketaren bitartez euskararekiko atxikimenduaren garapena	15. Norbera hizkera- komunitatearen parte sentitzeak euskararekiko motibazioa eta ardura
N	Baliozkoak	86	86	86	86
Media (M)		3,52	3,53	3,97	3,69
Des. tip.a (DT)		1,014	1,070	1,900	1,009

Iturria: Norberak egina.

Item bakoitzak jasotako erantzun zehatzak aztertuz, atzeman daiteke, haurren pertzepzioetatik, hizkera informalaren lanketaren bitartez euskararekiko motibazioa eta atxikimendua sustatu direla. Izan ere, 11. itemaren («Jolasaren bitartez euskara ikasteko motibazioa») erantzunen % 55,8 (n = 48) bildu da 4ko eta 5eko balioetan. 13. itemean ere («Jolasaren bitartez euskaraz hitz egiteko motibazioa»), antzeko zerbait jaso da, 4 eta 5eko balorazioa egin baitute erantzuna eman dutenen % 52,3k (n = 45). Hala, bi itemetan 1 eta 2 balorea eman dutenak, gehienez ere, parte-hartzaileen % 12,8 izan da (ikus 1. grafikoa).


1. grafikoa. 11. eta 13. itemak: Jolasaren bitartez euskara ikasteko eta euskaraz hitz egiteko motibazioak



Iturria: Norberak egina.

Galdetegiko beste bi itemetan jasotako erantzunei erreparatuta, kasu honetan ere haur gehienek puntuazio altuak eman dituztela ikus daiteke. Hala nola, lanketa soziolinguistikoak izandako inpaktua baloratzeko orduan, parte-hartzaileen % 72,1 da ($n = 62$) 4 edo 5 puntu eman dituen esperientziak eurengan izan duen inpaktua baloratzeko orduan. Bestalde, norbera komunitatearen parte sentitzeak euskarara hurbiltzeko izan duen balioa **dela eta**, % 67,4k ($n = 58$) puntuazio altua eman du (4 edo 5 puntu) (ikus 2. irudia).

2. irudia. 14. eta 15. itemak: Jolasaren eta jarduera ludikoen bitartez euskararen bilakaeraren eta norbera komunitatearen parte sentitzearen eragina euskararekiko atxikimenduan eta motibazioan



Iturria: Norberak egina.

Parte-hartzaileen artean, aurrez ezarritako taldeen (generoari eta 1Hari begiratuz osatuta) arabera programak izandako inpaktuaren pertzepzioan desberdintasunik egon ote den aztertzeko, Mann-Whitney U probak aplikatu dira. 1Haren arabera, parte-hartzaileak bi multzotan sailkatu ziren: Lehen Hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania zituzten haurrak ($n = 39$), eta Lehen Hizkuntza gaztelania zutenak ($n = 47$). Azterketaren emaitzek efektuaren tamaina nabarmena erakutsi dute ($U = 448,5$; $Z = -4,082$; $p = < .001$; $r = .44$), eta desberdintasuna estatistikoki esanguratsua izan da. Horrek iradokitzen du, Lehen Hizkuntzak eragin esanguratsua izan dezakeela programarekiko motibazioaren eta hizkuntza-atxikimenduen pertzepzioan.

Generoaren araberrako azterketan, parte-hartzaileak bi taldetan sailkatu ziren: mutilak ($n = 40$) eta neskak ($n = 46$). Efektuaren tamaina ertaina izan zen ($U = 551$; $Z = -3,212$; $p = < .001$; $r = .35$), eta desberdintasunak

estatistikoki esanguratsuak. Emaitez erakusten dute neskek, oro har, programaren inpaktua modu positiboagoan baloratu zutela.

Irakasleen eta hezitzaileen galdetegietatik jasotako datuek ere joera bera erakusten dute, parte hartu duten profesionalen % 75ek (n = 24) adierazi baitu, hizkera informala aisialdi-antolatuaren eta jarduera ludiko bidez lantzeak haurren motibazioan eragina izan duela: % 62,5ek (n = 20) esku-hartzeek izandako inpaktua esanguratsua dela baloratu du, eta % 12,5ek (n = 4) eragin handia izan duela. Hala ere, haurren bizipenen pertzepzioekin alderatuta, euskararen egoera eta bilakaera historikoa lantzeko jardueraren balorazioan irakasleek eta hezitzaileek aho batez (% 100; n = 32) tarteko baloraziora jo dute, 1etik 5erako eskalan 3ko puntuazioa emanez.

Haurrei egindako elkarrizketetan jasotako diskurtsoetan, jolasaren eta jarduera ludikoen bidezko euskararen erabilerak bizipen positibo ugari sortu dituela atzeman daiteke:

Eki⁷ (1H-eus.): «Niri jolasten dugunean gustatzen zait, zeren ariketa fisikoa ere gustatzen zait eta esatea esamoldeak ere oso gustuko ditut eta jolasten garen bitartean ba, gehiago...».

Irene (1H-erd.): «Niri gustatzen zait gehiago zergatik sentitzen naiz libreago».

Programak sustatutako euskararekiko motibazioari eta atxikimenduari dagokionez ere, haurrek egindako jarraian irakur daitezkeen ekarpenek agerian utzi dute, esku-hartzeek —eta bereziki hizkera-komunitatea osatzeko egindako jarduerak— eurengan izan duten inpaktua eta utzitako gogoia:

Eki (1H-eus.): «Inportantea da ze horrela euskera zabaltzen da eta hitz egiten da, hitz egiten dugu, eta ez zaigu ahazten lagun berriekin».

Moha (1H-arab.): «Ni oso inpaziente nago joateko beste ikastola batera eta egiteko jolasak beste neska-mutiko batzuekin eta entzutean gustatu zitzaidan...».

⁷ Ikasleen eta irakasleen izenak, euren ekarpenak lan honetan aurkezteko eta anonimotasuna bermatzeko, asmatuak izan dira.

Era berean, kohesioa lantzeko eta Arikalatarren komunitatea eratzekeo jardueraz eta dinamikez gain, ikuspegi soziolinguistikoa ere presente egon da bigarren ikasturterako garatutako programan. Horrela, hurrek agerian utzi dute modu informalean euskararen bilakaera historikoa ezagutzeko egindako jarduera ludikoaren eta horren inguruan izandako solasaldi informalearen balioa edo eragina. Izan ere, elkarrizketatu guztiek baieztatu borobila eta gustukoa botata erantzun zioten lanketari baliorik ikusi ote zioten galdetzean, une horretako pasadizoak-eta sentikor kontatuz; besteak beste, ikastolako Historia irakasleak, dinamika egin ostean, zer esan zien azaldu zuten. Hortaz, erantzun horiek bat datoz galdetegi bidez jasotako datu kuantitatiboekin. Hau da, haur parte-hartzaile guztiek —elkarrizketen zein galdetegi-eskalaren bidez— jarduera horien garrantzia azpimarratu dute.

Irakasleek eta hezitzaileek egindako balorazioei dagokionez, haien ekarpenek, nolabait, berretsi egin dituzte programak haurrengan sustatu dituen bizipen positiboak:

Aiara: «“Eta gaur zer egingo du Arikalan?” Hori galdetzea ez nuen espero nik eta galdetzen dute. “Noiz dugu hurrengoa?”, hala baten batek, eta kristoren ilusioa egiten dit niri ere».

Eunate: «Bai, nik baietz. Eurak jolasari begiratzen diote, baina tartean, jolas horren atzean euskara dagoela eta hori azkenean motibazio horrekin lotuta dago».

2IG (2. ikerketa-galdera): Programaren bitartez hizkera informala lantzeko, irakasleek eta aisialdiko hezitzaileek topatu dituzten erraztasun eta zailtasunak

Bigarren ikerketa-galderari dagokionez, hezkuntza formalean hizkera informala lantzeko irakasleek eta hezitzaileek identifikatutako erraztasun eta zailtasun nagusiak aztertu dira.

Lehenik, galdetegiko datuei erreparatuz, parte hartu duten profesional guztiek (irakasleak eta hezitzaileak) balorazio oso positiboa egin dute programaren baliagarritasunari dagokionez. Hala, unitate didaktikoek, aisialdi-programak eta hezkuntza lantzeko garatutako jolas-proposamenek balorazio bikaina izan dute ($M = 4,83$; $DT = 0,38$), eta baita formazio-mintegiekin ere

($M = 4,65$; $DT = 0,48$). Balorazio hauek bat datoz elkarrizketetan azaldu-tako iritziekin.

Erraztasunei dagokienez, egindako elkarrizketetan, irakasleek programen eta unitate didaktikoen zehaztasuna eta azalpen argiak aintzatetsi dituzte eta helburuak ongi zehazturik egoteak jarduerak gelaratzeari erraztu dutela ere adierazi dute:

Aiara: «Egia da zuek prestatutako unitate didaktiko horiek edo nola deitzen ziren...? Dena oso ongi azalduta zegoela, orduan zen pixka bat lehenago hori begiratu, irakurri, beste materialen bat behar bazen prestatu eta egia da hori gelaratzeko ere erraza egin zitzaidala».

Aisialdiko hezitzaileek, berriz, ikasgelatik kanpoko esku-hartzean eta aisialdiaren izaera ludikoan oinarritutako aukerak azpimarratu dituzte:

Meltxor: «Ikastolan, aisialdia antolatu eta haurrei halako espazioa emateak, euskaraz jolasean gozatzeko aukera emateak, euskarareki-ko jarrera nabarmen hobetu du, Arikalan gaudenean beste jarrera bat hartzen dute, gogoz egoten dira. Gainera, zuk erabiltzen dituzun adierazpenak eurak errepikatzen nola saiatzen diren eta horrek ematen duen aukera ere oso ongi dago».

Zailtasunei dagokienez, irakasleen esperientziak ezberdinak izan dira. Adibidez, irakasle batek euskararen transmisioaren eta erabileraren inguruan duen ohiturari esker jarduerak naturaltasunez integratu ahal izan dituela azaldu du. Besteak, aldiz, esku-hartzea kontzienteki prestatu behar izan duela adierazi du, eta hizkera informalarekiko ohiturarik ezak jarduerak aurrera eramatea zaildu diola ere erantsi du:

Eunate: «Egia da hori kontzienteki egin behar nuela, ez zitzaidan horrela naturaltasunez ateratzen. Nire ama-hizkuntza erdara da. Nik euskara ikastolan ikasi nuen eta ez neukan ohiturarik horrelako esaldiak erabiltzeko (...)

Gainera, bi irakasleek adierazi dute, zailtasunak izan dituztela programa curriculumean sistematikoki txertatzeko, curriculumaren egiturak ez duelako horretarako leku edo atal espliziturik aurreikusten. Elkarrizketatutako aisialdiko hezitzaileak, berriz, haurrek euskaraz hitz egiteko duten ohitura falta jo dute ikastolako patioan jolasak bideratzeko zailtasun nagusitzat.

Azkenik, galdetegian jasotako datuek erakutsi dute, adostasun zabala dagoela hizkera informala lantzeko prestakuntza-beharraren inguruan. Izan ere, galdetegi bidez jasotako balorazioen batezbestekoa altua izan da ($M = 4,67$; $DT = 0,47$). Era berean, elkarrizketatu guztiek adierazi dute, formazioa jasotzea funtsezkoa dela erregistro informalak irakaskuntzan txer-tatzeko orduan, baita jolasak bideratzeko ere. Alabaina, aisialdiko hezitzaileen presentzia bermatzea zaila izan daitekeela nabarmendu dute irakasleek.

6. Eztabaida

Programaren lehenengo ikerketa-galdera (IIG), hezkuntza formalaren esparruan hizkera informala jardura ludikoen bitartez lantzeak ikasleen euskara ikasteko eta hitz egiteko gogoia eta horrekiko atxikimendua areago-tzen ote duen jakitera zuzenduta dago. Izan ere, ikerketa ezberdinek eraku-tsi digute, hizkuntza bat ikasi eta erabiltzen den espazioetan sentitzen diren emozioek berebiziko garrantzia dutela hizkuntzarekiko garatzen ari den atxikimenduan (Ivaz eta beste 2016; Guirado eta Rua 2023b) eta motiba-zioan (Vilches eta beste 2019; Barandiaran 2023; Dörnyei 2020; Altuna 2024). Hala, parte-hartzaileen testuinguruan eta haurren pertzepzioetatik abiatuz, programak euskararekiko motibazioa eta atxikimendua sustatu egin duela esan daiteke. Egiazki, hainbat ikerketa-lanek adierazten duten gisan (Dosil eta beste 2023; Gutiérrez 2014), elkarrizketatuek programak eskain-tzen dituen jolasek eta jardura ludikoek sorrarazten dizkieten gozamena eta bizipen positiboak nabarmendu dituzte, baita euskaraz aritzeko eta ikas-teko gogoia ere (Esnaola eta Egibar 2007; Baraibar eta Bereziartua 2023; Guirado eta Rua 2023a, 2023b; Barandiaran 2023).

Halarik ere, IIGri bi azpigalderek jarraitu diote: lehenak, 1Haren arabera, hizkuntzarekiko sentitzen den eta garatzen den motibazioan eta atxiki-menduan ezberdintasunik ote den jakitea izan du helburu; bigarrenak, aldiz, generoaren arabera taldean alderik ote dagoen argitzea. Hala, elkarrizketa-tu ziren haur-taldeetan —1Haren arabera antolatuak— jasotako erantzunetan ezberdintasunak atzeman egin dira, eta baita datu kuantitatiboan bitartez egindako analisi estatistikoetan ere. Beraz, marko teorikoan zehaz-

tutako ekarpenekin koherentzian datozela (Martinez de Luna eta beste 2023), testuinguru horretan, behintzat, hiztun berrien kasuan programak izandako inpaktua apalagoa izan dela esan daiteke. Halaz ere, azpimarratzekoa da, euskara 1H jaso dutenengan nahiz hiztun berriengan ere programak eragin positiboa izan duela. Hori horrela, eta lan honetarako aurkeztutako oinarri pedagogikoa abiapuntutzat hartuta, hezkuntza ez-formaleko beste esparruetarako programak garatu, aplikatu eta ikertzeko abagunea eman zaigu, bereziki testuinguru eleanitzetan hiztun berriei euskarara gozamenetik hurbildu eta euskararen harreman-munduan gogotsu murgiltzeko (Migelen eta beste 2024).

Generoaren arabera motibazioaren eta atxikimenduaren arteko arrakalak aztertuta, Lehen Hizkuntzarekin alderatuta, efektuaren tamaina txikiagoa izan dela ikusi da. Hala eta guztiz ere, nesken eta mutilen artean estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak atzeman dira (Guirado eta Santos 2024; Martinez de Luna eta beste 2023). Alabaina, neskek zein mutilek emandako erantzunek, programak parte-hartzaile guztiengan inpaktu positiboa izan duela erakutsi dute. Dena dela, euskararekiko motibazioan eta atxikimenduan generoaren arabera aldeak ikusita, haurren esperientzietan sakonduz horien arrazoiak aztertzea interesgarria litzateke, lagungarri izan baitaiteke hura etorkizuneko esku-hartzeak diseinatzeko. Gainera, parte-hartzaileak 9 eta 10 urte arteko haurrak direla kontuan hartuta, generoaren arabera euskarazko kultura- eta aisialdi-esparruetan egon daitezkeen desberdintasunak aztertzeko abiapuntu egokia izan liteke (Oruesagasti eta beste 2014). Eta, hizkuntza bera erabiliz hiztunek partekatzen dituzten kulturak eta bizipen kolektiboek atxikimenduan duten eragina aintzat hartuz gero (Urla 2015), are garrantzitsuagoa dugu azterketa, zalantzarik gabe.

Hurrengo azpigalderak, aldiz, hizkera informala ezaugarritzen duten esamoldeei, aisialdi-antolatuaren bitartez garatu diren jolasei, eta horiek guztiak lantzeko programaren ardatza izan diren lanketa zehatzei erreparatu nahi die. Bada, programan erabilitako hizkuntza-estrategia eraginkorrenak zein diren aztertzea zuzentzen da. Hala, haurrek adierazitakoaren arabera, hizkera informala garatuz, euskararen bilakaera historikoa lantzea izan da hizkuntzara gehien hurbildu dituen lanketa; hau da, emaitzek iradoki digu-

te, pedagogia soziolinguistikoaren markotik abiatzeak hizkuntzarekiko motibazioa eta atxikimendua garatzeko tresna taxuzkoa izan daitekeela (Antero eta beste 2023; Camadorn 2011; Erize 2016; Muñoa eta beste 2024; Ortega 2024; Ramos eta Olasagarre 2022; Silva eta Borba 2024; Wang eta beste 2023). Orobat, azpimarratzekoa da, lanketa soziolinguistikoa izan dela irakasleek aho batez zalantzan jarri edo gutxien baloratu duten lanketa; halaber, irakasleetako batek adierazi du, bere ustez, halako jarduerak egiteko, haurrak gazteegiak direla. Horregatik, haurrek eta irakasleek dituzten pertzepzio ezberdinok aztertzeke eta arreta jartzeko modukoak direla baloratu da. Izan ere, ikerketa ezberdinek frogatu dute, ume-umetatik hasten dela hizkuntzarekiko sentimendua eta atxikimendua garatzen (Martinez de Luna eta beste 2023).

Bestalde, hizkera informala partekatuz eta jolasaren bitartez programan parte hartzen duten haurren komunitatea garatzeko lanketak, hots, norbera komunitate horren parte sentitzeak sorrarazi dien motibazioak eta atxikimenduak ere azpimarra berezia egitea merezi duela baloratu da. Modu horretan, jasotako bizipenek, Guirado eta Ruak (2023b) euren lanean ateratako ondorioen ildo berari jarraitzen diote; hots, hizkera-komunitate jakineko kide izatearen, erabiltzen den hizkeraren eta gizarte-talde horrekiko atxikimenduaren artean egon daitekeen elkarrekikotasuna agerian utzi dute. Halaber, emaitzek iradoki digute, jolasaren bitartez sustatzen diren bizipen positiboek (Dosil eta beste 2023; Esnaola eta Egibar 2007; Guirado eta Rua 2023a), hizkera informalak duen osagai afektiboarekin batera (Labov 2006a, 2006b; Guirado eta Rua 2023b; Guirado eta Santos 2024; Travalía 2008), aldagai horiek elkarrekin lotzen dituen haria iruteko aukerak zabaltzen dituztela. Gainera, irakasle eta hezitzaileek erantzundako galdetegian ere, oro har, esku-hartzeek motibazioan eragin handia izan dutela baloratu dute, nolabait, programak haurrengan utzitako bizipenen eta eragin positiboaren inguruan eurek adierazitakoarekin koherentzian.

2IGri erantzunez, irakasleen eta hezitzaileen iritziz, programek eta unitate didaktikoek izan duten zehaztapen-maila jo dute erraztasunen artean nagusitzat. Modu horretan, agerian geratu da programaren eta unitate didaktikoen garapen egokia eta helburuen zehaztapena garrantzitsua izan

daitezkeela, irakasleek eta hezitzaileek esku-hartze pedagogikoak modu lasaian eta ziurtasunez aplikatu ahal izateko, eta, aldi berean, hizkuntza-helburuak betetzen direla bermatzeko (Antero eta beste 2023; Elorza eta beste 2009).

Era berean, zailtasunen artean aipatu da euskararen hizkera informalean aritzeko ohiturarik eta baliabiderik ez izatea, eta, horren harira, irakasleen eta hezitzaileen prestakuntza-beharra azpimarratu dute, hizkera informala modu kontzientean landu ahal izateko (Baraibar eta Bereziartua 2023).

Azkenik, hezitzaileek egindako ekarpena gogoan hartuko dugu. Interesgarria da segurtatu duten hau: haurrek, haien jarduna eredu hartuz eta horrekin jolasean ibiliz, euskararen erabilera areagotu eta hizkera informalaren adierazpide ezberdinak erabiltzen dituzte. Hala, baieztaturik geratu da, hezitzaile eta irakasleek eskaintzen duten erreferentzialtasunak eragin zuzena duela haurrek ondoren egingo duten euskararen erabileran (Artola 2013; Eizmendi eta beste 2007; Martinez de Luna eta beste 2023); emaitzek horixe diote, behintzat.

7. Ikerketa-lanaren mugak

Ikerketa honen muga nagusia, zalantzarik gabe, haurren adina izan da. Horrek elkarrizketak egiteko, datuak jasotzeko eta interpretazioak egiteko zailtasunak ekarri baititu. Haatik, ikerlan honen indargune nagusia ere bada baloratu da. Bestetik, ikerketa testuinguru zehatz bateko parte-hartzaileekin garatu da; horrek kasua sakon aztertzeke aukera eman badu ere, hainbat muga dakartza. Lehenik eta behin, laginaren tamaina mugatua izanik, emaitzak ezin dira modu orokorrean interpretatu, harik eta ikerketa zabalagoen emaitzak eskuratu artean. Bestalde, elkarrizketak taldeka egin dira, eta horrek jasotako datu kualitatiboetan nolabaiteko baldintzak ezar ditzake. Halaber, jasotako diskurtsoak unean uneko pertzepzioetan oinarriturik egon daitezke, eta horrek interpretazioetan zuhurtzia eskatzen du. Azkenik, esku-hartzeen behaketa ez da zuzenean egin, eta horren ondorioz, jardueren eta dinamiken aplikazioa zehatz-mehatz arakatzea ezinezkoa egin zaigu.

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago, emaitzek koherentzia erakutsi dutela aurretik aztertutako arloko lan espezializatuen emaitzekin, eta horrek, bai haurren erantzunei, bai ikerketan bildutako datuei, nolabaiteko sendotasuna eman die. Era berean, erabilitako urrats metodologikoei eta egindako proba estatistikoei interpretazio bateratua egiteko oinarri moduzkoa eskaini dutela esan daiteke.

8. Ondorioak eta etorkizuneko erronkak

Aurreko atalean eskuratutako datuak oinarri teorikoarekin eztabaidan jarri ostean, esan liteke, honako hauexek direla ikerlan honetatik ateratako ondorioak funtsezkoenak:

- i) Hezkuntza formaleko testuinguruan, jolasaren bidez eta ikuspegi afektibo batetik abiatuta, hizkera informala lantzeak euskararekiko motibazioa eta atxikimendua sustatzeko bide eraginkorra da.
- ii) Erabilitako hizkuntza-estrategiek —1Haren arabera alde esanguratsuak egon arren— hitun berriengan ere euskararekiko hurbiltasuna eta erabilerarako interesa piztu dute, egindako lanketaren bidez oinarri sendoa ezarri.
- iii) Generoaren arabera desberdintasunak atzeman dira: neskek, oro har, mutilek baino motibazio eta atxikimendu handiagoa garatu dute.
- iv) Hizkera informala garatzeko erabilitako lanketa soziolinguistikoei hizkuntzarekiko konexio afektiboa indartu egin du, eta jolasaren zein ikasleen arteko saretze-lanen bidez sortutako komunitate-sentimenduak ere azaleratu dira.
- v) Irakasle eta hezitzaileei dagokienez, programen eta unitate didaktikoen helburuen zehaztapenak eta garapen egokiak duen garrantzia agerian geratu da, haiek hizkuntza-erreferente gisa duten rola garrantziarekin batera.

Amaitzeko esan nahi dugu, etorkizunari begira jarriaz, komenigarria litzatekeela parte-hartzaileen lagin zabalago baten esperientziak eta bizipe-

nak aztertzea, eta hizkera informala sustatzeko programak beste hezkuntza-esparru ez-formaletara egokitzea, hedatzea eta horiek ikertzea. Horrela, ondorio sendoagoak atera eta esku-hartzeak doituko genituzke, eta euskararen aktibazio-prozesuan ekarpen esanguratsua egiten jarraituko genuke; betiere haurren ongizatea eta garapen integrala erdigunean ezarritik, jakina, eta euren irriak euskararen bidelagun eginez.

Bibliografia

AIZENCANG, Noemi (2005). *Jugar, aprender y enseñar. Relaciones que potencian los aprendizajes escolares*. Argentina: Manantial.

ALEMAN, S. (2023). «Sarrera», in *Euskarazko ahozko jarduna Nafarroako gazte-
txoen artean. Egoera eta aukera berriak*, S. Aleman (arg.). Jagon bilduma, 24. Bilbo:
Euskaltzaindia: 9-11.

AMONARRIZ, Kike (2015). «Ahozkotasuna Soziolinguistikaren Behatokitik», *Bat
Soziolinguistika Aldizkaria* 96: 103-127.

ANTERO, Amaia, ARTOLAZABAL, Amaia, GARAIALDE, Esther eta IBARZABAL, Zi-
gor (2023). *Bazatuz? Ikastolen Hezkuntza Marko Orokorra*. Andoain: Ikastolen
Elkartea.

APODAKA, Eduardo eta MORALES, Jordi (2017). «Hiztun kategorietatik hizkun-
tza praktiken erregistroetara: erabilera sustatzeko neurriaren bila», *Bat Soziolinguis-
tika Aldizkaria* 104: 95-137.

ARRATIBEL, Nekane, GARCÍA, Letizia eta IRASTORTZA, Joxpi (2021). «Mondra-
gon Unibertsitateko HUHEZIKo ikasle hasiberrien hizkuntza-hautuak eta arra-
zoiak», *Uztaro* 119: 143-165.
Kontsultagai: [<https://doi.org/10.26876/uztaro.119.2021.8>].

ARTETXE Miren, BEREZIARTUA, Garbiñe eta BURRESO, Naroa (2024). «Ahozko
hizkera informalerako gaitasuna eta harreman-sare informaletako hizkuntza-erabi-
lera: azterketa kuantitatibo bat unibertsitateko gazteen testuinguruan», *Euskera
Ikerketa Aldizkaria* 69 (1): 49-78.
Kontsultagai: [<https://doi.org/10.59866/eia.v1i69.274>].

ARTOLA, Itxaro (2013). «Euskararen ainguralekuak Arrasateko hizkuntza-por-
taeran: zergatik eta non hitz egiten duten euskaraz», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*
89: 61-83.

BAENA, Antonio eta RUIZ, Pedro Jesús (2016). «El juego motor como actividad
física organizada en la enseñanza y la recreación», *EmásF: Revista Digital de Educa-
ción Física* 38: 73-86.
Kontsultagai: [<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5351993>].

BARAIBAR, Helena eta BEREZIARTUA, Aritz (2023). *Ikastolen aisia markoa*. Donos-
tia: Ikastolen Elkartea.

BARANDIARAN, A. (2023). «Hezkuntza ez-formala euskal eragileak sortzeko bide», in *Euskarazko ahozko jarduna Nafarroako gaztetxoan artean. Egoera eta aukera berriak*, S. Aleman (arg.). Jagon bilduma, 24. Bilbo: Euskaltzaindia: 61-69.

BARRIOS, Mikel, OSA, Erramun, MUÑO, Inma, ELORZA, Itziar eta BOAN, Kristina (2008). *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*. Bilbo: Euskaltzaindia.

BENÍTEZ, María Isabel (2009). «El juego como herramienta de aprendizaje», *Innovación y Experiencias Educativas* 16 (marzo de 2009). (Aldizkari digitala). Kontsultagai: [https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csic-sif/revista/pdf/Numero_16/MARIA%20ISABEL_BENITEZ_1.pdf].

BEREZIARTUA, Aritz, GUIRADO, Odei eta Alonso, Idurre (2023). «Lehen Hezkuntzako haurren lagunarteko hizkera aisialdian: erdaren eragina bat-bateko adierazkortasunean», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 68 (2): 11-39. Kontsultagai: [<https://doi.org/10.59866/eia.v2i68.263>].

BERNALES, Margarita, CABIASES, Báltica, OBACH, Alexandra eta MATURANA, Andrés (2015). «Investigación traslacional en salud: un camino para la investigación pragmática e interdisciplinaria», *Revista Médica de Chile* 143: 128-129. Kontsultagai: [<http://dx.doi.org/10.4067/S0034>].

BROFENBRENNER, Urie (1977). «Toward an experimental ecology of human development», *American Psychologist* 7 (2): 513-531.

CAMARDONS, Jordi (2011). «Irudimen eta heziketa soziolinguistikoa: Herrialde Katalanetan heziketa soziolinguistikoa dibulгатzea eta lantzea», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 2-3: 281-300.

CAMPOS, Agustín C. (2009). *Métodos mixtos de investigación*. Colombia: Magisterio.

CAMPS, Victoria (2022). *Breve historia de la ética*. Bartzelona: RBA.

CENOZ, Jasone eta SANTOS, Alaitz (2017). «Komunikazio-antsietatea euskara bigarren hizkuntza dutenengan», *Fontes Linguae Vasconum* 124: 369-387.

— (2021). «La enseñanza del español desde una perspectiva multilingüe» in *Internacionalización y enseñanza de español como LE/L2. Plurilingüismo y comunicación intercultural*, M. Saracho-Arnáiz eta H. Otero-Doval (arg.), ASELE (2021): 21-31. Kontsultagai: [https://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/asele/pdf/30/30_0001.pdf].

CORTÉS, Alexandra (2004). «La herencia de la teoría ecológica de Bronfenbrenner», *Innovación Educativa* 14: 51-65.

DEWAELE, Jean-Marc (2010). *Emotions in Multiple Languages*. Basingstoke: Palgrave Macmillan.

DÍAZ, Ildefonso Gustavo (2012). «El juego lingüístico: una herramienta pedagógica en las clases de idiomas», *Revista de Lingüística y Lenguas Aplicadas* 7: 97-102. Kontsultagai: [<https://doi.org/10.4995/rlyla.2012.947>].

DÖRNYEI, Zoltán (2020). «Foreword», in *Contemporary language motivation theory. 60 years since Gardner and Lambert (1959)*, A.H. Al-Hoorie eta P.D. MacIntyre (arg.). Bristol: Multilingual Matters.

DOSIL, María, ALONSO, Israel, MORATA, Txus, IGLESIAS, Edgar, MENCÍA, Laura eta CELÁA, Eneko (2023). «Impulsar el desarrollo comunitario desde el ocio educativo: algunas claves, dificultades, oportunidades y retos», *Zerbitzuan: Gizarte Zerbitzuetarako Aldizkaria* 80: 101-110. Kontsultagai: [<https://doi.org/10.5569/1134-7147.80.07>].

EIZMENDI, Iñaki, URIARTE, Aitor, ZUBILLAGA, Olatz eta ERRASTI, Arantzazu (2007). «Hezitzaileek asko egin dezakete euskararen erabilera sustatzeko», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 63: 117-129.

ELORZA, Inma, BOAN, Itziar, MUÑOA, Kristina, URRUZMENDI, Inma, BARRIOS, Mikel eta OSA, Erramun (2009). *Ikastolen Hizkuntz Proiektua*. Zamudio: Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa.

ERIZE, Xabier (2016). «Euskal herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboen bilakaera (1991-2016), eta aurrera begirako bideak», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 99 (2): 113-177.

ESCALANTE, Elsa Lucía, HERRÓN, Mauricio, AGIRRE, Camilo Ernesto eta FERRER, María Angélica (2020). «Métodos mixtos en la investigación socioeducativa», in *Intervención educativa en contextos sociales. Fundamentos e investigación, estrategias y educación social en el ciclo vital*, F.J. del Pozo Serrano (arg.). Kolonia: Universidad del Norte: 133-149.

ESNAOLA, Aitor eta EGIBAR, Mikel (2007). «Euskal ludikotasuna erabiliz, euskara indartu», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 63: 67-72.

ETXEBERRIA, Felix (2003). *Hizkuntzaren psikopedagogia*. Usurbil: Elhuyar Edizioak.

EUSKALTZAINDIA (2023). «Arikala: ikasleen artean lagunarteko euskara sustatzeko ikerketa-ekintza berritzailea», *Plazaberri* (2023ko martxoaren 9a).

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA (2009). *Euskararen erabilera areagotzeko estrategiak eskolatik abiatuta*. Oñati: Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua.

FALCETTONI, Nicolás Gabriel (2020). «El valor educativo del juego en la construcción ciudadana», *Lúdica Pedagógica* 32 (1): 7-14.
Kontsultagai: [<https://doi.org/10.17227/ludica.num32-12178>].

FANTINI, Alvino (1982). *La adquisición del lenguaje en un niño bilingüe*. Bartzelona: Herder.

FISHMAN, Joshua (1993). «Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 10: 37-46.

FORNI, Pablo eta GRANDE, Pablo de (2019). «Triangulación y métodos mixtos en las ciencias sociales contemporáneas», *Revista Mexicana de Sociología* 82 (1): 159-189.
Kontsultagai: [<https://doi.org/10.22201/iis.01882503p.2020.1.58064>].

FRÍAS, Dolores (2024). *Apuntes de estimación de la fiabilidad de consistencia interna de los ítems de un instrumento de medida*. Valentzia: Universidad de Valencia. (Argitalpen digitala).
Kontsultagai: [<https://www.uv.es/friasnav/AlfaCronbach.pdf>].

GARDNER, Robert (1985). *The attitude/motivation test battery*. Canada: The University of Western Ontario.

GREGORY, Michael eta CARROL, Susanne (2019). *Language and situation. Language varieties and their social context*. Londres: Routledge.

GUIRADO, Odei eta RUA, Jone (2023a). «Aisialdia, hezkuntza ez-formala, bizipen positiboak eta euskara: eman hegoak udaleku irekien ebaluazio-ikerkuntza», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 127 (2): 59-79.
Kontsultagai: [<https://doi.org/10.55714/BAT-127.3>].

— eta RUA, Jone (2023b). «Pulunpa (e)ta Xin! Erdal jatorria duten ikasleentzako harrera- eta murgiltze-plana: esku-hartze pedagogikoaren ekintza-ikerketa», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 68 (2): 41-86.
Kontsultagai: [<https://doi.org/10.59866/eia.v2i68.265>].

— eta SANTOS, Alaitz (2024). «Komunikazio-antsietatea, hezkuntza formala eta euskarazko hizkera informalaren ikas-irakaskuntza», *Fontes Linguae Vasconum* 139: 93-113.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.35462/flv138.7>].

GUTIÉRREZ, Pablo (2014). *Motivación, lengua y contexto*. Madril: Edinumen.

GUTIÉRREZ, Melchor (2014). «Relaciones entre el clima motivacional, las experiencias en educación física y la motivación intrínseca de los alumnos», *Retos. Nuevas Tendencias en Educación Física Deporte y Recreación* 26: 9-14.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.47197/retos.v0i26.34387>].

HORNBERGER, Nancy H. (2003). «Continua of Biliteracy», in *Continua of Biliteracy. An Ecological Framework for Educational Policy, Research, and Practice in Multilingual Settings*, N. Hornberger (arg.). Clevedon: Multilingual Matters: 3-34.

IARNOZ, Sagrario (1994). «Atxikimendua ebaluatzeko tresnak», *Uztaro* 11: 89-103.

IBARRA, O. (2020). «Gazte-hizkerak, adierazkortasuna eta kode-txandaketak», in *Euskara batua eta tokian tokiko erabilera. Korapiloak eta erronkak*, Jagon bilduma, 20. Bilbo: Euskaltzaindia: 123-138.

IURREBASO, Iñaki (2022). *Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguistikako tresna metodologikoak garatzen Euskal Herrirako aplikazio praktikoa*. Donostia: EHU/UPV. (Patxi Juaristik eta Iñaki Martinez de Lunak zuzendutako tesia).

IVAZ, Lela, COSTA, Albert eta DUÑABEITIA, Jon (2016). «The emotional impact of being myself: emotions and foreign-language processing», *Journal of Experimental Psychology: Learning, Memory, and Cognition* 42 (3): 489-496.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.1037/xlm0000179>].

JAFFE, Alexandra (2015). «Defining the new speaker: theoretical perspectives and learner trajectories», *International Journal of the Sociology of Language* 231: 21-44.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.1515/ijsl-2014-0030>].

JUARISTI, Patxi (2008). «Nola sortu zerbait berria, baina zerbait gurea», in *Atzotik Etzira XII. Jardunaldiak*. Bilbo: Mende balde Kultur Elkartea.

LABOV, William (2006a). «The study of language in its social context», in *The Social Stratification of English in New York City*. Cambridge: Cambridge University

Press: 3-17.

Kontsultagai: [https://doi:10.1017/CBO9780511618208].

— (2006b). «The isolation of contextual styles», in *The Social Stratification of English in New York City*. Cambridge: Cambridge University Press: 58-86. (2. argitaraldia).

Kontsultagai: [https://doi:10.1017/CBO9780511618208.007].

LASA, Xabier (2023). «Denok izan behar dugu hizkuntza-irakasle», in *Euskaraz-ko ahozko jarduna Nafarroako gaztetxoan artean. Egoera eta aukera berriak*, S. Aleman (arg.). Jagon bilduma, 24. Bilbo: Euskaltzaindia: 45-59.

LÓPEZ, Félix (1993). «Las relaciones afectivas a lo largo del ciclo vital», in *Teoría del apego y relaciones afectivas*, M.J. Ortiz Baron eta S. Iarnoz Iaben (arg.). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua: 11-62.

LUKAS, Jose Francisco eta SANTIAGO, Karlos (2016). *Hezkuntza ebaluazioa*. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea.

MAQUILÓN, José Javier eta HERNÁNDEZ, Fuensanta (2011). «Influencia de la motivación en el rendimiento académico de los estudiantes de formación profesional», *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado* 14 (1): 81-100.

MARTINEZ DE LUNA, Iñaki, IÑARRA, Maialen eta SUBERBIOLA, Pablo (2023). «Second language acquisition and minority languages: An introduction», in *The Minority Language as a Second Language*. Nueva York: Routledge: 1-15.

Kontsultagai: [https://doi:10.4324/9781003299547-7].

MIGELEN, Joana, GUIRADO, Odei eta DOSIL, Maria (2024). «Haurtzaroa eta nerabezaroa babesteko Gipuzkoako egoitza-harrerak: euskara, tutelatutako ohien bizi-penak eta hizkuntza-eskubideak», *Fontes Linguae Vasconum* 138: 563-585.

Kontsultagai: [https://doi.org/10.35462/flv138.6].

MILLARES, Rosa, FILELLA, Gemma eta LA VEGA, Pere (2017). «Educación Física emocional a través del juego en educación primaria: ayudando a los maestros a tomar decisiones», *Retos. Nuevas Tendencias en Educación Física Deporte y Recreación* 31: 88-93.

MUÑO, Inma (2020). «Erregistroak, aldaerak, hizkera gazteak... Zer egin dezake eskolak?», in *Euskara batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloak eta erronkak*. Jagon bilduma, 20. Bilbo: Euskaltzaindia: 111-122.

— BEOLA, Ainhua eta LASA, Xabier (2023). «Hezkuntzan soziolinguistika lantzen: zenbait gako eta “esperientzia”», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 131 (2): 11-33.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.55714/BAT-131.1>].

OLASAGARRE, Yolanda eta RAMOS, Rosa (2021). «Euskararen motibazioa hantitzea, euskararekiko atxikimendua hobetzeko bidea», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 120 (3): 135-149.

— (2023). «Ikasleen ahozko komunikazioa eskolan lantzeko aukerak eta oztopoak», in *Euskarazko ahozko jarduna Nafarroako gaztetxoan artean. Egoera eta aukera berriak*, S. Aleman (arg.). Jagon bilduma, 24. Bilbo: Euskaltzaindia: 11-31.

ORTEGA, Ane, URLA, Jacqueline, AMORRORTU, Estibaliz, GOIRIGOLZARRI, Jone eta URANGA, Belen (2015). «Linguistic identity among new speakers of Basque», *International Journal of the Sociology of Language* 231: 85-105.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.1515/ijsl-2014-0033>].

— (2024). «Kontzientzia soziolinguistikoa hezkuntzan: hitzaurrea», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 131 (2): 7-10.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.55714/BAT-131.0>].

ORUESAGASTI, Goizargi, ARAKISTAIN, Joana eta OTAEGI, Aizpea (2014). «Nola txertatu genero-ikuspegia hizkuntza-politikan? Lanerako marko baten proposamena», *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 92-93 (2014, 3-4): 67-86.

Kontsultagai: [<https://soziolinguistika.eus/files/Goizargi%20Oruesagasti%20et%20al.pdf>].

PEREIRA, Zula (2011). «Los diseños de método mixto en la investigación en educación: una experiencia concreta», *Revista Electrónica Educare* 15 (1): 15-29.

PARRILLA, Ángeles (2010). «Ética para una investigación inclusiva», *Revista Educación Inclusiva* 1 (3): 165-174.

PAZ, Javier (2018). «La ética en la investigación educativa», *Revista Ciencias Pedagógicas en la Educación* 6 (1): 45-51.

Kontsultagai: [<http://dx.doi.org/10.26423/rcpi.v6i1.219>].

PINZÓN, Iliana (2005). «Nociones lingüísticas básicas: lenguaje, lengua, habla, dialecto», *Revista La Tadeo* 71: 9-21.

RAMOS, Daniela eta MAYA, Yeneidys (2022). «Los juegos tradicionales y la motivación por el aprendizaje del idioma inglés», *Sociedad & Tecnología* 5 (3): 565-576.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.51247/st.v5i3.265>].

RAMOS, Rosa eta OLASAGARRE, Yolanda (2022). «Soziolinguistika ez da bidea. Motibazioa sustatzeko baliabideak», *Motibazioa Sustatzeko Baliabideak* bloga (2000ko apirilaren 4a). (Argitalpen digitala).

Kontsultagai: [<https://eibz.educacion.navarra.es/blogak/msb/2022/04/11/soziolinguistika-ez-da-bidea/>]. (2024/10/01 kontsultatua).

— (2023). «Ahozko gaitasuna eta hizkuntzaren atxikimendua komunikazioaren jokalekuan», in *Euskarazko ahozko jarduna Nafarroako gaztetxoan artean. Egoera eta aukera berriak*, S. Aleman (arg.). Jagon bilduma, 24. Bilbo: Euskaltzaindia: 33-43.

RODRÍGUEZ, Yaneth (2021). «Juegos verbales como estrategia para mejorar la expresión oral en el idioma inglés en estudiantes del primer año de educación secundaria», *Revista Educacion* 19 (19): 165-18.

SALCINES, Irina, GONZÁLEZ-FERNÁNDEZ, Natalia, RAMÍREZ-GARCÍA, Antonia eta MARTÍNEZ-MÍNGUEZ Lurdes (2018). «Validación de la escala de autopercepción de competencias transversales y profesionales de estudiantes de Educación Superior», *Profesorado. Revista de Currículum y Formación del Profesorado* 22 (3): 31-51.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.30827/profesorado.v22i3.7989>].

SÁNCHEZ, Jose María, Txepetx (1991). *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

SANTOS, Alaitz (2023). «Percepciones sobre la ansiedad comunicativa hacia el inglés en la Comunidad Autónoma Vasca», *Bellaterra Journal of Teaching & Learning Language & Literature* 16 (1): 1-20.

SARASUA, Jon (2013). *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideez apunteak*. Iruñea: Pamiela.

— (2024). «Euskararen etorkizun-ikuspegia: ariketa sintetikoa», in *Euskararen gogoetagunea* 1. Bilbo: Euskaltzaindia: 41-92.

SILVA, Daniel N. eta BORBA, Rodrigo (2024). «Sociolinguistics of hope: language between the no-more and the not-yet», *Language in Society* 53: 775-790.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.1017/S0047404524000903>].

TICKOO, Makhan (1991). *Languages & Standards. Issues, Attitudes, Case Studies*. Singapore: Seameo Regional Language Centre.

TRAVALIA, Carolina (2008). «Las colocaciones coloquiales en español», in *Actas del Congreso Internacional de Fraseología y Paremiología*. Madril: Universidad Autónoma de Madrid: 163-179.

URLA, Jacqueline (2014). *Reclaiming Basque. Language, nation and cultural activism*. Reno, NV: University of Nevada Press.

VAN LIER, Leo (2004). *The Ecology and Semiotics of Language Learning. A Socio-cultural Perspective*. Boston: Kluwer Academic.
Kontsultagai: [<https://doi.org/10.1007/1-4020-7912-5>].

VIGARA, Ana María (1998). «Aspectos pragmático-discursivos del uso de expresiones fosilizadas en el español hablado», in *Estudios de fraseología y fraseografía del español actual*, G. Wotjak (arg.). Madril: Iberoamericana Vervuert: 97-128.

VILCHES, Carlos, OLASAGARRE, Yolanda eta RAMOS, Rosa (2019). *DBHko ikasleen hizkuntza atxikimendua hobetzeko ikerketa eta esku-hartzea*. Nafarroako Gobernua (Hezkuntza Departamentua). (Argitalpen digitala).
Kontsultagai: [<https://www.educacion.navarra.es/documents/713364/714655/dbhkoikasleen.pdf/ed55cbde-4600-68a4-212e-eae72c80b528>].

VYGOSTKY, Lev (1978). *Mind in society. The development of higher psychological processes*. London: Harvard University Press.

— (1995). *Pensamiento y lenguaje. Teoría del desarrollo cultural de las funciones psíquicas*. Bartzelona: Ediciones Fausto.

WANG, Jiayu, JIN, Guangyu eta LI, Wenhua (2023). «Changing perceptions of language in sociolinguistics», *Humanities and Social Sciences Communications* 10 (91): 1-9. (Argitalpen digitala).
Kontsultagai: [<https://doi.org/10.1057/s41599-023-01574-5>].

YAN, Jackie Xiu eta HORWITZ, Elaine Kolker (2008). «Learners' perceptions of how anxiety interacts with personal and instructional factors to influence their achievement in English: A qualitative analysis of EFL learners in China», *Language Learning* 58 (1): 151-183.
Kontsultagai: [<https://doi.org/10.1111/j.1467-9922.2007.00437.x>].

ZABALETA, Olatz (2007). «Kale erabilera datuak aztertuz, gazteei begira», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 64: 129-133.

ZALBIDE, Mikel (2011). «Diglosiaren purgatorioaz: teoriatik tiraka», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 79: 13-152.

— (2020). «Euskara batua eta eguneroko mintzamolde arruntak: zer dira eta zertarako? Biak nola uztartu?», in *Euskara batua eta tokian tokiko erabilera. Korapiloak eta erronkak*. Jagon bilduma, 20. Bilbo: Euskaltzaindia: 11-90.

ZAMALLOA, I. (2021). *Atxikimendua eta Aurpegi-Emozioen Antzematea Mugako Nortasunaren Nahasmendua duten Pazienteetan*. Bilbo: EHU/UPV. (Miguel Ángel Gonzálezek eta Ana Catalánek zuzendutako tesia).
Kontsultagai: [<http://hdl.handle.net/10810/51358>].

Noketaren higatzea Ortzaizen

La erosión del tuteo alocutivo femenino¹ *noketa* en Ortzaize

L'érosion du tutoiement allocutif féminin² *noketa* à Ortzaize

The erosion of female allocutive form of address³ *noketa* in Ortzaize

JAUNARENA MENDIONDO, Ana
Bordele Montaigne Unibertsitatea
ana.jaunarena@protonmail.com

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2025i70.319>

Jasotze-data: 2025/01/10

Behin-behineko onartze-data: 2025/05/27

Behin betiko onartze-data: 2025/07/15

Ortzaizeko (Nafarroa Beherea) noketaren erabilera eta haren higatzea aztertzea edo berderen azterketari hurbiltzea du xede lan honek⁴. Hain xuxen, 18 lekuko ortzaiztarrek osatu lagin bat abiapuntu harturik, bi ikuspegitarik atxiki zaio noketaren erabilerari. Alde batetik, morfologiaren ikuspegitik, bi adin-tartetako 10 lekukorengandik bildu nokako adizki alokutiboen belaunaldi batetik besterako aldakortasuna aztertu da eta noketaren higatzearen az-tarnak lirakeen zenbait aldaera aurkeztu dira. Bestetik, soziolinguistikaren ikuspegitik, informatzaile-sorta osoaren —hots, gazteek osatu hirugarren adin-tartea barne— noketare-kiko praktika eta ideologiaren lekukotasunen bilketa egin, eta halaber, horien adinaren ara-berako aldakortasuna deskribatu da. Izan ere, emaitzek erakutsi dute adin-tarte batetik besterat, i) noketaren erabilera gobernatzen duten aldagai soziolinguistikoek pisu ezberdina

¹ Gaztelaniaz beste gisa batez erranik: «tuteo de familiaridad o confianza en femenino».

² Frantsesez «forme d'adresse de familiarité au féminin» ere ezar liteke.

³ Ingelesez «familiar form of address in the feminine» itzulpenak ere balio izanen luke.

⁴ Irantzu Epelderen eta Beñat Muguruzaren zuzendaritzapean egin Master Amaierako Laneko ikerketa aurkeztu da, lerro handitan.

hartzen dutela, ii) erabilera-taldea hertsitzen dela, baina iii) balioztatze progresibo bat agertzen dela noketari buruzko ideologietan.

Gako-hitzak: noketa, hizkuntza-aldakortasuna, hizkuntza-tratamendua, aditzaren morfologia, hizkuntza-transmisioa, hiketa.

Este artículo tiene como objetivo analizar el uso y la erosión del tuteo alocutivo femenino *noketa* en Ortzaize, Baja Navarra. A partir de una base de datos constituida por 18 hablantes de esta localidad, el análisis del uso del tuteo *noketa* se articula en torno a dos ejes de estudio. Por un lado, desde una perspectiva morfológica, este trabajo se propone analizar la variación de las formas verbales alocutivas del *noketa* recogidas en boca de 10 informantes, y específicamente las variantes que atestiguarían su erosión. Por otro lado, desde una perspectiva sociolingüística, trata de dar cuenta de los testimonios del conjunto de informantes —incluida la generación joven— sobre sus prácticas e ideologías relacionadas con el tuteo *noketa*; así como de exponer su variación en función de la edad. De hecho, los resultados obtenidos indican que, de una generación a otra, i) la influencia ejercida por las variantes sociolingüísticas en el uso del *noketa* varía, ii) el ámbito de uso se reduce, pero iii) que se manifiesta una valoración progresiva del *noketa* en los discursos ideológicos.

Palabras clave: variación lingüística, formas de tratamiento, tuteo, morfología verbal, transmisión de lengua.

Cet article vise à présenter les grandes lignes du mémoire de recherche ayant pour objectif principal l'analyse de l'usage et de l'érosion du tutoiement allocutif féminin *noketa* à Ortzaize (Ossès), en Basse Navarre. À partir d'une base de données constituée auprès de 18 habitants de cette localité, l'analyse de l'usage du tutoiement *noketa* s'articule autour de deux axes d'étude. D'une part, d'un point de vue morphologique, ce travail analyse la variation des formes verbales allocutives du *noketa* collectées auprès de 10 locuteurs, et spécifiquement les variantes qui témoigneraient de son érosion. D'autre part, d'un point de vue sociolinguistique, il s'agit de rendre compte des témoignages de l'ensemble des informateurs —y compris de la jeune génération— concernant leurs pratiques et idéologies liées au tutoiement *noketa*; aussi, d'en exposer la variation en fonction de l'âge. En effet, les résultats obtenus indiquent que d'une génération à l'autre, i) l'influence exercée par les variantes sociolinguistiques sur l'usage du *noketa* varie, ii) le cercle d'usage diminue, mais iii) qu'une valorisation progressive du *noketa* se manifeste dans les discours idéologiques.

Mots-clés : variation linguistique, système d'adresse, tutoiement, morphologie verbale, transmission de la langue.

This fieldwork-based study seeks to analyse the use and more specially the decline of the female allocutive form of address *noketa* in Ortzaize, in Nafarroa Beherea (Lower Navarre). Based on a corpus made up of interviews with 18 residents of that place, the analysis of the use of the *noketa* familiar form of address hinges on two lines of research. On the one hand, from a morphological perspective, this work aims to analyse the variation of the verbal allocutive forms of the *noketa* collected from ten speakers, and specially the variants that would reflect its erosion. On the other hand, from a sociolinguistical point of view, the investigation plans on describing the accounts of practices and ideologies in relation to the *noketa* familiar form of address of the whole group of participants—including the younger generation—, and analysing their variation according to age. Indeed, the results obtained indicate that, from one generation to another, i) the influence exerted by sociolinguistic variants on the use of the *noketa* varies, ii) the usage domain narrows, but iii) that a gradual valorization of the *noketa* emerges in ideological discourses.

Keywords: linguistic variation, system of address, familiar form of address, verb morphology, language transmission.

JAUNARENA, Ana (2025). «The erosion of female allocutive form of address *noketa* in Ortzaize», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 70 (2): 125-165.

1. Atarikoa
2. Kuadro teorikoa eta aitzindariak
 - 2.1 Hiketaz bi hitz
 - 2.2 Noketaren higatzeaz
3. Protokolo metodologikoa
 - 3.1 Helburuak
 - 3.2 Metodologia
 - 3.2.1 Berriemaileak
 - 3.2.2 Datu-bilketa
4. Bildu emaitzak
 - 4.1 Noketaren higatzea ikuspegi morfologiko-linguistikotik
 - 4.1.1 Ortzaizeko noketa aldakortasunetik
 - 4.1.2 Noketaren higatzearen aztarna zenbait
 - a) Forma hibridoak
 - b) Nokako atzizki pleonastikoak
 - c) Neutroa saihesbide
 - d) Toka abiapuntu
 - 4.2 Noketa soziolinguistikatik: erabileraren higatzea eta ideologien xerka
 - 4.2.1 Noketaren erabileraren higatzea: nokari-taldearen eta aldagaien aldatzea
 - 4.2.2 Indiferentziatik arrangura eta dolurat belaunez belaun: noketari atxikitako ideologien garapena
5. Ondorioak eta eztabaida

Bibliografia

1. Atarikoa

Ez dateke gutarik nehor euskara —hizkuntza oro bezala— aldatzen dela ez dakienik. Aldaera linguistikoak jin, joan... olde historiko eta soziokulturalen araberrako etengabeko mugimenduan da hizkuntza, eta are gehiago, naski, egoera diglosikoan. Lan honetan, higatzen ari den ezaugarri hori dugu jomugan: noketa. «Hi» izenordaina eta generoaren araberrako bereizketa oinarri dituen hika tratamendu informalaren parte da; emazteei noka ari ohi zaie, gizonari, aldiz, toka. Izan ere, ezagun da azken hamarkada hauetan hiketa edo hitanoaren erabilera ttipituz doala, zuketaren alde. Gainera, hitanoan berean gehien bizirauten duena toketa da; hau da, hitanotik gelditzen den gutia gizonari zuzendu eleatarat zokoratzen ari da. Lan honek, beraz, euskarazko tratamenduen uniformizazioaren ondorioak gehien pairatzen dituzkeen eta galzorian den noketari arreta eman nahi dio, noketa guti ikertua izan den ingurunean: Ipar Euskal Herrian.

Hain xuxen, lagin bat abiapuntu harturik, «noketaren higatzea» bi ikuspegitarik lantzea dugu xede, adina ardatz, hala hizkuntzaren barnetik nola kanpotik; zehazkiago, ikuspegi morfologikotik, hau da, bi adin-tartetako lekukoen nokako adizkien aldakortasuna neurtuz, eta ikuspegi soziolinguistikotik, hots, lekukoek noketari buruz dituzten praktikak eta diskurtsoak aztertuz. Alor-lanean oinarriturik, Ortzaize herriko noketa dugu aztertze-gunea.

Ortzaize, antzina *Urzaiz*, Baxenabarreko⁵ atariko herria da, Baigura eta Larla mendien hegalean artean babestua eta Errobi ibaiak eta Laka errekek zeharkatua. Ortzaizeko ibar eponimoan kokatua da, hori gainerat Arroza eta Bidarra herriei osaturik. Zuzenki ala zeharka egin aitzineko ikerketa deskriptiboei esker, zenbait ezagutza ditugu Ortzaizeko mintzoaz. Haren sailkapen dialektologikoari dagokionez, L.L. Bonaparteren arabera «mendebaldeko behe-nafarrera» genuke, eta zehazkiago «Baigorriko azpieuskalkia»; K. Zuazoren sailkapen berriagoari jarraikiz, aldiz, nafar-lapurtera, mendebaldeko azpieuskalkiko Baigorriko azpimultzokoa (Zuazo 1998). Or-

⁵ «Nafarroa Beherea» izendapen ofizialaren ordeiz, «Baxenabarre» alonimoa erabiliko dugu artikulu honetan.

tzaize inguruko adizki alokutiboen berri ere badugu; P. Irizarren kargupean Artolak (Irizar 1999) bertan —eta Bidarrain, Arrosan, Baigorri, Bankan, Urepelen eta Alduden— bildu flexioak eskura ditugu, batetik, eta Zuazok Ortzaize eta Baigorriko ibarretako euskarari eskaini monografiarako bildu adizki alokutiboak (Zuazo 2021), bestetik. Bizkitartean, bataz bilketa-lana indikatiborat mugatu izanki, eta besteak adizkiak Bankan bildurik, corpusa osatzekoa zen.

Ikerketaren nondik norakoak aurkezturik, honako egitura segituko du artikulua: lehenik lana kokatu den koadro teorikoa laburki azalduko da lan aitzindarien berri emanez, ondotik bi aldetako emaitzak aurkeztuko dira, erran nahi baita, ikuspegi morfologikokoak eta ikuspegi soziolinguistikokoak; eta azkenik, ikerlanetik atera ondorio nagusiak plazaratuko dira, eztabaidarako puntuak irekiz.

2. Koadro teorikoa eta aitzindariak

2.1 Hiketaz bi hitz

Hiketari zenbait ikerketa eskaini zaizkio azken urteotan. Xehetasun teoriko espezifikoez sartu gabe, zehatz dezagun euskararen berezitasuna den funtsezko ezaugarri gramatikala duela hitanoak: alokutibotasuna (Bottineau eta Roulland 2007). Hau da, solaskidea perpauseko argumentu izan gabe ere haren txertatzea aditz laguntzailearen barnean (Euskaltzaindia 1997: 387). «Hi» argumentuaren edo mintzalagunaren generoa adierazten da *-n* edo *-na-* (noka) eta *-k* edo *-a-* (toka) morfemen bidez. Ikus bedi norakako adibide hau argigarri gisa:

- a. Ekhi **jin** *da* Jenofaren xerka.
- b. Ekhi **jin** **dun** Jenofaren xerka.

Bi perpausek NOR saileko komunztadura dute, eduki semantiko bera dute, baina Azkuek esplikatu lezakeen gisan (2000: 14), bigarrenak —forma alokutibodunak— Ekhi jin dela errateaz gain, hiztunak solaskidea ere go-goan duela adierazten du. Hau da: *jin dun* + *hirekin ari naun*.

Arauzkoak dira forma alokutiboak hika mintzatzean, euskalkien araberrako muga sintaktikoak tartean (Alberdi 1996; Aurrekoetxea 1994; Lafon 1999 [1959]; Oihartzabal 1993; Rebuschi 1984); izan ere, adierazpen-perpau nagusietan soilik erabiltzen dira alokutiboak literatura-tradizio landuan (Alberdi 1996: 294).

Tratamendu horren erabilerari datxikola, ez da arau soziopragmatiko idatzirik; erabilera aldakorra izanki, neke da irizpide zehatzen definitzea, baina joera nagusiak ageri dira (Muguruza eta Bereziartua 2020). Hain xuxen, Alberdik, konparazione, aldagai soziolinguistikoko hauek aipatu ditu (1993: 434): gaia (hizketa-gaia), testuingurua, adina, belaunaldia, sexua (generoa), senidetasun-maila, dialektoa, talde-kidetasuna, aginpidea (legal edo politikoa), elkartasun psikologikoa eta ohitura: «harremana nola hasi, hala segi» (1993: 437). Horietaz gain, Lafittek azaldu zuen izaeraz «koska» ala «entterka» izateak, erran nahi baita, izaeraz edo jitez barnerakoia ala kanporakoia izateak baldintza lezakeela hitanoaren erabilera (1977). Historikoki Euskal Herri osoan mintzatu izan da toka eta noka, eta garai guzietan (Oihartzabal 1993; Rebuschi 1981). Bizkitartean, erabilera beheiti joan da historiaren gostuz, zaluago edo emekiago eskualdearen arabera. Ttipitze horren giblean hainbat faktore gurutzatzen direla erakutsi dute hainbat egilek (Alberdi 1993, 1996, 2018; Beitia 2017; Etxeberria 2001; Coyos 2006; Legorburu 2018; Muguruza eta Bereziartua 2020): euskararen galera bera, alokutiboaren morfologiaren nekezia, euskara batuaren presentziaren igaitea edo haztea, edota hiketaren ospe eta konnotazio txarrak, besteak beste, baserritartasunari edota heziketa-eskasari lotuak.

Halarik ere, hiketari esleitu izan ohi zaizkion konnotazio txarrez gain, azken urteetako Gipuzkoako ikerketa kualitatibo zenbaitek erakutsi dute hiketaren inguruko ideologiak aldatuz doazela eta gazteen belaunaldiak «paradigma berri» bat marka lezakeela (Legorburu 2018: 130); izan ere, hiketa aitzineko belaunaldiek baino gehiago baloratzen dute oraingoek, artetan beren artean prestigioa lortzeraino (Alberdi-Zumeta 2019; Beitia 2017; Ozaita 2014).

2.2 Noketaren hingatzeaz

Dena den, erabileran, paradigma femeninoa da galtzaile handiena, toketak baino gainbehera are drastikoagoa bizi baitu azken hamarkadetan noketak, eta desagertzekotan datekeela uste dute zenbait ikerlarik (Alberdi 1993; Etxeberria 2003). Hain xuxen, generoa egiazko alde bat sortzen duen faktore konstantea da, hitanoaren bultzatzaile edo oztopatzaile nagusi (Bereziartua eta Muguruza 2021, 2024; Etxeberria 2003; Legorburu 2018; Muguruza, Bereziartua eta Etxeberria 2020; Muguruza eta Bereziartua 2020). Genero-ezberdintasunei so egin dieten —Hego Euskal Herriko— azterketa kuantitatibo guziek ondorioztatu dute, hika mintzo direnak eskuarki gizonei zuzentzen diren gizonak direla, eta toketa eta noketaren erabileren arteko alde hori handitu baizik ez dela egin azken hamarkadetan (Azkue 2000; Aztiker Soziologia Ikergunea 2021; Bereziartua eta Muguruza 2021). Euskalkika behatuz gero, Alberdiren arabera (1996: 367), toketa eta noketaren arteko desoreka edo beherakada muturretako euskalkietan ageri da beste nehon baino garbiago, hau da, bizkaieran, mendebaldeko zein ekialdeko behe-nafarreretan eta zubereran⁶.

Izan ere, hiketak erranahi ezberdinak ditu gizonak ala emazteak erabili; gizonen ahoan elkartasuna, anaitasuna eta konfiantza isla litzake; emazteenan, aldiz, zarpailtasuna, errespeturik eza. Horrenbestez, jendeak hiketari eratxikitzen dizkion balio horiek tradizioz hobeki joan dirateke maskulinitatearekin (Etxeberria 2001; Legorburu 2018). Gainera, emazteek prestigioa duten aldaeren alde gehiago egiten dutela defendatu dute egile zenbaitek (Trudgill 1972; Lakoff 2004 [1975]; Romaine 2008). Hara, beraz, noketaren transmisio-etena lagundu duketen zenbait faktore.

Bestaldetik, noketaren hingatzea adizkietan berean ere islatzen dela leku-kotu dute ikerlariek. Konparazione, neskei geroz eta gehiago toka mintzatzzen zaie (Azkue 2000; Ozaita 2014), eta Elustondo eta Epeldek (2023) *axtu in xitxaiakenan* ‘ahaztu egin zitzaidan’ (toketaren gainean noketa) bezalako forma hibrido andana bat bildu dute Gipuzkoan.

⁶ Kontuan har bedi gainera datu horiek 1990eko hamarkadakoak direla: litekeena da artean higidura azkartu izana.

Hona, beraz, lerro handitan, zer koadro teoriko eta akademikotan kokatzen den ikerlana. Testuingurua argiturik, segidan plazaratuko ditugu lan honen helburuak.

3. Protokolo metodologikoa

3.1 Helburuak

Aitzineko lanek beste testuinguru batzuetan nokako formak higatzeko bidean direla erakutsi digute. Beraz, Ortzaizeko errealitate soziolinguistikoa⁷ eta herrian gelditzen diren noka-erabiltzaile edo nokari⁸ kopuru arras murrizta kontuan harturik, gure abiapuntua bertako noketa ere higatzen ari dela egiaztatzea izan da, edo bederen noketaren higatzearen zantzu batzuk agertuko zitzaizkigula baieztatzea. Horrez gain, Artolak (Irizar 1999) 90eko hamarkadan hiru lekukorengandik bildu zituen formetarik landa, nehor ez ibili izanik Ortzaizeko forma alokutiboen jasotzen, aldakortasuna atzemenen genuelako duda guti genuen.

Ondorioz, lan honen helburu nagusia Ortzaizeko noketaren higatzea aztertzea edo bederen hari hurbilpen bat egitea da. Baina ikerketak beste helburu espezifiko hauek ere izan ditu:

- Ortzaizen galbidean den noketaren corpora osatzea;
- Herriko bi adin-tarteren nokako mintzoen arteko aldakortasuna iker-tzea, hots, adina ardatz, noketaren higatzea ikuspegi morfologikotik aztertzea;
- Forma-bilketatik haratago joan eta noketaren higatzea ikuspegi sozio-linguistikotik aztertzea, hain xuxen:

⁷ Gaur egun, Ortzaizen zehazki zenbat jende euskaraz ari den ezin erran, ez baita errolda soziolinguistikoko berezirik eginik. Baina eremu handiagoa aztertu duen azken Inkesta Soziolinguistikoa (EEP, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua 2023) gutienez ideia bat eman liezaguke: Baxenabarreko eta Zuberoako % 47,5ek baizik ez du hizkuntza-gaitasuna euskaraz.

⁸ «Nokari» terminoa hautatu dugu noka ari diren hiztunen izendatzeko, hiztun bati *zukari* terminoa aditu ondotik. Analogiaz menturatu gara, beraz, gurera ekartzerat, izendapena erraztuko duelakoan. Kontu bera «tokari» izendapenaz.

- a) Ortzaizeko lekuko-sorta horren noketaren erabilera-taldearen garapena deskribatzea;
- b) Noketari atxikitzen zaizkion ideologiaren garapena aztertzea.

Hain xuxen, forma-bilketa «soiletik» haratago joan nahi izan dugu, noketaren higatze horrekin lotura ukan lezaketen lekukoen praktikak eta diskurtsoak jasoz; alegia, higatze horren giblean izan litezkeen arrazoiei buruz hurbildu nahi izan dugu. Bizkitartean, horrek ez du erran nahi Ortzaizeko noketaren gainbeheraren zergatia ezagutarazterat jin garenik. Izan ere, uste dugu azalpen bakarrari ihes egiten dion fenomeno konplexu eta multifaktoriala dela. Horregatik, gaiari soziolinguistikatik heltzean, noketaren erabileraren higatzearen deskribapen baten ematea dugu helburu.

3.2 Metodologia

3.2.1 Berriemaileak

Metodologia experimentalari jarraikiz, guhaurek alor-lanean ibiliz osatu dugu ikerketa honi mamia ematen dion corpusa. Tokiko berriemaileengana jo dugu, eta orotarar 18 lekukoren parte-hartzeari esker ondu dugu ikerketa. Noketaren erabileraren aldakortasuna aztertzea baikenuen xede, hiru adin-tartetakoak dira 18 informatzaile horiek. Edozein aurkezpenetan sartu aitzin, on da berebiziko garrantzia duen xehetasun baten ematea: ez dugu 60 urtetik peko ortzaiztarretarik bihirik atzeman noka ari denik. Honenbestez, ikerketa hori alderdi morfologikotik⁹ ontzeko, 60 urtetik goitiko 10 nokarirekin aritu gara, bi adin-tartetan banaturik: 5 nokari 60 urtetik goitikoetan, horietarik lau emazte eta gizon bat, eta 5 nokari 75 urtetik goitikoetan, horietarik ere lau emazte eta gizon bat.

Alderdi soziolinguistikoan, aldiz, aipatu nokari horiei bi emazte gehitzeaz gain, hirugarren adin-tarte bat ere sartu dugu. Nahiz ez dugun atzeman noka ari den gazterik, horiei ere boza eman nahi izan diegu, erabileraren lekuko direnez gero, gaiari buruz dituzten uste eta balioak biltzeko. Gainera,

⁹ Gure lanean zehar, zenbait alderdi morfofonologiaren esparrutik ere landu behar izan ditugu.

beren pertzepzioak eta noketaren erabilpenik eza bera, noketaren erabilera-
ren aldakortasunaren parte dira. Beraz, 24-35 urte bitarteko 6 gazterekin
aritu gara, horietarik toka ari diren 3 mutiko eta ez toka ez noka ari ez diren
3 neskarekin.

1. taula. Berriemaileen banaketa

3. ADIN-TARTEA: 24-35 urte	2. ADIN-TARTEA: + 60 urte	1. ADIN-TARTEA: + 75 urte
auzoak ● MARGA24 ● MAPE25	auzoak ● TEIN61 ● ANIN67	auzoak ● MAGA92 ● MAIR89
● BIXI26 ● TXOXU24 lagunak	● JAIB66 ● MAIB68 ahizpak	● AMLA88 ● AMLAH75 lagunak
● ELHE28 ● XANIN35 lagunak	● JEGA62 lagunak	● MALAH70 ● BEBI75 ● MAETX83 auzoak

- Alderdi morfonologikoan zein soziolinguistikoan parte hartu dutenak (10).
- Alderdi soziolinguistikoan soilik parte hartu dutenak (8).

Iturria: Guhaurek egina.

Berriemaileen hautaketarako, funtsezko irizpide hauek ukan ditugu ar-
datz: egunerokoan euskaraz aritzea, noka mintzatzea¹⁰, Ortzaizen sortua eta
hazia izatea eta Ortzaizen edo gehienez inguru-herrietan bizi izatea. Alabai-
na, hiztunak hautatu aitzin atzeman behar baitira, Milroyk (1980) prakti-
kan eman zuen «elur bola efektua» edo «lagunaren laguna» deitu teknika
erabili dugu gure laguntzeko prest litezkeen nokarien atzemateko. Zehatz
dezagun uste baino nekeago izan dela berriemaile-sortaren osatzea. Anitz

¹⁰ Bistan denez, irizpide hori noka ari diren heldu eta adinetakoei aplikatu zaie, ez gazteei.

genituen oztopoak: nokari kopuru arras murrizta (uste genuen baino murriztagoa), herriaren erdalduntzea, eta datu-bilketarako egingarritasuna¹¹.

3.2.2 *Datu-bilketa*

Bi metodoren bidez osatu dugu gure corpusa: bai elizitazio bidez, gure ikerketara bideratzeko, bai mintzo librearen bidez, espontaneoki ateratzen diren adizkiak eta gogoetak biltzeko. Alde batetik, elizitazioari datxikola, ikergaia bi alderditarik lantzeko pario egin dugunez, erran nahi baita, hala hizkuntzaren azterketatik nola alderdi soziolinguistikotik, bi galdetegi mota sortu ditugu datu elizitatuen biltzeko.

Alde batetik, nokako adizki alokutiboen paradigmak muntatzeko galde-sorta bat sortu dugu, morfologiari emana. Orotarat, 308 forma biltzeko egin da. Izan ere, aldaera fonetiko nahiz morfologikoak alde batera utzirik, 286 forma bildu ditugu 1. adin-tartean, eta 284 2. adin-tartean. Galde-sortaren osatzeko, Elustondo eta Epeldek (2023) Oztibarreko nokako formen biltzeko baliatu galdetegian oinarritu gara, egin ahala Ortzaizeko mintzorat ekarriz eta gaiak eta erranaldiak pixka bat aldatuz, gure berriemai-leengandik ahal bezain hurbil izateko.

Bestalde, hitzunei nokako adizkiak biltzeaz gain, beren hizkuntza-praktikei eta bereziki toketa eta noketaren erabilpenari buruz dituzten jarrerak eta ideologiak ere bildu nahi izan ditugu, azterketa kualitatiboaren egiteko. Horretarako, elkarrizketa erdi-gidatuak egin ditugu, guk sortu galdetegi glotobiografiko¹² baten laguntzaz, erran nahi baita, hizkuntza ardatz duten narrazio biografikoak biltzeko galdetegia baliatuz. Legorburuk (2018) bere

¹¹ Aldi guziz bi pertsona atzeman beharra, adinekoa izatea nahi genuen, eta preseski adinarekin ariketaren egiteko trenpu onean izan beharra, hitzun-sortaren osatzea dorpetu duten irizpideak izan dira.

¹² Kasares (2014) lanetik hartu dugu termino hori. Izan ere, haren definizioa gure xedearekin ontsa ezkontzen dela iruditu zaigu. Halaxe dio: «Glottobiografiak izaera dinamiko-diakronikoa duten narrazio biografikoak direnez gero, hizkuntza ordezkapen eta berreskurapen egoerak aztertzeko bereziki baliagarriak suerta daitezke. [...] Glottobiografiek subjektuen bizitzan inguruabarrak eta bilakaerak bildu dituzte hizkuntzekin eratu dituzten harreman-loturetan ardazturik. Mintzai-

MALerako sortu galdetegia inspirazio-iturritzat hartu dugu, ondotik gurerat ekartzeko. Hain xuxen, hark bezala, berriemaileak profil ezberdinekoak direla kontuan hartu dugu, hiru adin-tarte direla gogoan hartuz, gazteenean (24-35) batere nokaririk gabe, eta horien artean ere profil ezberdinak direla, mutikoak, neskak ez bezala, toka ari baitira. Ondorioz, hiru galde-sorta sortu ditugu: lehena nokariei zuzendua, erran nahi baita 1. eta 2. adin-tarteetakoei¹³, bigarrena 3. adin-tarteko mutiko gazte tokariei, eta hirugarrena azken adin-tarte horretako neskei zuzendua, zukari eksklusiboki direnei.

Datu-bilketa hiztunen etxeetan gauzatu ahal izan dugu 2024ko neguan, bi hilabetez. Denbora-tarte horretan elkarrizketatzailea Ortzaizen berean bizi izan da, arrunt murgildurik, egun guziz laguntzeko prest ateak gozoki irekitzen zizkiguten lekukoengana etxez etxe aiseago ibiltzeko. Haien sukaldeetan aritu gara, testuinguru informalean. Baldintza horiek arras baliagarriak izan dira, konfiantzazko eta usaiko tokian izanki, naski eguneroko mintzo naturala baliarazten lagundu baititu. Caminok dioen gisan, «informatzailearen etxea dialektoaren ingurunerik jatorrizkoena da» (2009: 300). Berriemaileen baimenarekin, elkarrizketa oro grabatu dugu Tascam DR-05X grabagailuaren bidez. Orotarat, 45 oren eta 10 minutu grabatu ditugu.

Informazioen biltzeko, hiztunak sistematikoki binaka plantatu ditugu¹⁴, eta elkartze bakoitz, bi galdetegiak konbinatu ditugu. Hara nola eraman dugun ariketa: galdegin diogu nokari bakoitzari parean zuen solaskideari, zein nari noka ari baitzaio, guk bota erranaldi bat errepika ziezaion, hari mintzo ohi zaion moldean, hots, noka. Azterketa kualitatiborako, adizki-bilketarako konfigurazio berbera baliatu dugu, hau da, hiztunak binaka atxikiz. Hain xuxen, *dyadic interviews* deitukoak (Morgan eta beste 2016) eraman ditugu.

rekiko atxikidura horiek ezagutzeak hiztunek beren umeen hizkuntza-sozializazioaren aitzinean izan dituzten jokaera, jarrera eta estrategietan arakatzeko bide eman dit» (Kasares 2014: 116).

¹³ Oraindik goiti, 1. adin-tartekoak «adinetakoak» izendatuko ditugu, 2. adin-tartekoak, «hel-duak» eta 3.ekoak, «gazteak».

¹⁴ Berriemaileen banaketari doakion taulan, kako zuzenez adierazirik, ikus bitez bikoteak, eta kideak elkari lotzen dituzten harreman motak. Ikusiko den gisan, adin-tarte bakoitzetik lekuko bat, bi bikote ezberdinetako kide izan da (MAIR89 lehenetik eta MAIB68 bigarrenetik), batean nokari gisa eta bestean «noka-jasotzaile» gisa.

Datu-prozesaketa ezberdina baliatu dugu corpus batetik besterat; hau da, corpus mota ezberdina izateak beharturik, ez dugu metodologia bera segitu bildu adizkiak eta noketaren erabilerari buruzko lekukotasunak lantzeko. Lehenari dagokionez, jaso forma alokutibo guziak, aldaerak barne, zegozkien aldi eta argumentuen arabera tauletan bateratu eta agerrarazi ditugu, adin-tartearen arabera bereizirik; 1. adin-tartekoen paradigmak alde batetik, eta 2. adin-tartekoenak bestetik. Antolaera bateratu horri esker, aiseago aztertu ahal izan dugu belaunaldi batetik besterako aldakortasun morfologikoa. Aldi berean, Artolak (Irizar 1999) eta Zuazok (2021) osatu paradigmak begipean genituen erreferentzia gisa, indikatibozko adizkiendako segurik. Gainbegirada horri esker, adin-tarte bateko paradigmetatik besteetarako aldaerak eta joera konbergenteak identifikatu ahal izan ditugu, ondotik horien interpretatzeko. Horrez gain, elizitazio-denborako grabaketak eskura izan ditugu forma zenbaiti buruz ukan genitzakeen duden argitzeke.

Bigarren corpusaren lantzeko, galdetegi glotobiografikoen arabera el-karrizketa erdi-gidatuak transkribatu ditugu, RS28H-USB pedalaren laguntzaz. Orotara, 14 oreneko grabaketa transkribatu dugu. Behin dena papereaturik, «eduki kualitatibo analisia»ren metodologia erabili dugu datu kualitatiboen zentzua sistematikoki deskribatzeko, pasarteak elkarren segidan *coding frame* izeneko txantiloiko kategoria ezberdinetarat egokituz (Schreier 2014).

4. Bildu emaitzak

Ikergaia kokaturik, datu-bilketan jaso emaitzak ezagutaraztea datorkigu.

4.1 Noketaren hingatzea ikuspegi morfologiko-linguistikotik

4.1.1 *Ortzaizeko noketa aldakortasunetik*

Lehenik, noketaren hingatzea hizkuntzaren barnetik aztergai izan dugu. Higaduraren menturazko zantzuak identifikatzeko, lehen urratsa corpusa

eta adizki-paradigmak osatzea izan da. Horien kopuruagatik eta luzeragatik, artikulua honetan ez ditugu paradigmak sartuko: horiei behako bat emateko interesa duenak zuzenean MALerat¹⁵ jo beza.

Izan ere, adizki-paradigmak osatzeak Ortzaizeko noketari buruzko zenbait ezaugarri dialektal argitan eman dizkigu, eta horien deskribapen ttipi baten egiteko parada eskaini digu. Bi ezaugarri aipagarriak lirateke:

a) Alde batetik, ikusi dugu, NOR 2. p. sg. delarik (*hi*), aditz nagusiaren puntan sudurkari bat (gehienetan *-n*) edo albokari bat delarik, metatesi bat ekoizten dela sistematikoki; *joan* + *hiz* > *joaintz*; *jiten* + *hiz* > *jiteintz* > *ahal* + *hiz* > *ahaintz*.

b) Bestetik, aldi eta modu datibodun guzietako paradigmek 1. p. datibo-ko *-e-* bokal «ortzaiztarra» agerrarazi dute. Ikus bitez, konparazione, bildu adizki hauek: *zētan* ‘zaidan’; *dētan* ‘didan’; *hētan* ‘hidan’; *emetan* ‘emaidan’. Morfema horren izaera ortzaiztarra lekukotu zuen Zuazok (2021: 69): «Ortzaize ibarrean datiboa “niri” denean, *zeta* “zait” eta *zēzta* “zaizkit” esaten da». Baigorri aldiz, *zaut/zaat* adi daitezke, eta Alduden/Urepelen, *zait* ere bai (Irizar 1999; Camino 2004; Zuazo 2021; Urreizti 2023). Hots, Ortzaizeko eztabadan¹⁶ entzuten den lokalismo bera gardenki ageri da Ortzaizeko noketan, bai adinetakoen artean, bai helduen artean.

c) Haatik, badira adin-tarte batetik besterat aldatzen diren zenbait xehe-tasun. Deigarrien artean, aipa genezake, alde batetik, berrikuntza den itxurako aldaera bat, 2. adin-tartekoek ekoiztua, aldi eta modu gehienetan: *i* bokala gehitzea 2. p. ergatiboari dagokion *h-* morfemari. Ikus bitez, hain zuzen:

¹⁵ Kontsultagai: [https://www.euskaltzaindia.eus/dok/mintzola/Jaunarena_Ana_MAL_Noketaren_hingatzea_Ortzaizen.pdf].

¹⁶ «Eztabada» erraten zaio euskararen tratamendu ez-alokutiboari, hots, zukari. Gogoan har dezagun, halere, zuka (eta xuka) alokutiboko tratamendua ere badugula ekialdeko euskalkietan: *alaba jin duzu* (eta *alaba jin duxu*).

2. taula. *i*- bokala gehitzea

1. adin-tartea (adinetakoak)	2. adin-tartea (helduak)	Aldaera estandarra
<i>hut</i>	<i>hiut</i>	<i>haut</i>
<i>hakon</i>	<i>hiakon</i>	<i>hion</i>
<i>heztan</i>	<i>hieztan</i>	<i>hizkidan</i>
<i>bahakiin</i>	<i>bahiakiin</i>	<i>bahekien</i>

Iturria: Guhaurek jaso datuak.

Hipotesizat har liteke, Iparraldean azken hatsa botatzen ari den hasperenari (Oñederra, Jauregi eta Epelde 2014; Jauregi eta Epelde 2013) lotua litekeela aldaera hori; izan ere, *i* bokalak hasperenak baino indar artikulatorio ttipiagoa galdegiten duelakoan, izan liteke haren ordain gisa disimilazio funtzio bat betetzea.

d) Bestetik, beste aldaketa bat agertu zaigu Ortzaizeko nokako formetan: *-n* morfema alokutiboaren soiltzea ergatiboa 1. p. pl. (*gu*) delarik 2. adin-tartean. Izan ere, adinetakoek solaskideari doakion *-n* morfema alokutiboa sistematikoki bikoizten dute, aldi eta modu guzietan, adizki analitiko nahiz sintetikoetan. Helduek, aldiz, bikoizketa hori ez dute ekoizten, marka alokutibo bakarra ahoskatzen dute¹⁷. Ikus bitez, konparazione:

¹⁷ Oro har mintzo gordetzaila erakutsi duen JEGAZ62 da salbuespena, berak bikoizketari eusten baitio.

3. taula. -n soiltzea

1. adin-tartea (adinetakoak)	2. adin-tartea (helduak)	Aldaera estandarra
<i>dina<u>u</u></i>	<i>dinau</i>	<i>dinagu</i>
<i>tina<u>u</u></i>	<i>tinau</i>	<i>ditinagu</i>
<i>dena<u>u</u>, dauna<u>u</u></i>	<i>denau, dainau</i>	<i>dinagu</i>
<i>deztenu<u>u</u>, dauzkinu<u>u</u></i>	<i>deztenu, dauzkinu</i>	<i>dizkinagu</i>
<i>badakina<u>u</u></i>	<i>badakinau</i>	<i>bazekinagu</i>
<i>dikenu<u>u</u></i>	<i>dikenu</i>	‘guk-hura’ (modalitate epistemikoa)

Iturria: Guhaurek jaso datuak.

Izan ere, morfema alokutiboaren soiltze horrek berri itxura du, 90eko hamarkadaren bukaeran Artolak (Irizar 1999) Ortzaizen morfema-bikoizketarekikoak baizik ez baitzituen bildu 1. p. pl. ergatiboarekiko formetan¹⁸, eta gainera ez Ortzaizen bakarrik, baita Lapurdin ere: Ezpeletan *dainau* ‘dinagu’ (1999: 292) edota Mugerren *zakonu* ‘zionagu’ (1999: 229), adibidez. Helduengandik bildu ditugun formak, haatik, nehon ez ditugu leku-koturik atzeman Baxenabarren, Artolaren bilketa-lanean bederen. Orduan, alokutiboari dagokion lokalismo berri baten galera genuke hor.

Bizkitartean, adin-tarte batetik besterako nokako mintzoan ikusi aldaketa horiek aldakortasun orokor baten parte baizik ez dirateke; ez dirateke noketaren higadura markak. Bada, koherentzia linguistikoa edo gramatika-la ez dute tratatzen, hau da, ontsalaz ez dute noketari edo alokutibotasunari loturiko irregulartasun edo «huts» morfosintaktikorik aurkezten. Horregatik, Ortzaizeko noketaren aldakortasun orokorraren parte gisa uler ditzakegu.

¹⁸ Gisa bereko formak bildu zituen tokako adizkietan: *diauk* ‘diagu’, *tiauk* ‘ditiagu’, *deaik* ‘diagu’, *dakeauk* ‘zioagu’, *deiauk* ‘zieagu’, etab.

4.1.2 *Noketaren higatzearen aztarna zenbait*

Hala ere, gorago aipaturikoez gain, gure ustez noketaren degradazio-prozesuari lotuak liratekeen hainbat aldaera bildu ditugu helduen ekoizpenean. Izan ere, lau fenomeno identifikatu ditugu:

A) FORMA HIBRIDOAK

Hiru gisatako forma hibrido guti batzuk altxatu ditugu: alde batetik, tokako eta nokako morfemak nahastekatuak dituzten formak, bestetik, zuka-koak eta nokakoak gainjarriak dituztenak, eta azkenik, eztabada eta noka-koak nahasten dituztenak.

• *to/no*

Gogoan ibil dezagun, atal teorikoan esplikatu bezala, Aiztondon eta Zaldibian zernahi *to/no* forma hibrido jaso zituztela Epelde eta Elustondok (2023: 180), hau da, tokako formen gainean morfema femeninoak ezarririkoak. Gisa horietarikoak ditugu, adibidez: *Aztu in xitxaiakenan* ‘ahaztu egin zitzaidanan’ (toketaren gainean noketa). Egile gipuzkoarrek halako forma hibrido parrasta bat bildu bazuten ere, guk bakarra jaso dugu, lekuko bakarrengandik: *detakenan* ‘didan’ (toketaren gainean noketa). Formak argi uzten du Ortzaizeko oinarrizko tokako *detak* adizkiari morfema femeninoa gehitu diola lekukoak, hau da, toketatik pentsatuz atera duela nokako forma. Halarik ere, hori behin baizik ez diogu aditu, eta gainera ariketa nekea izan daitekeen elizitazioan. Dena den, ‘hik niri hura’ argumentudun orainaldiko adizki ohiko horrek durduza sortzea espero ez izanik, nahiz agian elizitazio ariketak sor lezakeen presioak eragina izan, noketaren gainbeheraren zantzu baten erakusle litzateke halako forma hibrido baten ateratzea, argitan ematen baitu toketa dela lekuko horren gramatikan nagusi, eta beraz, nokako formak toketatik eraikitzen dituela. Aitzina, ez litzateke harritzekoa, lekuko hori gizona dela gogoan erabiliz.

• **no/zu**

Bestalde, beste gisa bateko forma hibrido gehiago bildu ditugu, horiek zuketaren eta noketaren arteko nahasketaren gainean eraikiak. Izan ere, zuketaren *z-* morfema gardena ukan gabe, zuketari dagozkion morfemak dituzten forma hibrido anitz jaso ditugu. Konparazione, *huu* ‘haugu’ formaz gain, *hituu* < **haitugu* ‘haugu’ atera dute lekuko zenbaitek. Aise da ikustea *-it-* pluralgilea *zu* izenordainari dagokiola, eta *zituu* ‘zaitugu’ formatik analogiaz ekoiztua dela.

Ber gisan, ekialde zabaleko hizkeretan arauzkoa den *-in-* (*-en-* euskara batuan) lehenaldiko morfema, eta hain xuxen *zu* eta *gu* pertsonen dagokiena, hainbat adizkitan txertaturik entzun dugu. Adibidez, hiru helduk baino gehiagok *hinetan* ‘hidan’ erran dute, adinetako guziek *hetan* erraten zutelarik. Hor ikus daiteke Ortzaizeko zukako *zinetan* ‘zenidan’ adizkitik analogiaz sortua datekeela, *zu* izenordainari dagokion *-in-* lehenaldiko morfema sartuz¹⁹.

Halarik bada, dudarik ez da gramatikalki eta pragmatikoki ez direla koherenteak, bi tratamendu ezin baitaitezke nahas. Alta, iduri luke joera hori ez dela agerraldi bakar eta isolatua, batere elkarrekin galdekatuak izan ez diren lekuko batzuek atera baitituzte, eta gainera pertsona-komunztadura ezberdinekin. Halaber, forma horiek noketaren higatze-agerraldiak lirakeke, zuketaren nagusitasuna erakusten duten heinean.

Azkenik, beste aldaera mota bat identifikatu dugu, zeinak formak zuketatik eraikiak izan daitezkeela erakusten baitu; hain xuxen, *-nd-* vs *-nt-* oposaketa NOR-NORK sailean, NOR argumentua 2. p. sg. (*hi*) delarik, iraganaldian. Izan ere, ‘hark-hi’ delarik, adinetakoek, *hindutan* edota *hinduan* formak erraten dituzte. Zenbait lekuko helduk, berriz, *hintudan* ‘hindudan’ edo *hintuan* (herskari ahostuna isilaraziz) ahoskatu dituzte. Hau da, helduek *-nt-* kontsonante-taldea ahoskatzen dute; adinetakoek, aldiz, *-nd*²⁰. Izan

¹⁹ Besteak beste, forma hibrido hauek ere bildu ditugu: *hineen* ‘hien’ (< *zineen*? ‘zenien’) vs *heen* (adinetakoak); *hijin* ‘huen’ (< *zijin*? ‘zenuen’) vs *hiin* (adinetakoak); *hinazkon* ‘hizkion’ (< *zinazkon*? ‘zenizkion’) vs *hazkon* (adinetakoak); *hinezteen* ‘hizkien’ (< *zinezteen*? ‘zenizkien’) vs *hezteen* (adinetakoak); *hinuzkeen* ‘hituzkeen’ (< *zinuzkeen*?) vs *huzkeen* (adinetakoak), etab.

²⁰ Zentzu beretik doaz bildu beste forma hauek ere: *hijin* ‘hinduen’; *hintuan* ‘hindugun’.

ere, ohar batean, Artolak lehena zukako adizkiei dagokiela dio: «Ikusgarria, iraganaldiko aditzetan, zukako adizkiak barneko *-nd-* duen bitartean hika-koek *-nd-* izatea (beste zenbait lekutan ere horrela gertatzen da)» (Irizar 1999: 149). Hala nola, beraz, *-nd-* vs *-nt-* oposaketa horrek, xehetasun ttipi bat izanik ere, noketaren higatzearen azterna bat aditzerat uzten duen, bigarrena zuketatik hartua den neurrian.

• **no/eztabada**

Hari beretik, espero ez genituen antzeko zenbait adizki bildu ditugu, eztabadaren gainean eraikiak. Ikusterat uzten dute eztabadatik pentsatuak izan direla, forma neutroetako morfemak barnebiltzen baitituzte. Izan ere, ergatiboa 3. p. pl. delarik eztabadako *-te* morfemaren bidez eraikiak direnak jaso ditugu, Baxenabarreko noketari dagokion *-ne* morfemarekin izateko partez²¹, ala haren ondotik metaturik. Modu eta aldi bat baino gehiagotan entzun dugu, izan indikatiboan orainaldiko ahaleran edo ahalera hipotetikoan. Etsenplutako, bi helduk *daunate* ‘dinate’ eta *daumete* ‘dinate’ adizkiak erran dituzte; gure adinetako lekuko guziek —eta Artolarenek (Irizar 1999)—, aldiz, *daune* ‘dinate’²². Heldubaita, adizkia ekoizterakoan, noketari dagokion *-ne* 3. p. pl. ergatiboaren atzizkia baliatzeko partez, eztabadako *-te* gehitzen dute. Gisa berekoak bildu ditugu ahaleran: adibidez, *dezaketen* ‘zezaketen’ vs *dezakene* (adinetakoak)²³.

B) NOKAKO ATZIZKI PLEONASTIKOAK

Bestalde, aldaera emankor bat bildu dugu adin-tarte batetik besterat: noketari dagozkion bi morfema metatzea. Izan ere, joera bat agertu da heldu zenbaiten mintzoan, zeina baita 2. p. sg.aren marka jadanik baduten adiz-

²¹ Salbuespena iraganaldia izanki, aldi honetan *-te* baita 3. p. pl. ergatiboaren marka Ortzaizen. Adibidez: *zitenan* edo *zetatenan* ‘zidatenan’.

²² Zehazkiago, Artolak (Irizar 1999: 138) *daune* eta *deane* aldaerak bildu zituen.

²³ Eta beste hauek ere: *dezazketene* ‘zitzaketen’ vs *dezazkene* (adinetakoak); *lezaketen* vs *lezakene* (adinetakoak); *lezazketene* ‘litzaketen’ vs *lezazkene* (adinetakoak); *lezazketen* ‘litzaketen’ vs *lezazkene* (adinetakoak).

kiei, bukaeran, debaldeko noketaren marka gehitzea: atzizki pleonastikoak deituko ditugu. Adibidez, *hintinan* ‘hinduen’ forma frankotan aditu dugu (estandarrean, **hinduenan* litzateke). Espero gabeko *-nt-* kontsonante-taldea bazter utziz, ikusi dugu, 2. p. sg.ari dagokion *h-* pertsona markaz gain, noketari dagokiokeen *-(na)n* marka alokutiboa gehitu dela: *hintiin* + *(n)an*²⁴. Alta, indize alokutiboak ez luke hor izaterik, 2. pertsona argumentala baita. Hain xuxen ere, atzizki pleonastiko hori aldaera emankor gisa agertu zaigu, helduetarik guziek ekoiztu baitute eta, aginterarat salbu, aldi eta modu guzietan hedatzen baita²⁵. Hortaz, Ortzaizen berria litzateke, Artolak ez baitu batere halakorik bildu edo agerrarazi (Irizar 1999). Ikus bitez, adibide gisa, bildu beste aldaera hauek:

4. taula. *-(a)n* atzizki pleonastikoa

1. adin-tartea (adinetakoak)	2. adin-tartea (helduak)	Aldaera estandarra
<i>hinduun</i>	<i>hintu<u>u</u>an</i>	<i>hindugun</i>
<i>hinduten</i>	<i>hinduten<u>a</u>n</i>	<i>hinduten</i>
<i>heztan</i>	<i>heztan<u>a</u>n</i>	<i>hizkidan</i>
<i>hau</i>	<i>haun<u>a</u></i>	<i>hago</i>
<i>hintake</i>	<i>hintai<u>k</u>en</i>	<i>hintzateke</i>
<i>hezake</i>	<i>hezake<u>n</u></i>	<i>hezake</i>
<i>hezazke</i>	<i>hezazke<u>n</u></i>	<i>hitzake</i>

Iturria: Guhaurek jaso datuak.

²⁴ Segurtasunik gabeko zatiketa da hori; estandarreko *zidatenan* adizkiko morfemak zatitzea neke den gisa berean, sinpleki erakutsi nahi da oinarrizko *hintiin* adizkiari marka bat gehitua zaiola. Gehitu atzizki hori naski noketari dagokion marka alokutiboa dateke, iraganaldiko gainerako hainbat nokako adizkiren atzizkien gisakoa, konparazione: *zetanenan* ‘zidatenan’; *nakenan* ‘nio-nan’; *nindinan*, etab.

²⁵ Adinetako bati ere, *hindaun* ‘hengoen’ formaren aldean, *hindaunan* bildu diogu elizitazioan. Beraz, ez dateke berrikuntza bat 2. adin-tarteak ekarria, baizik eta agian orokortua, beti ere, non ez duen elizitazioak eragin.

Honi loturik, gogoan har dezagun, ergatiboa 1. p. pl. delarik adinetakoek gordetzen duten lokalismo berria: *dinaun* (adinetakoak) vs *dinau* ‘dinagu’ (helduak). Preseski, adinetakoek solaskideari doakion *-n-* morfema alokutiboa bikoizten dute: hau da, fenomeno horrek berdin-berdin izaera pleonastikoa baluke. Bizkitartean, gure ustez, adinetakoen *-n-* morfema-bikoizketa hori eta aipagai ditugun helduen atzizki pleonastikoak ez dira afera bera.

Izan ere, bikoizketak adinetakoen belaunaldian erregulartasun absolutua du, eta testuinguru argumental jakin batean sistematikoa da, hau da, 1. p. pl. ergatiboan eskusiboki. Helduen artean, berriz, indize-gehiketa pertsona-komunztadura ezberdinetan gertatzen da, ausaz, erregulartasunik gabe²⁶.

Gainera, atzizki pleonastiko horiek, zeinetan *h-* morfemaz gain *-n* gehitzen baita, ezagun dira, baina ez Ortzaizeko euskarari, baizik eta batez ere gipuzkerari, bizkaierari eta zerbait guti lapurterari (Bonaparte 1869: 22). Altunak (Irizar 1991) gipuzkerari bildu zituen, eta, konparazioarekin, Azpeitian ikusi zuen, gazteek bikoizketa sartzeko joera handiagoa zutela zaharrek baino. Ber gisan, hedapen hori berretsi dute Elustondo eta Epeldek (2023: 199-200)²⁷. Nolanahi ere, Lafonek lagundu gaitzake gauza trenkatzen: «Le préfixe *h-* (ou zéro) peut servir régulièrement à exprimer soit le sujet, ou le patient, soit l’agent. Mais l’emploi des suffixes *-k* et *-n* pour exprimer le sujet ou le patient est irrégulier» (1999 [1947]: 269).

Heldubaita, helduei aditu dizkiegun *hintinan*, *hintuunan*, *hindutenan* eta besteak, irregularrak dira. Beraz, arrazoi horiengatik, nahiago ditugu ezberdindu *dinaun* bezalako zaharren *-n-* morfema-bikoizketak eta *heztanan* ‘hizkidan’ bezalako atzizki pleonastikodunak. Izan ere, irregularrak diren horiek noketaren hingatzearekin lotura ukan lezakete. Fenomeno honi azalpen bat ematea neke izanik ere, hipotesizat har liteke, lekukoek, noketarekin arroz-

²⁶ Zehatz dezagun bi adibidetan salbu, helduek atzizki pleonastikoak sartzen dituzten adizki gehien-gehienak iraganaldikoak direla.

²⁷ Adibidez, Altunak (Irizar 1991) bildu zituen adizkiez gain, beste batzuk jasoak dituzte bikoizketadunak Azpeitian, hala nola: *ziyonabenan* ‘zioten (noka)’, *gitxonabenan* ‘genien (noka)’ (Elustondo eta Epelde 2023: 199-200).

ten ari direlakoan, adizkien balio femeninoa artifizialki indartu nahi izana. Beste gisa batez erranik, litekeena da atzizki pleonastiko horien gehitzearen giblean naturaltasunik ezaren arrastoren bat gordetzea.

C) NEUTROA SAIHESBIDE

Bestalde, irregulartasun zenbait aditu ditugu helduen forma alokutiboen erabilpenaren sistematikotasunean. Elkarri noka edo toka eta noka ari diren bikoteen solasetan, alokutiboak izan behar zuketzen forma batzuen ordeztu forma neutroak baliatzeko joera erakutsi dute zenbait lekukok. Irregulartasun horiek forma alokutiboen baliatzeko atal teorikoan aipatu muga sintaktikoez kanpo ahoskatuak izan dira, hau da, bai elizitzazioan, bai mintzo librean, adierazpen-perpauetan. Adibide gisa, ikus bedi ahizpari mintzo zitzaion lekuko bati aditu diogun erranaldi hau: *Guk beti maitatu tinau eta hek ere gu maite gintuzten!* Adierazgarria da, elkarrekikotasuna baden erranaldi horretan, lehen partean adizkia alokutiboa da, baina berdina izan behar lukeen bigarrenetan, forma neutroa da²⁸. ‘Haiek-gu’ zailago zaieke ‘guk-haiek’ baino, 3. p.ko objektua maiztasun handiagokoa baita, eta gainera singularra ohikoagoa plurala baino.

Gainera, mintzo laxoan gisa hartako beste erranaldi irregularrak jasotzeaz gain, elizitzazioan ere, heldu guziek atera dituzte behin edo beste forma neutroak alokutiboen partez. Konparazione, bi lekukok (*hantxe*) *zailan* ‘zebilen’ erran dute, adinetakoek atera bezala espero genuen (*hantxe*) *zailanan*-en ordeztu, nahiz eta errepikarazi. Baldintza beretan hurrengo hauek ere bildu ditugu:

²⁸ Ortzaizeko noketan, Artolaren datuen arabera (Irizar 1999: 140), ‘haiek-gu’ iraganaldian *ginitzenan* erraten da, eta guk jaso datuen arabera, *gintuztenan* edota *ginitzitenan*.

5. taula. *-n* morfema: nokako morfema alokutiboaren eta iraganaldikoaren arteko nahasketa

1. adin-tartea (adinetakoak)	2. adin-tartea (helduak)	Aldaera estandarra
<i>gina(t)zinan</i>	<i>ginazan</i>	<i>gindoazanan</i>
<i>ginezakenan</i>	<i>ginezakeen</i>	<i>genezakenan</i>
<i>nezazkenan</i>	<i>nezazkeen</i>	<i>nitzakenan</i>
<i>nindukenan</i>	<i>nindukeen</i>	<i>nindukenan</i>
<i>nintakenan</i>	<i>nintaikeen</i>	<i>nindukenan</i>

Iturria: Guhaurek jaso datuak.

Fite ohar daiteke forma horiek denak iraganaldikoak eta konplexuak direla; trinkoak, ahalera eta epistemikoa ez dira aparantziarik ere sail errazenak. Preseski, gure ustez, nahastea gerta liteke *-n* nokako morfema alokutiboaren eta *-n* iraganaldiko morfemaren artean. Kontuan hartu batik bat *e* bokal bi-koitza bakarraren bidez ahoskatzen dutela, hots, *ginezaken*, *nezazken*, *ninduken* eta *nintaiken*. Alegia, iraganaldiari dagokion *-n* nokako morfema gisa interpreta lezaketek, eta horrek esplikatu lezake forma neutroen baliatzea, nokakoen orde. Nahaste hori noketaren higatzearen azterna gisa daukagu. Bide batez, gure lekukoek argiki adierazi digute, noka mintzatzean hutsuneak sendi dituztela, noiztenka trabatuak direla, aditz xuxenak falta zaizkiela eta orduan saihezbide batzuk xerkatzen dituztela: izan dadin frantseserat edo eztabadarat, alokutiboen nekeziari buru egiteko saihezbideak atzematen dituzte.

D) TOKA ABIAPUNTU

Azkenik, noketaren higatzearen isla datekeen mekanismo interesgarri bat hauteman dugu bi lekukoren baitan: toketatik noketarako transferentzia. Elizitazioan, toka ariz erosoago direla adierazteaz gain, erakutsi digute, artetan toketatik pasatu behar dutela nokako adizkiak ateratzeko. Heldu-baita, noketa toketatik pentsatzen dute, nahigabea. Izan ere, bi lekuko horiek ez dira adin-tarte berekoak, baina biak gizonak dira. Ez da harritze-

koa, sarreran aipatu ikerketen arabera, gizonak ohitura handiagoa baitute toka aritzeko noka baino eta emazteek baino.

Konparazione, gertatu izan da, bat elizitazio-denboran blokeaturik edo galdurik gertatzen zelarik, forma gogorat heldu ez zitzaizlarik, testuinguru komunikatiboa aldaraztea eta parean anaia zuela irudikaraztea: orduan, tustean aise ateratzen zitzaizkion aditzak²⁹. Gisa berean, forma konplexuagoak ateratzerakoan, bigarren lekukoak ondoko hiru formak deblauki atera zituen toka lehenik, ondotik noketarat itzultzeko: *dezakeie* ‘zezaketek’ > *dezakene* ‘zezaketen’; *litzazkek* ‘litezkek’ > *litzazken* ‘litezken’; *zezazketeian* ‘zitzaketean’ > *zezazketen* ‘zitzaketenan’. Hartara, nahiz ez diratekeen sekula emazte solaskideei toka zuzenduko, eta toketarako joera hori elizitazioak dukeen sortu, adierazgarri dela pentsatzen dugu, hiketan berean ere ahulen noketa dela islatzen baitu.

Horiek hola, orain arte ekarri nahi izan ditugu honat, gure lekuko helduen mintzoak agertzen duen noketaren degradazio prozesuaren zantzuak lirakeen aldaerak. Hizkuntzaren barnean higatzea gerta litekeela egiaztaturik, aztertu dugu formetan nola ageri den xeheki. Hau dela eta, bigarren atalean, higatze horren bultzatzaile litzatekeen testuinguru soziolinguistikoari hurbiltzea da xedea, 18 parte-hartzaileen noketari buruzko praktikak eta diskurtsoak honat bilduz.

4.2 Noka soziolinguistikatik: erabileraren higatzea eta ideologiaren xerka

4.2.1 Noketaren erabileraren higatzea: taldearen eta aldagaien aldatzea

Noketaren higatzearen aztertzeko, Ortzaizeko nokarien erabilera aztertze-gune ukan dugu, eta zehazkiago, erabilera horren garapena. Alegia, nork egiten dio nori? Zein aldagaien arabera? Nola aldatu da bi adin-tarte-

²⁹ Hori galdegiten genion batez ere 2. p. sg. NOR argumentua zen adizkiendako, hau da, hala toka nola noka berdinak diren adizkiendako, adibidez: *hintuan* ‘hindudan’; *hindiin* ‘hinduen’; *(ba)hua* ‘(ba)hoa’.

tan? Gogoan atxiki bedi bi adin-tarteren praktikak baizik ezin izan ditugula kontuan hartu, 60 urtez peko nokaririk ez baitugu atzeman Ortzaizen. Izan ere, noketaren erabilera helduen belaunaldian gelditzen da, hartarik landa transmisio-eten erabatekoa gertatu baita: gure lekuko gazteetarik nehoi ez zaizkio ari noka edo toka aita-amak³⁰. Halarik ere, artetan gazteek helduen eta adinetakoen praktikez dituzten pertzepzioak agerraraziko ditugu.

Lehenik eta behin, nokari guziendako, hala adinetakoendako nola helduendako, familia da noketaren lehen erabilera-esparrua. Noketa etxeko mintzaira dute, ttipi-ttipitik mintzatua, haurtzarotik atxikiak dituzten oroitzapen goiztiarrenetarik: «etxeko lenguaia» dute. Horrenbestez, familian entzunik, hiketa haurrideen artean arauzko tratamendu dute bi adin-tartee-tako lekuko gehien-gehienek³¹. Heldubaita, etxeko intimotasunean eta egunerokotasunean noketak lekua berea duela dirudi. Senidetasunaz gain, espero bezala, adinak ere baldintzatzen du gure lekukoen noketaren erabilera. Oro har, aztergai ditugun bi adin-tartee-tako nokari guziek adierazi digute noka ari direla adin bertsuekin, eta zaharragoekin, zuka. Adin gehiago duen bati errespetua zor zaion eta beraz zuka aritu behar zaion ideia errota da, bi adin-tarteak zeharkatzen ditu. Bizkitartean, adin bera izatea noketaren praktika akuilatzen duen aldagai bat da, bistan denez, gure lekukoak ez dira herriko adin bertsuko guziekin noka ari: beste aldagai batzuk gurutzatzen dira.

Hain xuxen ere, adin bera izatea baino zehazkiago, noketaren erabilera izugarri baldintzatzen dukeen irizpidea haurtzaroa da: haur-denbora edo bederen parte bat elkarrekin iragan izana. Gure lekuko guziek erran digute, salbuespenik gabe, noka ari direla ttipitik elkarrekin noka aritzeko usaia dutenekin, eta batez ere, elkarrekin eskolan ibili direnekin. Badirudi hala adinetakoak nola helduak markatu dituen garaia dela eskola, eta klase edo eskola-gela berean egon diren haurrek bizi osorako gisa bateko lotura atxikitzen dutela. Erramolde berezi bat ere badarabilte: norbait «klasa» izan³².

³⁰ Lekuko bat salbu, nerabezaroan aita toka mintzatzen hasi baitzitzaion.

³¹ MAETX83 salbu, zuka ari baitzen ahizpekin.

³² Ez dateke Ortzaizeko berezitasuna, Iparraldeko beste hainbat herritan entzun baitaiteke. «Klasa dut» edo «klasa gira» erratean, adierazten da haur denboran, eskolan, delako pertsona norberaren klasean zela, edo bederen adin bera direla.

«Klasa» horrek bizi osoan segitzen ditu ortzaiztarrak; izan ere, adinetakoek zein helduek kontatu digute, herritik joan diren ortzaiztarrak azken berrogei urteotan kasik batere gurutzaturik gabe ere, elkar ikustean, ttipian bezala berdin-berdina noka ari direla, «klasa» direlakoan. Heldubaita, haurtzaroa aro erabakigarria da noketaren praktikarako. Hortaz, helduen artean, haurtzaro edo gaztaro komuna izatearen irizpidea noketaren berezitasuna litzateke, toka ez da, baina, horren menpe; hain xuxen, biziaren gustuz berantago ezagutu mutiko gazteagoekin aise mintzatzen direla jakinarazi digute hiru helduk. Erran nahi baita, helduaroan ezagutu pertsonekin zuketatik toketarako mudantza posible da; noketarakoa, aldiz, ez.

Bide batez, ikusi dugu adinaren aldagaia malguagoa dutela helduek adinetakoek baino: helduak noka ari dira adin bereko edo belaunaldi berekoekin; adinetakoak, aldiz, lotuago dira «klasa» izateari, hau da, adinez hertsiki hurbilekoekin ari dira noka. (Gazteei dagokienez, debaldekoa litzateke zehaztea adin aldagairik ez dutela, noka ari ez diren neurrian). Haatik, adina aipagai izanki, komeni da aipatzea, gure lekuko-gizonendako nerabezaroa adin erabakigarria izan dela hizkuntza-tratamenduaren mailan: izan ere, lizeo-garaian, hizkuntza-mudantza gertatu eta lagun zenbaitekin toka mintzatzen³³ hasi ziren, kontatu diguten arabera, biziki naturalki.

Hari beretik, noketaren erabilera haurtzaroaren menpe izateak funtsezko beste aldagai bat bistarazi du: herria. Izan ere, lekukoetarik nehor ez da herriz kanpokoekin³⁴ noka ari. Konparazione, azken berrogei urteetan Ortzaizeko auzo-herrian familia egin duen eta bizi den lekuko bat herri horretako neherekin ez da noka ari: haatik, bera bezala auzo-herri horretan bizi diren ortzaiztarrekin beti. Herri-dimentsio bat ateratzen da, beraz, lekukoek noketaren erabileratik. Hor ere, noketarat mugatzen da, helduek ez baitute batere arazorik herriz kanpoko zenbaitekin toka aritzeko. Adinetakoek, berriz, herriaz gain, aldagaia are lokalagoa eta xorrotxagoa dute: auzo edo kartier berekoa izatea. Sortzez auzokoak ez direnei, azken sei hamarkadetan auzo iza-

³³ Zehatz dezagun halere tokari horiek gaitasun partziala dutela toka, eta horretaz kontziente direla. «Han-hemenka» botatzen dituzte tokako aditz batzuk, zukakoen artetik.

³⁴ Bi salbuespen agertu dira helduen artean, adinaren eta familiaren aldagaiek eraginik: bi ahizpa noka ari dira gaztaroko lagunekin, eta beste bi herriz kanpoko koinatekin.

nik ere, zuka ari zaizkie belauldi horretan. Auzorat ezkondu diren hainbat emazteren adibideak entzun ditugu, zeinei zuka mintzo baitzaizkie, preseski auzokoak ez direlakoan. Aldagai horrek indar handia du, eta adinarena eta familiarena gaindi ditzake: konparazione, BEBI75 eta MAETX83 lehen auzoen bikotea adierazgarria da, ez bailitzateke espero zortzi urtez zaharrago den emazte bati gizon bat noka aritzea. Haatik, auzoaren irizpidea ez da 2. adin-tarterat heltzen, kartierrez kanpokoekin ere noka ari baitaitezke.

Era berean, informatzaileekin elkarrizketek agerrarazi dute generoak funtsezko rola jokatzeko duela noketaren erabilera, bai lekukoen praktiketan, bai horien ingurumenean. Lekukoek tratamendu asimetrikoak baliatzen edota jasotzen dituzte generoaren arabera. Hain xuxen ere, nokari guziek, hala helduek nola adinetakoek, aho batez baieztatu dute, aiseago dela gizon bati toka aritzea emazte bati noka aritzea baino. Adinetakoek hori emazteari zor litzaiokeen «errespetuari» lotua dela argudiatu dute. Ikus bedi adibide gisa BEBI75 eta MAETX83ren diskurtsoa:

Mutikoa ezazolo³⁵ baita beharba? Neska bano? [...] Mutikoa ezazola delakuan! Errespetia gehio, errespetia emaztiari! Ba, errespetia gehio... Pollito da! Ba, pollito ba... Tipian ta, ttipiak dielaik ta, zu pollito da *no* bano. Ba ba ba. Ttipi bati 'No, erran no!' Eta 'to'? E, beste gisa'at da! Ba. Mutikoari aisio da! Aisio da ba. Ba ba, normaloo da. Neska delikatuxo edo zazi! Ba. Holako zeit.

(BEBI75 eta MAETX83)

Honi loturik, genero-bereizketa baden hiketaren erabilera «zatitu» bat deskribatu digute 1. adin-tartean: noka gehien bat emazteen artean mintza litekeela eta toka gehien bat gizonen artean. Haatik, 2. adin-tartean, tokari eta nokarien arteko genero-banaketak ahulago dirudi, zentzu bakarrean atxikitzen dela iduri baitu: emazteak gizoni toka aritzerat ausartzen dira, baina gizonak, aldiz, ez, zuka mintzo zaizkie. Hots, toketaren eta noketaren erabilera arteko arroila sakonduz doa.

Bestalde, espero ez genuen edo bederen hitanoari buruzko ikerketetan lehen lerroetan azaltzen ez den aldagai indartsu bat agertu zaigu: jitea. Izan

³⁵ 'Ezaxolago'.

ere, informatzaile guziek iradoki dute, hala nokariaren nola hartzailearen jiteak edo izaerak baldintzatzen dukeela tratamenduaren hautua. Adinetako orok lotu du noka ausardiarekin; hots, noka aritzeko, «menturatu» behar dela. Areago, nokariaren edo noka mintzatua zaionaren tipologia deskribatu dute informatzaile guziek; baizik eta, noka mintzo dena, ontsalaz, izaeraz jendekina, kanporakoia, eleketaria edo «hurbil errexa» litzatekeela. Terminologia oso bat ere atera digute bi ahizpak nokarien izendatzeko: «trasteak», «tartalak», «gozoak», «patsakak»³⁶, «zanpantzarrak», «ez-herabeak», «ez-preziosak», «ez-puttintak»³⁷. Gainerat, bi helduren arabera, profil psikologikoaz gain, fisikoak ere baldintza lezake tratamendua, beren praktikan bederen; horien arabera, nekeago litzateke itxuraz fin eta zainduak diren batzuei noka aritzea: «Hari enezaken sekulan, *on dirait une poupée "Barbie"*, enezake sekulan no erran, e!». Funtsean, ikuspegi hori gazteen belaunaldirat heldu da, gazte batek aitortu baitu, noka aritzea nortasun azkarra duen eta elkarriketetan espazioa hartzen duen emaztearekin asimilatzen duela. Horregatik, berak izaera hori ez ukanki, ez du lortzen noketarekin bere buruaren identifikatzea: «Nik uste'ut lotzen dutala uste gabea aho haundi izaiteari. Zen-ta, ni hasten baniz noka, erran nahi du behar nukela hasi, eztakit, lotzen dut... arrailerari, ausartzeari... Eta, eztena bat'e ene jitea pertsonalki, ordian *euh...* e'niz ikusten noka baliatzen, zen ta [...] noka baliatzen banu, liteke behar dutala erran txiste bat edo...» (MARGA24). Alegia, lekukoen imajinarioan noketaren praktikari eratxikiak zaizkion baldintza xorrotx horiek baztertzailleak izan litezke.

Horrenbestez, hara zein diren gure informatzaileen noketaren erabilera nagusitu diren aldagaiak. Halere, ez bedi pentsa elkarrengandik isolatuak direnik; usu gurutzatzen dira. Horregatik, nekez egin liteke sailkapen bat garrantzitsuenetik hutsalenerat lihoakeena.

³⁶ 'Baldarra, delikatua ez dena'.

³⁷ 'Fite gaitzitzen dena, nolanahika mintzatzen ahal ez zaiona'.

4.2.2 *Indiferentziatik arrangura eta dolurat belaunez belaun: noketari atxikitako ideologien garapena*

Bestaldetik, noketaren gaineko iritziak bildu nahi izan ditugu, neurri batean diskurtso horiek ondorio izan litezkeelako. Ikerlerro honetan, gazteen diskurtsoak leku gehiago hartu du, erabilera behartzen ez duen heinean. Beraz, atera diren ideia nagusien berri emanen dugu laburki azken azpiatal honetan.

Izan ere, noketari buruzko ideologien bilakaera interesgarri bat hauteman dugu adin-tarte batetik besterat. Alde batetik, adinetako guziek —nahiz agian batek intentsitate apalagoarekin— noketaren kontrako estigma sozial barneratu bat agerrarazi dute. Argiki, noketa ez dute aparantziarik ere bihottzeko, eta zenbaitek arbuia ere egin dute; mintzaira «hotz», «bortitz», eta «idor»tzat daukate. Zuketa amultsuago zaie, eta errespetuaren seinale. Noketa, aldiz, zakartzat dute (*vulgaire, grossier*, haien hitzetan), oroz gainetik emazte baten ahoan, eta preseski emazte bati zuzentzeko izanki. Noketaren aldean zuketa nahiago izateaz gain, batzuetarako, toketa ere «onargarriago» edo jasangarriago zaie: «Itsusio da emazte bati no rtea. Gizon bati to bano? Ba. Itsusio, eni hasteko itsusio zeta aise, no, to bano. No ezteta..., etzeta pollita. Etzeta... Alta *bon*, eskuara da, e!».

Heldubaita, hitanoan berean ere noketak estigma pairatzen du. Balio negatibo horiek 2. adin-tarteko helduei heltzen zaizkie; intuitiboki sentitzen dute, noketak «arrunt aire» bat dukeela ingurukoendako, eta horiek ere halako zerbait sentimendu partekatzen dutela erakutsi dute. Konparazione, bi lekukok noketan nonbait menderatze edo mespretxu gehiago hautematen dute. Zuketak, berriz, errespetu eta noblezia gehiago lekarke denen arabera, eta «modernotasuna» ere bai, baten iduriko. Horiek ere sendi dute noketak ez duela toketaren efektu sinboliko bera sortzen. Halarik ere, estigma horren ondoan, atxikimendua ere adierazi dute noketarekiko. Sortzen dituen hurbiltasuna, intimotasuna eta goxotasuna gogoko dituzte, eta estimatzen dute solaskideak hein berean eta gustuan ezartzeko lukeen boterea.

Azkenik, gazteek, nagusiki balio baikorrak eta definituak esleitzen dizkio- te noketari. Gisa berean, denek laket dute dakarren hurbiltasuna, eta are gehiago, «etxekotasun» eta intimitatea. Ildo beretik, noka mintzatzea ha-

rreman pribilegiatu bat markatzeko dohain edo amodio-adierazle gisa dakesate; erabilera-taldea hertsia dela jakitun, noka ari zaiona berezia dela adieraziko litzateke. Ikuspegi euskaltzale batetik, euskara-mailan mintzaira horri dagokion tokiko aditzen aberastasunak eta adiztegi zabalak galdegiten duen «gimnastika» mentala miresten dute. Ikuspegi feministatik, lekuko bati noketak «ahizpatasuna» gogoratzen dio, eta are gehiago, beste baten iduriko ere noka mintzatzen hastea emazte gisa «plaza hartzea», «afirmatzea» litzateke. Alegia, noka aritzea botere-hartzea litzateke emazte gisa.

Bestalde, noketaren galera solas zelarik, lekukoen jarreran aldakortasuna ikusi dugu fenomenoaren aitzinean. Oro har, adinetakoek ez dute batere axolarik erakutsi, garbiki berdin zitzaiela jakinarazi dute. Indiferentziaz onartzen dute zuketaren nagusitzea, zenbaitek azpimarratuz euskara bera ez galtzea dela lehentasuna. Helduen artean, elkarrizketa-garaian egoeraz kontzientzia hartze bat ikusi dugu, gaia mahaigaineratu aitzin sekula ez omen baitziren ohartuak hiketaren eta bereziki noketaren higatzeari. Zehazkiago, gaiaz mintzatu ahala, beren transmisiorik ezaz eta horrek noketaren galeran ukan dukeen rola jabetzean, horrekiko «hobenduntasuna» agerrarazi dute zenbaitek. Ikus bitez, konparazione, bi ahizpak partekatu sentipenak: «Ta... bitxi dena, da, haurrer ez. Ze zozokeria in duuna, pfff. Ba, huts'in dinau hor! Arrunt! [...] Baztertu... eztugu bizi arazi ez. Gure artian bakarrik, beti lehengo... [...] *Ouais*. Ta guhaurek eztugu erakutsi, e!, gure giilekor. Hori da. *On est cons*, e! Gu gitun hor, *eah*... bainau gure ardura afera hortan!» (JAIB66 eta MAIB68).

Horien transmisio-etenaren giblean gorde litezkeen arrazoiak gogoetaztean, haurrak ikastolara eraman izana eta ingurumena zuketa izana bota dituzte batzuek hipotesi gisa. Azpimarratu dute, ez dutela nahitarat uko egin, baizik eta naski ingurumenean galdu izanki mimetismoz inkontzienteki mugimendua segitu duketela. Denek pena erakutsi dute noketaren higatzearekiko, «altxor» bat gal litekeelakoan, nahiz eta bi lekukok urruntasun pixka batez ohartarazi «halabeharra» dela, hizkuntzaren aldaketa saihetsezina dela, ezin direla denak salbatu.

Azkenik, gazteei dagokienez, gehienek zerbait dolu erakutsi dute noka eta halaber toka mintzatzen ez jakinik. Beren burasoen belaunaldian «haus-

tura bat» izan den ustea badute, erran nahi baita gure 2. adin-tartekoen artean, ez baitiete transmititu, nahiz eta beren artean hala mintzatu. Hortaz, hiketaren galera hizkuntzaren aberastasunaren «galtze potolo»tzat hartzen dute gehienek. Noketaren desagertze hurbilari ohartuak badira, horiek gazte gisa duten arduraz ere kontziente dira, gisa batez «azken katebegia» lirakekeelako. Bi lekukok aditzerat eman dute, inguruko mutikoak beren artean toka aritzearekin eta horiei neska gisa noka ez mintzatzearekin hein batez «jokoz kanpo» senti daitezkeela eta beraz tratamendu ezberdintasun horrek gazterian neska/mutiko banaketa marka dezakeela. Hortaz, gazte gehienek³⁸ noketa berpizteko eta ikasteko nahia erakutsi digute, galdu aitzin ikasteko edo bederen zerbait egiteko premia delakoan.

5. Ondorioak eta eztabaida

Gure lanaren helburu nagusia Ortzaizeko noketaren higatzea deskribatzea eta aztertzea izan da, 18 lekuko ortzaiztarrek osaturiko lagina abiapuntu izanik. Lortu ditugun emaitzen oparotasunak ondorio batzuen ateratzeko bide eman digu; horrenbestez, azken atal honetan plazaratuko ditugu, emaitzak teorian aipaturiko zenbait elementu esanguratsurekin alderatuz eta eztabaidatuz.

Lehenik eta behin, igurikatu bezala, jaso nokako formetan aldakortasuna atzeman dugu adin-tarte batetik besterat. Berriak izanaren itxura duten joerak agertu zaizkigu 2. adin-tartekoen mintzoan. Alokutiboari doazkion aipagarrienak oroitzekotan, gogoan erabil dezagun, batik bat, i) 2. p. ergatiboari dagokion *h-* morfemari *-i-* bokala eranstea berrikuntza fonetiko, izan litekeena hasperenaren galerak egonkortua (*hiut* vs *hut* 'haut'; *hietan* vs *hetan* 'hidan' eta abar); ii) ergatiboa 1. p. pl. delarik *-n* morfema alokutiboaren soil-tzea (*dinau* vs *dinaun* 'dinagu'; *badakinau* vs *badakinaun* 'bazekinagu' eta abar).

Aldaera horiek noketaren higatzearekin zerikusirik ez duketenak dira, hau da, hizkuntzek berezkoa duten aldakortasunaren parte dira; ekintza

³⁸ Horietarik batek ez du badaezpada berpizteko edo ikasteko gogorik sentitzen, nokarekin harreman afektibo eta pertsonal berezirik ez baitu, hots, arroztua baita.

baita hizkuntza, ez emaitza bukatua (Camino 2009: 32). Bizkitartean, noketaren degradazio-prozesu bezala identifikatu ditugun lekukotasunak ere ikusi ditugu gure lagin murritzean. Hain xuxen, azpiko zerrenda honetan ikus bitez noketaren higatzearen aztarna gisa jo ditugun gertakariak:

- a) Forma hibridoak
- b) Nokako atzizki pleonastikoak
- c) Neutroa saihesbide
- d) Toka abiapuntu

Forma hibridoek dagokienez, badute zenbaitek Elustondo eta Epeldek (2023) Gipuzkoan jasotakoen eitea: toketa eta noketa nahastekatzen dituztenak nagusi ez badira ere, zuketa, eztabada eta noketa nahasten dituzten andana (bat) bildu ditugu. Halarik ere, izan liteke elizitazioaren ariketak dakarren presiopean ekoiztuak izana; ezin izan dugu segurtatu mintzo librean halako forma hibridoak atera ziratekeenik, ez baita enplegaraziko lituzkeen testuinguru komunikatiborik gertatu. Dena den, elizitazioan batere elkarrekin ez ziren lekuko zenbaitek erakutsi dituzten joera konbergenteak dira, eta gainera adierazgarriak, toketaren, eztabadaren eta zuketaren nagusitasunaren aztarna esplizituak diren ber.

Era berean, hizkuntzaren barneko higatze horren jatorrian datekeen noketaren erabilera berean ere higadura atzeman dugu. Izan ere, egiaztatzeko maneran gaude Ortzaizeko nokari-sorta honen erabilera-taldea izugarri hertsia dela. Batetik, Ortzaizeko noketa haurtzaroaren arras mendeko agertu zaigu: adin batetik goiti ezaguturikoekin batere xantzarik ez da noka ari daitezen. Funtsean, Alberdik deskribatu «harremana nola hasi, hala segi» (1993: 437) printzipioari hertsiki jarraiki zaizkio gure nokari ortzaiztarren praktikak. Harremanaren hastapeneko tratamenduak erabat baldintzatzen du bizi osorakoa; gainera, ohituraren pisutik askatzeko ezintasun hori noketaren berezitasuna dela ikusi dugu, helduak mutikoekin aise toka mintzatzera pasa daitezkeen heinean. Alberdiren arabera (1993), euskaraz tratamenduak «ohiturazko izaera» du, eta agian saihetsetako erdaretan baino areago. Ildo beretik, horregatik da hala adinetakoen nola helduen noketaren erabilera iragan komun bat duten ortzaiztarrei mugatua, eta, gisa berean, hortik da isurtzen zenbait lekukok sendi duten herriaren dimentsioa.

Bide batez, hori ere noketaren ezaugarri eksklusiboa genuke, helduak herriz kanpokoei aise ari baitira toka.

Bestalde, aitzinetik adituek jasotakoak ikusirik eta gure emaitzak eskutan ditugularik, aldagai baten indarra berretsi da: generoarena. Beste leku batzuetan aitzin egin ikerketek frogatu bezalaxe, generoak erabat baldintzatzen ditu gure lekuko ortzaiztarren hizkuntza-praktikak, baita noketari atxikitzen dituzten iritziak ere. Alberdik (1993) azpimarratu zuen, adinarekin batean oinarriko aldagaia dela generoa, eta zehazkiago, «sexu-berdintasuna» hitanoaren bultzatzaile zela, eta horrenbestez «sexu-desberdintasunaren» oztopatzaile. Hau da, beti errazago gertatuko dela tratamendu-simetria genero berekoen artean, genero desberdinekoen artean baino, eta gainera, genero berekoak izanik, gehiago egiten da hika gizonen artean, emazteen artean baino. Hortaz, ikusi dugu gure 1. adin-tarteak betetzen duela banaketa hori; oro har, adinetakoen artean, toketa gizonen artean ibiltzen da, eta noketa emazteen artean. Haatik, hurrengo belaunaldian aldaketa gertatu da; hain xuxen, emazteek bereizgo hori hautsi dute, zenbait gizoni toka ari baitzaizkie. Beste zentzuan, bizkitartean, muga mantendu egin da, gizonek zuka itzultzen baitiete. Beraz, ondoriozta dezakegu, gure lagin murrizte-tik segurik, denbora eta belaunaldiak joan ahala, toketaren eta noketaren erabileren arteko arroila sakonduz doala eta horrek noketaren higatzea akuilatzen duela.

Bestalde, atal teorikoan aipatu Lafitteren (1977) ekarpenak itzal handia du gure emaitzetan. Gogora dezagun, altxatu zuen Heletako familia batean haurren jitea, *koska* ala *entterka* izatea, tratamendu-bereizgoaren oinarrian zitekeela. Preseski, aldagai hori berrestera datoz gure lekuko diskurtsoak; hiru adin-tarteetako lekukoek marraztu duten nokariaren —baita noka mintzo zaionaren— erretratua «koska»rena da, hots, pertsona kanporakoi eta jendekinarena. Funtsean, Alberdik (1993: 437) ere laburki aipatu zuen, «jende serio samarrari hobeto doakio[la] zukako tratamendua, jende txistoso, xeblebre eta barregarriari baino».

Haatik, izaera psikologikoari Lafittek aipatu ez duen aldagai bat gehitu zaio gure lekuko helduen adin-tartean: itxura fisikoarena. Alberdik (1993: 438) bereizteko beti erraza ez diruditen tasun horiei aipamena egin zien:

«badirudi mutiko mozolo, azkar eta okerrari hobeto dohakiola hitanoa, mutil erkin eta ahulari baino, esan liteke azken honek ez duela “hitanoa soportatzeko adinako sendotasunik”». Gisa berean, «solaskidearen tipologia, itxura» eta «janzkera» aipu ditu Alberdi-Zumetak Azpeitiko gazteen erabileraren baldintzak aztertzean (2019: 138). Bizkitartean, gure helduek deskribatu digutenez, noketaren erabilera baldintzatzen duen itxura fisikoa ez da edozer. Lekukoek enplegatu dituzten terminoak gogoan har bitez: «trapu aire’at» duen eta «pixkat pottoloa» den neska bati errazkiago ariko litzaioke noka, «preziosa» eta «biziki pollita» den eta «beitarte extia» duen bati baino. Izan ere, ohar gaitezke, noketaren erabilera bultzatzen duten ezaugarri fisiko horiek jendarteak espero lezakeen feminitate hegemonikoarekin talka egiten dutenak direla. Erran nahi baita, gure lekuko-sortaren praktika eta ideologietan, nekez da identifikatzen noketa feminitate hegemonikoaren barnean. Ondorioz, aise ikus daiteke nola hika mintzatzeari esleituak zaizkion —sozialki eraikitako— balio «ez-femeninoek» supremazia eskaintzen dioten toketari, noketaren kaltetan.

Hori dela eta, jitearen aldagaiak, psikologikoa ala fisikoa izan, hausnartzerat uzten du jatorrizko baldintza den ala higitzeak eragina den. Beste gisan erranik, galdera hau sortzen da: izaeraren aldagai hori noketaren higitzearen faktore ala emaitza da? Bietarik izan liteke: adin-tarte batetik besterat aldagaia zehaztu eta zorroztu den ber, pentsa liteke hatsarrean noketaren higitzearen emaitza dela eta ondotik bere aldi noketa higitzen duela, «gurpil zoro» baten gisan.

Adin-tarte batetik besterako erabilera-taldearen garapenari datxikola, mugimendu bikoitz eta paradoxiko bat hauteman dugu. Alde batetik, ikusi dugu noketaren erabilera-taldea hertsitzen dela adinetakoen praktiketatik helduenetarat. Gogoan har dezagun toketaren eta noketaren arteko arteka handituz doala, eta helduek, jiteaz gain, itxura fisiko bati ere lot dezaketela noketa, hau da, aldagaiak edo irizpideak xorroxten direla.

Baina, aldi berean, noketaren erabilera-taldearen zabaltze paradoxiko baten aitzinean gertatu gara. Izan ere, adinetakoek adinez hertsiki berdintsu izan behar dute elkarri noka aritzeko; helduek, berriz, belaunaldia aski dute. Gisa berean, adinetakoek noketaren erabilera geografikoki izugarri murrizta

dute, auzorat mugatua baitute; helduek, aldiz, herria dute irizpide, arazorik izan gabe beste kartierretakoekin noka aritzeko. Erabilera-taldearen zabal-tze paradoxiko horren azaltzeko, hipotesi bat izan daiteke, fenomeno hori herriaren erdalduntzeari lotua izan litekeela; frantsesak gaina hartzearekin, euskaraz ari direnak ez baitira gehiago baitezpada etxetik atera berehala elekatzen. Orduan, helduak noka aritzea eragiten duen hurbiltasuna ez baldin bada geografikoa eta egunerokoa, identitateari edo euskaltzaletasunari lotu hurbiltasun kultural gisako bat izan liteke.

Halaber, noketaren erabilera herri edo auzoa bezalako zirkulu hain her-tsiatarat mugatua izatea interesgarria da; iruditzen zaigu, testuinguru hone-tan bederen, noketak dimentsio antropologikoa ere ukan lezakeela. Izan ere, gure ustez, zirkuluaren murriztasun hori garai bateko tradiziozko bizi-molde landatar eta kolektiboago bati lotua liteke; jendea toka eta noka ari zen auzoan, tradiziozko gizarte-egitura horren barnean. Hain zuzen, garaiko bizimoldeari zegozkion haketak nahiz alokutiboak dakarten kohesio eta hur-biltasun sozialak talka egin dezake indibidualizatu den gaur egungo jendar-tearen distantziatzko bizimoldearekin. Ondorioz, gaur egungo aldaketa so-zioekonomikoek itxuraldaturik jendartea arrunt bestelakoa dela jakitun, izan liteke lehengo bizimolde honen higatzearekin batean noketa ere higatu izana.

Azkenik, noketari buruzko ideologiei dagokienez, aldaketa baten zantzuak ikusi ditugu hiru adin-tarteetan zehar: belaunaldiak joan ahala, geroz eta balio baikorra goak esleitzen dizkiote noketari berriemaile ortzaiztarrek. Legorburuk proposaturikoaren ildotik, gure lagin murritzean ere «paradig-ma berri» (2018: 130) baten zantzuak ikus litezke, gazteek ez baitituzte belaunaldi zaharragoen balio berak eranstean noketari. Izan ere, xaharrenek noketari buruz duten arbuio orokorra denbora joan ahala eztituz joan date-ke, nolabaiteko atxikimendu orokor bati lekua uzteko. Funtsean, gure leku-koen artean, adinaren ardatzean, erabilera beheiti doa, baina paradoxikoki, atxikimendua goiti.

Erranak erranik, ikerlan honen bidez egiazta dezakegu, lagin murrizt ho-netatik segurik, Ortzaizen noketa higatzen ari dela, hala hizkuntzaren bar-netik nola kanpotik. Bilakabide horri kualitatiboki hurbilduz, azalpen bakar

baten bidez ezin azal daitekeen fenomeno multifaktorial konplexua dela ulertu dugu. Orogen buru, higatze-maila aitzinatuari oharturik, ikusi genuen noketaren erabilera aztertzea premia handiko zeregina zela (eta dela), ezin baitaiteke aparantziarik ere berma hamarkada bat edo biren buruan hainbeste datu biltzen ahalko genituenik.

Bibliografia

ALBERDI, Xabier (1993). «Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak», *Fontes Linguae Vasconum* 64: 425-442.

— (1996). *Euskararen tratamenduak: erabilera*. Iker bilduma, 9. Bilbo: Euskaltzaindia. (Cf. Rebuschi).

— (2018). «Forms of address in Basque», *Pragmatics* 28 (3): 303-332.
Kontsultagai: [https://doi.org/10.1075/prag.00009.alb].

ALBERDI-ZUMAETA, Laura (2019). «Eta hik ze uste dun/k? Azpeitiko gazteak hitanoaren inguruan hizketan: usteak, balioak eta diskurtsoak», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 113 (4): 129-154.

AURREKOETXEA, Gotzon (1994). «Hitanoa ahozko hizkuntzan (Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren arabera)», *Euskera* 39 (3): 995-1007.

AZKUE, Xabier (2000). *Hitanoa Zumaian*. Zumaia: Zumaiako Udala.

AZTIKER SOZIOLOGIA IKERGUNEA (2021). *Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa*. Villabona: Villabonako Udala. (Argitalpen digitala).

BEITIA, Iñigo (2017). «Tokanoka Tribua: Eskoriatzako gazteak eta hitanoa: uste, balio eta jarrerak», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 103: 139-166.

BEREZIARTUA, Garbiñe eta MUGURUZA, Beñat (2021): «Basque informal talk increasingly restricted to men: The role of gender in the form of address *hika*», *Journal of Language and Linguistic Studies* 17 (1): 360-376.
Kontsultagai: [https://doi.org/10.52462/jlls.22].

— (2024). «“Are you man enough?”. Gender as an increasingly decisive factor in the choice of Basque personal pronouns», *Language and Communication* 94: 28-40.
Kontsultagai: [https://doi.org/10.1016/j.langcom.2023.11.004].

BONAPARTE, L.-L. (1863). *Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euskara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés*. Londres. [Mapa].
Kontsultagai: [https://www.bilketa.eus/ark:/27020/B641026201_MC397?posInSet=8&queryId=e548b839-987d-430e-bde3-ba76be340090]. (2024/12/26 kontsultatua).

— (1869). *Le verbe basque en tableaux, accompagné de notes grammaticales, selon les huit dialectes de l'Euskara*. Londres.

Kontsultagai: [https://www.ehu.eus/seg/_media/egile/bonaparte/obra/n0885192_pdf_1_-1dm.pdf]. (2024/12/26 kontsultatua).

BOTTINEAU, Didier eta ROULLAND, Daniel (2007). «La grammaticalisation de l'adresse en basque: tutoiement et allocutivité», in L. Begioni eta C. Muller (arg.), *Problèmes de sémantique et de syntaxe. Hommage à André Rousseau*. Collection UL 3. Hauts-de-France: Université Charles-de-Gaulle-Lille 3: 351-372.
Kontsultagai: [<https://shs.hal.science/halshs-00244666v1/document>].

CAMINO, Iñaki (2004). «Nafarroa Behereko euskara», *Fontes Linguae Vasconum* 97: 445-486.

— (2009). *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar.

COYOS, Jean-Baptiste (2006). «Pronoms, indices verbaux de personne et prise en compte de l'allocutaire en basque», *La Linguistique* 2006-1 (vol. 42): 73-96.
Kontsultagai: [<https://doi.org/10.3917/ling.421.0073>].

ELUSTONDO, Uxo eta EPELDE, Irantzu (2023). *Xuka eta noka, Ipar eta Hego: emakumeekin solasean*. Berdintzen bilduma, 7. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza.

ETXEBERRIA, Begoña (2001). «Privileging masculinity in the social construction of Basque identity», *Nations and Nationalism* 7 (3): 339-363.

— (2003). «Language ideologies and practices in (en)gendering the Basque nation», *Language in Society* 32: 383-413.
Kontsultagai: [<https://doi.org/10.1017/S0047404503323048>].

EUSKALTZAINDIA (1997). *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II*. Bilbo: Euskaltzaindia.
Kontsultagai: [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_argitalpenak&Itemid=1217&view=katalogoa&lang=en&edukia=fitxa&argitalpena_id=529]. (2024/12/26 kontsultatua).

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA, EUSKO JAURLARITZA eta NAFARROAKO GOBERNUA (2023). VII. *Inkesta Soziolinguistikokoaren emaitzak Ipar Euskal Herrirako*. (Argitalpen digitala).
Kontsultagai: [<https://www.mintzaira.fr/eu/tresnak/berriak/actualite-en-basque/article/vii-inkesta-soziolinguistikokoaren-emaitzak-ipar-euskal-herrirako.html>]. (2024/12/26 kontsultatua).

IRIZAR, Pedro (1991). *Morfología del verbo guipuzcoano*. Donostia: Euskaltzaindia.

— (1999). *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*. Bilbo: EHU/UPV eta Euskaltzaindia.

JAUREGI, Oroitz eta EPELDE, Irantzu (2013). «Hasperenaren galera Iparraldeko euskaran», in R. Gómez, J. Gorrotxategi, J. Lakarra eta C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*. Gasteiz: UPV/EHU: 245-262.

KASARES, Paula (2014). *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belaune-ko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Jagon bilduma, 16. Bilbo: Euskaltzaindia.

LAFITTE, Piarres (1977). «Koska eta entterka Heletan», *Euskera* 22: 138-139.

LAFON, René (1999) [1947]. «Remarques sur la catégorie de genre grammatical en basque», in J. Haritschelhar Duhalde eta P. Xarritton Zabaltzagarai (arg.), *René Lafon (1899-1974)*. Bilbo: Euskaltzaindia: 261-278. [1947: BH XLIX: 373-394]. Kontsultagai: [<https://www.euskaltzaindia.eus/dok/ikerbilduma/32412.pdf>]. (2024/12/26 kontsultatua).

— (1999) [1959]. «Place de la 2e personne du singulier dans la conjugaison basque», in J. Haritschelhar Duhalde eta P. Xarritton Zabaltzagarai (arg.), *René Lafon (1899-1974)*. Bilbo: Euskaltzaindia: 387-409. [1959: BSL 54 (1): 103-129]. Kontsultagai: [<https://www.euskaltzaindia.eus/dok/ikerbilduma/32412.pdf>]. (2024/12/26 kontsultatua).

LAKOFF, Robin (2004) [1975]. *Language and Woman's Place: Text and Commentaries*. USA: Oxford University Press.

LEGORBURU, Onintza (2018). «Genero-rolek hitanoaren erabileran izan duten eragina: Antzuolako herritarren diskurtso eta praktikak», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 109 (4): 111-138.

MILROY, Leslie (1980). *Language and Social Networks*. Oxford: Basil Blackwell.

MORGAN, David L., ELIOT, Susan, LOWE, Robert A. eta GORMAN, Paul (2016). «Dyadic interviews as a tool for qualitative evaluation», *American Journal of Evaluation* 37 (1): 109-117. Kontsultagai: [<https://doi.org/10.1177/1098214015611244>].

MUGURUZA, Beñat eta BEREZIARTUA, Garbiñe (2020). «Transmisioaren eragina hitanoaren osasunean: Azpeitiko hiru belaunaldiren azterketa», in I. Camino, X. Artiagoitia, I. Epelde eta K. Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre*. Bilbo: EHU/UPV: 545-564.

— eta ETXEBERRIA, Juan (2020). «‘Ez da mattetzen erakutsi’: Azpeitia, hitanoa eta generoen arteko arrakala», *Uztaro* 115: 17-143.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.26876/uztaro.115.2020.6>].

OIHARTZABAL, Beñat (1993). «Verb Agreement with Nonarguments: On Allocutive Agreement», in J. I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Grammar*. Amsterdam: John Benjamins: 89-114.

OÑEDERRA, M. Lourdes, JAUREGI, Oroitz eta EPELDE, Irantzu (2014). «Hiztunaren fonema inbentarioa eta elebitasun goiztiarra: euskara gehi frantsesa vs euskara gehi gaztelania», *Lapurdum* 18: 75-95.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.4000/lapurdum.2504>].

OZAITA, Josu (2014). «Hurbilpen bat Tolosaldeko gazteek hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktikara», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 91: 83-103.

REBUSCHI, Georges (1981). «Autour des formes allocutives du basque», *Euskalarien nazioarteko jardunaldiak*. Iker bilduma, 1. Bilbo: Euskaltzaindia: 307-322.

— (1984). *Structure de l'énoncé en Basque*. Paris: Société d'Etudes Linguistiques et Anthropologiques de France.

ROMAINE, Suzanne (2008). «Variation in Language and Gender», in *The Handbook of Language and Gender*. Oxford: Blackwell Publishers: 98-118.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.1002/9780470756942.ch4>].

SCHREIER, Margrit (2014). «Qualitative content analysis», in U. Flick (arg.), *The SAGE Handbook of Qualitative Data Analysis*. Londres: SAGE Publications: 170-183.

TRUDGILL, Peter (1972). «Sex, covert prestige and linguistic change in the urban British English of Norwich», *Language in Society*, Volume 1, Issue 2. Cambridge: Cambridge University Press: 179-195.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.1017/S0047404500000488>].

URREIZTI, Oier (2023). *Aldude-Urepeleko mintzoa*. Bordele Montaigne Unibertsitatea (Master Amaierako Lana). (Argitalpen digitala).

Kontsultagai: [https://www.euskaltzaindia.eus/dok/plazaberri/Oier_Urreizti_Aldude_Urepeleko_Mintzoa.pdf].

ZUAZO, Koldo (1998). «Euskalkiak gaur», *Fontes Linguae Vasconum* 78: 191-233.

— (2021). *Baigorri eta Ortzaize ibarretako euskara*. Bilbo: EHU/UPV.

Euskal hizkeren erritmoa¹

El ritmo de las variedades del euskera

Le rythme des variétés du basque

Rhythm of Basque varieties

ORMAZABAL SUDUPE, Maddi²

Deustuko Unibertsitatea (Bilbo)

maddi.ormazabal@opendeusto.es

ORCID: <https://orcid.org/0009-0009-5728-8635>

BERRO, Ane³

Deustuko Unibertsitatea (Bilbo)

ane.berro@deusto.es

ORCID: <https://orcid.org/0000-0002-6818-506X>

¹ Maddi Ormazabal Sudupek Euskaltzaindiko Mintzola Saria jaso du ikerketa-lan honengatik.

Bihoazkie gure eskerrik beroenak ikerketan parte hartu duten lau hizkeratako hitzunei; EHUKo Gogo Elebiduna Ikerketa Taldeari eta Etxepare Euskal Institutuari, grabaketak egiteko soinurik gabeko gelak uzteagatik; Mikel Santestebani, euskara aztertzean erabilitako materialak gurekin partekatzeagatik; Mohinish Shuklari, Nespor eta besteren (2011) lanean argitaratutako datuak eskuratzen laguntzeagatik eta Alex Iribarri, analisi akustikoan izandako zalantzak argitzeagatik.

Irene de la Cruz-Paviak MICIU/AEI/10.13039/501100011033, NextGenerationEU/ PRTR Euro-par Batasunak eta Basque Foundation for Science Ikerbasquek emandako RYC2021-03395-I laguntza jaso du.

Ane Berrok, Espainiako Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioaren (PID-2023-147383NB-I00) dirulaguntza eskuratu du.

Azkenik, Irene de la Cruz-Paviak eta Ane Berrok Eusko Jaurlaritzaren (IT1439-22) laguntza dute.

² Lanaren ikerketaren, analisaren, idazketaren eta edizioaren ardura izan du.

³ Lanaren kontzeptualizazioaren, baliabideen, metodologiaren eta edizioaren zereginak bere gain izan ditu.

DE LA CRUZ-PAVÍA, Irene⁴

Deustuko Unibertsitatea (Bilbo)

Basque Foundation for Science Ikerbasque

irene.delacruz.pavia@deusto.es

ORCID: <https://orcid.org/0000-0003-3425-0596>

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2025i70.318>

Jasotze-data: 2025/01/11

Behin-behineko onartze-data: 2025/08/01

Behin betiko onartze-data: 2025/09/08

Ikerketa honetan euskal hizkeren erritmoa arakatu dugu, oraindik sakontasunez aztertu gabeko gaia delako. Orain arte egin diren azterketa batzuetan euskara silaba-aldiko hizkuntzen taldean sartu dute, baina badira mora-aldikora gerturatzen dela iradoki duten ikerlanak ere. Hizkeren artean desberdintasunik ote dagoen ere eztabaidagai izan da. Izan ere, jakina da fonologiaren eremuan, euskal hizkeretan, hainbat alternantzia daudela, murrizketak, sinkopak edo aferesiak izan. Horiek guztiek silabaren egiturari eragiten diote neurri batean eta ondorioz horrek erritmoaren estatusa alda dezake. Hain zuzen ere, zenbait autorek zalantzan jarri dute euskara benetan silaba-aldiko hizkuntza izatea, eta batek ere ez ditu hizkerak sistematikoki aztertu. Horregatik, eztabaida horretan ekarpena egitea da gure lan honen helburua. Horretarako, Bermeoko, Bilboko, Donostiako eta Baztango euskal hizkerak sistematikoki aztertu ditugu. Gure emaitzek erakutsi dute, hizkera horien bokal-tartearen ehunekoetan (% V) bereizketa esanguratsurik ez dagoela, baina bai, ordea, hizkera batzuen kontsonante-tartearen desbiazio estandarrean (ΔC). Horretaz gain, emaitzak iradoki dute, aztertu ditugun euskal aldaerak mora-aldikoen taldetik hurbilago daudela alderdi batzuetan, silaba-aldikoen taldetik baino.

Gako-hitzak: euskal hizkerak, erritmoa, azentua, silaba, mora.

En este estudio analizaremos el ritmo de distintas variedades del euskera, ya que es un tema que no se ha estudiado aún con profundidad. En los escasos estudios realizados hasta el momento se ha incluido el euskera en el grupo de lenguas de ritmo silábico, pero hay estudios que argumentan que su ritmo podría asemejarse más al moraico. También se ha discutido la existencia de diferencias entre las variedades vascas. De hecho, se sabe que en el ámbito de la fonología, en algunas variedades vascas, se encuentran varias alternancias fo-

⁴ Lanaren kontzeptualizazioaren, baliabideen, metodologiaren eta edizioaren zereginak bere gain izan ditu.

nológicas, ya sean reducciones, síncope o aféresis. Todas ellas afectan en parte a la estructura de la sílaba, lo que a su vez podría alterar el estatus rítmico de estas variedades. Por ello, el objetivo de este trabajo es analizar sistemáticamente las variedades de Bermeo, Bilbao, Donostia y Baztan. Nuestros resultados han demostrado que no existen distinciones significativas en los porcentajes de los intervalos vocálicos (V %) de estas variedades, pero sí en la desviación estándar de sus intervalos consonánticos (ΔC), aunque solo entre las variedades de Baztan y Donostia. Además, los resultados también sugieren que las variedades vascas analizadas se acercan más en algunos aspectos a otras lenguas clasificadas como de ritmo moraico, que a las lenguas tradicionalmente consideradas de ritmo silábico.

Palabras clave: variedades del euskera, ritmo, acento, sílaba, mora.

Dans cette étude, nous analysons le rythme des variétés basques, car il s'agit d'un sujet qui n'a pas encore fait l'objet d'une étude approfondie. Dans certaines études réalisées jusqu'à présent, la langue basque a été incluse dans la classe des langues de rythmes syllabiques, mais certaines études soutiennent qu'elle est proche d'autres classes rythmiques, comme la moraique. Il a également été discuté s'il existe des différences entre les basques. En effet, les différents variétés basques présentent des alternances phonologiques telles que des délétions, des syncope ou des aphérèses. Toutes affectent partiellement la structure de la syllabe, ce qui peut modifier leur statut rythmique. En fait, certains auteurs se sont demandés si le basque est vraiment une langue de rythme syllabique, mais aucun d'entre eux n'a fait d'étude systématique des variétés. L'objectif de cet article est donc d'analyser systématiquement le rythme des variétés de Bermeo, Bilbao, Donostia et Baztan. Nos résultats ont montré qu'il n'y a pas de distinctions significatives dans les pourcentages des intervalles vocaliques (V %) de ces dialectes, mais qu'il y a des différences significatives dans l'écart type des intervalles consonantiques (ΔC) de certaines variétés. Par ailleurs, nos résultats suggèrent que, sous certains aspects, les variétés basques analysées sont plus proches du classe moraique que du classe syllabique.

Mots-clés : variétés du basque, rythme, accent, syllabe, mora.

In this research, we analyze rhythm across Basque varieties, a topic that remains largely understudied. While the scarce studies available to date classify the Basque language as syllable-timed, some studies argue that it might approach other rhythmic classes, such as mora-timed. It has also been discussed if there are differences among Basque varieties. In fact, the different Basque varieties exhibit phonological alternations such as deletions, syncope or apheresis. As all of these partially affect their syllabic structure, they could lead to cross-dialectal differences in their rhythm. The goal of this paper is thus to systematically analyze the varieties of Bermeo, Bilbo, Donostia and Baztan. Our results show that the dif-

ferent varieties do not differ in their percentages of vocalic intervals (V %), but do differ significantly in the standard deviation of their consonant intervals (ΔC), specifically between the varieties spoken in Baztan and Donostia. Furthermore, they suggest that, in certain aspects, these Basque dialects are closer to other languages classified as mora-timed than to the languages traditionally classified as syllable-timed.

Key-words: Basque varieties, rhythm, stress, syllable, mora.

ORMAZABAL, Maddi, BERRO, Ane eta DE LA CRUZ-PAVÍA, Irene (2025). «Rhythm of Basque varieties», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 70 (2): 167-188.

1. Sarrera
2. Metodologia
 - 2.1 Parte-hartzaileak
 - 2.2 Materialak
 - 2.3 Prozedura
 - 2.4 Datuen analisia
3. Emaitzak
4. Eztabaida
5. Ondorioak eta etorkizuneko ikerketak

Bibliografia

Eranskinak

1. Sarrera

Hizkuntzen arteko konparazioak egitea eta beren arteko harremanak aztertzea da hizkuntzalaritza orokorraren eginkizun handienetako bat. Lan hau hein handi batean hizkuntzen arteko konparaketan oinarrituta badago ere, euskararen eremu zehatzak aztertuko ditugu: hots, euskal hizkerak. Gure helburua da, lerro hauen bitartez, euskal hizkeren erritmoa lantzea. Alegia, lau euskal hizkeretako erritmoa arakatuko dugu eta horrela, lau hizkeren artean alderik ote dagoen edo laurak erritmo-talde berean sar daitezkeen aztertuko dugu.

Hizketa erritmikoki hautematen eta antolatzen dugu gizakiok, bai ekoizle, bai hartzaile garen bezainbatean. Hori gogoan izanda, hainbat ikerketatan erritmoa erabili da hizkuntzak sailkatzeko irizpide gisa (Oñederra 2004: 73). Esate baterako, Pikek (1945) proposatu zuen, hizkuntzak bi talde handitan bana zitezkeela erritmoari dagokionez: batetik, silaba-aldiko hizkuntzak leudeke (gaztelania eta frantsesa, adibidez) eta, bestetik, azentu-aldiko hizkuntzak (ingelesa edota alemana, esate baterako). Halaber, urte batzuk geroago, Ladefogedek (1975: 251) hirugarren talde bat gaineratu zuen: mora-aldiko hizkuntzak (hots, japoniera). Hiru talde horiek erritmoa bereizteko ardatzat hartzen den unitatearen arabera bereizten dira elkarrengandik; handienetik txikienera, azentu-aldiko hizkuntzetako pertzepzio unitate txikiena azentua da, silaba-aldikoena, silaba eta mora-aldikoena, mora.

Lehen taldekoen kasuan, hitzaren barruan bada azentua eta indarra duen silaba bat eta inguruko silabak horren inguruan biltzen dira. Azentua duen silabak bereganatzen duen indarraren ondorioz, inguruko silabak ahuldu egiten dira. Beraz, azentu-aldiko hizkuntzetan, silaba indartsuaz eta silaba ahulez osatutako sekuentzia izango litzateke erritmoa hautemateko oinarria (Gandarias 1991: 4). Bigarren taldeko hizkuntzetan, silaba da hitzunok hautematen dugun hizkuntzaren oinarrizko unitatea eta, azken taldekoe-tan, mora. Azken hori, mora alegia, silaba baino unitate txikiagoa da. Nahiz eta orain arte aztertu diren hizkuntzen artean talde horretan gutxi sartu diren, litekeena da askoz mora-aldiko hizkuntza gehiago ere egotea. Momentuz multzo horretatik ondoen aztertuta dagoena japoniera da.

Erritmoaren araberako sailkapen horrek oinarri pertzeptuala duela erakutsi dute haurrekin egindako ikerketek. Haur jaioberriak gai dira erritmo-talde ezberdinetako hizkuntzak elkarrengandik desberdintzeko, aurretik inoiz entzun ez badituzte ere. Aldiz, ez dira gai erritmo-talde bereko bi hizkuntza bata bestearengandik bereizteko (Nazzi eta beste 1998: 758). Esate baterako, haur jaioberri frantsesa japoniera ingelesetik bereizteko gai da, lehena mora-aldiko hizkuntza delako eta bigarrena azentu-aldikoa. Kontrara, ingelesa eta nederlandera elkarrengandik ezin izango ditu bereizi, biak azentu-aldiko hizkuntzak direlako. Laburbilduz esateko: erritmoa hizkuntza hautemateko eta sailkatzeko irizpide bat da (Nazzi eta beste 1998: 762).

Interesgarria da aipatzea, hiru erritmo-taldeak ez direla kategoria diskretuak, baizik eta *continuum* batean banatzen direla. Ez dago ezarritako muga zehatz-zurrunik esateko zein ehunekoren arabera den hizkuntza bat azentu-, silaba- edo mora-aldikoa. Ez dago garbi seinalearen zein alderdik hautematea ahalbidetzen duen bi hizkuntzak erritmo ezberdinak dituztela. Hori horrela, nahiko gai eztabaidatua izan da eta neurketa-teknika bat baino gehiago proposatu dira. Horien artean, Ramus eta besterena (1999) eta Grabe eta Lowena (2003) izan dira erabilienak (ikus baita ere, Dellwo 2006; Loukina eta beste 2011).

Hala eta guztiz ere, hizkuntzen erritmoa identifikatzeko, hizkuntza gehienekin erabili izan den teknika Ramus eta besterena (1999) da. Ikerketa horretan, munduko zortzi hizkuntzatako ezaugarri akustikoak neurtu zituzten eta zera ondorioztatu zuten: bi ezaugarri akustikok bat egiten dute azterketa pertzeptualetan sortutako erritmoaren sailkapenarekin. Bi ezaugarri horiek, bokal-tarteen ehunekoa (% V) eta kontsonante-tarteen desbiazio estandarra (ΔC) dira. Lehenengo parametroa, esaldi bakoitzean bokal-tarteek hartzen duten denbora zenbatzean datza eta, bigarren parametroa, berriz, kontsonanteen tartek neurtzen dituen desbiazio estandarra kalkulatzeko. Bestela esanda, kontsonante-tarteen iraupenean zenbateko aldakortasuna dagoen adierazten du bigarrenak. Hizkuntzak irizpide horien arabera aztertuta, ondorioztatu zuten hizkuntzak *continuum* batean banatzen direla, baina hiru talde nagusitan bereiz daitezkeela:

- a) Lehenik, historikoki azentu-aldiko hizkuntzat hartu direnek (e.g. ingelesa edota nederlandera), bokal-tarteen ehuneko txikiena eta kontsonante-tarteen desbiazio estandar handiena erakutsi dute.
- b) Bigarrenik, historikoki mora-aldiko hizkuntza gisa sailkatu diren hizkuntzek (e.g. japoniera), bokal-tarteen ehuneko handienak eta kontsonante-tarteen desbiazio estandar txikienak dituzte.
- c) Hirugarrenik eta azkenik, tradizioz silaba-aldiko taldean sailkatu diren hizkuntzak daude (gaztelania, italiera, frantsesa eta katalana). Multzo horretan sartu izan dira azentu-aldiko eta mora-aldiko hizkuntzen arteko emaitzak erakutsi dituztelako, bai bokal-tarteen ehunekoari, bai kontsonante-tarteen desbiazio estandarrari dagokionez.

Orain arte euskararen erritmoa zein den xehatzeko egin diren ikerketetan ere bi irizpide akustiko horiek erabili izan dira. Hain zuzen ere, bi ikerketatan neurtu da gaur arte euskararen erritmoa —Nespor eta beste 2011: 354; Molnar eta beste 2014: 326—, eta silaba-aldiko hizkuntzen barruan kokatu izan da (Gandarias 1991: 4; Hurch 1988: 817; Molnar eta beste 2014: 326). Datuak xehetasunez aztertzen baditugu, baina, eztabaidarako tartea badagoela ikus genezake. Lehenengo lana Nespor eta besterena da (2011: 354). Egile horiek, euskara silaba-aldiko hizkuntzat hartu bazuten ere, haien emaitzek erakutsi dute, euskara mora-aldikoen taldetik gertuago dagoela, Ramus eta bestek (1999: 11) silaba-aldiko izendatutako hizkuntzetatik baino (ikus II. eranskina).

Bigarren ikerketa Molnar, Gervain eta Carreirasek (2014) egindakoa da. Lan horren helburuetako bat euskara eta gaztelania, biak, aztertzea izan zen, silaba-aldiko hizkuntza gisa sailka daitezkeen ala hizkuntza bakoitza erritmo-talde desberdin bati ote dagokion. Bi hizkuntzen bokal-tarteen ehunekoa (% V) eta kontsonante-tarteen desbiazio estandarra (ΔC) kalkulatu zituzten eta, bai euskara, bai gaztelania, silaba-aldiko hizkuntzen taldean sartzen direla ondorioztatu zuten (Molnar eta beste 2014: 326; Ramus eta beste 1999: 11).

Beraz, ikus daitekeenez, alor honetako literatura zientifikoan jasotako emaitzetan ez dago erabateko adostasunik. Nespor eta besteren (2011: 354) emaitzek zalantzan jarri zuten euskararen erritmoa, baina Molnar eta bestek (2014: 326), ordea, silaba-aldiko taldearen barruan kokatu zuten. Zer dela-

eta lor daitezke emaitza desberdinak? Dirudienez, lehenengo ikerketarako zenbait hizkeratako euskal hitzunen ekoizpenak grabatu zituzten eta euskarra batuan hitz egiteko eskatu zieten. Bigarren azterketan, aldiz, Donostiako euskal hitzunek parte hartu zuten eta Donostialdeko hizkera erabili zuten. Horixe izan liteke bi ikerketetan emaitza desberdinak eskuratzeko arrazoia.

Esan bezala, euskara tradizioz silaba-aldiko hizkuntzat jo izan da (Gandarias 1991: 4; Hurch 1988: 817; Molnar eta beste 2014: 326). Hala ere, euskararen erritmoa Ramus eta besteren (1999: 11) irizpideen arabera kalkulatu duten lanek eztabaidarako tarte zabaldu dute, arestian azaldu dugun moduan. Nespor eta besteren (2011: 354) emaitzen arabera, euskararen bokal-tarteen ehunekoa % 47,16 da eta kontsonante-tarteen desbiazio estandarra, 34 ΔC. Emaitza horiek silaba-aldiko hizkuntzenetatik urruntzen dira. Izan ere, desbiazio estandar hori txikiagoa da silaba-aldiko hizkuntzena baino, eta bokal-tarteen ehunekoa, mora-aldikoen taldera gehiago gerturatzen da.

Lan horiek alde batera utzita, euskal hizkeren erritmoa ez da sistematikoki aztertu eta, izatez, egile batek baino gehiagok zalantzan jarri dute guztiak silaba-aldikoak izatea (Gandarias 1991: 1; Hurch 1998: 817). Hurbek ez zuen zein hizkera aztertu zuen zehaztu, baina aditzera eman zuen euskararen eta japonieraren bokal luzera antzekoa dela (Bertinetto 1988: 115). Horrenbestez, iradoki zuen, ezaugarri horretan euskara mora-aldikotzat izendatutako hizkuntzetara gerturatzen dela, hain zuzen Nespor eta besteren (2011) emaitzek erakutsi zutenaren ildotik.

Gandariasek (1991: 1) Gernikako eta Ispasterreko hizkeren murrizketa fonologiko batzuetan jarri zuen arreta (e.g. *nago* → *na*). Izan ere, bokalen eta kontsonanteen murrizketek bokal-tarteen ehunekoari eta kontsonante-tarteen desbiazio estandarrari eragin diezaiekete eta, horrela, baliteke erritmoari berari ere eragitea (Gandarias 1991: 1). Nolanahi ere den, silabaren egitura aldatzen duten fenomenoak ez dira soilik Bizkaiko kostaldeko hizkeretara mugatzen. Barnealdeko zenbait hizkeretan ere oso ohikoak dira, esaterako, Baztanen. Ibar horretan, azentua oso indartsua da eta azken-aurreko silaban kokatzen da (Ibarra 2019: 229). Adibidez, *hárrie* esaten da, *harría* esan beharrean, edo *lárrue*, *larrúa*-ren orde. Azentu indartsuaren ondorioz, arruntak dira sinkopak (*hasertu*, *haserretu*-ren orde) eta aferesiak

(*karri*, *ekarri*-ren ordean) (Salaburu eta Lakar 2005: 45). Beraz, hemen ere silabaren egiturari eragiten dioten aldaketa nabariak gertatzen direnez, pentsatzekoa da erritmoa bera ere alda daitekeela.

Gure lan honek, hartara, bi helburu nagusi ditu. Batetik, jakin nahi dugu, hautatutako lau euskal hizkeren artean estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunik ote den erritmoari dagokionez. Bigarrenik, arakatu nahi dugu, orain arteko ikerketek euskarari eta beste hizkuntza batzuei buruz emandako datuei erreparatuz (Nespor eta beste 2011: 354; Molnar eta beste 2014: 326), guk aztertutako lau euskal hizkeren balioek non kokatzen duten euskara, zein hizkuntza-taldetatik hurbilago. Hau da, euskarak barnean dituen aldaerak ere silaba-aldiko taldean sar ote daitezkeen edo, desberdintasun esanguratsuak aurkitzen baditugu, beste erritmo-talderen batera gerturatzen diren.

Helburu horiek lortzeko aukeratu ditugun lau hizkerak honako hauek dira: Bermeokoa, Bilbokoa, Donostiakoa eta Baztangoa. Bermeoko hizkerak, Ispasterrekoak bezalaxe (Gandarias 1991: 1), murrizketa fonologiko asko ditu (e.g. *dabe* ('dute') → *dauie*). Baztango hizkerari ere erreparatu nahi izan diogu, hizkera horrek silabaren egiturari eragiten dioten zenbait alternantzia fonologiko erakusten dituelako (Camino 2009; Ibarra 2019: 219; Salaburu eta Lakar 2005: 30). Bilboko hizkera, aldiz, euskara batura gehien hurbilduko den hizkera da eta oso murrizketa gutxi egingo dituztela aurreikusi dugu. Eta, azkenik, Donostiako hizkera ikertu nahi izan dugu, aurretik egindako lanetan erabili izan dutelako (Molnar eta beste 2014). Neurketa egiteko bokal-tarteen ehunekoan (% V) eta kontsonante-tarteen desbiazio estandarrean (ΔC) jarri dugu arreta. Izan ere, bi neurtze-irizpide horiek baliatu dituzte euskararen erritmoa aztertu duten aurreko bi lanetan ere (Mehler eta beste 2011: 9; Molnar eta beste 2014: 758).

2. Metodologia

2.1 Parte-hartzaileak

Ikerketa honetan, 19 eta 38 urte bitarteko hamabi hiztunek parte hartu dute, 8 andrazkok eta 4 gizonexkok. Hiztunak hizkeraren arabera aukeratu

genituen: Bermeoko 20 eta 23 urte bitarteko hiru hiztun (hirurak neskak), Bilboko 37 eta 38 urte bitarteko hiru hiztun (bi andrazko eta gizonezko bat), Donostiako 20 eta 38 urte bitarteko hiru hiztun (emakume bat eta bi gizonezko) eta Baztango 19 eta 22 urte bitarteko hiru hiztun (bi neska eta mutil bat). Azken talde hori Elizondoko batek, Gartzaingo beste batek eta Erratzukoa den hirugarren lagun batek osatu dute. Ikerketa honetan parte hartzeko, hiztunok bete beharreko ezinbesteko baldintzak hauexek izan ziren: adin nagusikoak izatea eta aztergai izan dugun herriko/ibarreko hizkera jaiotzatiko hizkuntza (L1) izatea.

2.2 Materialak

Estimuluak sortzeko, Nespor, Shukla eta Mehlerrek (2004) erabilitako esaldi berak hautatzea erabaki genuen, gure ikerketako emaitzak gaiaren inguruan jadanik egindako neurketekin aldera zitezkeela ziurtatu ahal izateko. Beraz, estimuluak sortzeko euskara batuan idatzitako hamar esaldi erabili ditugu, guztiak 15-20 silaba artekoak (ikus I. eranskina). Guztira hamabi hiztuneko lagina izan dugu, eta hiztun bakoitzak bere hizkeran hamar esaldi irakurri behar izan dituzenez, 120 esaldi aztertu ditugu.

2.3 Prozedura

Hiztun bakoitzari paper batean inprimatuta eman genizkion hamar esaldiok, euskara batuan idatzita. Ondoren, orri zuri batean, hiztun bakoitzak bere herriko hizkeran eta egoera natural batean nola esango lituzkeen idazteko eskatu genion.

Esaterako, (1a) adibidean hiztunei emandako esaldi bat dugu, euskara batuan jarrita; (1b) adibidea, aldiz, Bermeoko hiztun batek, (1a)-tik abiatuta, itzulitakoa.

- (1) a. *Arratsalderako elurtea iragarri dute.*
- b. *Edurre emon dauie arratsalderako.*

Behin hori eginda, esaldi horiek ozenki irakurri behar izan zituzten, guk ahotsa grabatu ahal izateko. Parte-hartzaile bakoitzari esaldi-sorta gutxienez hiru aldiz irakurtzeko eskatu genien, azterketa egitean ahalik eta esaldirik naturalena aukera genezan. Grabaketa gehienak Deustuko Unibertsitateko Fonetika Laborategian egin bagenituen ere, Donostiako Etxepare Euskal Institutuak eta EHUKo Gogo Elebiduna Ikerketa Taldeak eskeini zizkiguten zaratarik gabeko gelak ere erabili genituen grabaketak egiteko. Horretarako, zuzenean ordenagailuan instalatutako Praat software libreaz (Boersma eta Weenink 2023) baliatu ginen. Grabaketa guztiak 44100 Hz laginketa-maiztasunarekin egin genituen eta denak Wav File formatuan jaso genituen. Aztertuko genituen esaldiak hautatzeko, hiru egileon artean bozketa egin genuen eta, behin esaldirik naturalen eta argienak aukeratuta, azterketari ekin genion. Esaldiak entzuteko eta kodetzeko DT 211 Beyerdynamic entzungailuez baliatu ginen.

2.4 Datuen analisisia

Lehen esan dugun moduan, Praat softwarea erabili genuen esaldien analisisa egiteko. Horretarako, bokal- eta kontsonante-tarte guztien hasiera eta amaiera zehaztu genituen, bakoitzari zegokion iraupena kalkulatu ahal izateko. (2a) adibidean hitzunek irakurritako esaldi bat eman dugu eta (2b)-n, guk esaldi horretan bokalen eta kontsonanteen tarteak nola bereizi ditugun.

(2) a. *Atzo antzerkirako sarrerak erosi nituen.*

b. *A-tz-oa-ntz-e-rk-i-r-a-k-o-s-a-rr-e-r-a-k-e-r-o-s-i-n-i-t-ue-n.*

Horrez gain, Ramus eta bestek (1999: 11) zehaztutako irizpide berei jarraitu diegu gure lanean:

- diptongoen kasuan, /u/ eta /i/ silabaren hasieran ageri badira, kontsonanterditzat hartu ditugu eta, beraz, kontsonante gisa sailkatu;
- aldiz, /u/ eta /i/ diptongoaren amaieran gertatzen badira, bokaltzat hartu ditugu.

Grabaketen analisisian ikusi genuen, Baztango hitzunek zenbait kasutan diptongoak egiten zituztela, gainontzeko hizkeretan hiatoak egiten diren lekuetan (e.g. *ka-tuék* esatea, aldaera estandarreko *ka-tú-ak* sekuentziaren ordeztu) (ikus besteak beste, Camino 2009; Zuazo 2014; Ibarra 2019: 219). Halakoetan, /u/ eta /i/ kontsonantetzat hartu ditugu, diptongoaren hasieran ageri direlako.

120 esaldietako bokal-tarteen eta kontsonante-tarteen segmentazioa egin ondoren, esaldi bakoitzaren bokal-tarteen ehunekoak eta kontsonante-tarteen desbiazio estandarra kalkulatu genituen eta, jarraian, hitzun bakoitzari zegokion batezbestekoa atera genuen.

3. Emaitzak

Analisi estatistiko bat egin dugu SPSS softwarearen bidez, aztertuta genituen lau hizkeretatik (Bermeo, Bilbo, Donostia eta Baztan) estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunik ote den ikusteko. Bariantza-analisi bat (Anova izenekoa) burutu dugu bokal-tarteen ehunekoak kalkulatzeko eta beste bat, kontsonante-tarteen desbiazio estandarra zehazteko. 1. taulak lau hizkeretako bokal-tarteen ehunekoak (% V) eta kontsonante-tarteen desbiazio estandarra adierazteaz gain, Nespor eta besteren (2011: 354) eta Molnar eta besteren (2014: 326) ikerketetako datuak ere badakartza, emaitzen arteko konparazioa errazte aldera. Bermeoko hizkera da bokal-tarteen ehuneko handiena duena (% V 55) eta Baztangoa txikiena duena (% V 51,42). Anova analisisia egin genuen, esaldien barneko bokal-tarteen ehunekoa menpeko aldagai jarrita eta, multzokatzeko aldagai gisa, hizkera jarrita (Bermeo, Bilbo, Donostia eta Baztan). Bariantza-analisi horrek, lau hizkeren bokalen tarteen ehunekoen artean ($F(3,8) = 2.618$; $p = .123$) aldaketa esanguratsurik ez dagoela erakutsi digu. Hizkeren artean desberdintasun adierazgarriarik aurkitu ez denez, ez dugu binakako berariazko azterketarik egin.

Kontsonante-tarteen desbiazio estandarrari dagokionez, 1. taulak erakusten du, Donostiako hizkera dela kontsonante-tarteen desbiazio estandarrik handiena duena ($\Delta C 30,46$), eta Baztangoa txikiena duena ($\Delta C 25,77$).

Anovan, kontsonante-tarteen desbiazio estandarra menpeko aldagai ipinita eta hizkera multzokatzeko aldagai gisa jarrita, dialektoen arteko desberdintasun esanguratsua dagoela ondorioztatu dugu ($F(3,8) = 4.384$; $p = .04$). Elkarren artean desberdintzen diren taldeak zeintzuk diren jakiteko, binakako konparazioa egin dugu, Tukey izeneko zuzenketa-froga erabilita multzokako konparaketarako. Horrek zera erakutsi digu, Baztango eta Donostiako hizkeren artean dagoela desberdintasun adierazgarri bakarra, Donostiako hizkeran kontsonante-tarteen desbiazio estandarra Baztangoa baino nabarmen altuagoa delako ($p = .042$, gainontzeko konparaketak, $p \geq .095$).


1. taula. Guk aztertutako euskal hizkeren, Nespor eta besteren (2011) eta Molnar eta besteren (2014) euskararen bokal-tarteen ehunekoaren batezbestekoa (% V) eta kontsonante-tarteen desbiazio estandarra (ΔC)

Hizkerak	Batezbestekoa (% V)	Batezbestekoa (ΔC)
Baztan	% 51,42	25,77
Bermeo	% 55,11	26,80
Bilbo	% 53,52	26,59
Donostia	% 52,49	30,46
Guztira	% 53,14	27,40
Aurreko ikerketak	Batezbestekoa (% V)	Batezbestekoa (ΔC)
Nespor eta beste (2011)	% 47,16	34
Molnar eta beste (2014)	% 48	44,1

Azalpena: Kontsonante-tarteen desbiazio estandarraren neurria milisegunduak dira.

1. irudian, guk aztertutako lau hizkeren emaitzez gain (borobil berdea), euskara aztertu duten aurreko bi lanen datuak (borobil horia: Nespor eta beste 2011; borobil gorria: Molnar eta beste 2014) eta gainontzeko hizkuntzenak (gurutze urdinak: Ramus eta beste 1999; Nespor eta beste 2004) ere ipini dira. Gurutze bakoitzak hizkuntza bat adierazten du. X ardatzean bokal-tarteen ehunekoa ageri da (% V) eta Y ardatzean, kontsonante-tarteen desbiazio estandarra (ΔC).

1. **irudia.** Ramus eta besteren (1999) (urdinez), Nespor eta besteren (2011) (horiz), Molnar eta besteren (2014) (gorriz) eta gure ikerketako lau euskal hizkerak (berdez) grafikoa txertatuta, bokal-tartearen ehunekoaren eta kontsonante-tartearen desbiazio estandarren arabera



4. Eztabaida

Ikerketa honen xedeak dira, alde batetik, lau euskal hizkerak, erritmoari dagokionez, beren artean desberdintzen ote diren aztertzea eta, bestetik, euskal hizkera horiek, orain arte egindako neurketekin alderatuta, mapan non kokatzen diren zehaztea. Horretarako, alternantzia fonologikoak erakusten dituzten lau hizkera ezberdinetako eta hizkera hori jaiotzatikoa (L1) duten hiztunen ekoizpenak grabatu genituen. Hizkera horien arteko desberdintasunak zehazteko bokal-tartearen ehunekoak eta kontsonante-tartearen desbiazio estandarra neurtu genituen, aurreko ikerketetan beste ikerlari batzuek egina zuten bezala (Ramus eta beste 1999: 11; Nespor eta beste 2011: 354; Molnar eta beste 2014: 326).

- a) Lehenengo helburuari bagagozkio, gure analisiak lau euskal hizkeren bokal-tarteen ehunekoen batezbestekoan alderik ez dagoela erakutsi du.
- b) Aldiz, kontsonante-tarteen desbiazio estandarrean desberdintasun esanguratsuak aurkitu ditugu Donostiako eta Baztango hizkeren artean. Donostiako hizkerak du kontsonante-tarteen desbiazio estandarrik altuena eta, Baztangoak, txikiena.

Nolanahi ere den, gogoan izan behar dugu gure proiektuan hitzunek eus-kara batuan emandako esaldiak beren hizkeretara itzultzeko aukera izan du-tela. Itzultze-lan horretan, Baztango hizkeran alternantzia fonologiko ugari egiten dituztela gauza jakina da: zenbait kasutan goranzko diptongoak sor-tzen dituzte gainontzeko hizkeretan hiatoak dauden silabetan (e.g. *katúak* → *katuék*) eta aferesiak (e.g. *emana* → *mana*) ere identifikatu ditugu min-tzaira horretan. Donostiako hizkeran aldiz, ez zuten aldaketa esanguratsurik egin euskara batuan emandako jatorrizko esaldietatik... Desberdintasun ho-riek izan daitezke bereizketaren jatorria. Haatik, Baztango hizkeran gertatzen diren bokalen murrizketak eta goranzko diptongoen erabilerak, bokalen tar-teen ehunekoa txikitzea eta kontsonante-tarteak luzatzea ekarriko luke; baina ez da hori gure emaitzetan azaleratu. Baztango hizkeran, bokalen tar-teen ehunekoa ez da besteetatik bereizten modu esanguratsua eta kontso-nanteen tarteen desbiazio estandarra Donostiakoa baino txikiagoa da. Ain-tzat har dezagun, puntu horri dagokionez, azentu-aldiko hizkuntzetan parametro horrexetan lortzen direla baliorik handienak, beste hizkuntza-koekin konparatuta. Baztanen balioek, beraz, ez dute azentu-aldiko hizkun-tzek erakusten duten joerarekin bat egiten, baina bai mora-aldikoek erakus-ten dutenarekin. Hortaz, etorkizuneko ikerketek sakonago aztertu beharko lukete auzi hori. Eskuratutako emaitzek iradokitzen dute, gainera, Donostia-ko eta Baztango hizkerak alde batera utzita, hizkera enparauetan egiten di-ren alternantzia fonologikoak ez direla kuantitatiboki hain markatuak eta, beraz, ez dagoela estatistikoki esanguratsua den desberdintasunik horien artean. Hala eta guztiz ere, garrantzitsua dateke hurrengo ikerketetan bat-bateko ahozko jarduna ere lantzea, irakurritako esaldietan aurkitu dugun banaketa berresten ote den ikusteko. Horrez gain, lagina bera ere handitzea ondo legoke, guk hiztun bakoitzeko hamar esaldi baino ez ditugulako aztertu.

Bestetik, harrigarria da gure emaitzak eta aurreko bi ikerketetan (Nespor eta beste 2011 eta Molnar eta beste 2014 lanetan) lortutakoak horren desberdinak izatea. Grabatutako datuen arteko konparaketa zuzenik ezin dugu egin, ez baititugu datu horiek eskura. Zenbakiek, baina, oso banaketa desberdina erakutsi dute bi parametroetan, batez ere kontsonante-tarteen desbiazio estandarrean. Molnar eta besteren (2014) laneko kontsonante-tarteen desbiazio estandarra Nespor eta besterenetik (2011) eta guretik urrun dago, nabarmen handiagoa baita. Bokal-tarteen ehunekoari begiratuz gero, desberdintasunak egon badaude baina, aldea ez da horren handia Nespor eta besteren (2011) eta Molnar eta besteren (2014) artean. Kasu horretan, gure emaitzak bereizten dira besteenetik gehien, gure bokal-tarteen ehunekoak beste ikerketetan baino handiagoak direlako. Hala, arestian esan dugun bezala, erreplika-lan gehiago behar izango genituzke, parametroak eta lortutako emaitzak sendoak eta erreplikagarriak direla ziurtatzeko.

Bigarren helburuaren barruan, hizkeretatik lortutako emaitzek euskara zein erritmo-taldetan kokatzen duten aztertu dugu. Ramus eta besteren (1999: 11) lanean, arloko literatura zientifikoan azentu-aldiko taldean kokatzen diren hizkuntzen (ingeleza, nederlandera eta poloniera) bokal-tarteen ehunekoaren batezbestekoa % 40,1en eta % 42,3ren artekoa da. Kontsonante-tarteen desbiazio estandarra, aldiz, 51,4ren eta 53,5en artean dago. Silaba-aldiko hizkuntzetan (frantsesa gaztelania, italiera eta katalana) bokal-tarteen ehunekoak % 43,6 eta % 45,6 zenbakien artean daude eta, kontsonante-tarteen desbiazio estandarra 43,9ren eta 48,1en artean kokatuta dago. Arestian esan dugun bezala, ikerketa horretan mora-aldiko taldean sar daitekeen hizkuntza bakarra aztertu zuten: japoniera. Hizkuntza horrek % 53,1eko bokal-tarteen ehunekoa du eta 35,6ko ΔC -a. Gure lau hizkeren bokal-tarteen ehunekoen batezbestekoa % 53,13 da eta kontsonante-tarteen desbiazio estandarra, 27,40. Gure emaitzak besteekin konparatuta, esan genezake, badirudiela euskara gehiago gerturatzen dela japonieraren datuetara eta, beraz, mora-aldikoen taldera, silaba-aldikoak izendatutako hizkuntzetara baino. Bokal-tarteen ehunekoa japonieraren oso antzekoa da, baina kontsonante-tarteen desbiazio estandarra, japonierarena baino txikiagoa da nabarmen. Espero ez genuen emaitza denez gero, ezinbestekotzat jotzen dugu gai honetan ikertzen jarraitzea, arestian aipatu dugun ildotik.

Edozelan ere, emaitza hauek esku artean, agerian geratu da zeinen garrantzitsua den euskal hizkerak aztertzea eta haien arteko desberdintasunen berri jasotzea. Etorkizuneko ikerketek bide horri ekin behar liokete, bai eta aztergai den corpusa handitzeari ere.

5. Ondorioak eta etorkizuneko ikerketak

Ikerketa honen bidez, euskal hizkeren erritmoa arakatu nahi izan dugu. Orain arteko arloko literatura zientifikoan, euskara silaba-aldiko hizkuntzat hartu izan da. Guk lan honetan euskal hizkerak ere talde berean sailka ote daitezkeen aztertu nahi izan dugu. Horretarako, lau hizkera aukeratu eta sistematikoki arakatu ditugu. Hain zuzen ere, Bermeoko, Bilboko, Donostiako eta Baztango mintzairerako hiruna hiztunen hizkerak izan ditugu aztergai.

Emaitzei erreparatuta, ez dugu aldaketa esanguratsurik aurkitu hizkeren artean bokal-tarteen ehunekoari dagokionez, baina bai kontsonante-tarteen desbiazio estandarrean, zehazki Baztango eta Donostiako hizkeren artean. Etorkizunean egingo diren ikerketek, hiztun eta esaldi gehiagoz osatutako lagina aztertuta, zehaztuko dute, ea beste hizkeren artean desberdintasunik baden ala ez den. Guk eskuratutako emaitzak aurreko ikerketetan euskarari eta gainontzeko hizkuntzei emandako datuekin alderatuta, ikusi dugu gure hizkeren bokal-tarteen ehunekoa Nespor eta besterena (2011: 354) eta Molnar eta besterena (2014: 326) baino handiagoa dela. Horrez gain, mora-aldiko hizkuntza den japonieraren bokal-tarteen ehunekoarekin bat egiten du (Ramus eta beste 1999: 11). Kontsonante-tarteen desbiazio estandarrari dagokionez, aurretik euskararekin egin diren ikerketetakoak baino zenbateko txikiagoak eskuratu ditugu. Neurtze-irizpide horren arabera ere, japonierara gerturatzen da gehien, baina, hala ere, nabarmen txikiagoa da gure hizkeren batezbestekoa. Azkenik, azpimarratu beharra dago, alde handia dagoela gure emaitzen eta orain arte euskara aztertu duten ikerketen emaitzen artean, batez ere kontsonante-tarteen desbiazio estandarrari dagokionez. Desberdintasun handi hori kontuan hartuta, ezinbestekoa irizten diogu hurrengo ikerketetan

hiztun- eta esaldi-kopurua, biak, handitzeari. Bestetik, hizkera gehiago ere aztertu beharko lirateke. Lan honetan, bazter utzi behar izan ditugu Iparaldeko mintzairak, esaterako, baina gaude mugaz gaindiko alternantzia fonologikoek ere emaitza interesgarriak mahaigaineratuko lituzketela. Azkenik, irakurritako esaldiez gain, bat-bateko hizkera ere aztertu beharko litzateke, irakurritako esaldiekin lortzen diren emaitzak haiekin berres-ten ote diren jakiteko.

Etorkizunean gai honekin uztartuta dagoen eta jorra daitekeen beste ildo bat hizkuntzaren jabekuntzarena da. Molnar eta bestek (2014), esaterako, 3,5 hilabeteko haurrak erritmo desberdinetako hizkuntzak bereizteko gai ote diren aztertu zuten. Azterketa hori euskal hizkeretara ekarrita, interesgarria litzateke, adin horretako haurrek bereizten dituzten kontsonante-tarteen desbiazio estandarrean desberdintasunak dituzten euskal hizkerak aztertzea (e.g. Donostiako eta Baztango hizkerak).

Orobat, hizketa iragazi (ingelesez *low-pass filtered*) bidezko ikerketa bat burutzea ere balio handikoa izango litzateke. Ikerketa askotan hizketa iragazi hori erabili izan da helduek hizkuntzak diskriminatzeko duten gaitasuna neurtzeko. Izan ere, teknika horrek banakako fonemen informazioa ezabatzen du, baina informazio prosodikoa eta erritmoa bera mantentzen ditu. Hizketa mota horrekin, beraz, ikustea legoke ea helduek Donostiako eta Baztango hizkerak bereizten dituzten eta, modu horretan, ekoizpenean egi-ten diren aldaketa horiek entzuleak ere hautematen dituen jakin (Vicenik eta Sundara 2013: 302). Gisa horretako estimuluekin, parte-hartzaileek estatistikoki desberdintasun esanguratsuak dituzten hizkerak eta bestela-koak elkarrengandik bereizten ote dituzten azter liteke.

Bibliografia

BERTINETTO, Pier Marco (1988). «Reflections on the dichotomy “stress-” vs. “syllable-timed”», First International Conference on Experimental Phonostylistics and Sociophonology and Speech Acoustic Variability (Florianópolis, Brasil).

BOERSMA, Paul eta Weenink, David (2023). *Praat*. Amsterdam: Phonetic Sciences, University of Amsterdam.

CAMINO, Iñaki (2009). *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar.

DELLWO, Volker (2006). «Rhythm and speech rate: A variation coefficient for ΔC » in P. Karnowski eta I. Sziget (arg.), *Language and language-processing*. Frankfurt/Main: Peter Lang: 231-241.

GANDARIAS, Maria Rosario (1991). *On the Rhythmical Type of Basque*. EHU/UPV. (Argitalpen digitala).

Kontsultagai: [https://www.isca-archive.org/ppst_1991/gandariasolaeta91_ppst.pdf].

GRABE, Esther eta LING LOW, Ee (2002). «Durational variability in speech and the rhythm class hypothesis», in C. Gussenhoven eta N. Warner (arg.), *Papers in Laboratory Phonology 7*. Berlin: Mouton de Gruyter: 515-546.

HURCH, Bernhard (1988). «Is Basque a syllable-timed language?», *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo* 22 (3): 813-825.

IBARRA, Orreaga (2019). «Muga eta trantsizioa Nafarroako euskal hizkeretan», *RLLCGV* 24: 227-251.

LADEFOGED, Peter (1975). *A Course in Phonetics*. New York: Harcourt Brace Jovanovich.

LOUKINA, Anastassia, OCHANSKI, Greg, ROSNER, Burton, KEANE, Elinor eta SHIH, Chilin (2011). «Rhythm measures and dimensions of durational variation in speech», *Journal of the Acoustical Society of America* 129: 3258-3270.

MOLNAR, Monika, GERVAIN, Judit eta CARREIRAS, Manuel (2014). «Within-rhythm class native language discrimination abilities of Basque-Spanish monolingual and bilingual infants at 3.5 months of age», *Infancy* 19 (3): 326-337.

NAZZI, Thierry, BERTONCINI, Josiane eta MEHLER, Jacques (1998). «Language discrimination by newborns: Toward an understanding of the role of rhythm», *Journal of Experimental Psychology: Human Perception and Performance* 24: 756-766.

NESPOR, Marina, SHUKLA, Mohinish eta MEHLER, Jacques (2004). *Grammar on a Language Map*. Trieste: International School for Advanced Studies (SISSA).

—, SHUKLA, Mohinish eta MEHLER, Jacques (2011). «Stress-timed vs. syllable-timed languages», in M. Oostendorp, C.J. Ewen, E. Hume eta K. Rice (arg.), *The Blackwell Companion to Phonology*. Malden, MA: Wiley-Blackwell: 1147-1157.

OÑEDERRA, Miren Lourdes (2004). *Fonetika fonologia hitzez hitz*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV).

PIKE, Kenneth L. (1945). *The Intonation of American English*. Ann Arbor: University of Michigan Press.

RAMUS, Franck eta MEHLER, Jacques (1999). «Language identification with suprasegmental cues: A study based on speech resynthesis», *Journal of the Acoustical Society of America* 105: 512-521.

—, NESPOR, Marina eta MEHLER, Jacques (1999). «Correlates of linguistic rhythm in the speech signal», *Cognition* 73: 265-292.

SALABURU, Patxi eta LAKAR, Maite (2005). *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Iruñea: Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia.

VICENIK, Caroline eta SUNDARA, Megha (2013). «The role of intonation in language and dialect discrimination by adults», *Journal of Phonetics* 41 (5): 297-306.

ZUAZO, Koldo (2014). *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

Eranskinak

→ I. eranskina

Grabaketetako esaldi-zerrenda (Nespor eta beste 2004):

1. Atzo antzerkirako sarrerak erosi nituen.
2. Katuak kilimak egiten zizkidan oinetan.
3. Herri horretako ogia oso goxoa omen da.
4. Arratsalderako elurtea iragarri dute.
5. Harresi berriak eraikitzea proposatu dute.
6. Zientifikoek lanak ez du ezertarako balio.
10. Inork ezin izan zuen istripua ikusi.

18. *Amonak negarrik ez egiteko esan zizun.*
 21. *Interesgarria zen hitzaldian esan zutena.*
 26. *Atea kontu handiz itxi zuen zaratarik ez egiteko.*

→ **II. eranskina**

Lehen irudia (1. irudia) sortzeko hizkuntza guztien bokal-tarteen ehunekoak (% V) eta kontsonante-tarteen desbiazio estandarra (ΔC) taula honetan ageri dira:

Hizkuntzak	% V	ΔC
INGELES (Ramus eta beste 1999)	40,1	53,5
POLONIERA (Ramus eta beste 1999)	41	51,4
NEDERLANDERA (Ramus eta beste 1999)	42,3	53,3
FRANTSESA (Ramus eta beste 1999)	43,6	43,9
GAZTELANIA (Ramus eta beste 1999)	43,8	47,4
ITALIERA (Ramus eta beste 1999)	45,2	48,1
KATALANA (Ramus eta beste 1999)	45,6	45,2
JAPONIERA (Ramus eta beste 1999)	53,1	35,6
TURKIERA (Nespor eta beste 2004)	48,3	51
FINLANDIERA (Nespor eta beste 2004)	51,5	43
HUNGARIERA (Nespor eta beste 2004)	48,2	42
TAMILERA (Nespor eta beste 2004)	53,2	41
MARATHERA (Nespor eta beste 2004)	51,5	43
EUSKARA (Nespor eta beste 2004)	47,2	34
EUSKARA (Molnar eta beste 2014)	48	44,1
Bilbo	53,5	26,6
Bermeo	55,1	26,8
Donostia	52,5	30,5
Baztan	51,4	25,8

BAM (Baiona-Angelu-Miarritze) eremuko eta inguruetakoko gazteen euskarazko hizkera arrunta¹

El euskera coloquial de los jóvenes en la zona BAB (Bayona-Anglet-Biarritz) y sus alrededores

Le basque familier chez les jeunes de la région du BAB (Bayonne-Anglet-Biarritz) et ses alentours

Youth colloquial Basque in the BAB (Bayonne-Anglet-Biarritz) area and its surroundings

KINTANA MORCILLO, Maddi
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)
mkintana001@ikasle.ehu.eus

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2025i10.305>

Jasotze-data: 2025/01/31

Behin-behineko onartze-data: 2025/05/26

Behin betiko onartze-data: 2025/06/10

Artikulu honek BAM (Baiona-Angelu-Miarritze) eremuko eta inguruko 18tik 24 urtera bitarteko euskal gazte zenbaiten hizkuntza-praktikak aztertu ditu. Praktika horiek deskribatzeko xedea du, frantsesak eta euskara batuak eragindako berrikuntza fonetikoak, kalko semantikoak, «euskara-frantsesa» kode-aldaketa eta Interneten erabiltzen den hizkeraren berezitasunak aztertuz. Ondorioek erakutsi dutenez, hizkuntzaren aldaera berri hori frantsesaren hizkera-maila arruntaren ezaugarriak barneratzen ari da, eta badirudi euskara batuaren irakaskuntzak ere izan lezakeela nolabaiteko eragina gazteen hizkuntza-aldaera berri horretan.

¹ Artikulu hau neure Master Amaierako Lanean (Kintana 2024) oinarrituta dago. Eskerrak eman nahi dizkiot Irantzu Epelderi, lana zuzentzeagatik, bidea erakusteagatik eta baita testu hau hobetzen laguntzeagatik ere.

Gako-hitzak: kode-aldaketa, gazte-hizkera, kalko fonetikoak, kalko semantikoak, hizkuntza-bariazioa, euskara.

Este artículo estudia las prácticas lingüísticas de varios jóvenes vascos de entre 18 y 24 años de BAB (Bayona-Anglet-Biarritz) y alrededores, centrándose en la lengua vernácula y la alternancia de código «euskera-francés». El objetivo es describir estas prácticas, examinando las innovaciones fonéticas debidas a la influencia del francés y del euskera estándar, así como los calcos semánticos y las particularidades vinculadas a las prácticas lingüísticas en Internet. Los resultados muestran que esta nueva variante de la lengua incorpora rasgos del francés coloquial y que la enseñanza del euskera estándar también influye en esta nueva variante juvenil.

Palabras clave: alternancia de código, lenguaje juvenil, calco fonético, calco semántico, variación de la lengua, euskera.

Cet article étudie les pratiques linguistiques de quelques jeunes basques âgés de 18 à 24 ans du BAB (Bayonne-Anglet-Biarritz) et ses alentours, se concentrant sur la langue vernaculaire et l'alternance codique «basque-français». Il vise à décrire ces pratiques, en examinant les innovations phonétiques dues à l'influence du français et du basque standard, ainsi que les calques sémantiques et les particularités liées aux pratiques langagières sur Internet. Les résultats montrent que cette nouvelle variation de la langue intègre des caractéristiques du français vernaculaire, et que l'enseignement du basque standard influence également leur langage.

Mots-clés : alternance codique, langage des jeunes, calques phonétiques, calques sémantiques, variation de la langue, basque.

This article investigates the linguistic practices of some young Basques aged 18 to 24 in the BAB (Bayonne-Anglet-Biarritz) area, focusing on vernacular language and «Basque-French» code-switching. It aims to describe these practices by examining phonetic innovations influenced by French and standard Basque, as well as loan translations and Internet-related vocabulary. The conclusions reveal that this new language register incorporates features of vernacular French and that the teaching of the standard Basque also influences this language of young people.

Keywords: code-switching, youth language, loan phonology, loan translation, language variation, Basque.

KINTANA MORCILLO, Maddi (2025). «Youth informal Basque in the BAB (Bayonne-Anglet-Biarritz) area and its surroundings», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 70 (2): 189-228.

1. Sarrera
2. Testuinguruan kokatzea
 - 2.1 Ipar Euskal Herriko hizkuntza-egoera
 - 2.2 BAM eremua
 - 2.3 Gaztetxeen garrantziaz
 - 2.4 Sare sozialak
3. Hizkuntza-ukipena
 - 3.1 Euskara eta frantsesa Ipar Euskal Herrian
 - 3.2 Kode-aldaketa
 - 3.3 Kalkoak
4. Gazte-hizkera
 - 4.1 Bat baino gehiago: gazte-hizkerak
 - 4.2 Gazte-hizkeren ezaugarriak
 - 4.3 Euskarazko gazte-hizkerak
 - 4.4 Gazte-hizkerak eta kode-aldaketak
 - 4.5 Gazte-hizkera eta Internet
5. Metodologia
 - 5.1 WhatsApp aplikazioaren bidezko audioen erabilera
 - 5.2 Irizpideak
 - 5.3 Prozedura
 - 5.4 Zenbakiak
6. Euskara barneko bilakaerak
 - 6.1 Palatalizazioa
 - 6.2 Geroaldiko formatuko aditzaren aspektua
7. Kode-aldaketak
 - 7.1 Diskurtso-markatzaileak
 - 7.2 Juntagailuak eta lokailuak
 - 7.3 Izenak
 - 7.4 Aditzak
 - 7.5 Gaztelania
 - 7.6 Ingelesa eta sare sozialak
8. Kalkoak
 - 8.1 Kalko fonetikoak
 - 8.2 Kalko semantikoak
9. Ondorioak

Bibliografia

1. Sarrera

Artikulu honen helburu nagusia da, BAM² eremuko eta inguruetako gazte euskaldun batzuek dituzten hizkuntza-praktiken lehen deskribapena egitea, hizkera urbanoaren zenbait berezitasun azpimarratuz; horretarako, bereziki euskararen eta frantsesaren arteko kode-aldaketan eta ahozkoan gertatzen diren hainbat berrikuntzatan arreta jarri dugu, Interneten erabilerari lotutakoetan, batez ere. Lan hau hipotesi orokor batetik abiatu da, hots, 18tik 24 urtera bitarteko BAMEko gazte euskaldunek, frantses kulturaren murgilduak izateagatik eta Interneten eraginarengatik, frantses hizkuntzaren hainbat ezaugarri barneratzen ari direla euskararen ahozko erregistroan.

Orain arte, euskalkien azterketan oinarritu diren lan gehienak adineko euskaldunekin egin izan dira Ipar Euskal Herrian, eta, noski, berak euskalki tradizionalak dauden herrietan burutu dira; euskalkidun gazteen hizkerari buruzko azterlanak banakak dira (Artzelus 2021). Horregatik, gure asmoa gazte batzuen hizkuntza praktikak aztertzea izan da, hala nola horien errealitatea islatzea: euskaldunen gehiengoa —elebidunak denak— Iparraldean gune urbanoetan bizi da (Osa eta Aierdi Urraza 2009). Baionan, *Euskal Herriko Hizkeren Atlas*a (EHHA) begiratzen bada, ez da jaso euskalkirik denik ere, nahiz eta Ipar Euskal Herriko euskaldunen kopuru handi bat BAM eremuan bizi. Hori hola delarik, jakin nahi izan dugu Baionan eta inguruetan zer-nolako euskara erabiltzen duten. Beren burua euskalduntzat jotzen duten gazte franko murgiltze-eredutik pasatutakoak dira eta, bertan, euskalki anitz nahasten den «ekosistema» bat osatu dute. Azken puntu gisa, frantsesaren ezaugarri fonologiko batzuk direla-eta, Ipar Euskal Herriak erreferentzia eta kontraste-puntu interesgarria eskaintzen du, eta ondo kontuan hartzeko eremua dela uste dugu (Oñederra 2009; Oñederra eta beste 2014). Hego Euskal Herrian ez bezala, gazte-hizkerei buruzko lanen eskasa dugu Ipar Euskal Herrian.

² Sigla horren azken letraren ostean «Miarritze» izena dago, «Biarritz» toponimoaren alonimoa, alegia. Gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez BAB da erabiltzen den sigla, hots: «Baiona-Angelu-Biarritz».

2. Testuinguruan kokatzea

2.1 Ipar Euskal Herriko hizkuntza-egoera

Ipar Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa zein den oroitu behar dugu: euskaldun guztiak elebidunak direla, euskaldun guztiek baitakite frantsesa gaur egun. Ezinezkoa da Ipar Euskal Herrian bizitzea frantsesa jakin gabe, eta euskara ez da ezinbestekoa. Coyosek (2006: 8) aipatu zuen bezala, adibidez, 2004-2005 ikasturtean oso lanpostu gutxitan behar zen euskara jakin, gehienak irakasleetan, gero kazetarietan eta, azkenik, bakan batzuk kultur-gintzan eta abarrean.

2008ko Frantziako Konstituzioko 75-1 artikuluak Frantziaren ondarearen parte izendatu zuen euskara (Gorri 2019), baina gogoan har dezagun euskarak ez duela ofizialtasunik eremu honetan, eta, hortaz, ez duela babes juridikorik (Frantziako Konstituzioa 1958). Izan ere, egoera hori legez babestua ez denez, «alegala» dela esan daiteke; hots, posible da Administrazio Publikoan euskaraz hitz egitea, baina ezin da zerbitzu hori eskaintzera inor behartu (Gorri 2019: 82).

Azken hogeita hamar urteotan euskararen egoera soziolinguistikoa goitik behera aldatu da, alde batetik, hiztun-kopurua eta -tipologia aldatu direlako eta, bestetik, euskararen transmisioa eten egin delako familia askotan. Era berean, euskararen batasunak ere aldaketa handiak ekarri ditu gurera (Epelde eta beste 2020: 212).

Gaur egun, euskara ama-hizkuntzatzat duten hiztun gehienek gaztelania ere eskuratu dute nerabezaroa baino lehen Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan (Etxebarria 2015). Gauza bera baiets daiteke euskararentzat eta frantsesarentzat Ipar Euskal Herrian (Oñederra 2009). Hala ere, gogorarazi beharra dugu Ipar Euskal Herriaren «frantsestea» aski berria dela, eta batez ere gertakari historikoek baldintzatu dutela euskararen transmisioa. Gerren bidez egin da Frantziaren eta Iparraldearen arteko loturarik handiena, eta euskararen transmisioaren galerarik handiena Lehen Mundu Gerratik Bigarren Mundu Gerrara doan denbora-tarte horretan jaiotako belaunaldian kokatzen da galera hori; eta horrek ere, ha-

labeharrez, euskararekiko pertzepzioa baldintzatu egin du (Epelde eta beste 2020: 213).

Ipar Euskal Herriko VII. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera (EEP eta beste 2023), BAM eremu horretako euskararen egoera delikatu da, euskararen erabilera gainbehera baitator; inkesta horretan 16 urtetik gorako biztanleek parte hartu zuten eta 2021ean gauzatu zen. Datuen arabera, biztanleriaren % 70,5 erdalduna da, % 20,1 euskalduna eta % 9,4 euskaldun hartzailea. Oro har, euskararen erabilerak behera egin du, bai ehunekoetan, bai kopuru absolutuetan. Guraso euskaldunen artean, euskararen transmisioa handiagoa da; areago, guraso gazteenek (16-34 urtekoak) hobetzen dute euskararen transmisioa.

Orain arte, ezagutzari eta transmisioari buruz aritu gara, baina erabileraren gaineko datuak are apalagoak dira. 2021ean, biztanleen % 78,5ek frantsesez soilik hitz egiten zuen, eta, ordea, biztanleen % 1,1ek bakarrik euskaraz. Bi hizkuntzak maiztasun bertsuaz, % 11k erabiltzen zuen. Ikus daitekeen bezala, gainbehera izan da euskara hutsaren erabileran, eta aurreko urteekin alderatuta, handitu egin da frantsesa eta euskara hein berean erabiltzen duten hiztunen kopurua (EEP eta beste 2023). Erronka nagusia, beraz, ezagutzatik erabilerara igarotzea da, hiztun anitz euskaldundu den arren, ez baita gai egunean eguneko oinarrizko eginbeharrak euskaraz egiteko (Gorri 2019).

Oro har, euskarari dagokionez, euskal hiztunen ehunekoaren aurrerakada geldoa da, eta eguneroko erabilera mugatua (EEP eta beste 2023).

Irakaskuntzak izan duen rola aipagarria da, ikastolek eta gau-eskolek ekarri baitute batez ere euskara batua, «Iparraldeko batua» deitua den hori (Epelde eta beste 2020: 213-214). Gogora ekar dezagun, gaur egun euskara irakaskuntza-hizkuntza duten bi eredu daudela: murgiltze-eredua eta eredu elebiduna. Murgiltze sistema Seaska sareak darabil, eta esperimentatzeko, haur-eskolako eskola batzuek ere bai. Bertan, euskara da eskolaren ohiko funtzionamenduaren hizkuntza eta irakaskuntza-hizkuntza nagusia. Aldiz, eredu elebiduna hezkuntza nazionalako eta hezkuntza katolikoko eskola batzuetan aurki dezakegu. Kasu horretan, frantsesezko eta euskarazko ikasgaiek orduz «parekidetasuna» dute, eta ikasgaia eta irakaskuntza-hizkuntza dira bi-biak (Oltzomendi 2020).

2.2 BAM eremua

Oroitu beharra dago Ipar Euskal Herrian badirela hiru probintzia (Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa), eta 158 udalerri, eta, beraz, hainbat errealitate soziolinguistikotik. Guk BAM eremuan ezarriko dugu arreta. BAM eremua Baionak, Angeluk eta Miarritzek osatzen dute eta gorago aipatu bezala Ipar Euskal Herriko biztanleriaren % 40 bertan bizi da (Gorri 2019). Eremu horretan, biztanleen % 85,4 da erdalduna, % 6,2 euskaldun hartzailea eta soilik % 8,2 euskalduna. Ipar Euskal Herri osoko datuekin alderatzen badugu, nabarmen «frantsesagoa» dela esan genezake (EEP eta beste 2023). Era berean, Miarritze da Ipar Euskal Herri osoko hiririk erdaldunenena (Gorri 2018)³.

Izan ere, BAMen, euskararen transmisioa apala da, haurren % 80k ez baitu euskaraz ikasten, eskolan ere ez (Gorri 2019: 83). Hizkuntza-erabileraren erraztasunari dagokionez, euskaldunen erdientzat baino gehiagorentzat errazagoa, samurragoa da frantsesez mintzatzea euskaraz baino, eta, ondorioz, eremu hori da euskara ama-hizkuntzat duten biztanleen proportziorik txikiena duena. Nahiz eta azken urteotan euskaldun-kopuruaren behe-rakada hain azkarra ez izan, frantsesez euskaraz baino aiseago mintzatzen direnen proportzioak gora egin duela ikusi da (EEP eta beste 2023).

Azkenik, euskararen erabilerari dagokionez, biztanleen % 90,4 beti ari da erdaraz, eta % 0,3 euskaraz erdaraz baino gehiago; % 2,6 oso gutxi euskaraz, % 5,1 euskaraz erdaraz baino gutxiago eta % 1,6 euskaraz erdaraz bezainbeste (EEP eta beste 2023). Gorri (2019: 83) paradoxa hau azaleratu zuen: «Baionan, adibidez, espainola eta euskara berdin-berdin entzuten dira».

Izan ere, Euskal Herri osoan, gune urbanoetan dugu euskararen egoerarik zailena, euskaldun-kopururik handiena bertan egon arren (Osa eta Aierdi Urraza 2009).

Ikastolen sarean —Seaskan— lizeo bakarra dago: Bernat Etxepare lizeoa, Baionan. Lizeo horixe da aukera bakarra euskarazko murgiltze-ereduan

³ Esan beharra dago, euskara-teknikaria badagoela Miarritzeko Herriko Etxean eta Itsasargia ikastolan ere bai.

ikasteko Ipar Euskal Herrian. Egigurenek (2024) bertako ikasleen hizkuntza-jarrera eta -ideologiak landu ditu, eta horrelako espazioen garrantzia azpimarratzen du, Etxepare lizeoa arnasmune baita gazte euskaldunentzat.

2.3 Gaztetxeen garrantziaz

Gaztetxea gune soziolinguistiko interesgarria dela konturatu gara, ikerketan ari ginela ohartu baikinene gure lekuko anitzek gaztetxeetan parte hartzen zutela.

Coyos eta Baxokek (2010: 136-137) gazteen «berezko gunetzat» dituzte gaztetxeak, gazteentzat gunerik adierazgarrien eta esanguratsuenak baitira. Ipar Euskal Herriko lehen gaztetxea Patxa izan zen, 1986an sortu zena Baiona Ttipiko etxe okupatu batean. 2011n, 14 gaztetxe zeuden. «Berezko gune» horien berezitasuna da, gazteek berek antolatzen dutela beren aisialdia, eta helduak hortik kanpo geratzen direla. Artzelusek (2021) bere tesian argudiatu zuen, gaztetxeko kideak, Garaziko ibarrean, Iparraldeko euskara batuan usuago hitz egiten zutela, gehiago mugitzen baitziren gaztetxeen artean, sare baten barruan, eta gaztetxeak zeregin handia zuela herriko euskaldun gazteak biltzerakoan.

Baionan, Zizpa gaztetxea ere bada⁴, Aturri ibaiaren ertzean, eta 2015ean sortua izan zen. Beren burua aurkezterakoan, gaztetasunetik haratago doan proiektua dela berena oroitarazten dute⁵. Komunikazioa euskaraz eta frantsesez egiten dute inklusiboagoak izateko, baina argiki diote, gazte euskaldunentzako bilgunea izateko xedea ere baduela Zizpak.

Miarritzen, aldiz, Mizanbu gaztetxea dugu, tren-geltokiaren ondoan. Gaztetxe hori 2001ean eratu zen, eta 'Miarritze zangotik burura' esan nahi du. Euskararekin lotutako helburu kultural bati ekiteko asmoz sortu zen eta gazteentzako topaleku izateko xedez⁶. Gaur egun, horien sareetan sartzen

⁴ [<https://zizpa-gaztetxea.eus>].
[<https://baionakogaztetxea.wordpress.com/>].

⁵ [<https://www.sudouest.fr/lachainetvpi/hemendik/videos/2021/12/29/qxmlpur>].

⁶ [<https://www.instagram.com/mizanbugaztetxea/>].

baldin bagara, euskarazko *afterrak* antolatzen dituztela anitzetan ikus dezakegu.

2.4 Sare sozialak

Sare sozialek, gaur egun, egundainoko garrantzia dute gure gizartean eta, ondorioz, horrek kultura berri baten sorrera dakar: kultura birtuala. Izan ere, gizartearen funtzionamenduan aldaketa sakonak bizi izan ditugu sare sozialengatik (Mateos Uribarren 2023).

Sare sozialak hertsiki lotuak dira gazteei; izan ere, gazte gehienek sare sozialen bat baitute. Ezagunena edo erabiliena WhatsApp berehalako mezularitzako aplikazioa da (Gazteen Euskal Behatokia 2019). Bertan, testu, audio, bideo, GIF, dokumentu, kontaktu, kokapen, dei eta bideo-dei moduko edukiak bidali eta jaso daitezke.

Gazteen % 98,2k egunero edo ia egunero erabiltzen du WhatsApp edo berehalako mezularitzako beste aplikazio batzuk. Horrenbestez, esan daiteke ia gazte guztiek erabiltzen dutela berehalako mezularitzako aplikazioen bat, egunero. Instagram erabiltzen dutenek egunero edo ia egunero erabiltzen dute. Izan ere, eguneroko maiztasunez erabiltzen diren sare sozialei erreparatzen badiegu, Instagram bigarren lekuan dago, berehalako mezularitzako aplikazioen atzetik: gazteen % 74,1 konektatzen da egunero bertara. Egunero Youtubera konektatzen diren gazteen ehunekoa Instagram egunero erabiltzen dutenena baino pixka bat txikiagoa da (% 73,1).

(Gazteen Euskal Behatokia 2019)

3. Hizkuntza-ukipena

Mundu osoan, hiztunen gehiengoa eleaniztuna da, eta, beraz, eleaniztasuna ohikoena dela esan dezakegu, nahiz eta munduko hizkuntza anitz arriskupean diren; hots, munduan gaur egun bizirik dauden 7.164 hizkuntzen artean 3.072 (% 42) hilzorian dira (Eberhard eta beste 2024). Hamaika arrazoi badira elebiduna izateko: immigrazioa, zonalde eleaniztunak (Papua

Ginea Berria, adibidez), hizkuntza gutxi(ago)tuen existentzia, edo eskolan beste hizkuntza batzuk ikasten dituztenak... Azken finean, argi dagoena da, elebakarrak gutxiengoa direla munduan eta hiztunen proportzio handi bat hizkuntza-ukipen egoeretan bizi dela (Gardner-Chloros 2009: 6-7).

3.1 Euskara eta frantsesa Ipar Euskal Herrian

Ipar Euskal Herriko gazte guztiak elebidunak dira euskara eta frantsesa hizkuntzetan (EEP eta beste 2023). Arestian aipatu ditugun hainbat eleaniztasun egoeratako bat da honako hau: badira diglosia egoeran diren ama-hizkuntzak (*mother tongues*) eta, beraz, bizitza ofizialean parte hartzeko «prestigiosko» hizkuntza menperatu behar dute hiztunek (Gardner-Chloros 2009: 7). Horren adibide garbia da euskararen egoera Ipar Euskal Herrian, frantsesa baita hizkuntza ofizial bakarra eta, horren heinean, frantsesa menperatzea derrigorrezkoa baita.

3.2 Kode-aldaketa

3.2.1 Definizioa

Hizkuntzen txandakatze horri kode-aldaketa (*code-switching*) deitzen zaio (Poplack 1980; Gumperz 1982). Edozein hiztunek atzeman dezake nola beste solaskidea hizkuntza batetik bestera lerratzen den elkarriketa baten barruan (Ibarra Murillo 2014: 24).

Gauza jakina da hizkuntza bat baino gehiago kontaktuan daudenean hainbat fenomeno gertatzen direla, eta hizkuntzen arteko elkarreragin horren inguruan hainbat kontzeptu garatu izan dira.

(Bereziartua 2014: 135)

Ikertzaile gehienek «kode-aldaketa» terminoa erabiltzen dute elkarriketa berean bi hizkuntza edo aldaera kontzienteki txandakatzen direnean (Rampton 1995: 275).

Mundu osoko komunitate elebidun anitzek ekoizitako corpusak landu izan dira kode-aldaketaren fenomenoaz aztertzeko. Komunitate elebidun horietako hiztun gehienek egunerokoan hainbat modutan aldizkatzen dituzte hizkuntzak, eta hainbeste komunitate daude, non mundu osoko azterketen corpusa erraldoia den (Gardner-Chloros 2009: 7).

Terminologiari dagokionez, hainbat termino erabili izan dira hizkuntza-ukipena eta kode-aldaketa definitzeko garaian, zenbait desadostasun baitaude ikertzaileen artean ere (Rampton 1995: 275).

Muyskenek (2000) «kode-aldaketa» darabil diskurtsoaren baitan hainbat hizkuntzaren arteko erabilpena izendatzeko, eta «kode-nahasketa» (*code-mixing*) terminoaz baliatzen da perpaus barneko fenomeno bati erreparatzeko: bi hizkuntzetako ezaugarri gramatikalak eta item lexikalak esaldi berean ageriz gero, kode-nahasketa litzateke.

Kode-aldaketa duten perpaus gehienak errazki ekoizten dituzte hiztunek: perpaus barneko esaldiak ez dira ausaz gertatzen, baizik eta egitura bat zainduz. Kode-aldaketan gauzatzen diren patroiak hizkuntza bakoitzaren tipologiak ezartzen ditu. Orokorrean, Muyskenek argudiatu zuen, hiztun bakoitzaren gramatikaren barnean funtzionatzen duela kode-aldaketak, barietate estilistikoak badaude ere (Muysken 2000).

3.2.2 *Euskal Herrian*

Aipatu dugun bezala, kode-aldaketa elebidun osoekin soilik gerta daiteke eta, Euskal Herrian, euskaldun guztiak elebidunak dira, gaztelaniarekin zein frantsesarekin izan, baina «euskara-gaztelania» eta «euskara-frantsesa» pareak ez dira modu berean ikertu (Epelde eta Oihartzabal 2010).

Euskarak frantsesa edo gaztelania bezalako hizkuntzekin izan ditzakeen desberdintasunak oso interesgarriak dira; izan ere, euskara hizkuntza eranskaria eta ergatiboa da, frantsesa eta gaztelania ez bezala (Epelde eta Oihartzabal 2010, 2020).

«Euskara-gaztelania» kode-aldaketa, azken urteetan, ikerketa lan askoren interesekoa izan da (Muñoz Barredo 2003; Ibarra Murillo 2014; Bere-

ziartua 2014; Lantto 2015; Epelde eta Oihartzabal 2019; Perez Gaztelu 2022; Artetxe eta beste 2024; Aiestaran 2024; Uriarte 2024). Kode-aldaketa ez da fenomeno berria euskararen eta gaztelaniaren artean (Muñoa Barredo 2003: 528), Lazarragaren XVI. mendeko bertsoetan ere kode-aldaketa irakur dezakegu, Euskal Herriak bizi duen testuinguru soziolinguistiko bereziak eraginda (Epelde eta Oihartzabal 2020: 77). Oro har, euskara eta gaztelania menderatzen dituzten elebidunek maiztasun handiaz aldizkatzzen dituzte bi hizkuntzok, testuinguru oso desberdinetan eta hizkuntza-egitura askotan (Ibarra Murillo 2014: 37).

Fenomeno hori ez da eremu erdaldunenetan bakarrik gertatzen eta era berean ez du esan nahi erabiltzaileen euskararen gaitasun-maila apala denik (Pérez González 2024: 9). Gazteen eta kode-aldaketaren arteko lotura estua dela egia izanda ere, ezin lot daiteke soilik horrekin (Muñoa Barredo 2003; Pérez González 2024). Halaber, ildo beretik tiraka, eremu soziolinguistiko erdaldunenetan kode-aldaketa erabiltzeak euskaraz hiztunak «lasaitu» egin ditzake (Lantto 2015; Pérez González 2024).

Etor dakigukeen galdera bat hauxe da: zergatik gertatzen da kode-aldaketa «euskara-gaztelania» hizkuntza-parean? Kontuan hartu behar dugu perpaus barnean hizkuntzaz aldatzea oso ohikoa den fenomeno dela, batez ere gaitasun osoa duten elebidunengan (Muñoa Barredo 2003: 528; Pérez González 2024: 9).

Askotan, modu pragmatikoan darabilte hiztunek kode-aldaketa: hau da, probatzeko ea kideko hiztunarekin zein hizkuntza erabili, edo mintzakideari aukera emateko zein hizkuntza hautatu (Muñoa Barredo 2003: 530).

«Euskara-gaztelania» parearen kasuan, hainbat arrazoi egon daitezke kode-aldaketa enplegatzeko. Hasteko, arrazoi linguistikoak badira, esate baterako, gaztelaniazko elementuak erabiltzea, euskarazko jardunean gerta daitezkeen hutsune lexikalak betetzeko. Haatik, konnotazio desberdinak izan ditzaketen esamoldeak baliatzeko ere erabili daiteke kode-aldaketa; beraz, badago adierazkortasunarekin zerikusia duen arrazoi bat ere (Muñoa Barredo 2003: 539)

Ipar Euskal Herrian, egindako ikerketak bakanak dira eta alor horretan hutsune handia dago betetzeko, izan ere, ekialdeko euskararen eta frantse-

saren arteko kode-aldaketa Epelde eta Oihartzabalek (2010, 2019, 2020) baino ez dute aztertu. Oñederrak (2009) ohartarazi zuen, fonologikoki aztertzeke pare interesgarria dela, frantsesaren ahoskera erabat desberdina baita euskararekiko.

3.3 Kalkoak

3.3.1 *Kalko semantikoak*

Backus eta Dorleijnek (2009) landu duten kontzeptu bat *loan translation* da, edo ‘itzulpen mailegatuen’, kode-aldaketarekin harreman handia duen kontzeptua (hizkuntza-ukipenaren parte dira biak). Itzulpen mailegatua zer ote den definitzerakoan, haxe diote: «Loan translations or calques are defined as words or phrases that are reproduced as literal translations from one language into another» (Backus eta Dorleijn 2009: 2).

Itzulpen mailegatua, beraz, zera dela esan dezakegu: A hizkuntzan erabiltzen den edozein morfemaren erabilera, zeinaren esanahia B hizkuntzaren hitzez hitzezko itzulpena den edo semantikoki baliokidea (Backus eta Dorleijn 2009: 4). Hiztunek, orokorki, ezagutzen dituzten hizkuntzetatik hitzak mailegatzen dituzte beste hizkuntza batean txertatzeko (Calabrese 2009: 59). B hizkuntzatik etorritako eragin hori hainbat modutan gauza daiteke, itzulpen zehatz bat izan daiteke edo antzekotasun huts bat besterik ez; horregatik, biziki konplikaturik da itzulpen mailegatua identifikatzea, B hizkuntzaren jakituria handia eskatzen baitu (Backus eta Dorleijn 2009: 9). Aipatu bezala, fenomeno baten eta bestearen arteko muga ezartzea zaila da, azken finean hizkuntzak denborarekin aldatu egiten baitira (Cheshire 2023).

Alabaina, *loan translation* terminoak beste termino batzuekin duen antzekotasuna ezin uka daiteke, esate baterako, interferentziarekin edo transferentzia gramatikalekin. Itzulpen mailegatuak lexikoarekin zerikusia duela argudia daiteke (Backus eta Dorleijn 2009: 5).

Hala ere, argitu beharra dago itzulpen mailegatuak egiten dituzten hiztunak ez direla bortxaz eta ezinbestean elebidunak, askotan Sprach-

bund⁷ egoera batean gauza litezkeelako (Backus eta Dorleijn 2009: 7). Hain zuzen, hiztun elebazarrek ezagutzen ez duten edo gutxi menperatzen duten morfema bat mailega dezakete, beren hizkuntzan duten lexiko-hutsune bat betetzeko (Calabrese 2009: 59).

3.3.2 *Kalko fonetikoak*

Fonologian ere antzeko fenomenoak gertatzen da mailegatutako fonologia edo *loan phonology* terminoarekin (Calabrese eta Wetzels 2009). Adibidez, Oñederrak (2009: 15) azaldu duenez, prozesu fonologiko batzuen galerak eragina izan lezake itzulpen morfologikoak egiten direnean.

Calabrese eta Wetzelsek (2009: 4) dioten bezala, igarpenean oinarritutako fonologia mailegatua XIX. mendean ere bazen, adibidez, egun oraindik erabiltzen den «natibizazio» kontzeptua: hiztunak, beren hizkuntzakoa ez zen segmentu edo hots bat entzutean, hotsa beren inbentario fonetikoko hots antzekoenarekin lotzen saiatzen ziren; *Sprachgefühl*arekin lotua zen, hizkuntzaren sentsazioarekin, alegia.

Azken finean, elebitasunak eragin dezake hizkuntza bateko prozesu fonologikoak ahultzea, mailegatze hori egiten denean (Oñederra 2009: 14). Epelde eta Oihartzabalek (2010: 62) hori Lapurdiko hiztun euskaldunekin gertatzen dela azaldu dute: lapurtar euskaldunek txikitatik badituzte frantsesaren eta euskararen fonologia-sistemak, era naturalean, berez bereganatu dituztenak.

Oroit dezagun, hizkuntza baten hiztunen ehunekoa % 50era gerturatzen den heinean, bi hizkuntzen arteko ukipenak eta moldatzeak *transfer* bihur daitezkeela hiztunok eta hiztun berri horiek ezaugarri berriak transferitu edo pasatuko dizkietela «ama-hiztunei» (Cheshire 2023: 53).

⁷ Eremu geografiko baten barnean elkarren ondoan hizkuntza desberdinak hurbil daudenean gertatu ohi da, adibidez, Balkanetan albanierarekin eta serbokroazierarekin.

4. Gazte-hizkera

4.1 Bat baino gehiago: gazte-hizkerak

Gazte-hizkerei buruz mintzatzean, ezin dugu hizkera bakar baten inguruan aritu, ez baitago bat eta bakarra (Amonarriz 2008: 167).

Izan ere, ezin hitz egin dezakegu gazte-hizkera bakar bati buruz horien errealitate soziolinguistikoa kontuan hartu gabe eta geografikoki kokatu gabe, ez baita izango gauza bera Baionako gazte-hizkera edo Azpeitikoa; testuinguruak hizkera moldatu egiten du, azken finean (Amonarriz 2008; Aiestaran 2024). Horregatik, ezinbestekoa da, gazte-hizkerak aztertzen ditugunean, berak testuinguruan ongi kokatzea.

Ezin defini daiteke gazte-hizkera bakar bat, aldatuz baitoa, baina, hala ere, gazte-hizkerek beren ezaugarri propioak dituzte (Bereziartua 2014). Horregatik, Gadetek (2017) pluralean ezartzea defendatu zuen, hots, «gazte-hizkerak», dagoen aniztasuna kontuan hartu ahal izateko.

4.2 Gazte-hizkeren ezaugarriak

Gazte-hizkerei buruz ari garenean, honelaxe defini liteke, batik bat: «Gazte-hizkera deitzen zaio bereziki gazteen artean garatzen den hitzezko gertaera komunikatibo-linguistikoen multzo berezituari, zeinetan gazte izate horri lotutako identitateak garrantzi handia duen» (Aiestaran 2024: 14).

Horretarako, gazte-izaera zerk eraikitzen duen jakin behar da; identitateari hertsiki lotua da. Izan ere, nerabezaro eta gaztaroan talde baten parte izatea garrantzi handikoa da eta horrexek definituko du gaztearen hizkuntza-erabilera (Bereziartua 2014). Gaztea izatea bizi-estilo bat eta sozializatzeko forma bat dela argudia daiteke, hots, kategoria sozial bat da eta ez hainbestean kontzeptu biologikoa (Gadet 2017: 30). Familiarekin erreferentzialtasuna gutxitzen da nerabezaroan, eta horrenbestez, kideen (hau da, taldeko beste parte-hartzaileak) erreferentzialtasuna handitzen da, eta hizkuntza-erabilera ez dago horretatik salbuetsita (Artetxe eta beste 2024). Aipatu dugun talde hori talde sozial batekin identifikatzen dute gazteek (Aiestaran 2024).

Kulturari dagokionez, Guérinek (2018), Pariseko auzo kulturantzutunetako gazteen hizkera aztertzerakoan, hizkeran kulturak eragin handia duela azaldu zuen: esate baterako, gazte horientzat rapa eta AEBko film batzuk (beti ere, musika, droga eta halako tematika jakin batzuen ingurukoak) erreferente kultural partekatutak dira. Beraz, tokian tokiko erreferente kultural partekatuek ere eragin handia izaten dute.

Gainera, sorkuntzak badu zeresan handia gazte-hizkerak ardazterakoan; definizioz gazteek erabiltzen duten hizkuntza sortzailea da (Perez Gaztelu eta Zulaika Ijurko 2016: 108). Era berean, beharbada berehala identifikatzen dugun beste ezaugarri bat fonetika aldatzea da; mundu-mailan, kultura guztietan, gertatzen omen den fenomeno dugu hori (Paternostro 2017: 55).

Gazte-hizkerari buruz ari garenean, erregistroa aipatzea garrantzitsua da, hertsiki uztarturik baitago lagunarteko hizkerarekin edo hizkera arruntarekin. Hizkera-estilo bat zer den zehaztu orduan, gogoan hartu behar dugu, estilo-zehaztapen horrek inguruneak norbanakoarengan duen eragina islatuko duela, eta, alderantziz, pertsona bakoitzak ingurumenean duena. Hau da, entzulearen eta testuinguruaren pertzepzioa da estiloa. Bere buruaren proiektzioa ere bada, bere mamia, eta izan nahi duen elkarrizketa mota eta tonuaren eszenatokia (Eskénazi 1993: 502).

4.3 Euskarazko gazte-hizkerak

Gazteen hizkera orokorra aipatu dugu, baina euskaraz egiten den gazte-aldaerak baditu bere ezaugarriak. Izan ere, kezka handia dago euskal gazteek ekoizten duten hizkeraren inguruan: euskarazko kale-hizkerarik ez omen dela esan izan da, eta frogatuta dago, erabilera arruntean edo erregistro informalean euskarazko baliabide- eta gaitasun-falta dagoela, eta hori *handicap* gisa ikusia da (Artetxe eta beste 2024: 52-53).

Bestetik, euskara «trakets» hori adierazteko, Perez Gazteluk (2022) «heteroglosiko» terminoa erabiltzen du, «euskara nahasia» dela adierazteko.

Horrez gain, familiak eta inguruneak garrantzi handia du euskaldun gazteek hizkera «hobe» bat garatzeko garaian, hain zuzen ere ingurune euskal-

duneko gazteek (famiarekin eta lagunekin euskaraz aritzen direnak) euskara hobeki eta lasaiago erabiliko dute, inguru hori ez dutenarekin alderatuz gero (Artetxe eta beste 2024).

Amonarrizek (2008: 170) gazteen berezko hizkerak bi irizpide bete behar zituela adierazi zuen: euskara batuaren arauak ez errespetatzea eta kode-aldaketak gauzatzea.

4.4 Gazte-hizkerak eta kode-aldaketa

Jadanik aurreko paragrafoetan zantzu batzuk emanak ditugu: erreferente kultural hegemonikoak duen garrantzia eta euskaratik sortutako kale-hizkera bat sortzeko zailtasuna.

Horren aurrean, hiltun gazteek kode-aldaketa hartzen dute soluzio gisa, eta gazte-hizkeraren ezaugarri ohiko bat da, ingelesarekin, frantsesarekin edo italierarekin nahasten da munduko hainbat lekutan (Amonarriz 2008). Kode-aldaketa gero eta ohikoagoa da hainbat hizkuntza kontaktuan dituzten komunitateetan (Artetxe eta beste 2024).

Euskal Herriaren testuingurua hartzen badugu, Hego Euskal Herrian gero eta ohikoagoa da gaztelania eta euskara txandakatzea (Artetxe eta beste 2024); gazte-hizkeran ere halaxe gertatzen da, hori baita elebitasunaren ondorioetako bat eta berau ezaugarritzen duen alderdietako bat (Muñoa Barredo 2003: 528; Ibarra Murillo 2014; Pérez González 2024). Ipar Euskal Herrian gauza bera jazotzen da, baina, Amonarrizek (2008) aipatu duen bezala, deus gutxi aztertu da horren inguruan.

Gazteek adierazkortasun-maila handiagoa topatzen omen dute gaztelaniazko esapideetan euskarazkoetan baino; hala ere, ez dirudi soziolekto baten bereizgarria denik, helduek ere kode-aldaketa mota hori erabiltzen baitute (Artetxe eta beste 2024).

4.5 Gazte-hizkera eta Internet

Teknologia berriek eta, batik bat, sare sozialek euskararen nahasketa areagotu dute eta oso eragin handia izan dute gazte-hizkeran (Perez Gaztelu 2022). Komunikatzeko eta harremanak izateko forma berriak sortu dituzte teknologia berriek eta digitalizazioak; hots, ondorio zuzena da hiztunen arteko harremanetan erabilera ere aldatzea (Amonarriz 2008: 169). Komunikazio-forma horretan, erabiltzaile gazteek solaskide parekideak topatuko dituzte, gizarte-maila kontuan hartu gabe, eta era horretan ludikotasuna eta informalitatea landuko dituzte (Perez Gaztelu eta Zulaika Ijurko 2016: 106). Ahantzi gabe izan dezagun, gazteek ez ezik, helduek ere erabiltzen dutela Internet bidezko lagunarteko hizkera (Perez Gaztelu eta Zulaika Ijurko 2016: 129).

Gazteek berezko hizkuntza garatzen dute sare sozialetan, garai digitaleko eta teknologia berrien adierazpenak bilduko dituen. Horregatik, argudia liteke beren kabuzko hizkuntza-aldaera bat sortzen dutela horrekin batera. Hizkera horren parte dira indargarriak, laburdurak, informaltasun-zantzuak edo kode-aldaketa bera ere (Mateos Uribarren 2023).

5. Metodologia

5.1 WhatsApp aplikazioaren bidezko audioen erabilera

Gaur egungo gazteen lagunarteko hizkera batik bat aurrez aurre gertatzen da, baina, bistan da, Interneten garaian murgilduak gara erabat. Gazteen Euskal Behatokiaren arabera (2019), EAEko 15-29 urte bitarteko ia gazte guztiek sare sozialen bat darabilte (batez ere, WhatsApp, Facebook, Instagram eta Youtube). Pentsa dezakegu, bada, antzeko datuak direla Ipar Euskal Herrian ere. Horrenbestez, gazteek sare sozialetan komunikatzeko erabiltzen dituzten audioek gure arreta piztu zuten eta ikergai interesgarria izango litzatekeela pentsatu genuen, ezin uler daitekeelako gazteen hizkerari buruzko azterketa bat, sare sozialen erabilera kontuan hartu gabe.

Ikerketa aurrera eramateko, pentsatu genuen iturri emankorra izan zitekeela WhatsApp aplikazioaren bidez bidalitako audioak jasotzea. WhatsApp

aplikazioa sortu zenean, mezularitza aplikazio gisa ulertzen zen, baina azken garaiotan badirudi gazteagoetan sare sozialtzat hartua dela. Bat-batekotasuna aztertzeke modu ezin hobearekin iruditu zitzaigun. Hala ere, Messenger edo Snapchat bidezko audioak ere usaiakoak direnez gazteen artean, halakoxeak ere jaso ditugu, azkenean funtzio bera baitute: gazteen arteko komunikazio informala. Horrek gure helburuen araberrako gazte-hizkeraren ezaugarriei so egiteko bidea eman digu.

5.2 Irizpideak

Adina mugatu genuen, hala 18tik 24 urtera arteko gazteak bilatu genituen, hots, 1999. eta 2006. urteen artean jaiotako gazteak. Irizpide geografikoa zehazterako garaian, BAM (Baiona-Angelu-Miarritze) eremuko eta inguruko gazteak bildu genituen, esan nahi baita, bizitza bertan egiten dutenak barne. Hizkuntza-biografiari dagokionez, ahalik eta profil gehien lortzen saiatu gara: ikastolan euskara ikasitakoak, sail elebidunean euskara ikasitakoak eta euskara ama-hizkuntza zutenak. Genero-parekidetasunari ere eutsi nahi izan diogu; hala ere, generoaren gorabeherak ez lituzkete emaitzak aldatu behar izango (Gadet 2017).

5.3 Prozedura

Hitz bat aipatu nahiko genuke hemen audioak lortzeko moduez. Audiook lortu ahal izateko, harreman pertsonaletatik abiatu ginen. Gure kontaktuetatik hasi ginen, kontaktu horiek bidalitako whatsapp-audioak bilatuz eta baimenak eskatuz. Hala ere, harreman zuzeneko audioen kantitatea nahiko urria izanik, gure kontaktuei galdekatzen hasi ginen, haien lagunen, militantzia-kideen edo ahaideen audioak bidaltzeko. Aldi oro, zer irizpide eskatzen dugun zehaztu izan zaie argiki; ahalik eta audio gehien bidaltzea galdegin genuen. Horrela, Snapchat edo Messengerreko audio batzuk ere jaso ditugu. Maiz, irudimenez jokatu behar izan dugu berriemaileak lortu ahal izateko. Aipatzekoa da, gaztetxeetan dabiltzan gazteek egin duten ekarpena, Baionako Zizpa gaztetxeko eta Miarritzeko Mizanbu gaztetxeko

kideen bidez lagin handia gureganatu dugulako, eta erakusten duelako gaztetxe horiek duten garrantzia euskarazko gazte-komunitateak sortzen.

Audio guztiak anonimo bihurtu ditugu eskuz, kode baten bidez. Kode hori laginaren izenaren lehen bi hizkiez, lekukoaren adinaz eta audio zenbakiaz osatua da.

Transkribapen ortografikoa hautatu genuen, eta ez fonetikoa; ez dugu NAFik erabili audioak transkribatzeko, hau da, euskarazko ortografiari jarraiki nola ahoskatzen zuten idatzi dugu. Euskara ez ziren hizkuntzak (kasu honetan frantsesa, gaztelania eta ingelesa) letra etzanez adierazi ditugu. Halaber, azalpen berezia edo ahoskera berezia zuten hitz edo esamoldeak oin-oharren bidez azaldu ditugu. Azkenik, izen propio guztiak hizki batez anonimo egin edo kodifikatu ditugu (LA19: LA, izenaren lehen bi hizkiak eta 19, garai horretan zuen adina).

5.4 Zenbakiak

Gure corpusean, guztira, 27 berriemaileren audioak lortu ditugu, nahiz eta denek audio-kopuru bera ez bidali. Corpusari dagokionez, guztira, 130 audio jaso ditugu, 9 segundoko audiotik 2 minutukoetara doazenak.

Generoaren arabera aztertzen baditugu, 27 berriemaileetatik 15 neskak izan dira eta 12, mutilak.

Lekuari dagokionez, parte-hartzaileen gehiengo⁸ Baionakoak izan dira (% 44,44), eta, ondoren, angeluarrak (% 18,51). Miarritzarren kopurua eta hiriburutarrena berbera izan da, hots, % 14,81 hiri bakoitzetik. Azkenik, Lehuntzeko eta Beskoitzeko lagin bana izan dugu (% 3,7).

Laginak lortzeko prozesuan aurkitu dugun beste faktore interesgarri bat zera izan da, berriemaileen zati handi batek Baionako Zizpa gaztetxean (% 22) edo Miarritzeko Mizanbu gaztetxean (% 11) parte hartzen zuela

⁸ Ezin izan dugu zehaztu anitzetan jatorria eta bizitokia, eta berriemailearen informazioa biltzeko, «Nongoa da?» galdera pausatu dugu, hortaz, hori izango da bizilekua/sorlekua adierazteko tarteko irizpidea.

ikustea. Gehiengoak, hala ere, ez du gaztetxe batean zuzenean esku hartzen, baina ingurukoak dira eta laguntzen dute, bai txandak egiten edo antzeko beste gauza batzuk egiten behin edo beste.

6. Euskara barneko bilakaerak

6.1 Palatalizazioa

Lapurdiko kostaldeko euskararen ezaugarri bat palatalizazioa izan da historikoki, hots, /in/ eta /il/ segidak, hurrenez hurren, [ɲ] eta [ʎ] ahoskatzea, Gipuzkoa ekialdetik eta Nafarroa iparraldetik aski hurbil baita. L.L. Bonaparte dialektologoak ere halaxe bildu zuen XIX. mendean, eta Duhaldek ere hala bildu du bere tesian (Duhalde 2023). Egia da, azken garaietan Ipar Euskal Herriko «batuaren» eraginez despalatalizazioa espero genukeela, hots, tradizioan palatalizatuta agertu diren formak [in] eta [il] ahoskatzea. Izan ere, Iparraldeko «batu» horrek lapurteratik eta behe-nafarreratik edaten du, eta orduan Lapurdiko kostaldean agertu izana salbuespena da (Duhalde 2023: 115). Gure corpusean [in] ikusi dugu nolatan [ɲ] ahoskatua zen zenbait hitzetan, baina /il/ hotsaren palatalizaziorik ez dugu kausitu.

Gure hiltunen familiak anitzetan barnealdekoak direla jakinda, palatalizaziorik eza espero genezake. Baina ez da hori kasua izan. Bestetik, Hegoaldeko gurasoak dituztenek palatalizazioa egingo zutelakoan geunden, eta kasu anitzetan horixe gertatu da, baina badira adibide anitz irizpide horiek betetzen ez dituztenak ere: orduan ez da gurasoen eragin soil. Honako egoera honetan zalantza izan dugu: palatalizazioaren agerpena euskalki zaharraren atxikipena ote da, edo gipuzkeraren eraginez iritsia? Hegoaldeko euskararen eragina (hedabideak, ikastola, kultura...) izan ote den susmoa dugu, ez baitugu lapurterazko ezaugarriarik topatu.

- (1) *Behobia San Sebastian* ez dakit zer idatzia **gainean**, aitarena da, milesker. (JO2408)
- (2) Izan genuen Larresoron, *fait voir*, *fin* iñor ez da... segur aski **iñor** etzan etorri. (AI2002)

6.2 Geroaldiko formetako aditzaren aspektua

Frantsesaren eragina oso nabarmena bada ere, beste faktore batzuek ere baldintzatzen dute hizkuntza, esate baterako, euskara batuak. Adinean jaitsi ahala euskara batuaren eragina handituz doa, eta zenbait herritan horren ikerketa egin da (Lujanbio 2012).

Ekialdeko hizkeretan ohikoena da /n/-z amaitzen diren aditzak geroaldiko forma egiteko /-en/ bukaera izatea (*edan* > *edanen*), eta mendebaldekoetan, aldiz, /-ko/ amaieraz egitea (*edan* > *edango*). Hegoaldeko gurasoak dituztenek halaxe ekoiztea da espero daitekeena, baina hiztun horietatik haratago doa /-ko/ bukaeraren erabilera. Adibidez, LA19 hiztunak ikastolan ikasi du euskara eta gurasoak frantsesdunak dira, baina «izango» forma ekoitzi du. Berriz ere, ikastolaren eraginagaren ondorioz izan litekeelakoan gaude.

- (3) Baina, *voilà*, ez dut klaserik **izango**. (LA1903)
- (4) Ados, *bon* entseatuko niz itea aalik eta fiteen, baiñan bearba **izango** dut pixkat beranta trenarengatik edo ola. (XA1807)

7. Kode-aldaketa

Euskara hizkuntza aglutinatzailea izan arren, badirudi B hizkuntzako txertaketak «araututako hizkuntza uharte» gisa sartzen direla perpausean A hizkuntzan, B hizkuntzako morfema funtzionalik gabe (Epelde eta Oihartzabal 2019: 241). Matrize-hizkuntza zein den galdetzen badugu, orokorrean euskara izan ohi da, nahiz eta batzuetan beharbada frantsesa edo gaztelania izan daitekeen (gure ikerketan, orokorrean euskara izan da matrize-hizkuntza; markoa frantsesa zutenak kalkoetara bideratu ditugu) (Epelde eta Oihartzabal 2019: 246). Euskaraz gauzatzen diren kode-aldaketak orokorki *insertional type* izan ohi dira, hots, txertaketak.

7.1 Diskurtso-markatzaileak

Atal honetan, diskurtso-markatzaileak (*marqueur discursifs*) eta aurreratzatzaileak (*continueurs*) izango ditugu aipagai. Ahozkoan ez dugu puntuazio-

rik ezartzen, pausen bidez ez bada, baina badira hitz batzuk (*fin, voilà*) «puntuazio» gisa erabiltzen direnak: horiek dira diskurtso-markatzaileak (DM). Frantsesezko gazte-hizkeran hitz mota hori maiztasun handiaz ageri da, eta talde-kode bat edo konplizitate-zantzu bat adierazteko balio du, haren erabilera onartua baita (Gadet 2017: 35-36).

Aldaera baten ezaugarriekin lot ditzakegu; Frantziaren kasuan, auzo txi-roetako gazteak direnak (Gadet 2017), baina Euskal Herrira erreferente kulturalen bidez transferitutako lirakeenak.

Gure adibideetan, ikusi dugu, gazteek askotan hainbat diskurtso-markatzaile konbinatzen dituztela esaldi berean, eta ahozkotasunetik kanpo, konbinaketa horiek ikustea oso arrotza izan daiteke entzulearentzat, eta halako zerbait esanez buka daiteke: «*Genre ez da fin à mode* ene ustez *fin du coup* eldu naiz larunbatetik ez?». Adibide horretan, *genre, fin à mode* eta *fin du coup* DMak ageri dira, denak batera.

Voilà hitza, adibidez, maiztasun anitz handiaz kaustu dugu gure whatsapp-audioetan. 130 whatsapp-audioetan 30 *voilà* jaso dira, eta hura ordezkatzan duten elementuak ere bai. Hipotesia, hauxe izan daiteke: audioaren amaieran edo esaldien bukaeran ageri da, hitz-hartzea amaitu egin dela adierazteko. Paternostrok (2017) esan zuen, adibide gisa, nola MPF corpuseko gazte batek segundo gutxiren barruan 13 aldiz errepikatu zuen *voilà* hitza, adierazkortasun-zantzu agresiboaz.

- (5) Zenta ene ustez batzuek bear dute batzutan eta ***voilà*** ideia bat da. (EL2406)

Halaber, beste hainbat DM agertu zaizkigu whatsapp-audioetan, *fin, mais bon, en fait, du coup, à mode* bezalakoak, besteak beste. Adibidez, *fin* erabiltzen duenean, hitzunak segurtasun falta adierazten du eta umiltasun-aztar-na erakutsi: hitzunak berdintzat joa izan nahi du, eta ez harroputz gisa ikusia (Beeching 2007: 90).

- (6) *Franchement* eman duzie *le feu, c'était trop cool*, ***fin*** giroa zueri esker. (MY2407)
- (7) ***Mais bon*** ori aparte nor doa biar EHZra? (HO2401)

- (8) Eta... eta... eta *mais en fait* zer da, gau batez *genre la nuit*? (ES1903)
- (9) *Genre* ez da *fin à mode* ene ustez *fin du coup* eldu naiz larunbatetik ez? (ES1901)

7.2 Juntagailuak eta lokailuak

Juntagailu, lokailu eta diskurtso-markatzaileen arteko muga oso fina da, batzuetan, konektore gisa erabiliak baitira, eta, beste batzuetan, ahozkoan DM bihurtzen baitira. Talde bereizi bat sortu dugu hitz mota horrekin, sailkatze aldera nolabait, baina diskurtso-markatzaileen taldean ere egon zitezkeen.

Mais hitzak frantsesez ‘baina’ esan nahi du, eta juntagailu kontzesibo gisa definienezake. Baina juntagailua dela besterik ez esatea, *mais* hitzak duen erabileraren balioa baztertzea litzateke; izan ere, diskurtso-markatzaileen artean maiztasun handienetarikoa baitu (Schlamberger Brezar 2012).

Euskaraz «baina» hitza oso maiz erabilia da baina, badirudi gazteek frantsesezko *mais* erabili nahiago dutela euskarazkoa baino, adierazkortasun handiagoa ematen omen baitie.

- (10) *Mais* Pauetik abiatzean eta *be* ez dakit, laurden bat edo oren erdi bat iritsi aitzin. (EL24039)
- (11) *Mais* barkatu, deia ez nuen bat’e ikusi zure mezua. (NE1901)

7.3 Izenak

Gramatika-kategorien artean, izena da kode-aldaketan gehien ageri dena. Hain zuzen ere, A hizkuntzan atzerriko hitzak erabiltzeak, zentzu desberdin bat eraikitzen laguntzen du. Fenomeno horri «xenismoa» deitu izan zaio. Normalean, euskara batutik edo hizkuntza estandarretik, oro har, haratago erabiltzen dira eta hiztun-komunitate baten beharrak halaxe eskatuta sartzen dira (Guerin 2018).

Euskararen eta frantsesaren kasuan, bikote interesgarria da frantsesak eta euskarak oso fonologia desberdina baitute (Oñederra 2009), eta, beraz, ikustekoa da ea mailegu hori hartzean hitza egokitzen duten edo ez. Euskarak bost bokal ditu, denak ahokariak, gaztelania bezala eta gaskoierak bezala; horrek eragina izan du Ipar Euskal Herrian hitz egiten den frantsesean, eta hurrengo bokal pare hauek neutralizatu dituzte (Duhalde 2023):

- [a] ~ [ɑ]
- [e] ~ [ɛ]
- [ø] ~ [œ]
- [o] ~ [ɔ].

Hasteko, fonologiari dagokionez, euskararen fonologiara egokitutako izen bat edo beste agertu zaigu.

- (12) Egiten dut **bilan** bat aiekin eta aipatzen diet erran dugun guzia.
(RO2102)

- (13) *Engros, moi si tu les a*, erraiten duzu **permisa**⁹ galdu dudala.
(JO2406)

Baina hitz anitz frantsesez ahoskatzen diren moduan txertatuak dira euskarazko egitura gramatikaren bidez, beraz, argudia daiteke mailegatze fonologikoa ere badagoela. Izenekin egiten den kode-aldaketaren barruan haxe da beharbada ohikoena, izan ere lekuko guztiek gaztetan jabetu baitute frantsesa eta ez dute arazorik frantsesezko hotsak ekoizteko (Epelde eta beste 2020).

- (14) Eta ondotik lagunduko dut ene ustez E. **cremaillère**a prestatzen, *voilà*. (TH2305)

- (15) Ta pentsatzen duzu **introan** erraiten aal dudala «orra zuen aste untako aktualitate dosia» **dosearentzat**. (LA1927)

Hainbatetan, izen-sintagma osoak txertatu dituzte lekukoek perpausetan, determinatzaileak barne.

- (16) Badut **la crève**, ene ustez arrapatu dut zu ikusi aitzin. (ES1902)

⁹ 'Gida-baimena' esan nahi du, frantsesezko *permis* hitzetik dator.

7.4 Aditzak

Kode-aldaketari buruzko atalean aipatu dugun bezala, aditz elebidunak interes handiko gaia dira (Muysken 2000). Aditz elebidunak lau mota desberdinetan sailkatu zituen Muyskenek: a) txertaketak, b) aditz konplexuak, c) nominalizazioak eta d) aditz laguntzaile-infinitibo bikotea. Gure lagineko testuetan, alta, soilik txertaketa mota (*insertional type*) ediren dugu.

Hala ere, badira autore batzuk ados ez direnak aditz elebidunei kode-aldaketaren parte direla esatearekin, baina artikulu honetan kode-aldaketaren esanahi zabalena hartzea erabaki dugu, eta, beraz, horren barruan sailkatzea. Orduan, bi sailetan banatu ditugu aditzak, batetik fonetikoki egokitu gabekoak eta bestetik, fonetikoki egokituak diren aditzak.

Fonetikoki egokitu gabeko aditzetan zera gertatu da: aditzak frantsesetik erauzi dira, eta aldaketa fonologikorik egin gabe euskarazko aditzaren morfema gehitu diete.

(17) Bai, situt¹⁰**emmerdatu**¹¹ pixkat azken aldi batez? (MY2402)

(18) *Est-ce que* berriz **enprentatzen**¹² aal dizut txirula? (MY2402)

Beste batzuetan, ordea, lekukoek frantsesetik hartu dute behar duten esanahia emango dien aditza, baina ez dute haren jatorrizko ahoskera gorde eta euskarara moldatu dute. Era berean, frantsesetik hartutako aditz horri euskarazko aspektu-marka gehitu diote.

(19) Ideia biziki ona, ez dakit sobera zenbatetan bukatzen den Beskoitzeko errepika ori ortako ez dut **batailatu**¹³ gehiago. (TH2309)

(20) Eta *du coup* biar ematen bada dena **dekalatua**¹⁴ izanen da. (LA1909)

¹⁰ Uste dugu 'ahal zaitu' esan nahi zuela.

¹¹ *Emmerdeatu* [ãmɛɾɛdatu] ahoskatu du.

¹² *Emprunter* frantsesaren aditza euskarazko aditz-oinarekin [ãpɾɔ̃tatsɛn] ahoskatua.

¹³ Frantsesezko *batailler* aditzetik, ahoskatu du euskarazko fonetikarekin, [batailatu].

¹⁴ *Décaler* frantsesezko aditza, 'atzeratu'.

7.5 Gaztelania

Gaztelaniazko hitzak testuinguru bakar batean kausitu ditugu whatsapp-audioetan: Hegoaldean egiten ari dira unibertsitateko ikasketak. Hortaz, ezin dugu esan zerbait hedatua denik. Alta, Hegoaldera urtero gero eta ikasle gehiago doa eta bertan Hegoaldeko formekin eta gaztelaniarekin ukipen-egoeretan egoten dira.

- (21) Ez, ori galdegiten dizut **sin más** bereziki jakiteko ori ea zenbat pertsona bear dituzuen. (EN1906)
- (22) Bon **supongo** artzen aal duela, baina ez dit ezer bidali, bitxiki. (EN1908)

7.6 Ingelesa eta sare sozialak

Guerin eta Walchsek (2017: 117-118) azaldu zuten, ingelesa gazteen erreferentzien bidez sartzen zela gazte frantsesen hizkeran: raparen bidez, zinemaren bidez, bideo-jokoen bidez edo Interneten bidez. Funtsean, eremu horietan koka ditzakegu gazteek erabiltzen dituzten anglizismoak, eta esanahi jakin bat esleitzen diete anglizismooi gazteek, ez dena bortxaz jatorrizko ingelesdunek erabiltzen dutena.

Noski, hizkuntza-ukipenak sortu duen fenomeno da, hizketaldian ingelesezko hitzak mailegatzeara edo txertatzeara, baina ez dira immigrazio-hizkuntzak edo bertako beste hizkuntzak bezala txertatzen. Gazteek badute termino horien ulerpen kolektibo bat, eta erabilpen alogeniko bat (*usage allogénique*) ematen diete: zentzu edo esangura berri bat esleitzen diote hitzari (Guerin eta Walchs 2017: 118).

Interneten dagoen informazioaren % 80 ingelesez irakur daiteke, eta, horregatik, ez da harritzekoa ingelesa izatea sareko hizkuntza hegemonikoa. Hain zuzen ere, ingelesez jaio da *netspeak* deitzen dena, hots, 'sareko hizkera'. Horren ezaugarrietako bat da, hizkera berritzen eta hitz berriak sortzen etengabe ari izatea; oso hizkera irudimentsua dela esan daiteke (Tong 2019).

- (23) *Du coup* ea argitzen aal nauzuen **please**. (EN1907)

(24) Eta P. **storyak** emaiterakoan, posible duzu identifikatzea, baina **outroan** azken **storyan**. (LA1922)

(25) *Fin*, **linkea**, bidali zenitana duela bi ilabete, ene ustez. (LA1926)

8. Kalkoak

Lapurdiko kostaldean eta Ipar Euskal Herri osoan nabarmena izan da frantsesaren eragina, prestigiozko hizkuntza frantsesa izanik, frantsesak euskarari hitz asko mailegatu dizkio (Duhalde 2023: 77). Mailegatzea ez da soilik hiztegian geratu, baizik eta fonologian eta esanahian ere atzeman ditugu antzeko fenomenoak, beraz, uste dugun baino handiagoa izan daiteke frantsesaren eragina.

8.1 Kalko fonetikoak

Euskara eta frantsesa ukipen-egoeran daude, hortaz, jatorrizko (frantsesezko) ahoskera mantentzea usaia da (Duhalde 2023: 77).

Hain zuzen ere, oroitu behar dugu, Ipar Euskal Herriko gazte euskaldun gehienak¹⁵, gaur egun, elebidun goiztiarrak direla. Gazte horiek haurrak zirelarik jabetu dira euskaraz eta frantsesez, hau da, oso adin esanguratsuan. Beste garai bateko euskaldunek arrotzak zituzten hots horiek, frantsesekoak; gaur egungo euskaldun gazteek modu naturalean bereganatu dituzte eta beren fonema-sisteman aise txertatu dituzte (Epelde eta Oihartzabal 2010; Epelde eta beste 2020).

8.1.1 Sinkopak

Sinkopa hitz baten barnean fonema bokaliko bat erortzen denean gertatzen da. Hasieran, pentsatu genuen, hiztunek hizketa-erritmo lasterra zute-

¹⁵ Ereduelebiduneko kasuak kontuan hartzen ez baditugu.

lako egiten zutela sinkopa, baina corpusaren azterketaren bidez konturatu gara, badirela hitz batzuk parte-hartzaile gehienek ekoizten dituztenak: *bakrrik* (bakarrik) edo *zta* (zeren eta > *zenta* > *zta*).

«Zeren eta» lokailua Iparraldean *zenta* kontrakzioarekin erabili ohi izan da, baina *zeta* eta *zta* kontrakzioak ere entzun daitezke orain. Hala bada, euskarazko bokal batek (a, e, i, o, u) izan behar lukeen tokian, hiztunak bera ahoskatu ez, eta horren ordeztan frantsesetik eratorria den *schwa* hizkia [ə] erabiltzen du edo guztiz ezabatzen du.

Euskaraz sinkopa fenomeno naturala da, eta Nafarroa Garaiko eta Behe-reko hizkeretan badira horren adibideak (Lujanbio 2012).

Hala ere, bokalak «ezabatzea» frantses bernakularraren ezaugarrietako bat ere bada, ahozko hizkuntza sinplifikatze aldera. Batez ere, *banlieue* edo ghettoetako gazteekin identifikatzen da eta badirudi, batik bat, Magrebeko jatorria duten gazteek baliatzen dutela (Paternostro 2017: 59). Gazte horien hizkuntza-praktikak erreferentzialtasun kulturala (rapa eta abar) baduela jakinda, ez litzateke harritzekoa euskarazko praktika ere hortixek erator-tzea...

(26) *J'avoue zta* bada bakarrik euskal *fac* ez? (NE1903)

(27) *Fin*, ortik pasten bazizte, bestenaz akomodatu niz **bakrrik**,
mais autobusak biziki luzeak dira. (LA1905)

8.1.2 Afrikazioa

Hots frikatu bat afrikatu bihurtzea da afrikazioa, demagun [s] hotsa [ts] bihurtzea. Euskaraz hiru hots afrikatu ditugu: [ts̺], [ts̺̺] eta [tʃ]. Frantziar, 2024. urte hasieran, hedabideek afrikazioaren inguruko «larrialdi-deia»¹⁶ egin zuten, gazteek afrikazioa erabiliz hitz egiten omen zutelako¹⁷. Badirudi, afrikazioa Marseillatik edo Quebecetik hedatua zela, ziurrenik (Junová 2016).

¹⁶ [https://www.radiofrance.fr/franceinter/podcasts/zoom-zoom-zen/zoom-zoom-zen-du-mercredi-21-fevrier-2024-7051760].

¹⁷ Eric Zemmour Frantziako ultraeskuineko politikariak «Afrikatik» heldu zela esan zuen...

Frantsesez, [t] eta [d] kontsonanteak [i] eta [y] bokalen aurrean jartzean gertatzen da [ts], [dz], [dʃ], [dʒ] hotsak egitea, eta gazteen hizkeraren markatzaile fonetikoetako bat da, baina ezin esan daiteke eskusiboki gazteena denik (Paternostro 2017: 59). Quebeceko frantses estandarraren parte dira [ts] eta [dz] hotsak, baina Frantziako frantses estandarrerako ezin da oraindik halakorik baieztatu. Pariseko auzo txiroetatik haratago ere ahoskatuak dira, hori bai, frantziar estatu osoan (Junová 2016; Paternostro 2018). Hala ere, frantsesez oso zaharra den fenomeno da. Afrikazioa immigrazio-egoe-ran dauden gazte txiroekin lotzen da, baina egindako ikerketa bakanen arabera gizarte-maila guztietako erabiltzaileak daude (Junová 2016).

Itxura batean, Frantziako gazte-hizkerarekin zeikusia duen fenomeno hau euskarara ere heldu da, hainbat adibide kaustu baititugu.

(28) Errazu, **maitsia**. (NE1901)

(29) Izan badu **tsitulua**, atxemanen du, *fin* nik ola iten dut.
(LA1907)

8.1.3 *Dardarkariak*

Euskarazko berezko ahoskeran hots ubularrik ez da, baina frantsesaren eraginarengatik Ipar Euskal Herrian dardarkari ubularrak dardarkari hobi-karia ordezkatu egin du (Oñederra 2004: 148). Izan ere, gertakari aski berria da hori Iparraldean (Epelde eta beste 2020: 223), baina badirudi Lapurdiko kostaldean, Donibane Lohizunen batez ere, XVIII. mende amaieran sartu zela merkataritza-harremanen bitartez, baina salbuespena izanik (Duhalde 2023). Eta horren seinale dugu, adinean jaitsi ahala dardarkari ubularraren maiztasuna areagotu egiten dela ikustea (Epelde eta beste 2020: 227).

Duhaldek (2023) Lapurdiko itsas-hegiko bere euskalkiaren deskribape-nean, lekukoek dardarkari ubularra zerabiltela zehaztu zuen.

Konturatu gara, frantsesezko jatorrizko hitzengatik edo beharbada [r], [ʁ] eta [ʀ] hotsak desberdintzeko arazoak daudelako, dardarkariekin badi-rela gorabeherak.

(30) **Jenerrikoa**¹⁸ongi ongi, *bon*, iduri dut... (HI2404)

(31) Eta metxi jiteagatik **kaskarrotetara**. (MY2407)

Goiko esaldi horretan, ziurrenik frantseseko *générique* hitza hartu du hiztunak eredu gisa, eta frantseseko [ʁ] euskaraz /r/ edo /rr/ izan daitekeenez, nahasketa eragin dio, beharko lukeen [r] ahoskatu beharrean, [ʁ] ahoskatuz.

8.2 Kalko semantikoak

Atal honetan, euskaraz topatu ditugun adierazpen lexikoak bildu ditugu, zeinek frantseseko egitura edo esanahi bat itzultzen duten (*loan translation*). Kasu horietan, frantsesa jakin behar da esanahia ongi ulertzeko, eta frantsesa ez dakienak nekez ulertuko du. Horietako batzuk maiztasun handiaz entzun ditugu; hona hemen zerrendatuta.

8.2.1 Esapideak

— SOBERA hitzaren erabilera: frantsesez *trop* adberbioa erabiltzen da oso maiz (*trop cool*), ‘gehiegi’ esan nahi du berez, eta esanahi hori euskarara pasatu da, «asko» edo horren tankerakoak erabili beharrean.

(32) *Voilà* ori **ez dut sobera ulertu**. (EN1902)

(33) Bai, E. barkatu antzi nuen, **ez dakit sobera zer erran**. (IB2301)

— HOR hitzak tokiari egiten dio erreferentzia, ez denborari, baina ‘orain’ edo ‘hemen’ esateko erabiltzen da, frantseseko *là* kalkatuz.

(34) **Or** oraintxet eldu naiz. (EL2401)

(35) Edo bearba **or** grabatzen ari nintzen audioa igortzen aal diozu nai baduzu. (NE1901)

¹⁸ ‘Generikoa’ esan nahi du, bideo hasierako musikari buruz ari da, horrelaxe ahoskatu du: [ʒeneʁikoa].

- HARA harridura adierazteko erabiltzen den interjekzioa da, eta Iparaldeko gazteek *voilà* ordezkatzeko darabiltelakoan gaude.
 (36) Jepa lagunak man dut izena eiteko txanda Z.ren urtebetetzearentzat zazpitatik amarrak arte, orduan nai baduzue nirekin egin txanda, **ara!** (XA1810)
- «Noizko» esan beharrean, ZENBATETAKO/ZENBATETAN galdetzailea erabiltzen dute lekukoek batzuetan.
 (37) **Zenbatetako** pentsatu duzu joaitea gaztetxera? (MI2102)
 (38) Ideia biziki ona, ez dakit sobera **zenbatetan** bukatzen den Beskoitzeko errepika ori ortako ez dut batailatu gehiago. (TH2309)
- GEHI hitzaren erabilera aldatu egin dute lekuko batzuek. Orokorrean, hitz hori matematikaz aritzeko erabiltzen da baina, kasu honetan *en plus* frantseseko lokailua adierazteko baliatu du.
 (39) **Gei** badut beste bat ene autoan, eta lo iten dugu zure autoan inkas ez badugu planorik... (TH2307)
- Zenbait lekukok ‘ahal dut’ esateko, *je suis dispo* itzuli dute eta DISPO NAIZ edo antzeko bat ekoitzi dute.
 (40) Berrogoita bost minutaren burian **dispo niz à peu près**. (MY2405)
- BETI ez da ORAINO. Frantsesez *toujours* erabiltzen da ‘oraindik’ esateko, baina «beti» adizlaguna entzun daiteke gauza bera adierazteko.
 (41) Or bearba ostegunetik, ez dakit kurtso duzun **beti**. (MY2404)
- Euskaraz, urte berria hasi dela opatzeko «urte berri on» erabili ohi da, baina geroz eta gehiago entzun daiteke URTE ON BAT esapidea, *une bonne année* frantseseko esapidearen itzulpena.
 (42) Are, ongi pasa eta **urte on bat** deneri! (HO2404)
- Frantsesez, «jakinaren gainean» norbait izango duzula adierazteko, *je te tiens au jus* erabiltzen da. Euskarara itzulita kausitu dugu, beraz, adibide hura whatsapp-audioetan, JUSEAN ATXIKI formaren pean.
 (43) **Atxikitzen zaitut jusean** O.K.? (MY2404)

8.2.2 Aditzak

Azpiatal honetan, gure corpusean mailegatutako esanahia duten aditz batzuk bildu ditugu.

— SARTU euskaraz toki baten barrura iristea da oro har, baina gure lagin-neko kasu batzuetan ‘etxera joan’ esan nahi du, frantsesezko *rentrer* hitzaren kalko gisa. *Je rentre* esaldiak ‘etxera noa’ esan nahi du, eta ez toki baten barnera egiteko mugimendua. Hortxe ikusten da NON kasua erabili duela lekuak, mugimendu batekin lotua baita.

(44) Biar **sartzen** naiz Pauetik bostak-bostak t’erdi ingurutan.
(EL2403)

— BERO IZAN esapideak euskaraz duen esanahia sentsazio termikoa adierazteko erabiltzen da, eta Hegoaldeko hizkeretan maiz konnotazio sexuala ere badu. Iparraldean, *je suis chaud/chaude* esapidetik dator eta esan nahi duena zera da, ‘motibatua izan’.

(45) *Mais zinez mais du coup* O. **bero baldin bazira** etortzen...
(XA1802)

— ERORI aditza ‘egokitu’ edo ‘iruditu’ aditzera emateko erabiltzen da, ez ‘jausi’ edo mugimenduarekin zerikusirik daukana adierazteko, baizik eta frantsesezko *tomber* aditza kalkatuz.

(46) Eta *fin* **erortzen** bada *pile* gure txandan, *fin* ez dakit zer pasako den edo. (EL2405)

8.2.3 Hitzzen laburdurak

Frantsesez oso ohikoa da izen arruntak luzeak badira laburtzea (*information* > *info*, esaterako), eta Iparraldean gazteek euskaraz horixe bera egiten dutela nabaritu dugu.

(47) *En plus* erran dit aiek *à bloc* baliatze zituztela erritualak beraz orukanen dituzue **info** geiago. (ES2301)

(48) Badut arazo bat ene **anpliarekin** *en fait l’HP à l’intérieur marche pas*. (TH2305)

Goiko adibideetan oinarrituta, laburdura berrien ekoizpen etengabea espero genezake, gazteek hizkuntzan duten gaitasun berritzailea berriro ere erakutsiz.

9. Ondorioak

Artikulu honetan, BAM eremuko eta horren inguruetako zenbait gazteren hizkerari erreparatu diogu. Hiru alderdi aztertu ditugu: euskara barneko aldaketak, kode-aldaketa eta kalkoak, fonetikoak eta semantikoak. Hala, frantsesaren eragina nabarmena dela ondorioztatu dugu eta euskara batua-rena, aldiz, mugatua. Beraz, gure corpusean oinarrituta baieztatu dezakegu, frantses hizkuntzak ekarri dituela berrikuntza gehien euskaldun gazte horien ahoskeran; eta horren frogara diratzen ditugun kalko fonetikoak, afrikazioak edo dardarkarien agerpen gorabeheratsuak.

Gazteek frantsesa eta euskara modu naturalean elkarrekin uztartzen dituzte: BAMEko eta inguruko herrietako gazteek guztiz integratuta dituzte euskararen eta frantsesaren hots-sistemak. Halaber, kode-aldaketa oso ohikoa da gazteen artean, batez ere eguneroko eta lagunarteko testuinguruetan. Hala, berrikuntza gehienak frantses hizkuntzatik datoz, beste batzuk ingelesetik; baina arabismorik, ordea, ez dugu aurkitu. Hala eta guztiz ere, egungo joerak ikusita, ez dugu baztertzeko hemendik gutxira gazteen hizkeran *wesh* eta antzeko elementuak entzutea.

Kalko semantikoek ere eragin handia dute gazteen hizkeran. Adberbioen eta beste esapideen itzulpen literalei dagokienez (adibidez, *sobera* eta *hor*), gure lagin-corpusean uztatu oparoa kausitu dugu. Horrez gain, gazteen hizkuntzan egitura *alienak* identifikatu dira, adineko euskaldun zaharrek ulertuko ez lituzketenak. Horrek agerian uzten du gazteen hizkerak muga linguistikoak sor ditzakeela, euskara batua partekatzen duten arren.

Sare sozialek eta whatsapp-audioek azterketa honetan funtsezko rola izan dute, gazteen ekoizpen erreala jasotzeko aukera eman baitigute. Horien bidez, hizkuntza-fenomenoak aztertzeko bide berriak urratu ditugu.

Oro har, gazteen hizkeraren bilakaerari arreta handiaz atxikitzea premiazkoa da, berrikuntzak fite gertatzen baitira sare sozialen eta kultura erreferenteen bidez. Lan honekin, gazteen hizkuntza-praktikak agerira ekarri eta euskararen bizitasunaz hausnartzen jarraitzeko gonbita luzatu nahi dugu.

Bibliografia

AIESTARAN, Maddi (2024). «Beasaingo gazte-hizkera aztergai: testuinguruaren eragina kode-alternantzia», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 69 (1): 11-47.
Kontsultagai: [https://doi.org/10.59866/eia.v1i69.272].

AMONARRIZ, Kike (2008). «Gazte hizkerak-hizkera gazteak», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 68: 167-183.

ARTZELUS, Alexander (2021). *Garaziko euskararen hizkuntza-aldakortasuna*. (Doktoretza-tesia, EHU/UPV).
Kontsultagai: [https://doi.org/10/51354].

ARTETXE, Miren, BEREZIARTUA, Garbiñe eta BURRESO, Naroa (2024). «Ahozko hizkera informalerako gaitasuna eta harreman-sare informaletako hizkuntza-erabilera: azterketa kuantitatibo bat unibertsitateko gazteen testuinguruan», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 69 (1): 49-78.
Kontsultagai: [https://doi.org/10.59866/eia.v1i69.274].

BACKUS, Ad eta DORLEIJN, Margreet (2009). «Loan translations versus code-switching», in J.T. Almeida eta B.E. Bullock (zuz.), *The Cambridge Handbook of Linguistic Code-switching*. Cambridge: Cambridge University Press: 75-94.
Kontsultagai: [https://doi.org/10.1017/CBO9780511576331.006].

BEECHING, Kate (2007). «La co-variation des marqueurs discursifs bon, c'est-à-dire, enfin, hein, quand même, quoi et si vous voulez: une question d'identité?», *Langue Française* 154 (2): 78-93.
Kontsultagai: [https://doi.org/10.3917/lf.154.0078].

BEREZIARTUA ETXEBERRIA, Garbiñe (2014). *Ingurune euskalduneko gazteak eta hizkuntza idatzia, eskolan eta eskolatik kanpo*. (Doktoretza-tesia, EHU/UPV).
Kontsultagai: [https://dialnet.unirioja.es/servlet/tesis?codigo=130503].

CALABRESE, Andrea (2009). «Perception, production and acoustic inputs in loanword phonology», in A. Calabrese eta W.L. Wetzels (zuz.), *Loan Phonology*. Amsterdam: John Benjamins Publishing Company: 59-114.
Kontsultagai: [https://doi.org/10.1075/cilt.307.03cal].

— eta WETZELS, Leo (zuz.) (2009). *Loan Phonology*. Amsterdam: John Benjamins Publishing Company.
Kontsultagai: [https://doi.org/10.1075/cilt.307].

CHESHIRE, Jenny (2023). «Multicultural London English and New-Dialect Formation», *Roczniki Humanistyczne* 71: 45-64.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.18290/rh237106.3s>].

COYOS, Jean-Baptiste (2006). «Euskararen egoeraz Iparraldean: zenbait gogoeta sarrera gisa», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 59: 27-40.

— eta BAXOK, Erramun (2010). «Gazteak, euskara eta aisialdia Ipar Euskal Herrian», *Euskera* 55 (2): 627-647.

CONSTITUTION DE LA RÉPUBLIQUE FRANÇAISE (1958). *Constitution de la République française*. (Article 2.).

Kontsultagai: [https://www.legifrance.gouv.fr/loda/article_lc/LEGIARTI000006527453]. (2025/01/10 kontsultatua).

DUHALDE, Maitena (2023). *Lapurdiko itsas hegiko euskararen azterketa dialektologikoa*. (Doktoretza-tesia, EHU/UPV).

Kontsultagai: [<https://addi.ehu.es/handle/10810/62663>].

EBERHARD, David M., SIMONS, Gary F. eta FENNIG, Charles D. (2024). *Ethnologue: Languages of the World. Twenty-seventh edition*. Dallas (Texas): SIL International.

Kontsultagai: [<https://www.ethnologue.com>]. (2024/06/01 kontsultatua).

EGIGUREN, Arantza (2024). «Baionako Bernat Etxepareko 15-18 urte bitarteko ikasleek, Ipar Euskal Herrian, ikastolatik kanpo, euskara erabiltzeko dituzten arnaguneak, oztopoak eta jarrerak», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 130: 107-136.

EPELDE, Irantzu eta OIHARTZABAL, Beñat (2010). «Perpaus barneko hizkuntza lerratzeak (HL) ekialdeko euskal elebidunetan», in *Euskara eta euskarak. Aldakortasun sintaktikoa aztergai*. ASJUren Gehigarriak bilduma, 52. zenbakia: 55-64.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.1387/asju.9869>].

— eta OIHARTZABAL, Beñat (2019). «Prepositional phrases in French-Basque and Spanish-Basque code-switches», in I. Epelde eta O. Jauregi (arg.), *Bihotz ahots*. M.L. Oñederra irakaslearen omenez. Bilbo: EHU/UPV: 241-263.

— eta OIHARTZABAL, Beñat (2020). «Ergative marking in Basque-Spanish and Basque-French code-switching», *Zeitschrift Für Katalanistik – Revista d'Estudis Catalans* 33: 77-98.

—, JAUREGI NAZABAL, Oroitz eta OIHARTZABAL, Beñat (2020). «Lapurditik Zuberoara, hots-aldaketaren argitan», in I. Camino, X. Artiagoitia, I. Epelde eta K.

Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena: Koldo Zuazori gorazarre*. Bilbo: EHU/UPV: 211-228.

ESKÉNAZI, Maxine (1993). «Trends in Speaking Styles Research», 3rd European Conference on Speech Communication and Technology Eurospeech'93. 1993ko irailaren 19tik 23ra, Berlinen (Alemania): 501-509.

ETXEBARRIA, Maitena (2015). «La situación sociolingüística de la lengua vasca hoy: País Vasco y Navarra», *Confluenze: Rivista di Studi Iberoamericani* 7 (2): 13-45. Kontsultagai: [<https://doi.org/10.6092/issn.2036-0967/5937>].

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA (EEP), EUSKO JAURLARITZA eta NAFARROAKO FORU GOBERNUA (2023). VII. *Inkesta Soziolinguistikoaaren emaitzak Ipar Euskal Herrirako 2021*.

Kontsultagai: [<https://www.mintzaira.fr/eu/tresnak/berriak/actualite-en-basque/article/vii-inkesta-soziolinguistikoaaren-emaitzak-ipar-euskal-herrirako.html>]. (2025/01/20 kontsultatua)

GADET, Françoise (2017). *Les parlers jeunes dans l'Île-de-France multiculturelle*. Paris: OPHRYS.

GARDNER-CHLOROS, Penelope (2009). *Code-switching*. Cambridge/New York: Cambridge University Press.

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA (2019). *Euskadiko gazteak eta sare sozialak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

GORRI, Eneko (2018). «Euskararen erronkak», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 106: 79-90.

— (2019). «Erabileraren aroa: begirada bat Ipar Euskal Herritik», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 112: 79-90.

GUERIN, Emmanuelle eta WACHS, Sandrine (2017). «Dynamique des mots», *Les parlers jeunes dans l'Île-de-France multiculturelle*. Paris: OPHRYS. Kontsultagai: [<https://shs.hal.science/halshs-02960062>].

— (2018). «Les emprunts urbains contemporains: une approche sociolinguistique d'un phénomène lexical», SHS Web of Conferences, 46. zenbakia. Kontsultagai: [<https://doi.org/10.1051/shsconf/20184605003>].

GUMPERZ, John (1982). *Discourse strategies*. Cambridge: Cambridge University Press.

IBARRA MURILLO, Orreaga (2014). «Tipología y pragmática del *code-switching* “vasco-castellano” en el habla informal de jóvenes bilingües», *Lapurdum: Euskal Ikerketen Aldizkaria* 18: 23-40.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.4000/lapurdum.2485>].

JUNOVA, Anna (2016). *L'affrication en français métropolitain: Enquête sociophonétique à Nice*. Brno: Masarykova Univerzita.

Kontsultagai: [<https://is.muni.cz/th/bbtcm/>].

LANTTO, Hanna (2015). *Code-switching in Greater Bilbao: A bilingual variety of colloquial Basque*. Helsinki: University of Helsinki.

LUJANBIO, Oihana (2012). «Hizkuntza-aldakortasuna Goizuetako euskaran», *Uztaro: Giza eta Gizarte-zientzien Aldizkaria* 80: 77-97.

MATEOS URIBARREN, Sara (2023). *Hizkuntza-praktikak: Sare sozialetatik hezkuntza arlora. Eraginak eta abantailak*. Irakaskuntza Masterra: Hizkuntza eta Literatura (IMHLM). (UEUko Goi-mailako Online Institutuko Master Amaierako Lan argitaragabea).

MUÑOBA BARREDO, Inma (2003). «Pragmatic functions of code-switching among Basque-Spanish bilinguals», *Comunidades e Individuos Bilingües: Actas Do I Simposio Internacional Sobre o Bilingüismo* (Universidade de Vigo). 1997ko urriaren 21etik 25era, Galizian (Espainia): 528-541.

MUYSKEN, Pieter (2000). *Bilingual Speech: A Typology of Code-Mixing*. Cambridge: Cambridge University Press.

OLTZOMENDI, Argia (2020). «Langue basque et variation dans l'enseignement au Pays basque nord», in G. Forlot eta L. Ouvrard (zuz.), *Variation linguistique et enseignement des langues: Le cas des langues moins enseignées*. Paris: Presses de l'Inalco: 175-187.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.4000/books.pressesinalco.40042>].

OÑEDERRA, Miren Lourdes (2004). *Fonetika fonologia hitzez hitz*. Bilbo: EHU/UPV.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10/49765>].

— (2009). «Early bilingualism as a source of morphonological rules for the adaptation of loanwords», in A. Calabrese eta W.L. Wetzels (arg.), *Loan Phonology*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Publishing Company: 193-210.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.1075/cilt.307.08lou>].

— JAUREGI, Oroitz eta EPELDE, Irantzu (2014). «Hiztunaren fonema-inbentarioa eta elebitasun goiztiarra: euskara gehi frantsesa vs euskara gehi gaztelania», *Lapur-dum: Euskal Ikerketen Aldizkaria* 18: 75-95.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.4000/lapurdum.2504>].

OSA, Erramun eta AIERDI URRAZA, Xabier (2009). «Immigrazio berria, hizkuntza arazo berririk?», *Euskera* 54 (3): 1433-1452.

PATERNOSTRO, Roberto (2017). «Les jeunes ont-ils un accent ?», *Les parlers jeunes dans l'Île-de-France multiculturelle*. Paris: OPHRYS: 55-72.

PEREZ GAZTELU, Elixabete eta ZULAIKA IJURKO, Esther (2016). «Adierazgarritasun-zantzuak euskal gazteen txatetan ;)», *Gogoa* 14: 105-130.

— (2022). «Unibertsitateko gazteen praktika birtualak, heteroglosiaren gertaleku», *Gazte eleaniztunak: Mintzalari eta mintzagai*. Bilbo: EHU/UPV: 225-244.

PÉREZ GONZÁLEZ, Mikel (2024). «Kode-alternantziaren erabilera euskara-gaztelania gazte elebidunen artean», *Uztaro: Giza eta Gizarte Zientzien Aldizkaria* 128: 5-19.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.26876/uztaro.5061>].

POPLACK, Shana (1980). «Sometimes I'll start a sentence in Spanish y termino en español: toward a typology of code-switching», *Linguistics* 18: 581-618.

RAMPTON, Ben (1995). *Crossing: Language and ethnicity among adolescents*. London/New York: Longman.

SCHLAMBERGER BREZAR, Mojca (2012). «Les marqueurs discursifs mais et alors en tant qu'indicateurs du degré de l'oralité dans les discours officiels, les débats télévisés et les dialogues littéraires», *Linguistica* 52 (1): 225-237.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.4312/linguistica.52.1.225-237>].

TONG, Lu (2019). «An Analysis on the Forms and Characteristics of English Netspeak», *4th International Conference on Social Sciencies and Economic Development*. (Argitalpen digitala).

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.2991/icssed-19.2019.89>].

URIARTE, Endika (2024). «Ergatiboaren erabilera euskara-gaztelania kode-alternantzia: kasu-azterketa bat», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 69 (1): 207-252.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.59866/eia.v1i69.279>].

Lagunarteko hizkera langai ikastolan: bi ikasturteko esku-hartzearen implementazioa eta emaitzak

Desarrollo del lenguaje coloquial en la *ikastola*:
implementación de la intervención en dos cursos
académicos y resultados

Étude sur le langage amical à l'*ikastola* : mise en œuvre
et résultats de l'intervention sur deux années scolaires

Speech among friends at the *ikastola*: implementation
and results of a two-year intervention

ALONSO AMEZUA, Idurre¹

Euskal Ikasketetan doktorea eta Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea

Euskal Kulturaren Eragiletza (Mondragon Unibertsitatea)

ialonso@mondragon.edu

ORCID: <https://orcid.org/0000-0001-5191-5022>

BEREZIARTUA ARRUABARRENA, Aritz²

Ikastolen Elkarteko Gorputz Hezkuntza arloko arduraduna eta material didaktikoaren sortzailea

abereziartua@ehi.ikastola.eus

MENTXAKATORRE ODRIOSOLA, Jon³

Euskal Kulturaren Eragiletza (Mondragon Unibertsitatea)

jmentxakatorre@mondragon.edu

ORCID: <https://orcid.org/0000-0002-7101-0084>

¹ Ikerkuntza-lan honen kontzeptualizazioa, analisia, metodologia, idazketa, edizioa eta berrikuspena.

² Ikerkuntza-lan honen metodologia, datu-jasotzea eta artikulua berrikuspena.

³ Ikerkuntza-lan honen edizioa eta berrikuspena.

LASA AGIRREZABAL, Xabier⁴

Ikastolen Elkarteko Hizkuntza Egitasmoetako mahaiburua

xlasa@ehi.ikastola.eus

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2025i10.307>

Jasotze-data: 2024/12/20

Behin-behineko onartze-data: 2025/06/04

Behin betiko onartze-data: 2025/07/02

Ikerketa hau Euskaltzaindiaren Mintzola egitasmoak, Ikastolen Elkartek eta Mondragon Unibertsitateak elkarlanean gauzatu dute. 2022-23 eta 2023-24 ikasturteetan, Lehen Hezkuntzako laugarren eta bosgarren mailako ikasleekin, lagunarteko hizkeran erabili ohi diren hainbat esamolde landu dira Euskal Herriko lurralde desberdinetako hamar ikastolatan, dela ikasgela barruan, dela aisia-esparruan. Funtsean, ikertu nahi izan da, hizkera informala ikas-tetxeko testuinguruan lantzeak eraginik ote duen lagunarteko komunikazio informalean.

Gako-hitzak: Lehen Hezkuntza, aisialdia, lagunarteko hizkera, hizkuntza-ohiturak, esamoldeak.

Esta investigación ha sido llevada a cabo conjuntamente por el proyecto Mintzola de Euskaltzaindia, la asociación Ikastolen Elkartea, y Mondragon Unibertsitatea. Durante los cursos académicos 2022-23 y 2023-24, se han trabajado diversas expresiones del lenguaje coloquial con alumnos y alumnas de los cursos cuarto y quinto de Educación Primaria en diez *ikastolas* de varios territorios del País Vasco, tanto en situaciones desarrolladas dentro del aula como en momentos de ocio. El objetivo principal ha consistido en investigar si el desarrollo del lenguaje informal dentro del contexto escolar influye en la comunicación informal.

Palabras clave: Educación Primaria, ocio, lenguaje coloquial, hábitos lingüísticos, expresiones.

La présente recherche a été réalisée conjointement par le projet Mintzola d'Euskaltzaindia, l'association Ikastolen Elkartea, et l'Université de Mondragon. Au cours des années scolaires 2022-23 et 2023-24 nous avons travaillé avec les élèves de CM1 et CM2 sur plusieurs expressions couramment utilisées dans le registre amical en classe ainsi que dans la cour de

⁴ Ikerkuntza-lan honen berrikuspena.

récréation, ceci dans une dizaine d'*ikastolas* des différents territoires du Pays basque. L'objectif était d'étudier si la pratique d'un langage informel dans le contexte scolaire a un impact sur la communication amicale non-formelle.

Mots-clés : Enseignement primaire, loisir, langage amical, habitudes langagières, expressions.

This research was carried out together by the Mintzola Project of Euskaltzaindia, Ikastolen Elkartea association, and Mondragon University. During the 2022-23 and 2023-24 academic years, we worked both in the classroom and during the students' leisure time on various expressions commonly used in informal speech; the participants were primary school students in the fourth and fifth grades in ten *ikastolas* in different territories of the Basque Country. The purpose of this study was to examine whether the development of informal speech in a school context had an effect on informal speech among friends.

Keywords: Primary Education, leisure time, informal speech, language habits, expressions.

ALONSO AMEZUA, Idurre eta beste (2025). «Speech among friends at the *ikastola*: implementation and results of a two-year intervention», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 70 (2): 229-260.

1. Sarrera
2. Oinarri teorikoa
3. Metodologia
4. Emaizen analisia
 - 4.1 Datu orokorrak
 - 4.2 Datuak lurraldeka
 - 4.3 Datuak adinaren arabera
 - 4.4 Datuak sexuaren arabera
 - 4.5 Aisia-esparruko esamoldeen hizkuntza
 - 4.6 Aisia-esparruko esamoldeen izaera
5. Eztabaida eta ondorioak

Bibliografia

1. Sarrera

Artikulu honek Arikala egitasmoaren esku-hartzearen garapen-aztarnak ikertzea du helburu⁵. Hain zuzen ere, 2022-23 eta 2023-24 ikasturteetan Euskal Herriko hamar ikastolatan, lagunarteko hizkera modu ludikoan lantzeak haurrengan izan duen eragina neurtu da aisia-esparruan, dela hizkuntzaren hautuan, dela esamoldeen erabileran. Ikastola horietan egindako esku-hartzeek euskal esamoldeak izan dituzte jomugan. Ikasleek erdal hizkuntzetan gehien erabiltzen dituzten esamoldeak aztertu ostean egin da materialaren diseinua, eta esku-hartzea hasi aurretiko eta amaitu osteko uneak behatu dira neurketetarako. Orotara, 433 ikaslek osatu dute azterketaren lagina, eta bi ikasturteetan ikasle berberen datuak jaso dira; lehen ikasturtean Lehen Hezkuntzako 4. mailan zeudela jaso ziren datuak, eta bigarren ikasturtean, berriz, 5. mailan zeudela. Era berean, artikulu hau Bereziartua eta beste (2023) artikuluen jarraipena da. Lan hartan, diseinu deskribatzailearen bidez, datu kuantitatiboak bildu ziren, ikasleek bete beharreko galdetegiaren eta beren aisialdiko behaketa sistematikoen bidez (kasu guztietan jolas-orduko tarteak zein bazkalgaraikoa aztertu ziren). Izan ere, hizkeraren inguruko ikerketa hau, hizkera bera sortzen den testuinguruan gauzatu nahi izan zen. Adierazleei dagokienez, solaskideak identifikatzen zituzten ezaugarriez gain (sexua eta adina), elkarriketa gauzatzen zen egoerari (jolasa vs bestelako elkarriketa) ere erreparatu zitzaion. Entzundako esamolde zehatzak bildu ziren, eta jasotako esamoldeok kategoria-sistema erabilia banatu eta kuantifikatu ziren. Hala, datuek iradoki zuten, haurrek gehien erabiltzen dituzten esamoldeak, hurrenez hurren, «aldeko-tasuna», «kontrakotasuna», «harridura» eta «bestelakoak» adierazteko era-

⁵ Egileok eskerrak eman nahi genizkieke Euskaltzaindiari, Ikastolen Elkarteari eta Mondragon Unibertsitateari, proiektua abian jarri eta denok euskararen normalizazioan ipar berarekin lanean jartzeko erakutsi duten prestutasunagatik. Esker berezia zor diegu materiala inplementatu duten hezitzaile eta irakasleei.

Arikala egitasmoaz gehiago jakiteko:

[<https://www.euskaltzaindia.eus/mintzola/ikerketa/deialdiak-2023/423-mintzola/ikerketak/6859-arikala-ikerketa-ekintza>].

bilitakoak zirela, horregatik, bada, kategoria horien barruan sailkatu ziren esamolde guztiak.

Galdetegien datuen arabera, lagina osatzen duten haurren % 64k dute lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara, eta kalean euskaraz, edo euskaraz eta erdaraz, % 51,96k egiten dute. Ikastolako aisia-esparruan gauzatutako behaketen datuen arabera, ikerketa abiatu zen unean elkarrizketen % 59,22 euskaraz izan ziren. Elkarrizketa guztietan, hala ere, euskarazko esamoldeen ehunekoek nabarmen egiten zuten behera, % 38,03ra, hain zuzen ere⁶. Orduan jasotako datu horiek Arikala egitasmoaren esku-hartzeak egin aurretikoak ziren; ostean hainbat esku-hartze egin dira bi ikasturteotan. Ikerketa-ekintza horren emaitzak dira hemen jaso ditugunak, bi ikasturte hauetan elkarrizketa-hizkuntzak nahiz esamoldeen hizkuntzak alderik erakusten ote duten aztertzeo.

Artikuluaren egiturari dagokionez, lehendabizi egitasmoa abiatzeko hel-duleku izan ditugun oinarri teorikoak eskainiko ditugu. Horren ostean, esku-hartzeak inplementatzeko eta datuak jasotzeko erabilitako metodologia deskribatuko dugu. Ondorengo atalean, emaitzen analisia egingo dugu, bi ikasturteetako datuak eskainiz; horietan, ikasturte bakoitzaren irakurketa eta bi ikasturteen datuek iradoki dituzten emaitzak eskainiko ditugu. Azke-nik, eztabaidaren eta ondorioen atala garatuko dugu.

2. Oinarri teorikoa

Euskal elebidunak edo elebidun orekatuak euskara erosotasunez erabil-tzeko gaitasuna dutenak dira (Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua

⁶ Aztertutako ikastolen testuingurua ulertzeko lagungarri izan daitekeelakoan, ikastolak kokatuta dauden herrietako euskaldun-kopuruak emango ditugu jarraian. Honako hauek dira lagina osatzen duten ikastolak: Gipuzkoan, Hautzaro (Oiartzunen biztanleen % 75,92 da euskalduna, euskaldun hartzaileak kontuan izan gabe) eta Irura (% 72,43 euskalduna); Bizkaian, Abusu (Bilbo; % 29,85 euskalduna) eta San Nikolas (Getxo; % 32,3 euskalduna); Nafarroan, Jaso (Iruñea; % 11,4 euskalduna) eta Lizarra (Lizarra; % 12,8 euskalduna); Araban Assa (LaPuebla de Labarca; % 28,33 euskalduna) eta Audio (Audio; % 34 euskalduna); eta Ipar Euskal Herrian Kimua (Angelu; % 8,4 euskalduna, BAM —Baiona-Angelu-Miarritze— eremuan) eta Gure Ikastola (Hendaia; % 22,9 euskalduna Lapurdin, BAM eremua kontuan izan gabe).

2017). Erosotasunak bi dimentsio ditu: indibiduala, norberari lotzen zaiona (gaitasun egokia izan behar du batek eroso aritzeko), eta soziala, elebidunen dentsitatea eta kontzentrazioa (euskaraz egiteak izan dezakeen onarpen soziala, jardun-guneetako erabilerarako arau sozialak, hizkuntzaren prestigioa). Azken urteetan, ezagutza handituagatik, erabilera erosorako gaitutako hiztun-kopurua ez da hainbeste hazi eta, gainera, elebidunen gorakada erdal eremuetan gertatu da nagusiki; erabilera erosorako baldintza zailak dituzten eremuetan, alegia (Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua 2017). 2023an Soziolinguistika Klusterrak argitaratutako datuen arabera, Araban eta Nafarroan izan ezik, gainontzeko lurraldeetan behera egin du euskararen kale-erabilerak (Ipar Euskal Herrian inoizko erabilera-indizerik baxuena jaso dute). Bestalde, hamar urteotan adin-talde guztietan atzerakada izan da, Ipar Euskal Herriko haurren kasuan izan ezik (horien artean, euskararen erabilera 2,5 puntu igo da).

Beraz, egin izan diren irakurketak beste termino batzuen arabera aztertuta, elebidunen gorakada nabarmena da, baina ez hainbestekoa euskal elebidunena edota elebidun orekatuena, eta, ondorioz, erabilerarako baldintzak ez dira horrenbestean hobetu. Euskaldun gehienek ez dute harreman-sare nahikoa euskara normaltasunez erabiltzeko, eta euskara etxetik kanpo ikasi duen askorentzat eskola edo eskolako lagunartea da euskaraz aritzeko aukera bakarrenetakoa (Aizpuru 2018). Iurrebasok (2021) emandako datuen arabera, 2016an 16 urtetik gorako hiztunen % 7,4ri bakarrik zitzaion errazagoa euskaraz hitz egitea erdaraz baino, eta, aldiz, erdaraz errazago moldatzen zirenak % 84,6 ziren.

Ildo horretatik, etxeko eta kaleko giroa erdalduna duten ikasle askok, eskola euskaraz jaso arren, ikaskideekin modu informalean hitz egiteko zailtasuna dute. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak (2009) esanda daukan moduan, euskara modu informalean hitz egiten ere ikasi egin behar da. Lagunarteko hizkera horretan, besteen artean, mota askotako esamoldeak eta lexiko-aldaerak daude. Halako formulek garrantzia dute kultura eraikitzeko edo sendotzeko orduan, baina eskoletan isolatuak dira hizkera formalaz gaindiko lanketak, eta gazteen erreferentzia-eremuetan erdarak dira nagusi. Gainera, hizkera informala edo lagunartekoa euskalkiekin lotu izan da sarri, eta formala, berriz, euskara batuarekin, baina horrek ez du

horrela izan behar, ezinbestean. Bide horri tiraka, euskalkirik ez duten ikasleetan «lagunarteko euskara batu informala» indartzean eta zabaltzean egon liteke gakoa.

Hortaz, hezkuntza-sistemak egungo hiztunen gabeziei egin behar lieke aurre, eta horretarako, hizkuntzak lantzeko garaian hiztun tipologiaren beharrak identifikatzea funtsezkoa da. Amonarrizek (2015) dioen moduan, hiztunen tipologian gertatutako aldaketa sakonak ikasleen beharren aldaketa ekarri du; lehen prototipoa euskaldun zahar alfabetatugabea zen, eta orain erdal elebiduna, ahozkotasunean gabeziak dituen. Era horretan, hiztun berriak lortu nahi izatetik, euskara, ikasle gehienentzat, eskolako hizkuntza izatera pasatu da: «Lehen hizkera formala zen lehentasuna eta gaur egun hizkera kolokial-informala lehentasuna izatera iritsi da, formaren garrantzia gutxietsi gabe» (Amonarriz 2015: 112). Edozelan ere, garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea, edozein hizkuntzak aukera-sorta zabala duela erregistroetan, eta gurean ere, ez dela mugatzen batu formalerako edo aisialdiko lagunarteko informalerako. Horregatik, bada, egitasmoaren helburua ez da lagunarteko informala ikasgelan erabiltzea, baizik eta ikasgelarako nahiz aisia-esparrurako baliabideak eskaintzea lagunarteko erregistroa erabiltzea egoki den testuinguruetan euskaraz erabiltzeko gaitasuna izan dezaten.

Era berean, Zalbidek (2011) aipatu zuen, eskolak ez dituela gazteak, gaur egun, aldaeren aberastasunaz jabearazten eta hizkera sinplearen abantailak nabarmentzen, eta bide horretatik jo beharko litzatekeela iradoki zuen.

Euskararen didaktikak, beraz, hizkera formala eta informala bereizi eta irakastea du erronka, baita euskara batuaren eta euskalkien arteko uztardura eta banaketa egoki kudeatzea ere. Gainera, Zarragak eta bestek (2010) aipatzen duten moduan, hizkuntza gehienak bestelako hizkuntzekin hartu-emanetan daude, eta ukipen-egoeran dauden hizkuntzek, ezinbestean, elkarren eragina jasotzen dute bai fonologian, bai morfosintaxian, bai lexikoan. Euskal Herrian, baina, euskara beste hizkuntza nagusi bien aurrean hizkuntza gutxi(ago)tua izanik, eragin hori handitzen ari da, eta frantsesaren eta espainolaren ezaugarriak barneratu egin dira euskararen maila linguistikoko guztietan.

Gizarte orok, kultura orok azken batean, komunikatzeko orduan garrantzi-tsuak zaizkion dimentsioak aintzat hartuz, behar dituen molde eta arauak ezar-tzen ditu errepertorioaren bidez. Gazte-hizkera, hain zuzen ere, errepertorio horren aldaera funtzionaletakoa bat da, eta dibergentzia, desberdintasuna eta ezarritako araua apurtuz eraikitzea da aldaera hori sortzeko biderik erabiliene-tako bat (Álvarez 2019). Hizkuntza, baina, taldearen esperientziaren eta erre-ferentzien gainean ehuntzen da, eta Euskal Herrian gazteek ez dute euskararen erabilera «normalizatua» egiteko inguru «normalizaturik» (Esnaola 2000).

Ondorioz, hizkuntza hegemonikoetan gazteen artean argot berriak berez gorpuzten badira ere, euskararen kasuan gazteek (nahiz helduek) erdaretara jotzen dute behar dituzten adierazkortasun-errekurtsoen bila; berdin ger-tatzen da adinez nagusi diren edota unibertsitatean diren gazteen artean (Ibarra 2014: 35-36; Lantto 2016: 139-140; Artetxe eta beste 2024: 63-69). Euskal hitun-komunitatearen egoera gutxitua erakunde-mailako botereari zuzenean lotzen zaion heinean, elebitasuna norabide bakarrean izan ohi da (euskaratik erdaretara, alderantziz ez), eta hizkera informalean eta adieraz-kortasuna irabazi nahian, kode-aldaketa euskaratik erdaretara aldatuz egi-ten da, oro har. Hori dela eta, euskaraz berrikuntza gutxi sortzen dute, eta ez dago argot berririk gazteen artean:

Ez dago Euskal Herri osoko gazteak komunikatzeko behar den gazte-hizkera erreferentzialik, ezta oinarritzorik ere. Gaur egungo ukipen-egoeran gazte-hizkeraren bi eremu sortzen ari direla esan daiteke: bata ekialdekoa (frantsesaren eraginpeko lurraldeetan gorpuzten ari dena), eta bestea mendebaldekoa (espainieraren eraginpeko lurraldeetan gor-puzten ari dena). Bereizketa horren gainetik elkar lotzen gaituzten elementuak ahulegiak dira oraingoz joera hori itzularazteko.

(Esnaola 2000)

Bestalde, euskararen normalizaziorik ezak baditu beste ondorio batzuk ere. Interesgarriak dira, esaterako, Olasagarreren eta besteren (2019) iker-ketak azaleratu dituen emaitzak. Besteen artean, euskara-mailarekin arazo-rik ez duten ikasle batzuek hizkuntza-erregistroak aipatu dituzte erabilera-rako oztopo gisa: batetik, eskolan ikasten duten euskara ez delako etxean erabiltzen duten berbera; eta, bestetik, eremu erdaldunetako ikasleek dara-

bilten euskararekiko «sentitzen» duten distantzia edo tartea handia delako. Beste aldean, hizkuntzarekiko atxikimendu altua baina gaitasun eskasa duten ikasleengan barne-gatazkak, lotsa, segurtasun falta eta antsietatea azaleratu dira (Olasagarre eta Ramos 2021). Testuinguru horretan, ikasleak motibatu egin behar dira hizkuntzen arteko aukeraketa etengabea euskarari lekua emateko (*Ibidem*).

Horregatik guztiagatik, hainbat ikerketak jarduera ludikoen onurak aipatuak dituzte hizkuntza irakasteen faktore sozializatzaile eta motibatzaile gisa, non jolasa jakintzak sustatzeko, ezagutzak eraikitzeko eta ikaste-testuinguruak sortzeko bitarteko den (Hernández eta beste 2020). Hizkera informalaren ikaskuntza-prozesuei dagokienez, pentsatzekoa da egoera ludikoak lagungarri izango direla ikasleen arteko komunikazio-modu berriak taxutzeko eta, Teixeira (1995) dioen moduan, ikaslearen izaeraren aspektu desberdinak integratzeko.

Bestalde, motibazioaz gain, erabileraren eta ezagutzaren arteko arrakalan badira beste faktore garrantzitsu batzuk ere:

Ezagutzaren beraren nolakotasuna (ikasleen ahozko gaitasunaren ahulezia eta hizkuntz erregistroen desoreka) erabilerarako baldintza oso garrantzitsua da, are gehiago hezkuntzaren ikuspegitik begiraturat. Beste alde batetik, baldintza estrukturalak ere kontuan hartzeak dira, hiztunaren borondatearen maila erabat gainditzen baitute.

(Ramos eta Olasagarre 2022)

Ildo horretatik, Ramos eta Olasagarrek (2022) aipatuta daukaten moduan, irakasleek soziolinguistikari nahiz psikolinguistikari buruzko oinarriko kontzeptuak ezagutzea ezinbestekoa izango da ikasleen egoerak, indarguneak eta hutsuneak ulertzeko eta balizko esku-hartzeak bideratzeko.

Bestalde, Arrue proiektuak frogatu duen moduan (Martinez de Luna eta Suberbiola 2017), euskararen erabilera nabarmen apaltzen da LH 4tik DBH 2ra bitartean, ikasmailek gora egin ahala, eta apaltze hori gero eta nabarmenagoa dela esan daiteke:

2013an LH 4an zen ikasleriak DBH 2ra iristean (2017) eskolako erabileretan izan duen atzerakada, 2011ko ikasleek tarte berean izan

zutena baino handiagoa izan da: 2011-15 ikasle-multzoak 14,1 puntuko diferentzia edo atzerakada izan zuen ikasleen LH 4ko datuetatik DBH 2koetara (eskolako erabilera orokorra). 2013-17 ikasle-multzoan, berriz, diferentzia hori 18,3 puntukoa izan da; hau da, lehen ikasle-multzoan baino 4,2 puntu handiagoa.

(Martinez de Luna eta Suberbiola 2017: 34)

Ondorioz, pentsa daiteke LH 4tik aurrera hizkuntza-ohiturak aldatu egiten direla, dela hizkuntzarekiko atxikimendu eta motibazio faltagatik, dela bestelako arrazoiengatik. Ikasleak sexuaren arabera bereizita, aipatzekoa da, LH 4an nesken batez besteko erabilera orokorra altuagoa dela mutilena baino, Martinez de Luna eta Suberbiolak (2017) egindako lau neurketetan, 2-3 puntu altuago (DBH 2an alde hori ez da hain nabarmena). Bestalde, ikerketa beraren arabera, 2011. eta 2017. urteen artean, erabileraren bilakaera positiboagoa izan da nesken artean mutilen artean baino, bai LH 4an, bai DBH 2an. Euskararen Adierazle Sistemako datuen arabera (2024), ikasleen euskararen erabilera eskolan honako hau izan zen 2019an: ikaskideekin jolaslekuan, nesken % 26,2k egiten zuen beti euskaraz, eta mutilen %19,5ek. DBHn, berriz, beti euskaraz aritzen ziren nesken kopurua %13,3koa zen, eta mutilena, berriz, % 12,7koa. Nafarroari dagokionez, aldiz, Iruñerrian haurren % 7,8 aritzen da beti euskaraz jolaslekuan LH 4an, eta DBHn, ordea, % 0,7. Estellerrian, berriz, % 17 LH 4an eta % 0, DBH 2an⁷. Datu horiek berresten dute, batetik, LHn euskaraz aritzen direnen kopurua DBHkoa baino altuagoa dela, eta bestetik, LHn, behintzat, esanguratsua izan daitekeela sexuaren araberrako bereizketa. Nafarroako kale-erabileraren datuei dagokionez, gazteen artean alde nabarmena dago sexuaren araberrako bereizketa eginez gero, eta Anduaga eta Kasaresek (2018) ondorioztatu zuten, gaztaroan euskararen erabileraren nolabaiteko «feminizazioa» atzematen dela.

Hain zuzen ere, euskararen «feminizazioaz» eta «menderakuntzen naturalizazioaren arriskuaz» mintzo dira Agirre eta Eskisabel (2019). Azpimarratu

⁷ Jolaslekuan beti euskaraz aritzen direnen datuetan, ez dugu sexuaren araberrako bereizketarik Nafarroako laginari dagokionez.

dute, azpiratze-egoeran dagoen norbanakoari sinetsarazten zaiola horixe dela berez dagokion lekua, eta horren ondorioz praktika jakin batzuetarako dagoe-la gaituta, eta beraz, beste batzuetarako, desgaituta; «azken batean, haien ezaugarri eta gaitasunen arabera posizioa dutela botere-sarean» (Agirre eta Eskisabel 2019: 25). Emakumezkoei, lan erreproduktiboarekin eta zaintzarekin lotutako funtzioak atxiki zaizkie, hots, gizarte-aitortzaren irabazirik ez dutenak. Era berean, hizkuntzaren eta hiztun-komunitateen oinarrian, praktika komunitarioak daude. Testuinguru horretan, erdalduna izanagatik euskaraz bizi nahi duen komunitateak praktika hori gauzatzen duenean gertatzen da hizkuntza-menderakuntza eta orduantxe pizten da gatazka, emakumea izatearen genero-aginduak dioenaren bestelako praktika bat egiten denean gertatzen den bezala: «praktika ez-hegemoniko eta arautuan agertzen eta egiten dira euskalduna eta emakumea» (Agirre eta Eskisabel 2019: 41).

Euskararen eta emakumezkoa izatearen arteko balizko lotura hori aintzat hartuko dugu datuen analisian, eta aztertutako laginean euskararen erabilerak eta emakumezkoa izateak elkarren arteko harremanik azaleratzen ote duten ikusiko dugu.

3. Metodologia

Orotara Euskal Herriko hamar ikastolak osatu dute ikerketaren lagina: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroatik bina ikastola hartuta, eta Iparraldeetik beste bi. Guztira 433 ikasleren datuak jaso dira, 2022-23 ikasturtean Lehen Hezkuntzako laugarren mailan zeudenak, eta 2023-24 ikasturtean, berriz, Lehen Hezkuntzako bosgarren mailan. Hortaz, bi ikasturteetan bildutako datuak dira hemen aurkeztu direnak. Zera aipatu behar dugu, datu horiek egitasmo zabalago baten barruan kokatuta daudela. Egon ere, hiru ikasturteko egitasmoa abian dago, aipatutako ikastoletan.

Egitasmoa abian jartzearekin bat, aztergai genuen lagina ezaugarritu genuen: ikasleen etxeko hizkuntza, kaleko hizkuntza-ohiturak, eta esku-hartzeak egin aurretik ikastolako aisia-esparruan egindako behaketen emaitzak (Bereziartua eta beste 2023). «0 puntua» deitu genion hasierako egoera horri, eta 0 puntu hartatik gaur egunera arteko garapen-aztarnak ekarri

nahi izan ditugu hona, bai eta datorren ikasturterako erronkak zeintzuk diren definitu ere.

Ikerketa honen esku-hartzearen eremuak bi izan dira hasieratik: ikasgela-barrua eta ikastola barneko aisia-esparrua. Ikasgela barruan sei astez aritu dira irakasleak, astean bi orduz, hizkera informala lantzeko esku-hartzeak egiten bi ikasturteotan. Aisia-esparruko esku-hartzeei dagokienez, lehenbiziko urtean sei aste horietako azken hiruretan kokatu dira, eta astean lau orduz (egunean ordubete, lau egunez) jardun dute hezitzaileek haurrekin patioan jolasean. Bigarren ikasturtean, berriz, hezitzaileen jarduna denboraz luzatu eta intentsitatez jaitsi egin da, esku-hartzea astean bi egunera murriztuz (eta beraz, 6 astetara zabalduz). Izan ere, ikasleek lehen ikasturtean eginiko balorazioa positiboa izan arren, hizkera informala lantzeko jarduerak egunero-egunero euren jolas-garaiko denbora librean izateak nekea sortzen ziela jakin genuen. Bestalde, lehen ikasturtean, hirugarren hiru hilekoan kokatu zen esku-hartzea, eta bigarrenean, berriz, bigarren hiru hilekoan. Horrek esan nahi du, bi ikasturteen artean udako oporraldia eta ikasturteko hiru hileko bat igaro direla esku-hartzerik jaso gabe. Beraz, lehenengo esku-hartzearen eta bigarrenaren artean urte erdia dago.

Esku-hartzeko materiala artikulua honen egileek berek diseinatu dute eta irakasle nahiz hezitzaileekin hainbat saio egin dituzte materiala aurkeztu, espermentatu eta ekarpenak jasotzeko. Materialaren izaerari dagokionez, aisia-esparruan erabilitako jarduerak ohiko jolasak izan dira, baina jolas horiek egokitu egin dira, eta dinamikak euskarazko esamoldeek ardaztuta egon dira (esamolde bat entzutean ekintza zehatz bat egiteko, joko irabaztean edo galtzean esamolde bat esateko eta abar). Ikasgela barruko jardueretan, berriz, askotarikoak izan dira lanketak: imitazio-jolasak, tertulia edo hizketaldiak, istorioei hitzak jartzea edota rol-jokoak, besteen artean.

Bigarren ikasturtean hainbat jarduera Arikala komunitatea eraikitza bideratutakoak izan dira; alegia, Arikala egitasmoan parte hartzen ari diren 10 ikastoletako umeen komunitatea eraikitza eta egitasmoa topaketak girotu eta prestatza. Izan ere, bigarren ikasturteko ekintza garrantzitsu bat Arikalatarren Topaketa izan da, non Arikalako haurrek elkar ezagutu duten eta hizkera informala elkarrekin lantzen aritu diren.

Aisia-esparruko jarduerak hezitzaile-talde batek dinamizatu ditu, eta ikasgela barrukoak, berriz, ikasleen ikasturteko tutoreek. Horiekin guztiekin mintegiak egin ditugu materiala inplementatzen hasi aurretik, bitartean eta ostean, behar izan duten laguntza eta azalpenak emateko nahiz haien ekarpenak batzeko.

Hona ekarritako datuak behaketa bidez jaso dituzte Arikala proiektua gauzatu duten hezitzaileek, ikasleekin esku-hartzea egin aurreko eta osteko asteetan (kasu batzuetan, desberdinak izan dira neurketak egin dituzten kideak urte batetik bestera). 2022-23 ikasturtean, ikastetxe bakoitzean lau egunez aritu da hezitzailea jolas-orduan eta bazkalgaraian ikasleak behatzen hirugarren hiru hilekoan, eta 2023-24 ikasturtean, berriz, bi egunez bigarren hiru hilekoan. Behaketa hori egiteko, ikerlariok emandako txantiloira jaso dituzte datuak, ikasleen elkarrizketak entzun ahal. Datu horiek guztiak digitalizatu eta aztertu egin ditugu, esku-hartzeak izan litzakeen garapen-aztarnak ikertu ahal izateko.

Hona hemen baliatutako txantiloia⁸:

1. taula. Ikasleen elkarrizketa-datuak jasotzeko tresna

Parte-hartzaileen kopurua	Norekin? (adina)	Nor? (sexua)	Hizkuntza	Esamolderik?	Aldekotasun-esamoldeak	Kontrakotasun-esamoldeak	Harridura-esamoldeak	Bestelako esamoldeak
2	=	Neskak	Euskaraz	Bai				
3-4	+	Mutilak	Erdaraz	Ez				
5<	-	Mistoa	Batzuk euskaraz eta besteak erdaraz					

⁸ Esamolde-motak antolatzeko erabilitako irizpideak Bereziartua eta beste (2023) artikuluan jaso genituen.

4. Emaizten analisisia

Atal honetan 2022-23 eta 2023-24 ikasturteetako datuak eskainiko dira, bi dimentsio nagusitan: elkarriketa-hizkuntza eta erabilitako esamoldeen hizkuntza. Lehenbizi, dimentsio horien datu orokorrak eta lurraldekakoak ezarriko ditugu, eta ondoren, datu orokorrak adinaren eta sexuaren adierazleekin gurutzatuko ditugu, adierazleok eraginik ote duten aztertu ahal izateko. Izan ere, gaiaren inguruko literatura aztertu dugunean, ikusi dugu adina nahiz sexua erabakigarriak izan daitezkeela hizkuntza-jarreretan.

4.1 Datu orokorrak

Azttertutako bi ikasturteetan haur parte-hartzaileek aisia-esparruko elkarriketak zein hizkuntzatan gauzatu dituzten ikusiko dugu lehenbizi.

2. taula. Haur parte-hartzaileen elkarriketa-hizkuntza, 2022-23 ikasturtean

	Euskara	Euskara eta erdara	Erdara	Guztira
1 puntuko elkarriketa- kopurua	396	55	163	614
BBD ⁹ orokorrak (1 puntua)	% 64,5	% 9	% 26,5	% 100
BBD orokorrak (0 puntua)	% 59,22	% 17,09	% 23,69	
0 puntuarekiko aldea	(+ % 5,28)	(- % 8,09)	(+ % 2,81)	

⁹ BBD: Batez Besteko Datuak.

3. taula. Haur parte-hartzaileen elkarriketa-hizkuntza, 2023-24 ikasturtean

	Euskara	Euskara eta erdara	Erdara	Guztira
1 puntuko elkarriketa- kopurua	381	84	146	611
BBD orokorrak (1 puntua)	% 62,4	% 13,7	% 23,9	% 100
BBD orokorrak (0 puntua)	% 55,09	% 9,9	% 34,2	
0 puntuarekiko aldea	(+ % 6,5)	(+ % 3,8)	(+ % 10,3)	

Goiko datuei erreparatuta, esan daiteke, neurketek egitasmoaren inplementazioaren 0 puntutik 1 puntura bitarteko euskararen igoera iradoki dutela bi ikasturteetan; euskarazko elkarriketek % 5,28 eta % 6,5eko gorakada izan dute 2022-23 eta 2023-24 ikasturteetan, hurrenez hurren. Elkarriketa mistoei eta erdarazko elkarriketei dagokienez, lehen ikasturtean mistoek izan zuten beherakadarik handiena, eta horietatik bi heren (2/3) gutxi gorabehera euskarazkoek irabazi zuten, eta herena (1/3), erdarazkoek. Bigarren ikasturtean, berriz, erdarazko elkarriketek beherakada nabarmena izan dute, eta hortik bi heren euskara hutsezkoetara pasatu dira eta herena, mistoetara. Hortaz, datuek aditzera eman dute, 0 puntutik 1 puntura bitarteko euskararen erabilera areagotu egin dela, eta gainera, bigarren ikasturtean gaztelania hutsezkoek ere beherakada izan dutela (euskarazko elkarriketen eta elkarriketa mistoen mesedetan).

Dena dela, bi ikasturteetako balantzeari dagokionez, badago aipatzea me-rezi duen datua. Izan ere, bi ikasturteetako 0 puntuari erreparatzen badiugu, euskarazko elkarriketek eta elkarriketa mistoek nabarmen egin dute behera (% 3,32 eta % 7,19, hurrenez hurren), eta erdara hutsezkoek, gora (% 10,51). Horrek erakuts dezake, adinak aurrera egin ahala euskara hutsezko elkarriketek beheranzko joera agertzen dutela. Hain zuzen ere, gogo aipatu ditugun beste ikerketa batzuek azaleratutako adinaren faktorea

egon liteke beherakadaren atzean. Puntu honetan, zera gogoratzea merezi du, aztergai izan ditugun ikastolen herrietako testuinguru soziolinguistikoa zein den, aztergai ditugun haurrik gehienek eguneroko errealtatean euskaraz aritzeko toki-giro gutxi daukatela ulertu ahal izateko.

4.2 Datuak lurraldeka

Hurrengo tauletan haur parte-hartzaileen elkarriketa-hizkuntza lurraldeka aurkeztu dugu, ikasturtez ikasturte.

4. taula. Haur parte-hartzaileen elkarriketa-hizkuntza lurraldeka, 2022-23 ikasturtean

	IPAR EH	NAFARROA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Euskara	47	24	23	108	194	396
BBD orokorrak 0 puntuarekiko	% 58 (- % 0,9)	% 22 (- % 28,1)	% 26,7 (- % 7,7)	% 75,5 (+ % 31,3)	% 99,5 (+ % 12,1)	–
Euskara eta erdara	17	0	25	13	0	55
BBD orokorrak 0 puntuarekiko	% 20,1 (+ % 3)	% 0 (- % 19,8)	% 29,1 (+ % 18,35)	% 9,1 (- % 19,2)	% 0 (- % 10,4)	–
Erdara	17	85	38	22	1	163
BBD orokorrak 0 puntuarekiko	% 20,1 (- % 3,95)	% 78 (+ % 49,9)	% 44,2 (- % 10,6)	% 15,4 (- % 12,1)	% 0,5 (- % 1,7)	–
Guztira	81	109	86	143	195	614

5. taula. Haur parte-hartzaileen elkarrizketa-hizkuntza lurraldeka,
2023-24 ikasturtean

	IPAR EH	NAFARROA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Euskara	44	10	40	117	170	381
<i>BBD orokorrak</i> <i>0 puntuarekiko</i>	% 88 (- % 1,4)	% 10,4 (+ % 4,6)	% 35,1 (+ % 4,3)	% 65,4 (+ % 2,9)	% 98,8 (+ % 5,3)	–
Euskara eta erdara	6	31	16	29	2	84
<i>BBD orokorrak</i> <i>0 puntuarekiko</i>	% 12 (+ % 7,7)	% 32,3 (+ % 14,9)	% 14,0 (+ % 3,2)	% 16,2 (+ % 4,3)	% 1,2 (- % 2,3)	–
Erdara	0	55	58	33	0	146
<i>BBD orokorrak</i> <i>0 puntuarekiko</i>	% 0 (- % 6,4)	% 57,3 (- % 19,6)	% 50,9 (- % 7,4)	% 18,4 (- % 7,2)	% 0,0 (- % 2,9)	–
Guztira	50	96	114	179	172	–

Lurraldekako datuei begiratuz gero, lehenbiziko ikasturtean gorabeherak ikus daitezke esku-hartzearen emaitzetan. Izan ere, lurralde bakoitzean arras desberdinak izan ziren datuak: bi eremutan egin zuen gora euskararen erabilerak (Bizkaian, % 31,3 eta Gipuzkoan, % 12,1); Ipar Euskal Herrian egonkor mantendu ziren datuok; Araban eta Nafarroan, ordea, beherantz egin zuen euskararen erabilerak (% 7,7 eta % 28,1, hurrenez hurren). Nafarroaren kasuan, gainera, bi hizkuntzatan aritu zirenen kopurua ere jaitsi egin zen, eta erdararen erabilerak gora egin zuen nabarmen. Araban, aldiz, euskara hutsez eginiko elkarrizketek eta erdara hutsezkoek behera egin zuten, elkarrizketa mistoaren mesedetan. Ipar Euskal Herriaren kasuan, erdarak galdutako presentzia (% 3,95) ia osorik elkarrizketa mistoek irabazi zuten, euskarazko elkarrizketei egonkor eutsita. Bizkaian eta Gipuzkoan, azkenik, euskara hutsezkoek irabazi zuten presentzia, elkarrizketa mistoen eta erdarazkoen kaltetan.

Bigarren ikasturteari dagokionez, lurralde guztietan eragin positiboa nabari da esku-hartzearen osteko euskararen erabileran (% 2,9ren eta % 5,3ren

artekoa), mistoan jardun zutenen kopuruak gora egin du (Gipuzkoan salbu) % 3,2en eta % 14,9en artean, eta erdarenak behera egin du nabarmen (Nafarroan bereziki, % 19,6ko jaitsiera duelarik). Gainontzekoetan, erdararen jaitsiera % 2,9tik % 7,4ra bitartekoa izan da.

4.3 Datuak adinaren arabera

Ikus dezagun, orain, haur parte-hartzaileen elkarriketa-hizkuntza, adinaren arabera sailkatuta.

6. taula. Haur parte-hartzaileen elkarriketa-hizkuntza, adinaren arabera 2022-23 ikasturtean

	Euskara	Euskara eta erdara	Erdara	Guztira	Elkarriketen %
ADINKIDEEKIN	276	35	113	424	–
BBD orokorrak 0 puntuarekiko	% 65,1 (+ % 0,3)	% 8,25 (- % 5,77)	% 26,654 (+ % 5,5)	% 100	% 69,05
ZAHARRAGOEKIN	64	3	8	75	–
BBD orokorrak 0 puntuarekiko	% 85,33 (+ % 18,26)	% 4 (- % 13,07)	% 10,7 (- % 5,15)	% 100	% 12,21
GAZTEAGOEKIN	43	2	26	71	–
BBD orokorrak 0 puntuarekiko	% 60,6 (+ % 8,1)	% 2,82 (- % 14,68)	% 36,62 (+ % 6,62)	% 100	% 11,56
MISTOA	121	25	38	184	–
BBD orokorrak 0 puntuarekiko	% 65,76 (+ % 32,12)	% 13,59 (- % 15,5)	% 20,65 (- % 16,62)	% 100	% 29,97

7. taula. Haur parte-hartzaileen elkarrizketa-hizkuntza, adinaren arabera 2023-24 ikasturtean

	Euskara	Euskara eta erdara	Erdara	Guztira	Elkarrizketen %
ADINKIDEEKIN	247	60	120	427	–
BBD orokorrak 0 puntuarekiko	% 57,8 (+ % 6,7)	% 14,1 (+ % 3)	% 28,1 (- % 9,8)	% 100,0	% 69,88
ZAHARRAGOEKIN	66	10	7	83	–
BBD orokorrak 0 puntuarekiko	% 79,5 (+ % 4,5)	% 12,0 (+ % 8,4)	% 8,4 (- % 13)	% 100	% 13,6
GAZTEAGOEKIN	12	5	13	30	–
BBD orokorrak 0 puntuarekiko	% 40,0 (- % 42,8)	% 16,7 (+ % 13,6)	% 43,3 (+ % 29,2)	% 100	% 4,9
MISTOA	56	9	6	71	–
bbd orokorrak 0 puntuarekiko	% 78,9 (+ % 10,5)	% 12,7 (+ % 2,2)	% 8,5 (- % 12,6)	% 100	% 11,6

Esku-hartzearen osteko datuei dagokionez, goiko taulan zehaztu dugu adierazle bakoitzean datuek gora edo behera egin duten 0 puntuarekin alderatuta. Lehen ikasturtean, adinkideekin mantendu egin zen euskararen erabilera 0 eta 1 puntuen artean, eta gainontzeko adin-tarteetan, euskara nabarmen areagotu zen, zaharragoekin batez ere (% 8,1en eta % 32,12ren artean). Bigarren ikasturteari dagokionez, adinkideekin eta zaharragoekin hazi egin da egitasmoaren 0 puntutik 1 puntura bitarteko euskararen erabilera (% 4,5etik % 6,7ra bitartean), ez, ordea, gazteagoekin (% 48,2 egin du behera multzo horretan euskararen erabilerak, baina jasotako elkarrizketakopurua ez da handiegia, eta beraz, zaila da ondorio garbirik ateratzea gazteagoekin izandako hizkuntza-erabilerari dagokionez).

Elkarrizketa mistoei dagokionez, lehen ikasturtean adin-tarte guztietan jaitsi egin ziren (% 5,7tik % 15,5era bitartean); bigarren ikasturtean, berriz, guztietan igo ziren (% 2,2tik % 13,6ra bitartean). Erdara hutsezko elkarriz-

ketei dagokienez, ez da joera argirik nabari, ikasturte batetik bestera ez baitzaie joerei eutsi, adin-tarteak alderatuta.

4.4 Datuak sexuaren arabera

Jarraian, haur parte-hartzaileen elkarrizketa-hizkuntza sexuaren arabera sailkatuko dugu, eta euskararen feminizazioa aipatu dugunean bildu ditugun ikerketek azaleratutako joerak gurean ere baieztatzen diren ala ez ikusiko dugu.

8. taula. Haur parte-hartzaileen elkarrizketa-hizkuntza, sexuaren arabera 2022-23 ikasturtean

	Euskara	Euskara eta erdara	Erdara	Guztira	Elkarrizketen %
NESKAK	101	9	40	150	–
BBD orokorrak 0 puntuarekiko	% 67,33 (- % 4,71)	% 6 (- % 4,22)	% 26,67 (+ % 8,93)	% 100	% 24,43
MUTILAK	174	21	85	280	–
BBD orokorrak 0 puntuarekiko	% 62,14 (+ % 7,42)	% 7,5 (- % 7,59)	% 30,36 (+ % 0,17)	% 100	% 45,6
MISTOAK	121	25	38	184	–
BBD orokorrak 0 puntuarekiko	% 65,76 (+ % 12,06)	% 13,59 (- % 11,87)	% 20,65 (+ % 0,18)	% 100	% 29,97

9. taula. Haur parte-hartzaileen elkarrizketa-hizkuntza, sexuaren arabera 2023-24 ikasturtean

	Euskara	Euskara eta erdara	Erdara	Guztira	Elkarrizketen %
NESKAK	83	20	43	146	–
BBD orokorrak 0 puntuarekiko	% 56,8 (- % 1,4)	% 13,7 (+ % 6,7)	% 29,5 (- % 5,3)	% 100	% 24,43
MUTILAK	145	28	66	239	–
BBD orokorrak 0 puntuarekiko	% 60,7 (+ % 7,6)	% 11,7 (+ % 4,7)	% 27,6 (- % 12,3)	% 100	% 45,6
MISTOAK	153	36	37	226	–
BBD orokorrak 0 puntuarekiko	% 67,7 (+ % 10,1)	% 15,9 (- % 0,2)	% 16,4 (- % 10,3)	% 100	% 29,97

Datuak oro har hartuta, esku-hartzearen osteko behaketan bi ikasturteetan mutilen arteko nahiz talde mistoen barruko elkarrizketetan nabarmen egin du gora euskarak; nesken artekoetan, berriz, jaitsiera nabarmendu da bi ikasturteetan.

Nesken multzoari dagokionez, esanguratsua izan daiteke 0 puntuan nesken arteko euskararen erabilera % 72,04koa zela lehen ikasturtean eta % 58,2koa, bigarrenean. Gainera, esku-hartzeek ez dute eragin positiborik izan nesken artean euskara hutsezko elkarrizketetan (lehen urtean, esku-hartzearen ostean % 4,71 egin dute behera euskara hutsezko elkarrizketek, eta bigarren ikasturtean, berriz, % 1,4). Dena dela, badago bi ikasturteen arteko alde esanguratsu bat: lehen ikasturtean esku-hartzearen ostean euskara hutsezko nahiz euskara eta erdarazko elkarrizketa mistoek beherakada izan dute, erdara hutsekoen mesedetan (azken horiek % 8,93 igo dira). Bigarren ikasturtean, berriz, euskara hutsekoek beherakada apala izan dute (% 1,4) eta erdara hutsekoek izan dute beherakadarik handiena (% 5,3), elkarrizketa mistoen mesedetan. Edozelan ere, esan bezala, urte batetik bestera nabarmen jaitsi da euskara hutsezko elkarrizketen proportzioa nesken artean, eta datu horri arretaz begiratu beharko zaio aurrerantzean.

Mutilen kasuan, berriz, nahiko berdintsu mantendu dira euskarazko elkarriketak: lehen ikasturtean % 54,72 izan ziren 0 puntuan, eta hurrengoan, berriz, % 53,1. Gainera, esku-hartzearen ondorioak ere antzekotsuak izan dira bi ikasturteotan (% 7,42 eta % 7,6 egin dute gora euskarazko elkarriketek, hurrenez hurren). Talde mistoetan, ordea, % 53,7 eta % 57,6 izan dira, hurrenez hurren, 2022-23 eta 2023-24 ikasturteetan euskaraz egindako elkarriketak, eta esku-hartzearen inpaktua ere antzekoa izan da bi ikasturteetan (% 12,06 eta % 10,01, bakoitzari dagokionez).

Datuok ikusita, aipagarria da, nesken artean ikasturte batetik bestera euskaraz beharakada nabaria izanagatik, mutilek baino erabilera altuagoa erakusten dutela 0 puntuetan (baita lehen ikasturteko 1 puntuan ere); bigarren ikasturteko 1 puntuan, berriz, handiagoa da mutilen artean euskaraz ari direnen multzoa. Hortaz, interesgarria izango da joera horiei gertutik jarraitzea hurrengo urteotan. Izan ere, ikasturte batetik bestera neskenean beharakada handia azaleratu da, mutilenarekin alderatuta.

4.5 Aisia-esparruko esamoldeen hizkuntza

Orain arteko datuetan elkarriketa-hizkuntzan jarri dugu arreta. Baina ikerketa-proiektu honek hizkera informalean lanketaren barruan, bi jomuga izan ditu: euskarazko hizkera informalean aritzeko ohitura sustatzea eta hizkera horretan erabili ohi diren esamoldeak jorratzea. Esamolde horien erabilerari erreparatuko diogu ondoren.

10. taula. Haur parte-hartzaileen esamoldeen hizkuntza, datu orokorrak 2022-23 ikasturtean

	Euskara	Erdara
ESAMOLDEAK	387	407
BBD orokorrak (1 puntua)	% 48,74	% 51,26
BBD orokorrak (0 puntua)	% 38,03	% 61,97
0 puntuarekiko	(+ % 10,71)	(- % 10,71)

11. taula. Haur parte-hartzaileen esamoldeen hizkuntza, datu orokorrak 2023-24 ikasturtean

	Euskara	Erdara
ESAMOLDEAK	351	339
BBD orokorrak (1 puntua)	% 50,87	% 49,13
BBD orokorrak (0 puntua)	% 36,17	% 63,83
0 puntuarekiko	(+ % 14,70)	(- % 14,70)

Goiko datuoi erreparatuta, euskarazko esamoldeen erabilera 0 puntuan % 38,03koa izan zen lehen ikasturtean, eta hurrengoan, berriz, 0 puntuan % 36,17koa. Pentsa liteke, bada, hizkuntzaren erabileran izandako galerak eragina izan lezakeela esamoldeetan ere, baina ez da proportzionala izan (gogora dezagun erdara hutsezko elkarrizketek % 10,51eko igoera izan dutela urte bateko 0 puntutik hurrengo urteko 0 puntura). Inplementazioaren eraginari dagokionez, datuek iradoki dute, bigarren ikasturteko esku-hartzeak aurrekoak baino eragin handixeagoa lortu duela esamoldeen erabileran (2022-23 ikasturtean % 10,71 gehitu ziren euskarazko esamoldeak egitasmoaren ostean, eta 2023-24an, berriz, % 14,70).

4.6 Aisia-esparruko esamoldeen izaera

Haur parte-hartzaileek aisia-esparruan erabilitako esamoldeetan lau multzo bereizi genituen ikerketaren hasieran (ikus Bereziartua eta beste 2023). Multzo horien araberrako datuak ikusiko ditugu ondoko tauletan.

12. taula. Haur parte-hartzaileek erabilitako esamoldeak aisia-esparruan, datu orokorrak 2022-23 ikasturtean

	Euskara	Erdara	Guztira	Esamoldeen %
ALDEKOTASUNA	118 (54)	121	239	
<i>BBD orokorrak</i>	% 49,67 (+ % 11,27)	% 50,63 (- % 11,27)	% 100	% 30,1
KONTRAKOTASUNA	166 (55)	199	365	
<i>BBD orokorrak</i>	% 45,48 (+ % 3,1)	% 54,52 (- % 3,1)	% 100	% 45,97
HARRIDURA	83 (14)	51	134	
<i>BBD orokorrak</i>	% 61,94 (+ % 27,58)	% 38,06 (- % 27,58)	% 100	% 16,6
BESTELAKOAK	20	36	56	
<i>BBD orokorrak</i>	% 35,71 (+ % 7,14)	% 64,29 (- % 7,14)	% 100	% 7,1
OROTARA	387	407	794	–
<i>BBD orokorrak</i>	% 48,74 (+ % 10,5)	% 51,26 (- % 10,5)	% 100	% 100

13. taula. Haur parte-hartzaileek erabilitako esamoldeak aisia-esparruan, datu orokorrak 2023-24 ikasturtean

	Euskara	Erdara	Guztira	Esamoldeen %
ALDEKOTASUNA	139 (46)	95	234	
<i>BBD orokorrak</i>	% 59,40 (+ % 18,16)	% 40,60 (- % 18,16)	% 100	% 33,91
KONTRAKOTASUNA	151 (54)	123	274	
<i>BBD orokorrak</i>	% 55,11 (+ % 23,36)	% 68,25 (- % 23,36)	% 100	% 39,71

	Euskara	Erdara	Guztira	Esamoldeen %
HARRIDURA	33 (6)	46	79	
BBD orokorrak	% 41,77, (- % 2,46)	% 58,23 (+ % 2,46)	% 100	% 11,45
BESTELAKOAK	27	76	103	
BBD orokorrak	% 26,21 (- % 3,5)	% 73,79 (+ % 3,5)	% 100	% 14,93
OROTARA	351	339	690	–
BBD orokorrak	% 50,87 (+ % 14,70)	% 49,13 (- % 14,70)	% 100	% 100

Goiko datuei begiratuz gero, 2022-23 ikasturteko datuetan esamolde-multzo guztietan egin zuen gora euskarazko esamoldeen erabilerak 0 puntutik esku-hartzearen osteko puntura (% 3,1en eta % 27,58ren artean); 2023-24 ikasturteko «aldekotasuna» (% 18,16 gehiago) eta «kontrakotasuna» (% 23,36 gehiago) adierazten duten esamolde-multzoak izan dira gorantz egin dutenak (aurreko ikasturtean baino igoera nabarmenagoarekin), eta beherakada txiki bat izan dute harridurazkoek (% 2,46). Era berean, igoera bereziki esanguratsua izan dela azpimarratu behar da, ikasleek lagunartean gehien erabiltzen dituzten esamolde-multzoak izan baitira aldeko eta kontrako esamoldeak bi ikasturteetan (lehenean, % 30,1 eta % 45,97; bigarrenean, % 33,91 eta % 39,71).

Azkenik, lehen ikasturtean garrantzitsutzat jo genuen euskaraz erabilitako esamoldeen % 31,8 Arikala egitasmoan landutakoak izatea. 2023-24 ikasturtean, aldiz, euskarazko esamoldeen gorakada handiagoa (% 14,70) izan bada ere, Arikalan jorratutakoak % 15,36 izan dira. Hortaz, gaztetxoek erabili dituzten euskarazko esamolde horien nolakotasuna eta balizko zabal-kundea aintzat hartzekoak dirateke, euskaraz eroso aritzearen zantzua izan daitezkeelako.

5. Eztabaida eta ondorioak

Arikala egitasmoak iraun duen bi ikasturteko emaitzak ikusi ditugu lan honetan. Datu horiek aditzera eman dute, egitasmoaren 0 puntutik 1 punturako igoera dagoela bi ikasturteotan, bai hizkuntzaren erabileran, bai euskarazko esamoldeen erabileran ere. Gainera, bigarren ikasturteko esku-hartzearen ostean, igoera apur bat handiagoa erakutsi dute euskarazko elkarrizketek nahiz euskarazko esamoldeek.

Hala ere, lehen ikasturtetik bigarren ikasturtera erabilera-galera garrantzitsua antzeman da behaketetan, eta esku-hartzearen osteko behaketek iradoki dute, LH 5ean ez dela lortu LH 4ko lehen puntua gainditzerik, euskararen erabilerari dagokionez (esku-hartzearen ostean, % 64,5eko erabilera neurtu zen 2022-23 ikasturtean, eta % 62,4koa, 2023-24an). Bi hizkuntzatan aritu direnek, aldiz, pitin bat gora egin dute (% 4,7), erdara hutsez aritu direnen kaltetan (% 2,6 baxuagoa). Ikusi dugu, beste ikerketa batzuek ere adinaren aldagaia erabilera-baldintzatzaile gisa azaleratu dutela, eta LH 4ko eta DBH 2ko ikasleen arteko euskararen erabileran alde nabarmena dagoela. Hortaz, Arikalaren ikerketan ikasturte batetik bestera nabaritu den jaitsiera, adinaren aldagaiak eragindakoa izan daiteke. Era berean, pentsa daiteke, ikastolen testuinguru soziolinguistikoak ere jaitsieran eraginen bat izan dezakeela eta ikastolek eratzten duten eremua ikastetxetik kanpoko baina aberatsagoa izan daitekeela euskaraz egiteko.

Lurraldekako datuei erreparatuta, lehen ikasturtean, esku-hartzeak erakutsitako eraginak gorabeheratsuak izan ziren. Bigarren ikasturteari dagokionez, lurralde guztietan eragin positiboa igarri da.

Joera horri eutsiz, behatutako elkarrizketarik gehienak adinkideekin gertatu dira (% 69,88), eta horietan, euskarazko elkarrizketen aldeko joera nabarmenagoa izan da bigarren ikasturtean (% 0,3 igo ziren lehen ikasturtean 0 puntutik 1 puntura, eta bigarrenean, berriz, % 6,7). Hala ere, lehen ikasturteko 1 puntuaren eta bigarren ikasturteko 0 puntuaren artean, %14,3ko jaitsiera egon da. Ikusi egin beharko da hirugarren ikasturteko neurketek zein joera ateratzen duten.

Azterketak eman dituen emaitzetan, generoaren ikuspegia ere esanguratsua da. Euskararen feminizazioaren atalean aipatu dugun moduan, Nafarroako kale-erabileraren datuek (Anduaga eta Kasares 2018) nahiz Arrue proiektuak (Martinez de Luna eta Suberbiola 2020) erakutsi dute, nesken euskara-erabilera orokorra altuagoa dela mutilena baino; eta Anduaga eta Kasaresek (2018) ere aipatuta daukate hori, hots, gaztaroan euskararen erabileraren nolabaiteko «feminizazioa» atzematen dela. Arikalaren behaketen arabera, ikasturte batetik bestera nesken euskara-erabilera jaitsiera garrantzitsua jaso da 0 puntuetan (% 72,04 izatetik % 58,2 izatera, eta esku-hartzearen osteko datuek ere ez dute igoerarik adierazi). Mutilen kasuan, berriz, nahiko berdintsu eutsi zaie euskarazko elkarrizketei bi ikasturteetan, bai 0 puntuen alderaketan, bai eta esku-hartzearen ondorioetan ere. Eta berdin gertatu da neska-mutilen arteko elkarrizketa mistoekin ere. Hortaz, nesken arteko euskararen erabilera-jaitsierari arretaz begiratu beharko zaio aurrerantzean. Edozelan ere, adierazgarria izan daiteke neskek mutilek baino erabilera altuagoa erakutsi izana bi ikasturteetako 0 puntuetan (baita lehen ikasturteko 1 puntuan ere).

Esamoldeen neurketak eman dituen emaitzei dagokienez, euskarazko esamoldeen erabilera 0 puntuan %38,03 izan zen 2022-23 ikasturtean, eta hurrengo ikasturtean, berriz, 0 puntuan %36,17koa. Hori gogoan hartuz gero, hizkuntzaren erabileraren apaltzeak esamoldeen erabileran ere eragina izan duela pentsa liteke, baina esan beharra dago, esku-hartzearen inpaktua ona dela egitasmoa inplementatu osteko puntuetan. Gainera, lehen ikasturteko inplementazioak bigarrenekoak baino eragin handiagoa iradoki du esamoldeen erabileran (2022-23 ikasturtean, % 10,71 gehitu ziren euskarazko esamoldeak egitasmoaren ostean, eta 2023-24an, berriz, % 14,70).

Datuek eman diguten informazio osoa aztertuta, garrantzitsua izan daiteke datorren ikasturtean kontrol-taldeak ezartzea LH 4an eta LH 5ean, esku-hartze taldeetako datuak kontrol-taldeekin erkatu ahal izateko. Izan ere, neska-mutikook adinean aurrera egin ahala atzeman dugun galera ohikoa ote den aztertzea komeni da, bai eta nesken artean urte batetik bestera izan den jaitsiera puntuala ala sistemati-koa ote den ere.

Bestalde, Arikala egitasmoaren hirugarren urtea ikasleak transmisore-
edo igorle-rolan jartzeko baliatuko dugu, orain arte egitasmoaren hartzaile
edo jasotzaile izan diren hurrek haien ondoren datozen gazteagoei modu
ludikoan esamolde horiek transmititu diezazkieten. Era horretan, batetik,
Arikalako haurrengan lagunarteko hizkerak dituen ezaugarrien kontzientzia
lantzea da asmoa, eta bestetik, haur horiek hizkuntza-transmisore gisa ahal-
duntzea nahiz motibatzea.

Bibliografia

AGIRRE, L. eta ESKISABEL, I. (2019). *Trikua esnatu da. Euskaratik feminismora eta feministotik euskarara*. Zarautz: Susa.

AIZPURU, J. (2018). «Euskararen erabilera eta erabileran eragiten duten faktore nagusiak», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 106 (1): 29-45.

ÁLVAREZ, L. (2019). «Euskararen erabileraren aldeko motibazioak gazteengan», *Eusko Ikaskuntzen XVIII. Kongresua. Geroa Elkar-Ekin* (18. kongresua). Donostia: Eusko Ikaskuntza: 340-347.

AMONARRIZ, K (2015). «Ahozketasuna soziolinguistikaren behatokitik», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 96 (3):103-127.

ANDUAGA, E. eta KASARES, P. (2018). «Kale-erabilera: Nafarroako datuen irakurketa», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 106 (1): 65-78.

ARTETXE, M., BEREZIARTUA, G. eta BURRESO, N. (2024). «Ahozko hizkera informalerako gaitasuna eta harreman-sare informalerako hizkuntza-erabilera: azterketa kuantitatibo bat unibertsitateko gazteen testuinguruan», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 69 (1): 49-78.

BEREZIARTUA, A., GUIRADO, O. eta ALONSO, I. (2023). «Lehen Hezkuntzako haurren lagunarteko hizkera aisialdian: erdaren eragina bat-bateko adierazkortasunean», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 68 (2): 11-39.

ESNAOLA, I. (2000). «Euskara nerabezeroan: gazteen hizkera eta motibazioa», *Hik Hasi* 49: 22-27.
Kontsultagai: [<http://zaharra.hikhasi.eus/Artikuluak/20000601/euskara-nerabezeroan-gazteen-hizkera-eta-motibazioa>].

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA (2009). *Euskararen erabilera areagotzeko estrategiak eskolatik abiatuta*.
Kontsultagai: [<https://kontseilua.eus/wp-content/uploads/2015/05/Euskararen-erabilera-areagotzeko-estrategiak-LIBURUA-091106.pdf>].

— (2017). *VI. Inkesta Soziolinguistikoaren eta VII. Kale Erabileraren neurketa*.
Kontsultagai: [<https://kontseilua.eus/wp-content/uploads/2015/05/INKESTASO-ZIONEURKETAAZK.pdf>].

EUSKO JAURLARITZA (HIZKUNTZA, KULTURA ETA POLITIKA SAILA) (2024). *Euskararen Adierazle Sistema*.
Kontsultagai: [<https://www.euskadi.eus/eas>].

— (2024). VII. *Inkesta Soziolinguistikoa 2021*.

Kontsultagai: [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eas_ikerketak/eu_def/adjuntos/VII._Inkesta_Soziolinguistikoa_2021.pdf].

HERNÁNDEZ, R. eta SILVA, F. (2020). «Actividades lúdicas en las clases de español como lengua extranjera», *Cultura, Educación y Sociedad* 11 (2): 207-220.

IBARRA, O. (2014). «Tipología y pragmática del *code-switching* vasco-castellano en el habla informal de jóvenes bilingües», *Lapurdum: Euskal Ikerketen Aldizkaria* 18: 23-40.

IURREBASO, I. (2021). «Euskarazko hizkuntza-gaitasuna eta erabilera: zer dago indartsuen?, zer ahulen?» *Hermes: Pentsamendu eta Historia Aldizkaria* 69: 24-39.

LANTTO, H. (2016). «Conversations about code-switching: contrasting ideologies of purity and authenticity in Basque bilinguals' reactions to bilingual speech», *Multilingua* 35 (2): 137-61.

MARTINEZ DE LUNA, I. eta SUBERBIOLA, P. (ARRUE proiektua) (2020). *EAEko ikasleen euskararen erabilera eskola-giroan (2011-2017)*. Donostia: Eusko Jaurlaritza. Kontsultagai: [https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2013/03/arrue_2011-2017_eus.pdf].

OLASAGARRE, Y. eta RAMOS, R. (2021). «DBH 2ko ikasleen hizkuntza atxekimendua eta gaitasuna: barne-gatazkak gainditzeko esku-hartzea», *Motibazioa sustatzeko baliabideak* bloga.

Kontsultagai: [<https://eibz.educacion.navarra.es/blogak/msb/2021/06/25/dbh-2ko-ikasleen-hizkuntza-atxekimendua-eta-gaitasuna-barne-gatazkak-gainditzeko-esku-hartzea/>].

—, RAMOS, R. eta VILCHES, C. (2019). *DBHko ikasleen hizkuntza atxikimendua hobetzeko ikerketa eta esku-hartzea*. Iruñea: Nafarroako Gobernua (Hezkuntza Departamentua), UPNA, EIBZ eta Berriozarko Udala.

RAMOS, R. eta OLASAGARRE, Y. (2022). «Soziolinguistika ez da bidea. Soziolinguistika lan egiteko marko teorikoa da, ez ikasleek ikasi beharreko eduki-multzoa», *Motibazioa sustatzeko baliabideak* bloga.

Kontsultagai: [<https://eibz.educacion.navarra.es/blogak/msb/2022/04/11/soziolinguistika-ez-da-bidea/>].

TEIXEIRA, C. (1995). *A ludicidade na escola*. Sao Paulo: Loyola.

ZARRAGA, A., COYOS, J.B., HERNÁNDEZ, J.M., JOLY, L., LARREA, I., MARTÍNEZ, L., URANGA, B. eta BILBAO, P. (2010). *Soziolinguistika Eskuliburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza (Kultura Saila).

Kontsultagai: [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/ikerketa_soziolinguistikoak/eu_def/adjuntos/SOZIOLINGUISTIKA_ESKULIBURUA-azkena.pdf].

ZALBIDE, M. (2011). «Hizkuntza-aldaeren lekua eta eragina EAEko eskola-munduan», in A. Sagarna, J. Lakarra eta P. Salaberri (arg.), *Pirinioetako hizkuntzak: oraina eta lehena*. Iker bilduma, 26. zenbakia. Bilbo: Euskaltzaindia: 339-406.

Hilabeteak: ikuspegi etnolinguistikoa

Los meses del año: punto de vista etnolingüístico

Les mois de l'année : une vision ethnolinguistique

Months of the year: an ethnolinguistic perspective

DIÉGUEZ BARAHONA, Kepa

Ikertzaile beregaina

kepa.diegez@gmail.com

ORCID: <https://orcid.org/0000-0003-2390-251X>

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2025i10.303>

Jasotze-data: 2025/01/24

Behin-behineko onartze-data: 2025/05/22

Behin betiko onartze-data: 2025/05/29

Euskaraz erabili ohi diren hilabeteen izendapenei buruzko gogoetak, ikuspegi linguistikotik eta antropologikotik egin izan dituzte autore batzuek. Euskal kulturari hain kontu sus-traitua eta arrunta izanda, nondik ote datozen izendapenak jakin nahian, jende askok pla-zaratu izan du bere iritzia era batera edo bestera, sarritan gisa desegokian, behar bezalako tresnarik erabili ez baitu. Gai interesgarri honi taxuzko egituraketa eta argia emateko xedez, egileak metodologia etnolinguistikoaz baliatzea proposatu du, lexikoa eta kultura uztartuz, ezinbestez elkarri eragiten baitiote.

Gako-hitzak: hilabeteak, etnolinguistika, kultura, lexikoa, egutegia, erromatarak.

Las reflexiones sobre las denominaciones de los meses de uso habitual en euskera han sido realizadas por algunos autores desde una perspectiva lingüística y antropológica. Ante un tema tan arraigado y común en la cultura vasca, e intrigados por saber de dónde provie-nen dichas denominaciones, mucha gente ha hecho pública su opinión de una u otra mane-ra, a menudo inadecuadamente, al no utilizar las herramientas apropiadas para ello. Con el fin de dar una acertada estructuración y claridad a este interesante tema, el autor propone utilizar la metodología etnolingüística, combinando léxico y cultura, inevitablemente ele-mentos de interacción mutua.

Palabras clave: meses, etnolingüística, cultura, léxico, calendario, romanos.

D'un point de vue linguistique et anthropologique, certains auteurs ont réfléchi aux dénominations des mois habituellement consacrés à la langue basque. Une question si enracinée et commune dans la culture basque, qui cherche à savoir d'où viennent les dénominations, a amené beaucoup de gens à exprimer leur opinion d'une manière ou d'une autre, souvent d'une manière inappropriée, n'ayant pas utilisé les outils nécessaires. Afin de donner une structuration et une clarté adéquates à ce sujet intéressant, l'auteur propose d'utiliser la méthodologie ethnolinguistique, en combinant lexique et culture, qui interagissent inévitablement.

Mots-clés : mois, ethnolinguistique, culture, lexique, calendrier, romains.

Some authors have made reflections from linguistic and anthropological perspectives about the names traditionally used for months in Basque. Given that this is such a deeply rooted and everyday matter in Basque culture, many people have expressed their opinions in one way or another, often inappropriately, as they have not used the proper tools. With the aim of giving this interesting topic a clear and structured treatment, the author proposes the use of an ethnolinguistic methodology, combining lexicon and culture, since they inevitably influence each other.

Keywords: months, ethnolinguistics, culture, lexicon, calendar, Romans.

DIÉGUEZ BARAHONA, Kepa (2025). «Months of the year: an ethnolinguistic perspective», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 70 (2): 261-301.

1. Sarrera
2. Hilabeteak
 - 2.1 Urtarrila
 - 2.2 Otsaila
 - 2.3 Martxoa
 - 2.4 Apirila
 - 2.5 Maiatza
 - 2.6 Ekaina
 - 2.7 Uztaila
 - 2.8 Abuztua
 - 2.9 Iraila
 - 2.10 Urria
 - 2.11 Azaroa
 - 2.12 Abendua
3. Ondorioak

Bibliografia

Laburdurak

1. Sarrera

Ikerlan hau egileak *Euskera Ikerketa Aldizkarian* argitaratutako «Urtaroak: ikuspegi etnolingistikoa» deritzon artikulua jarraipena da (Diéguez 2024), urtaroak zein hilabeteak etnometeorologiaren arloan DENBORA esparruari dagozkio-eta (Murdock eta beste 1987); beste biak, *ortzia* eta *ostagiak*¹ dira. Artikulu hartan aipatutakoak ez dira hemen ostera ere azalduko: zertan den etnolingustika eta zer-nolako metodologia erabili izan den urtaroen lexikoa aztertzeke, alegia; hantxe esplikaturik dago luze eta zabal. Jakina, ikerlan honen nondik norakoa ongi ulertuko bada, komeni da, guxtienez, artikulua sarrera irakurtzea. Ez du zentzu handirik oraingo honetan nozio orokor eta kontzeptu guztien irakurketa sakona egiteak: azterketa honetan IZAKIAK nozio orokorra baizik ez da aztertuko, hilabeteen izendapenak, hain zuzen ere, gainerako guztiak ez baitira jaso: ez KANTITATEA, ez KALITATEA, ez JARDUERA, ez DENBORA, ez ESPAZIOA (Diéguez 2024).

Harako aipatutako «Urtaroak: ikuspegi etnolingistikoa» artikuluan (Diéguez 2024), hilabeteen lexikoa aditzera eman zen, Martín Camachoren etnolingustikaren inguruko hausnarketa oinarri harturik (Martín Camacho 2016) eta DENBORA esparru etnometeorologikoaren barruan; lexikoa kulturaren bitartez aztertu genuen, ondorio linguistikoetara iristeko (Diéguez 2021). Ez dago ukatzerik kulturak lexikoari eragiten diola, eta alderantziz ere bai, lexikoak kulturari eragiten diola: elkarrekin bizi dira, etengabeko harremanetan, bata hartu eta besteak ematen du. Gogora ditzagun Martín Camachoren hitz hauexek:

El léxico —entendido como el repertorio constituido tanto por las palabras como por las unidades que conforman lo que Coseriu (1977: 113-118) denominó discurso repetido— es sin duda el ámbito lingüístico donde más directamente se observa la repercusión de la

¹ *Ostagi* berba Azkuek asmatu zuen ‘fenomeno atmosferikoa’ esateko. Beste batzuetan *egurasketa* erabiltzen du. Ez zuen arrakastarik izan, eta guztiz ahaztu zen; izan ere, behin baino ez ez zuen hark erabili *Euskalerriaren Yakintzaren* laugarren liburukian, 205. orrialdean, ostadarraren izendapenen berri eman zuenean: «Lan onen lenengo liburuan, [...] bekuski irakurleak ostagi onen [ostadarraren] beste amazapi izen» (Azkue 1935-1947/1989).

cultura, de ahí que sean muchos los aspectos concretos en los que se puede constatar y, por ende, analizar esa influencia.

(Martín Camacho 2016: 198)

Horrenbestez, hilabeteen izendapenak aztertzearekin batera, hiztunen «adimen-begiak»² (Palmer 1996) nolako eragina jaso duen komunitatearen kulturaren bitartez azaleratuko da: erabaki lexikoak ez dagozkio gizabanakoari, komunitateari baizik, hain zuzen ere. Mintzaira ez da gizabanako «barkartuen» kontua, beren geneek itsumustuan bultzaturik etorria, baizik eta milaka urtean gizabanako ugariren elkarlanaren bidez sortutako zerbait da, zerbait handia, erraldoia, eguneroko bizimoduak akuilaturik, eta, bereziki, bizitzaren alderdi errealeak zipriztindurik dagoena: kultura (Bernárdez 2008).

Antzina-antzinatik, ortziko³ ostagiek gizakien interesa piztu izan dute. Hori dela eta, ortzia behatzearen ondorioz lehenengo egutegiak egin izan ziren. Lurretik ortzira begiratu eta hura unibertsoaren gunetzat hartuta, zeruko objektuek behin eta berriz ziklo berak betetzen zituztela jabetu ziren; denbora neurtzeko tresna ezin baliotsuagoa bilakatu zitzairen.

Ilargi-egutegiari dagokionez, egunaren eta urtearen iraupenak Lurraren translazio- eta errotazio-mugimenduetan oinarritzea erraz samarra bide da; hala ere, hilabeteekin kontu hori ez da hain samurra. Hilabeteek gutxi gorabehera ilargiak Lurraren inguruan orbita betetzen ematen duen denbora irauten badute ere, ilargialdien arabera haien iraupena neurtzeak arazo gehiago dakartza, Lurraren errotazioan eta translazioan finkatutako modelok baino.

Bi modu erabili izan dira historian zehar hilabeteen iraupena ilargialdien bitartez zehazteko. Haietariko bat hilabete *sidereo* edo *siderala* da, hau da, ilargiak Lurraren inguruan bira egiteko behar duen denbora-tartea, berriz or-

² Palmerren ikuspuntuaren arabera, hizkuntza adimenaren iruditerian erabilitako hitzeko sinbolo-jokoa da. Adimenaren begiaz ikusten duguna da iruditeria, baina baita «laranjaren zaporea» eta «euripean ibiliz sortzen zaigun sentipena» ere (Palmer 1996).

³ Ortzia, gure ustez, lurraren gainetik dagoen sabai osoa da, non ostagiak sortzen baitira. Naturari loturiko kontzeptua da, ez erlijioari.

tzian duen kokapen berera itzultzerainokoa. Epe horrek 27,32 egun irauten du. Gutxi erabili omen dute era hori egutegiren bat eratzeko. Ilargi-hilabetea osatzeko beste era, hilabete *sinodiko*aren bitartez eginikoa da, hots, ilargiak bere faseen ziklo osoa betetzeko behar duen denbora. Hala, Lurrak eguzkiaren inguruko bere orbitan ilargia Lurraren inguruan mugitzen den norabide berean egiten duenez gero, ilbetetik ilbeteraino doan denbora, esaterako, 29,53 egunekoa da: horixe erabiltzen da gaur egun ilargi-hilabeteak eratzeko.

Mende luzeetan herri batzuentzat egutegi-hilabetearen iraupena ilargialdia bezalakoxea izan zen. Baina, beste kasu batzuetan, erromatar egutegiaren kasuan, adibidez, hilabeteen egun batzuk hautazko eran egin omen zen, seguru asko orduko modaren bati jarraituz.

Euskal egutegiari dagokionez, Julio Caro Barojak (Caro Baroja 1984) egina du azterketarik sakonena. Haren arabera, euskal egutegia, zatiz, behintzat, erromatarraren aurrekoa da, eta hori sumatzen da, sumatu ere, izendapen batzuetan, aurrerago ikusiko denez. Juan Gorostiagak (Gorostiaga 1958), os-tera, artikulua labur-labur batean, erromatarren eragina euskal egutegian handia dela dio. Ez dago ezeztatzerik: gaur egun erabiltzen ditugun izendapenetan begi-bistakoa da erromatarren eragina: *martxoa*, *apirila*, *maiatza*, *abuztua*. Beste izen batzuen jatorria erromanikoa ere bada: *abendua*, *zemendia*...

Artikulu honetan bildu ditugun hilabeteen izendapenak osagaien arabera xeheturi daude. Autore asko ahalegindu badira ere izen batzuen etimologia azaleratzen, ustezko eta balizko eremuetan sartzea dateke hori sarri askotan, lurralde ilun labainetan murgiltzea. Hemen, agerikoa eta argia dena baizik ez da azalduko, ez gara alor ezezagunetan sartuko, eta, horretarako, uste dugu nahikoa dela izenen osaerari buruz jardutea, hau da, zernolako osagaiak dauzkaten beren baitan hilabeteen izena emateko erabiltzen diren hitzek: hortaz, sasietimologiak saihestu eta hipotesiak baino ez ditugu aditzera emango. Hilabetez hilabete joango gara, eta taulen bitartez adieraziko dugu ustezko osaera zein den, argia eta gardenena. Aipatu bezala, kulturaren eragina zenbaterainokoa den ulertzea ezinbestekoa da izendapen batzuk egoki barneratzeko. Izendapenik gehienak OEhtik aterata badaude ere, badira beste batzuk han-hemendik jasota. Horrela izanez gero, zein den iturria adieraziko da.

2. Hilabeteak

2.1 Urtarrila

URTARRILA: izendapenen osaera			
	beltz/baltz	(h)il	emaitza
beltz		+	<i>beltzil</i>
(h)il	+		<i>ilbeltz/ilbaltz</i>
izotz		+	<i>izotzil/izozkil</i>
lau		+	<i>loil/lotazil</i>
urteberri?		+	<i>urtarril/urteberril</i>

Urtarrila izendatzeko berbak direla-eta, bi multzo bereiz daitezke: batetik, *-(h)il* bigarren osagaia daukatenak eta, bestetik, *-(h)il* gabekoak. Azken honi buruz, *ilbeltz/ilbaltz* besterik ez dela esan behar da; baina alderantziz ere bada, *beltzil*. Azken hau abenduaren izendapenetan azaltzen da: iluntasunaren lorrazak. Horrelako izendapenek egutegi erromatarren aurrekoa ematen dute, eta beharbada ez daukate jatorriz latinezko *januarius*-ekin zerikusirik:

Jano (latinez: *Ianus*) antzinako Erromako jainkoa izan zen. Hasierak, ateak, pasabideak, trantsizioak denbora, dualtasuna, sarrerak, ertzak eta amaieren buru zen. Bi aurpegiko irudia du (*Jano Bifronte*), aurrera begira dagoena bata eta atzera begira bestea. Bera irudikatzeak ikurrak atea, giltza eta hasiera dira. Janoren jatorria zein den ez dago argi, baina nolanahi ere Erromako jainkoetan zaharrenetakoa da. Ateen (latinez: *ianuae*), arkuen (latinez: *jani*) eta hasiera guztien jainkoa zen.

(Wikipedia)

Beltzil izendapenaz gain, osterantzeko hiru izendapenek *-il* ere badaukate amaieran. Osagai hori maiz azaltzen da gainerako hilabeteen izenetan. Interesgarria da, oso, *urtarril* izenaren jatorriari buruzko azterketa. Caro Barojak ez du batere argi: «Pero en cambio *urtarrila*, *urtarile* edo *urtaharrila* han sido objeto de varias conjeturas» (Caro Baroja 1984: 77). Egun dauzkagun datuetara joz gero, badakigu Gipuzkoako Beterri aldean erabiltzen den *ur-*

teberril izenak argi piska bat eman lezakeela. Baliteke hitz elkartuetan *urte urta-* izatea (gogora dezagun *luze > luza-* eta antzekoak) eta gero *berri* eta *il* izenak erantsita, honela geratzea: *urtaberril* → *urtaerril* → *urtarril* edota Bizkai aldean: *urtabarril* → *urtaarril* → *urtarril*; izan ere *-b-* bokalartekoa oso makala da, ahula, eta erortzeko joera dauka. Mitxelena ere iritzi berekoa da:

Menos ambiguo es el nombre más extendido del mes de «enero», donde, junto a *urt(h)arril*, sen encuentra *urtharil*, ya en Eliç. Varias veces, y cf. sul. mod. *urthail*. Se trata, sin embargo, de un término cuyo origen es tan claro que ya fue indicado en el XVIII, en una trad. de las ordenanzas municipales de Eibar (RIEV 2 (1908), 733): ... *bialdu daichela urtebarrico ylian, ceina baitta urtarrilian*. Es pues, *urt(h)a-* + *berri* + *(h)il* ‘mes de año nuevo’, con *rr* interior que quedó luego en posición presumiblemente implosiva ante el último miembro.

(Mitxelena 1985: 513)

Gorostiagak ere *urtarril* < *urteberri* + *il*-etik datorrela uste du, baina bi ñabardura txertatu ditu: bata, jarduera zeltikoa, eta, bestea, kristautzearen aritze etengabea izendapen horiek ezabatzeko. Bestalde, *ilbeltz/ilbaltz* izendapenak berrikuntzak direla dio:

El nombre más extendido es el de las formas que se dejan reducir a URTEBARRI-IL v URTEBERRI-IL, o sea el ‘mes del Año Nuevo’. URTEBARRI como URTATS significa todavía ‘estreno’ o con práctica céltica ‘aguilando’ (*au guide l’année neuf*, según la recta interpretación de esta palabra que todavía no recogen los diccionarios etimológicos). El cristianismo combatió estas costumbres gentílicas y así el ayuno de estos días de las saturnales y el carácter de la liturgia de la Misa *ad avertendum ab idolis*. Los ídolos en nuestro Prudencio son siempre «negros» de donde la innovación de *ilbeltz* o *ilbaltz* ‘el mes negro’ por ENERO.

(Gorostiaga 1958: 52)

Eguraldiari lotuak, izotzari buruzko adierazpenak ere badira zenbait herri-hizkeratan, Euskal Herriko ekialde hotzean ez ezik, baita mendebalde epelean ere. Azkuek Aezkoan eta Zaraitzun *izotzil* jaso zuen, baina hiztegiaren eranskinean *izozkil* dakar «B-aster» marka lausoa ipinita (Azkue 1935-1947/1989): *-ki* atzizkia erantsita ote dago, ala epentetikoa da, lotura beza-

la *z* eta *l*-ren artean? Zer ote da «aster» hori? «Asterrika», Berriatua udalerriko auzoa? Horrela izango balitz, *izozkil* izendapenak behinolako eguraldi gordinagoa adieraziko luke, Asterrika auzoa itsasotik hurbil dago eta. Izan ere, *Arantzazu Egutegiak* honela dakar: «Onek esan nahi du *izotz-illa*, benetan franko egiten du eta». Ezbairik gabe, eguraldiaren lexikoa eta esapideak aztertuz gero, klimaren bilakaeraren berri izan genezake. Hiztunen «adimen-begiak» zehatz-mehatz atzitzen du inguruko errealitatea.

Bestalde, abenduak dauzkan beste izendapen batzuek ba bide daukate zerikusia urtarrilaren beste izen batzuekin, hain zuzen ere, honako hauek: *lo* osagaiari dagokionez, *loil* eta *lotazil* eta hotzaren aldetik, (*h*)*otzaro*. Gorostiagak uste du, *lo*- < *lau*-tik datorrela «laugarren tenporarekin» elkartuz, eta ez daukala *lo egitea*-rekin inolako loturarik. Haren azalpena zentzuzkoa da: «LOTAZIL o “Noviembre de la Cuarta Témpera”, LO (lau)-t-AZIL, llamadas en el antiguo rito Romano “de la siembra” o AZIL» (Gorostiaga 1958: 54-55). Horrek aditzera eman lezake, agian, antzinako euskal egutegiaren hilabeteak eta Mendebaldekoak ez letozkeela bat, hots, beste egun batzuei zegozkiekeela. «Mendebalde» hitza aipatzen denean, Europako zibilizazioen inguruko kultura adierazi nahi da, indoeuoparren ingurukoa: erromatarrak, zeltak, herri indogermanikoak eta eskandinaviarrak... Mendeak joan, mendeak etorri, ezinbestez, euskal kulturak jaso du haien eragina; hala ere, eraginak eragin, antzinako euskal kulturaren zantzuak sumatzen dira euskararen lexiko zaharrean, besteak beste.

2.2 Otsaila

OTSAILA: izendapenen osaera		
	(h)il	emaitza
baranta?	+	<i>barantail</i>
katu	+	<i>katail/katuil</i>
otso	+	<i>otsail</i>
zezen	+	<i>zezeil</i>

Urtarrilaren kasuan ez bezala, aurkitutako lau izendapenek, ustez, *-(h)il* daukate bigarren osagai gisa. Izan ere, lehenengo izenari dagokionez, *barantail*, jatorriz zuberotarra, ezein ikertzailek ez du azalpen egokirik eman. Besteek beste, Azkuek haxe eman zuen aditzera: «*Baranthailla* emazten eta gatuen ilhebetea da» (Azkue 1935-1947/1989). Aipu horretan bertan ageri dira loturik «emazteak» eta «katuak». Caro Barojak, oster, *barantalla* interpretagaitza dela adierazi zuen: «El nombre suletino *barantalla* es difícil de interpretar. Campión ofrece una explicación que a él mismo le parece poco aceptable: *beran*, *berant* = *tarde*, *tardar*: *alla* en vez de *illa*. ¿Pero qué significa esto de mes tardío o de la tardanza?» (Caro Baroja 1984: 79). Gure iritziz, berriz ere adierazi behar da, erromatarren egutegian dagoela gakoa, hortxe dago argia; erromatarrek ospatzen zituzten *Parentalia* jaietatik bide dator; segur aski *-lia* eta *-(h)il* bukaerak nahasiko zituzten hitzunek, eta $p > b$ bihurtzea arrunt askoa da euskaraz; adibidez, *parco* > *barka* edo *pecco* > *bekatu*. *Parentalia* jaiak erromatarrek otsailaren 13tik 21era bitartean ospatzen omen zituzten; arbasoen hilobiak bisitatu eta haien gainean esne-, ezti-, ardo- eta irin-eskaintzak egiten omen zituzten. Aipatutako moduan, ukaezina da *barantail* eta *parentalia*-ren arteko erlazio fonetikoa; hortaz, badirudi *barantail*-ek ez daukala *berant*-ekin zerikusirik, beste daturik ezean, lehenengo begiratuan uste daitekeenez. Segura eta Etxebarria (1996) iritzi berekoak dira: «barandalla, *febrero* [< *parentalia*, 'fiestas funerarias']».

Gainerako hiru izendapenek, itxuraz, animaliekin daukate erlazioa: *katu*, *otso* eta *zezen* animaliei. Lehenengoari dagokionez, azalpena xumea bada ere, zuzena delakoan gaude. Honelaxe esan zigun Elorriora bizitzera joandako Mikel Irizar euskal kulturaren eragile entzutetsuak: «Elorrion *katuil* esaten zaio otsailari baserri-giroan. Eta arrazoa bistakoa da. Edo hobeto belarrikoa: katu emeak arreske jartzen dira bereziki hilabete honetan. Baserri-ratu berritan pentsatzen genuen haur txikien negarrak zirela, hain dira zirraragarriak. Apirilean edo maiatzetan jaiotzen dira *katuilaren* ondorioak». *Katail* izendapena Azkuek ere jaso zuen Gernika eta Arrasate aldean: «Arrasate ta Gernikan bigarren ilaren izena (euskalgaiztoko itza) *katail* da, katuen ila» (Azkue 1905-1906/1969). Antza, Azkuek erdaretatiko berbak ez zituen batere maite...

Gaur egun, euskara batuan erabiltzen den *otsaila* dela eta, jatorria erromatarrek ere ospatzen omen zuten *Lupercalia* jaian egon liteke. Haiek *Fauno* jainkoari, basoen jauna eta abereen babesleari, *Luperco* ere deitzen zioten. Horrek beste jainko bat izendatzeko balio bazuen ere, antzeko eginbeharrak omen zeuzkanez, bi jainko bat bihurtu omen ziren: *Fauno-Luperco*. Nabari denez, *luperco* edo *luperca* —‘otsemea’— izenek otsoari egiten diote aipamen; hortaz, euskararen *otsail* izendapenak bertan izan lezake jatorria, mailegu kontzeptuala, alegia. Iritzi bertsua azaltzen da EHHEn ere:

Ez dago argi nola azaldu behar den, euskal testuinguru kulturalen, otsoaren izena agertzea hilabetearen izenean, baina cf. gael. Faoinleach ‘urtarril erditik otsail erdira doan hilabetea’ (MacBain s.v.), sax. Wolf-monath ‘urtarril’, alem. zah. Wolfsmond ‘abendú’, guztiak ‘otsoaren hil’ etimologikoki. Hitz saxoia azaltzeko, hauxe dio Martinek (1847: 3): «because the wolves of our native forests, impelled by hunger at this season, were wont to become ferocious and daring»; alemanezko hitzaren azalpenean, ordea, esaten zaigu otsoen araldia hil horretan delako egiten direla bideak arriskutsu (Merkel 1798: 136). Cf., bestalde, latindar kulturako Lupercalia ospakizunak, otsail erditsutik aurrerakoak: Lupercus ‘jainko/gizon Otsoa’, Luperca ‘jainko Otsanda’ jainkoen ohoretan egiten ziren, eta otso-larruarekin janzten ziren apaiz biluziak (ErnMeill s.v.).

(EHHE)

Ustezko *zezen*-i loturikoak direla-eta, ez da jatorri berezirik aurkitu. *Zezeil* eta *zezil* izendapenak ere badira: «*Zezeillak* txakur-arpegia ta zikin atzea», «*Zezeilla* euritsu, bedartzak ederto gizendu». *Zezeilla*, katuen illa. Bizkaitar atsoitzak» (DRALV). Beste egutegi batean, *zezeil* barik, *zezil* ageri da (*Karmengo Egutegia*). Antza denez, *zezeil* izena Bizkaiari dago guztiz loturik. Berriz ere azaltzen da *zezeila* katuen hilabetea dela. Gorostiagak dio aski ezaguna dela, nola Erromako vestalek edo apaiz-emakumeek hil honetan zaldi-odolez eta sakrifikatutako zezenez ihintzatzen zituztela ukuiluak. Behin eta berriz sumatuko da Erromaren eragina euskal hilabeteen izendapenetan; gainerako iker-tzaileei dagozkienez, bat datoz aurreko lerroetakoarekin:

FEBRERO. — Tiene (aparte el nombre de KATAIL, vulgar, o sea el ‘mes de los gatos’ por circunstancias conocidas), otros tres, repartidos según

las distintas zonas. ZEZEIL o 'mes del toro'. Es sabido cómo las Vestales de Roma con sangre de caballo y «toro» sacrificado rociaban los establos en este mes, o sea la ceremonia conocida con el nombre de *casta februa*. OTSAIL o 'mes del lobo', también Roma antigua celebraba en este mes las fiestas llamadas LUPERCALIA en recuerdo de la loba que amamantó a su fundador, y hoy mismo el Municipio de Roma cuida de estos animales al pie del Capitolio. BARANTAILLA, el 'mes de las *Parentaila*' y más exactamente (PARANTAILA, forma popular reprobada por el *Appendix P'robi*, que también se celebraban en este mes.

(Gorostiaga 1958: 52)

2.3 Martxoa

MARTXOA: izendapenen osaera			
	(h)il	Φ	emaitza
eba(ki)?	+		<i>epail</i>
marti			<i>marti</i>
martxo(a)			<i>martxo(a)</i>
urri		+	<i>urri</i>
zozo	+		<i>zozoil</i>

Hirugarren hilabeteari buruz, euskara estandarrean hizkuntza erromani-koetatik etorritako *martxo* hitza erabiltzen da gehien. Bizkaierazko *marti* izenak are zaharragoa ematen du, eta, itxuraz, zuzenean latinetik dator. Erromatarrek *Marte*-ren omenez horrelaxe izendatu zuten, soroen, bazken, eta, batik bat, gudaren jainkoa. Antzina-antzina batean, erromatarren *Martius* urtearen lehenengo hilabetea zen. K.a.ko 153. urtean, ordea, urteari hasiera emateko ohorea galdu eta hirugarrenera igaro zen. Ziurrenik, aldaketa horrek euskal egutegiari ere eragin izango zion: nolabaiteko egokitzeapena beharko zuen.

Epail eta *zozoil* izendapenei dagokienez, biek ematen dute nekazaritzari lotuta daudela: *epailak epaiaroa*-rekin harremana bide du, hau da, ebaki edo inausteko garaia. Caro Baroja, Astarloaren bitartez, iritzi berekoa da: «El

nombre corriente del mes de marzo, *epailla*, lo derivaba Astarloa de *ebaki* = cortar, podar, cercenar; traduciéndolo, por tanto, por ‘luna o mes de la corta’» (Caro Baroja 1984: 79). *Zozoila* dela eta, Pello Zabalen *Naturaren mintzoa* izeneko liburuan baizik ez dugu aipamenik aurkitu (Zabala 2000: 130). Antza denez, martxoaren inguruan sortu ohi dira zozokumeak: «*Zozoilla* deitzen zaio martxoari. Zozokumeak, marti-zozoarenak hortxe ibiltzen direlako dagoeneko».

Azkenik, martxoari deitzeko, *urri* izendapen harrigarri samarra, Garibaik baizik ez omen dakar:

Bestalde, ‘martxo’ esanahiarekin dakar bitan Garibaik: 46 *eguzkia eta euria*, *urri eguraldia* («Sol y agua son tiempo de Março») eta 47 *urriak buztanaz, zezeilak bularrak* («Por los ordinarios rigurosos tiempos del fin de Março y principios de Abril»). B iturrikoak dira horiek, eta A iturriak 14 *Marti* eta 44 *Martiak* dakartza, hurrenez hurren.

(EHHE)

Lehenagoko denboretan, ote zen martxoa urritasunaren hilabetea? Aurrrerago azalduko dugunez, *urri* izena, gehienbat, iraila —bederatzigarren hilabetea— eta urria bera —hamargarren hilabetea— izendatzeko erabili ohi izan da.

2.4 Apirila

APIRILA: izendapenen osaera		
	(h)il	emaitza
apiril		<i>apiril</i>
eba(ki)?	+	<i>epail</i>
jorra	+	<i>jorrrail</i>
ope	+?	<i>opeil</i>

Erromatarrek *apirila* Venusi eskaintzen zioten, baratzaren, lorategiaren, edertasunaren eta maitasunaren jainkosari. Etrurieraz jainkosa horri Apru

esaten omen zioten, eta berarengandik izena hartu zuen urtearen laugarren hilabete honek. Euskarak ere bere egin zuen erromatarren izena, eta hainbat aldaera dauzka euskalki guztietan. Beharbada *-il* bukaerak lagunduko zion izendapenari euskaldunen artean finkatzen eta irauten.

Baina, horrez gain, beste hiru ere gorde dituzte euskalkiek beren baitan: *epail*, *jorrail* eta *ope(il)*.

Lehenengoari dagokionez, *epail* izenari, martxoa izendatzeko ere erabiltzen dela esan beharra dago; beraz, baliteke antzina bi hilabeteen arteko tarte izatea.

Jorrail izena dela eta, jorrarekin zerikusirik baleuka —eta halaxe da segurutik—, ezbairik gabe nekazaritzarekin loturik legoke. Gogora dezagun, apiril aldean erromatarrek ere nekazaritzaren gaineko hainbat jai ospatzen zituztela: *Fordicidia*, *Cerealía*... Uztar ote daitezke apiril aldean soroetan egiten diren lanak *jorratze*-rekin? Izan ere, *jorratzea* «ereinda dauden soroe-tan belar txarrak aitzurka kentzea da» (EH); adibidez, artoa maiatzean jorrazten da, baina, jakina, artoa XVI. mendearen hasieran heldu zen Euskal Herriara!

Azken izendapenaren inguruan, *ope(il)*, adierazi behar da, erromatarrek aipaturiko *Fordicidia* jaia Tellus jainkosari, Ama Lurrari, eskaintzen ziotela. Aldi berean, jainkosa hori Opsekin lotzen zen. Dirudienez, Tellus lur azpi-koaren jainkosa zen eta Ops lur gainekoa. Gogora dezagun, *Ops*, *Opis* izenaren akusatibozko forma *Ope(m)* dela, beraz, agian euskarazko izen zahar horrek erromatarren jainkosa horren izenean dauka beronen jatorria; izan ere, bai *ope* bai *opeil* ezagunak izan dira antzinarik mendebaldeko euskaran. Caro Barojak, ordea, badaezpadako interpretazioa egin zuen: «En cuanto al tercer nombre de grupos: *opailla*, *opa*, parece que se refieren a las tortas u ofrendas de roscos de pan que se hacían por esta época...» (Caro Baroja 1984: 80). Gorostiaga ere iritzi bertsukoa da, baina haren ustez eskaintza otsailean egiten zen eta ez apirilean: «Puede compararse con el SOLMONATH de los anglos que Beda traduce así: “Llámase el mes de las tortas, porque en este mes se ofrecían a los dioses”, pero correspondía al mes de FEBRERO y no a ABRIL» (Gorostiaga 1958: 53).

2.5 Maiatza

MAIATZA: izendapenen osaera			
	aro	(h)il	emaitza
hosto	+	+	<i>hostaro/hostoil</i>
lore		+	<i>lorail</i>
maiatz			<i>maiatz</i>
orri		+	<i>orril</i>

Urtearen bosgarren hilabeteak beste lau izendapen dauzka. Ezagunena eta euskara baturako ezarria den *maiatz*-ek ukaezineko jatorri erromanikoa dauka. Horren izenaren jatorria, baina, ezezaguna da. *Maia* jainkosa erromatarretik eratorria izan daiteke, erromatarren emankortasunaren eta landareen jainkosa; *Bona Dea* izenez ere ezagutzen da. Haren jaialdia *Maius* izenez ospatzen zuten hil honetan erromatarrek. Mitxelenaren ustez, «*kalendas maias* bezalako esapideren bat izan liteke jatorria (1974: 203); esapide horretan *maias*-ek izenondo funtzioa du, eta lat. *maius*-en akus. pl. forma da» (EHHE). *Maia* ninfatik ere etor zitekeen, Atlas eta Pleioneren alaba eta Hermesen ama. Jatorriaren hirugarren aukera *Maius Juppiter* terminoa izan liteke, *maximus* murrizketa bat, handiena, baina aukera hau baitezpadakoa da.

Gainerako lau izenek ere ba ei daukate landareekin zerikusia: *hostaro*, *hostoil*, *lorail* eta *orril* izenek. Beraz, jasotako izendapen guztiak kontzeptu beraren inguruan ardaztuta daudela ematen du: landareak, loreak, hostoak... Azken berba horrek, bi elkarketa mota sorrarazi ditu: *hostaro* eta *hostail*. Azpimarratu behar da, *lorail* eta *orril* izendapenak asmatuak omen direla: «Hitzaren etorki “arrotz” agerikoa saihesteko, *lorail* edo *orril* moduko hitzak asmatu dira» (EHHE).

2.6 Ekaina

EKAINA: izendapenen osaera				
	aro	(h)il	maiatz	emaitza
arra			+	<i>arramaiatz</i>
baba		+		<i>babail</i>
*ebagi		+		<i>bagil</i>
ekain (*eki + gain)				<i>ekain</i>
erein	+			<i>ereiaro</i>
erre	+			<i>errearo</i>
garagar	+	+		<i>garagarzaro/garagarril</i>
uda		+		<i>udail</i>

Urtearen seigarren hilabeteak izendapen ugari dauzka, zortzi, hain zuzen ere. *Arramaiatza* kenduta, ‘berriz maiatza’ adierazi nahi duena, badirudi gainerako zazpiak nekazaritzarekin edo naturarekin uztarturik daudela.

Babail eta *bagil* izendapenak direla-eta, litekeena da biek jatorri bera edukitzea; izan ere, erromatarrek ekainaren batean Carna ninfaren omenez jaia ospatzen zuten: *Carnaria* edo *Fabariae Kalendae* izeneko jaiak (‘Baben Kalendak’) ziren. Carna ninfa elikagai guztien asimilazioaz arduratzen zen. Baba beltzak erabiltzen zituzten horren jaian, eta zera uste zuten, giza odolrik ateratzen zirela edo giza arima haragitzen zutela. Baba beltzak hobien gainean ipintzen omen ziren hildakoen espirituen adur txarreko eginbeharretatik libratzeko, eta Carnaren ohorezko zeremonietan harpia eta banpiroen aurka talisman gisa ere erabiltzen omen ziren. Halaber, grekoek ere erabiltzen omen zituzten baba beltzok, ekandu hori hagitz hedaturik zegoen adierazle. Erromako jatorria ukaezina da: «BABAIL o “mes de las habas” que se sembraban por Santa Agueda y se bendecían en el día de la Ascensión. Cf. también KALENDAS FABARIAS» (Gorostiaga 1958: 53). Bestalde, jatorria bilatu nahian, *bagil* izenaren beste jatorri bat *ebagi* aditzean izan liteke, hau da, **ebagi* + *il*, baina, zer ebakitzen da, bada, ekainean? Gogora dezagun antzeko izenak martxo eta apirilean ere badirela.

Nekazaritzarekin lotura duten beste izen batzuk *erei*aro, *erre*aro, *gargar*za-ro eta *garagarr*il dira. *Garagarra* neguan landatu ohi da eta ekainetik uztailera bitartean bildu; izan ere, *garagarr*il ekaina ez ezik, uztaila ere izendatzeko erabili izan da oraintsu arte. *Erei*aro eta *erre*aro-ri dagokienez, itxura denez, bata *erein* aditzarekin du zerikusia eta besteak *erre*-rekin. Hala ere, ezin baiezta daiteke hori erabat, zeren, herriak usu ustezko analogiaren bidez beste izendapen batzuk asmatzeko joera bai: analogia, hiztun-komunitatearen «adimen-begiaren» eragile sendo eta gotorra. Hortaz, zentzuko da pentsatzea *erre*aroa jatorriz *erei*aroa izatea eta aipaturiko analogiaren bitartez bilakaera izana. Baina zer ereiten da ekainean? Bada, Jakoba Errekondoren⁴ arabera, hauxe: ilgoran, indabak, lekak, artoa eta baba beltzak; ilbeheran: zerba, ur-berroa, buru-aza, endibia, uraza, ziazerba, errefaua, azalorea, txikoria, osterzuria, azenarioa eta erremolatxa gorria, besteak beste. Beraz, berriz ere lehen aipaturiko *baba beltz* enigmatikoak ageri dira.

Ekain dela eta, euskara batuan gailendu den izendapen honek udako solstizioari loturiko izena dirudi; izan ere, *eki* + *gain* hitz-elkarketatik sortu delako ustea zabal dabil. Esan beharrik ez dago ekainean egoten dela eguzkia ortzian goren. Mitxelenak, ordea, osaezaz **egu-gain* dela uste du: elkarketan *eg-* dugu, **eg-gain*, hortaz, eta *-gg-* ahoskabe moduan ebaki da (cf. *bekain*; FHV 229). Eguzkia goren-gorenean dagoen edo eguna luzeena den sasoia edo hilabetea adieraziko luke (EHHE).

Bestalde, antza denez, *egu* + *ki* elkarketak bi bide egin ditu: bata, Euskal Herriko eskualde batzuetan, eta, bestea, beste batzuetan. Hauxe izan liteke:

**egu* + *ki*

1. **egu-* → **ek-* + *ki* = *eki*: Hitz-elkarketetan **egu-* > **ek-* bihurtuko litzateke. Gogora dezagun, *ogi* → *ok-*: *ogi-* + *-gin* = *okin*.

2. **egu-* → **eguz-* + *ki* = *eguzki*: Hitz-elkarketetan, kontu eufonikoak direla-eta **egu-k -z-* hartuko luke; beraz, **egu-* > **eguz-* bilakatuko litzateke. Gogora dezagun, *dute* + *-it-* → *dituzte* eta ez, **ditute*.

⁴ Jakoba Errekondo: «Landareen hilabetekaria. Ekaina» (*Elhuyar Aldizkaria*, 1989-05-01). Kontsultagai: [www.zientzia.net].

Azkenik, urtaroarekin zerikusia duen izendapena ekarriko dugu: *udaila*, hau da, ‘udaren hila’. Ezagun denez, ekainean bertan hasten da uda.

2.7 Uztaila

UZTAILA: izendapenen osaera			
	aro	(h)il	emaitza
garagar		+	<i>garagarril</i>
gari		+	<i>garil</i>
Santa Ana / santaneko		+	<i>Santa Ana il / santaneko il</i>
uzta	+	+	<i>uztaro/uztail</i>

Egutegi gregoriarrean, uztaila urtearen zazpigarren hilabetea da, eta 31 egun ditu. Jatorriz, hilabete hori Erromako lehen egutegiaren bosgarrena zen, eta *Quintilis* zuen izena. Hasiera batean 36 egun zituen, baina Romulo erregeak 31ra murriztu zuen, eta geroxeago, Numa Erromako bigarren erregeak 30era txikitu zuen. Azkenik, Julio Zesar enperadore erromatarrak gaur egun duen kopuruan finkatu zuen, 31 egunean, hain zuzen ere. Haren omezez (*Iulius Caesar*, latinez), hilaren 13an jaioa, Marko Antoniok *Iulius* izena eman zion, eta hortixek datoz *julio*, *juillet*, *July*...

Julius Caesar izenaren gaineko herentzia horrek, antza, ez dauka aztarnarik euskal egutegian; izan ere, oinarrizko lau izendapenek baino ez dute iraun: *uzta* (baita *uztail* eta *uztaro* ere), *garagarril*, *garil* eta *Santa Ana il / santaneko il*. Begi-bistakoa denez, lehenengo hirurak nekazaritzari uztartuak dira: «adimen-begiaren» ohiko baliabidea. *Garagarril* izena ekain hilabeteaztertutako dugu; *garil*-ek ematen du *gari* (‘laborea’) + *il*; uztarekin zerikusia duten beste bi izen ditugu, *uztaro* eta *uztail*. Hemen ere *-aro* eta *-il* erantsitako bikotea dugu, aurreko hilabete bezalaxe, *garagarzaro* eta *garagarril*; laugarrena, aldiz, argi-argia da: *Santa Ana il / santaneko il* (Gorostiaga 1958: 53), erlijioari lotua. Uztailaren 26an ospatzen da Birjinaren jaia Euskal Herriko hainbat bazterretan. Azkuek *santaneko il* izendapena dakar, eta badi-

rudi Azpeitian erabiltzen dela, edo erabiltzen zela, behinik behin (Azkue 1905-1906/1969).

2.8 Abuztua

ABUZZUA: izendapenen osaera			
	aro	(h)il	emaitza
abuztu			<i>abuztu</i>
agor		+	<i>agoril</i>
agostu			<i>agostu</i>
dagoen		+	<i>dagoenil</i>
dilista	+		<i>dilistaro</i>

Urtearen zortzigarren hilabeteak bost izendapen ditu. Haien artean bada bitxikeria bat: oraindik froga handirik ez eta, inork ezin azaldu izan duen *dagoenil* izena; 1596ko *Refranes y sentencias* bilduman ageri da lehenengoz aipaturik. Hauxe da atsotitza: «*Daguenileko* euria ardao ta ezia». Zein ote da *daguenileko* euri hori? Eta ardoa? Eta ezia? Lagungarria zaigu, oso, jakitea zeintzuk diren hitz baten osagaiak, antzinako euskal gizakiaren buru-iruditeria azaleratzeko: bide bakarra da. Interpretazio bitxi samarrak egin izan dira horren inguruan, eta haietariko bat Celtiberia izeneko foro web-orrian (<https://celtiberia.net>) dugu. Irakurle batek egindako galderari honelaxe erantzun zioten:

«Por otra parte quisiera saber la etimología de DAGON y si alguien ve relación entre él y PoseiDaon»: DAGON ('etimología del nombre de'). La forma hebrea de DAGON se consigna como DAGAN / DA-GA-NA en acadio y DA-GU-NA en hurrita. Originariamente fue considerado como dios del tiempo, equiparado a ADAD/ADDU, dios acadio del tiempo y la vegetación y su advocación se extendió a través de Mari a Canaán y a Capadocia. La dedicación del mes de «Agosto-Septiembre» por DAGE-NIL/DAGONIL 'mes de DAGEN/DAGON' en vasconce avala la condición de dios del tiempo y la vegetación, así como el sapiencial «*Dagenileko*

euria, ardoa eta eztia. Lluvia de agosto, vino y miel». Su equiparación a ADU en vascuence ‘suerte, hado, fortuna, diablillo’, permite la composición con GOI + EN > GÜEN ‘supremo’ en dagüen > dagen, como ‘hado supremo, principal’ entre los dioses de su condición.

(Celtiberia, web-orria)

Horrelako adierazpenetan zientzia-frogak bainoago, zerbaiti lotzeko borondatea sumatzen da... Biziki «polita» geratzen da, baina, nekez sinets gemitzake bertan egindako baieztapenok. Egiten diren loturak liluragarriak badira ere, frogarik gabekoak dira: egia da aipaturiko jainkoen herri horietakoak izan zirela, baina, bilatu dituzten loturek ez daukate ez buru eta ez hanka; esaterako, euskarazko *adu* (*adur*) akadiarren aroaren jainkoarekin uztartzea fantastiko samarra da: izan ere, badirudi hitz horiek latinezko *fatu(m)*-etik datozela. Gogora ditzagun ondoko hauek ere: *adu*, *adur*, *patu*, *hatu*, *fado*... Ez dago eragozpenik aldaera guztiak latinezko *fatu*-tik datozela baieztatzeke; beraz, penaz defenda liteke euskarazko hitz-sorta horrek akadiarren *Adad/Addu*-rekin harremana daukan kontua. Bestalde, egiten den *dagenil* hitzaren azterketa harrigarria da. Nola esan daiteke *Dagon* dela aro eta landaretzaren jainkoa? Non dago dokumentaturik? Zeintzuk dira frogak? Nola esan daiteke, bide beretik joanda, *Dagoen* euskaldunen jainko nagusia dela? Nahi eta nahi ez esku artean dauzkagun iturrietara jo behar dugu, eta oroitu beharrean gaude, erromatarrek gure herrian mende asko eman zituztela; ondorioz, eragina halabeharrezkoa da, inondik ere, kultura aldetik batez ere.

Gaur egungo autore batzuk gure *Vasconia* hau erromatartua izan zelako tesiaren aldekoak dira, baina ez latinizatu; aztura asko erromatarrengandik hartu ziren, baina euskarak iraun egin zuela (Monteano 2024), alegia. Erromatarrek abuztuan ospatzen zituzten jaien artean Diana jainkosari eskaintzen zitzaiona topatu dugu. Gutxi gorabehera abuztuaren 15ean egiten omen zen, eta geroago Eliza Katolikoak Ama Birjinaren jai bihurtu zuen, beste eremu ugaritan egin izan zuen moduan. Garai hartan, hiru egunez irauten zuten jai batzuen amaiera izaten zen Diana jainkosari opetsitako hura, eta bertan Dianari —ilargi eta ortziaren jainkosari— kultua errendatzen zioten ekaitzak desbidera zitzan, hilabete horretan uztetarako oso kaltegarriak baitira. Nabari da alderdi horretatik Dianak eta euskaldunon Mari

jainkosak daukaten antzekotasuna. Bi-biek daukate ahalmen handia ekaitzetatik gordetzeko; gainera, gure Marik sorrarazi ez ezik, zuzendu ere egiten ditu (Hartsuaga 1987). Gaur egun, orduko jaiaren aztarnaren ispilu, abuztuaren 15ean, toki batzuetan gazteria ureztatzen dute, eta jan-kontuetan, ardoa edateaz gain, antxumea eta sagar-adarren gainean ketutako opil fruitaz beteak jaten dira. Hilabete gehienetan erromatarren aztarna dakusgu, zergatik izan liteke, bada, salbuespena abuztua? Ote da **Diana + goen + il dagoenil*-en jatorria? Zerikusirik izan al lezake? Baliteke. Oso zaila da frogatzen, ordea. Hemen hipotesi hori baizik ez dugu ezarri nahi.

Erromatarren beste mailegu garbi bat, *abuztu* edo *agostu* da. Orduko garaian seigarren hilabetea zen eta Oktavio Augusto enperadorearen omenez izendatu zuten berriz. Erabiltzen diren aldaeren artean aipatzekoa da *abus-tuilla*. Badirudi *-il* bukaera itsatsirik duela.

Azken bi izendapenok, *agorril* eta *dilistaro* formak, aroari eta nekazaritzari loturik daude. Lehenengoari dagokionez, ez dago esan beharrik abuztua eta irailaren hasiera urteko sasoirik lehorrenetarikoa direla, horregatik, bada, *agorril* izena. Beharbada, horixe izango litzateke formarik egokiena euskara baturako ere, oraindik han-hemenka erabilia delako. Bigarrena dela-eta, bitxi-bitxia dela aitortu beharra dago: *dilistaren aroa*. Izan ere, antza denez, dilista penintsula iberiarrean ekainetik uztailera bitartean biltzen da, eta baliteke Euskal Herrian geroxeago bildua izana: hortixek, hain zuzen ere, etorriko litzaioke abuztuari horrelako izena, *dilistaro*. 1964ko *Arantzazu Egutegian* «*tilistaro*, lenteja illa delako» azalpena ageri da.

2.9 Iraila

IRAILA: izendapenen osaera		
	(h)il	emaitza
agor	+	<i>agorril</i>
autono		<i>autono</i>
barau?	+	<i>baruil</i>

IRAILA: izendapenen osaera		
	(h)il	emaitza
buru?	+	<i>buruil</i>
garo	+	<i>garoil</i>
ira	+	<i>irail</i>
seteme		<i>seteme</i>
urri		<i>urri</i>

Iraila dela eta, zazpi izendapen aurkitu direla adierazi behar da. Haietari-ko bi, ezbairik gabe, mailegu zuzenak dira: *autono* eta *seteme*. Lehenengoari dagokionez, latinezko *autumnu(m)*-tik dator eta hizkuntza erromanikoetara urtaroa izendatzeko igaro bada ere, Azkuek Getxon jaso zuenaren arabera, bertako hizkeran hilabeteari izena emateko erabiltzen zen; bigarrenari da-
gokionez, erromatarren egutegian hasiera batean zazpigarren hilabetea ze-
lako hartu omen zuen *september* izena. Hortixek dator, bada, zubereraz era-
biltzen den *seteme* izendapena ere.

Beste bi izendapenak, naturari eta nekazaritzari lotutako *agorril* eta *urri* formak dira, beste hilabete batzuetarako ere identifikatuak; *agorril* aurreko hilabetea — abuztua, alegia— izendatzeko, eta *urri*, aztertutako martxoaz gain, hurrengo hilabeteari —euskara batuan *urriaz* ezagutzen denari— esa-
teko ere erabilia. Lehen aipatu denez, abuztuaren eta irailaren hasiera sa-
soirik agorrenak dira Euskal Herrian, euri eskasak; hori dela eta, iraila ere
agorril izenaz jabetzen da. *Garoil* eta *irail* berbek ere naturari uztartuak dire-
la ematen dute. *Garoa* ‘ira’ edo ‘iratzea’ izateaz gain, ‘goizeko ihintza’ adie-
razteko ere erabiltzen da. Baserrietan, irail-urrietan pilatzen dira basora
joanda ira-metak negurako (kortako azpigarritarako, txerri-hiltzerako eta
abarrerako). Horixe izan liteke arrazoia.

Azken bi izendapenak, *baruil* eta *buruil*, antzekotasun fonetikoa badau-
kate ere, jatorri desberdina bide dute. Lehenengoa *barau* + *il*-etik etor lite-
ke. Baina, zergatik izan behar ote litzateke iraila *barauaren hilabetea*? Iraila
tenporen hilabetea izaten da, eta jakina denez, egun horietan baraualdia

egiteko ohitura oso zabal zebilen. Baliteke *baruil* ekandu horren azterna izatea. Bigarrenari dagokionez, hemen ere ez dago batere garbi *buruk* zerbaiteen hasiera edo amaiera eman nahi duen aditzera:

En algunas localidades del país vasco francés se le llama *buruila*, *burulla* y *buruile*, que puede valer tanto como ‘mes cabeza, remate o final’ (de *buru*). Vinson suponía que el año vasco, en consecuencia comenzaba en septiembre. En cambio, Campión pensaba que acaso *buruilla* designó al último mes del año. Yo me inclino a lo primero.

(Caro Baroja 1984: 82)

Gorostiagak, ostera, uste du *buruil* izendapenaren jatorria Erroman dagoela:

«BURUIL o ‘mes de la cabeza’, es decir ‘de la capitación’, pues en Roma el mes de septiembre era el del año fiscal, del catastro o impuestos, que se llamaban *caput* o *iugum*.

(Gorostiaga 1958: 54)

2.10 Urria

URRIA: izendapenen osaera				
	aro	eta	(h)il	emaitza
(h)azi	+			<i>azaro</i>
bildu			+	<i>bildil/biltzil</i>
lasto			+	<i>lastail</i>
urri (bigarren)		+	+	<i>(bigarren) urri</i> <i>/ urrieta / urril</i>

Urria dela eta, lau izendapen bizi dira euskararen hizkeretan, denak, itxura denez, naturari eta nekazaritzari lotutakoak. Lehen aipatu den moduan, *urri* iraila izendatzeko ere erabiltzen da, eta horren ondorioz, toki batzuetan, *urri* *bigarren*-ez baliatzen dira urriari esateko, batik bat mendebaldeko hizkeretan. *Azaro* ere hurrengo hilabeterako erabiltzen da; beraz, badago izen-dantza handitxoak hilabete izenen artean: eguraldiak zerikusi handia izan lezake.

Urri 'eskas, apur' bera da; hilabete horietan, batik bat martxoan eta urrian, urritu egiten baitira lurak ematen dituen etekinak. Paralelo betea da *agor* 'lehor, idor', bai baititu 'irail', 'abuztu' eta 'urri' adierak ere; lotura semantiko horretarako, cf. RS *urrieteak urri gauzak, ta urri dira aren bearrak*. Duvoisinek, ordea, uste du egunaren iraupena laburtzearekin lotu behar dela (1928: 279).

(EHHE)

Baliteke *azaro* (*h*)*azi* + *aro*-tik etortzea; izan ere, urritik azarora bitartean hainbat barazki landatzen dira.

Bestalde, *bildil* eta *biltzil* izenek *bil*(*du*) aditzarekin zerikusia dutela pentsa genezake. *Arantzazu Egutegiaren* arabera «orain biltzen baitira zugaitzen igali edo fruturik geienak». Azkenik, *lastail* izendapena ere nekazaritzarekin uztartzen da: aipatutako egutegiak berriz ere azalpen garbi samarra ematen du: «Itzak berak argi digunez, *lasto-illa*, gariak jo dira ta lastoa alde batetik bestera asten daneko illa».

2.11 Azaroa

Azaroaren eta abenduaren izendapenen osaeraz jardun baino lehen, *abendu* izenaren inguruan sorrarazi den nahaste-borrastearen berri ematea merezi duelakoan gaude, hilabeteon egituraketa argiagoa gera dadin. Hizkera jakin bateko hiztunen ustez ez dago inolako nahasterik: adibidez, Aezkoako euskaldunentzat *lemiziko abendua* ('lehenbiziko abendua'), azaroa da, eta *bigarren abendua*, euskara batuan den abendua. Baina, jakina, euskararen berbeta guztiak aintzat harturik, eta kanpotik so eginez, nolabaiteko nahaspila sumatzen da. Horren adierazle, EHHEN azaltzen den azalpena dugu; azalpenarekin batera taula ekarri da, lagungarri gisa.

Hitz orokorra. *Abendo* da iparraldean forma erabiliena; 1617koa da han lehen adibidea, Materrarena (baina zub. *abentü*; cf. erronk. *abentu*); -*db*- Leizarraga (*adbendu*) eta Belapeyregan (*adbentü*) aurkitzen da. Urteko azken hilabeteaz gainera, eliz urteko aro jakin bat izendatzen du, Eguberri aurreko lau asteek osatzen dutena. Pirinioetako euskalkietako zenbait lekutan *abendu*-k azaroa eta abendua izendatzen ditu, *handi/txiker* edo *lehen/azken* moduko zehaztapenekin.

(EHHE)

ABENDU izenaren osaera (<i>azaroa</i> eta <i>abendua</i> izendatzeko)						
azken +	bigarren +	+ handi	lehen(biziko) +	+ txiker	Φ	emaitza
		+				<i>abendu handi</i> (‘azaroa’)
			+			<i>lehen(biziko) abendu</i> (‘azaroa’)
					+	<i>abendu</i>
				+		<i>abendu txiker</i> (‘abendua’)
+						<i>azken abendu</i> (‘abendua’)
	+					<i>bigarren abendu</i> (‘abendua’)

Gaur egun *abendua* euskara batuan urtearen hamabigarren hilabetea deitzeko erabiltzen dugu, baina ez da beti horrela izan hizkera guztietan, goiko taulan ikus daitekeenez.

Ez dago zalantzarik: autore guztiak bat datoz esatean, *abendu* berba latinezko *adventu(m)*-etik datorrela, kristau-erlijioarekin zerikusia duen aroa izendatzeko. Hortaz, eragina nabarmena da, eta izendapen honexek sortu du euskal egutegian «iraultza» ez txikia... Baina, zer ote da *abendua* aro gisa ulertuta? *Adventus* ‘etorria’ kristau-liturgiaren urtearen lehen aldia da, eta Kristoren jaiotzaren ospakizunerako prestaketa espiritualaren garaia da. 22 eta 28 egun inguru irauten du, Natibitatearen solemnitatetik (gabonetako ospakizun liturgikoa) hurbilen dauden lau igandeek osatzen baitute nahitaez. Hala eta guztiz ere, Pirinioetako hizkeretan azarora arte aurreratu dute *abendu* izendapena bestelako osagaiekin osatuz: *lehen(biziko)/azken; handi/txiker*.

Azaroaren gainontzeko izenez bezainbatean, beheko taulan jaso da zer erabiltzen den euskalkietan; *abendu* kendu dugu, dagoeneko azalduta baitago.

AZAROA: izendapenen osaera						
	aro	(h)il	lehen(biziko) +	+ handi	Φ	emaitza
abendu			+			<i>lehen(biziko)</i> <i>abendu</i>
abendu				+		<i>abendu handi</i>
gastainazitu						<i>gastañazitu</i>
gorotz		+			+	<i>gorotzil</i>
(h)azi	+	+				<i>azaro/hazil</i>
zemendi						<i>zemendi</i>

Azaroak sei izendapen biltzen ditu bere baitan, *abendu* hitzari dagozkionak barne. Aipatutako *abendu handi* eta *lehen abendu* izan ezik —bitzuok erlijioaren ardatzean eratuak—, gainerako laurak nekazaritzari atxikita daude.

Azaro izendapenari dagokionez, aurreko hilabeteen garatu da beronen azterketa; eta *azil*-ek ere jatorri bera bide du, baina, bigarren osagaia *-il* duela.

Gastañazitu izendapena dela eta, aipamen bakarra aurkitu da Gorostiagak idatzitako artikuluan. Ez dago besterik: «GAZTAÑAZITU ‘mes de la cosecha de castaña’» (Gorostiaga 1959: 54). *Badakigu -zitu* bigarren osagaia ‘ezkurra’ edo ‘uzta’ izan daitekeela.

Seguru asko, *gorotzil* hilabeteen izendapenen artean bitxienetarikoa da. Beste batzuetan bezalaxe, *Arantzazu Egutegiak* dakar azalpena: «Itzak berak dio garbi asko: gorotza barrutieri banatzeko illa, alegia». Iritzi berekoa da Caro Baroja: «También se llama *gorotzilla* = luna del abono o del estiércol (*gorotza*), como en algunos países románicos muy arcaizantes (Caro Baroja 1984: 82). Ezin jakin zein diren herri horiek...

Azkenik, *zemendi* hitzaren jatorriaz mintzatuko gara; latinean dago, ezbaierik gabe, horren jatorria. Badirudi (*h*)*azil* edo *azaroa*-ren kontzeptu bera adierazten duela, hau da, ildo beretik eraikita dagoela. Latinezko *sementi(m)*-tik

ei dator, eta ‘hazia’ esanahia du. Latinetik hartutako mailegua izan liteke euskaldun gizakiaren adimenean ordurako zegoen irudi berbera agertzeko.

Atsotitzek ere adierazten digute azaroa ereiteko hilabetea dela: «Ostua ateratzen, artua ereiten; ostua erortzin, garia (babarekin batera) ereiten (San Martin aldian, azaroan)», *dio batek*. Gaztelaniak ere hainbat dauzka azaroan gauzatzen den ereiteari buruzkoak: «En entrando noviembre, quien no sembró que no siembre»; «En noviembre, el labrador are y siembre»; eta «En noviembre, el que tenga que que siembre». Kulturartekotasuna bete-betekoa da.

2.12 Abendua

ABENDUA: izendapenen osaera						
	aro	(h)il	bigarren +	+ handi	Φ	emaitza
abendu/abendo					+	<i>abendu/abendo</i>
abendu (1)				+		<i>abendu handi</i>
abendu (2)			+			<i>bigarren abendu</i>
beltz		+				<i>beltzil</i>
gabon		+				<i>gabonil</i>
hotz	+					<i>hotzaro</i>
ilun?		+?				<i>illul</i>
lau		+				<i>loil</i>
lau(t) + (h)azi		+				<i>lotazil</i>
negu		+				<i>neguil</i>

Urtearen azkeneko hilabeteak izendapen gehien biltzen ditu bere baitan. *Abendu* izenaren gainean eraikitakoak, eta *gabonil* hitza kenduta, gainerakoek abendu ilun, hotz eta goibela adierazten dute, hau da, neguaren urtarorekin zerikusia duten berbak dira. Nekazaritzari uztartutakorik ez bide dago, abendua horretarako hilabete agorra den partez; hortaz, erlijioaren eta eguraldiaren arteko «bizikidetzan»-edo daude izendapenok.

Aurreko atalean luze hausnartu dugu *abendu* hitzaren jatorriaz. Indarrean dagoen erabileraren arabera, lehen adierazi denez, *abendua* azaroaren 30etik, San Andresetik, hurbilen dagoen igandean hasi eta lau igandez irauten du. Lehenengo igandea azaroaren 27ra arte aurrera daiteke; hori eginez gero, *abendua* 28 egun izango ditu, edota *abenduaren* 3ra arte atzeratuz gero, orduan *abendua* 21 egun besterik ez luke izango. Horregatik, *abendu* izendapenak azaroa zein *abendua* bera izendatzeko balio dezake. Erljioari loturik ere bada beste izen bat: *gabonil*; izan ere, esan gabe doa, *abendua* dela *gabonak* edo eguberriak ospatzen diren hilabetea.

Azpmarratu denez, badira beste izen batzuk aroari atxiki samartuak: *beltzil*, *hotzaro*, *illul*, *loil*, *lotazil* eta *neguil*. *Beltzil* eta *illul* (*illun* + *il*?) direla-eta, *abenduko* gauak urteko laburrenak direla nabarmendu beharra dago, horregatik, agian, horrelako izendapenak. Oroit dezagun, urtarrikak, osagaiak aldaturik, izendapen bera duela: *ilbeltz*. Baina hori, ziur asko, eguraldiari buruzkoa da.

Ekainean gertatzen den antzera —*udail* izendapen orokorra duelarik—, *abendua* ere badauka urtaroa osorik izendatzen duen hitza: *neguil*. Eta *hotzaro* ere bada urtaroari uztartua; izan ere, antza denez, *hotzek* *abenduan* hasi eta *izotzileraino*, *urtarrileraino*, irauten omen dute. *Arantzazu Egutegiak* dioenez, «... ondo otz denbora da. Il ontan asten dira lenengo elurteak». Izendapenen artean *hotzaro* da *-aro* bigarren osagai daukan bakarra.

Azkenik, *loil* eta *lotazil* ditugu aztergai. Ikuste hutsarekin batera, *lo* izenarekin zerikusia dutela ematen du. Agian, euskaldun gizakiaren «adimen-begiaren» arabera, aurreko izendapenekin lotura duten iluntasuna edo argitasunik eza egon liteke horrelako hitzen oinarrian. Pentsatzekoa denez, *ilunak* *lo* gehiago egiteko gogoia eman ohi digu; *lotazil*, *lo* eta (*h*)*azi* hitzez osatutako elkarketa izan liteke. Nolanahi ere, berriz ere aditzera emango dugu, urtarrikaren gainean lehen eskainitako azalpen sinesgarriago hau: Gorostiaga *lo-lau*-tik datorrelakoan dago, «laugarren tenporari» lotuta. Haren azalpena zentzuduna eta aintzat hartzeko da: «LOTAZIL o “Noviembre de la Cuarta Témpora” LO (*lau*)-t-azil, llamadas en el antiguo rito romano “de la siembra” o AZIL» (Gorostiaga 1958: 54-55).

3. Ondorioak

Hilabeteen inguruko ikuspegi orokorra izateko, izendapen guzti-guztiak aintzat hartu beharra dago. Ondo dago banan-banan aztertzea, baina den-denak kontuan harturik erdiets genitzake itxurazko ondorioak. Horrela eginez, izen eta kontzeptuei buruzko nondik norako zehatz eta argigarriak lortuko dira.

Bestalde, bat egiten dugu Gorostiagak ateratako ondorioekin, euskaraz jarrita honela laburbil daitezkeenak: «Euskal Herri lurralde txikian izen-kopuru eta -aniztasun handia izateak kontraste itzela erakusten du Erromaniaren uniformitatearekin alderatuta; horrek adierazten du, gure Herriak ez zuela zibilizazio- eta literatura-gune edo -zentro nagusirik, ezta izendapenak orokortzeko beharrianik ere. Gure egutegia ekandu erromatar, pagano eta kristauetan erroturik dago, eta erlijioaren eragina gure nekazarien bizimoduaren inguruko adierazpen zaharretan antzeman genezake. Mosaiko edo sinkretismo honetan, elementu arrotza eta bertakoa elkartzen diren tokian, adierazpenen banaketak eta beren sorreraren etapak beha ditzakegun esparrua dugu» (Gorostiaga 1958).

Izendapenen osagaiei dagokienez, eta latinetiko mailegu zuzenak albora kenduta, begi-bistakoa da hitz-elkarketetan bi izen nagusitzen direla bigarren osagai gisa: *-il* eta *-aro*. Azken hau ez da azaldu urtearen lehen lau hilabeteetan, bai, oster, maiatzetik aurrera etengabe, irailean izan ezik. Hizkuntza aniztetan gertatzen den legez, denboraren eta eguraldiaren inguruko terminoak nahasi ohi dira. Horixe bera gertatzen da *aro*-rekin, eguraldia zein denbora adierazteko erabiltzen baita.

Aro-dun berba guztiei erreparatuz gero, gehienak nekazaritzari atxikita daudela azpimarratu behar da: *hostaro*, *ereinaro*, *garagarzaro*, *uztaro*, *dilistaro* eta *azaro*; eta bi naturari berari: *errearo* eta *hotzaro*. *-il* atzikia eta izena, oster, guzti-guztietan azaldu da salbuespenik gabe. Beraz, hilabeteen izendapenen osaerari dagokionez, baliabiderik erabiliena da. Horren jatorriari buruz haxe nabarmendu beharrean gaude: batetik, *-il* izenak beste euskal izen batzuekin duen antzekotasuna, *hil* eta *ilargi* hitzekin, kasurako; eta bestetik, ez dago ahazterik latinez jaien izenak osatzeko erabiltzen zen bukarako atzizkia, *-alia*: *agonalia*, *carmentalia*, *faunalia*, *lupercalia*..., eta ezta

amaiera hori duen *apri(m)* ere, apirilari izena ematen duena. Beraz, *-il* dela eta, ez da inongo hipotesirik baztertu behar: euskararena berarena den hipotesia ala latinetik hartutako mailegua dena, alegia.

Gainerako osagaiei buruz, beste hiru besterik ez da ageri: *-beltz*, *arra-eta -eta*; *-beltz* izenondoa urtarrila izendatzeko azaldu zaigu, *(h)ilbeltz*; *arra-aurrizki* gisa, ekainean *arramaiaz*, hau da, berriro maiatza adierazteko; *-eta* atzizkiak ez dago argi zein betekizun duen *urrietan*; baliteke abuztu-irailetik datorren agor edo urritasuna areagotzen dela esan nahi izatea. Gogora degun *-eta* atzizkia oso ugaria dela leku-izenetan tokia adierazteko.

Azaldutako izendapen guztiak aintzat harturik, eta beretan ageri diren kontzeptuak gogoan ditugula, honelako sailkapen hau egin liteke: nekazaritzari, naturari, aroari, erlijioari eta erromatarren ospakizunei loturikoak, maileguak eta bestelakoak. Hitz batzuk bi eremutan ager daitezke, bakar batean uztea ez litzatekeelako zuzena izango.

Hala:

A) Nekazaritzakoei buruzkoak ugariena dira, hilabete gehienetan aurkitu baititugu. Hilabetez hilabete joanda, haxe izango litzateke:

- urtarrila: *loil*, *lotazil*.
- otsaila: *xezeil*?
- martxoa: *epail*, *urri*.
- apirila: *epail*, *jorrail*.
- maiatza: bat ere ez.
- ekaina: *babail*, *bagil*, *ereiara*, *gargarzaro*, *garagarril*.
- uztaila: *garagarril*, *uzta*, *uztail*, *uztaro*.
- abuztua: *agorril*, *dilistaro*.
- iraila: *agorril*, *urri*.
- urria: *azaro*, *bildil*, *biltzil*, *lastail*, *urri*, *urrieta*, *urril*.
- azaroa: *azaro*, *gaztaina-zitu*, *gorotzil*, *(h)azil*, *zemendi*.
- abendua: *loil*, *lotazil*.

Egiazta daitekeenez, izen batzuk —*jorrail*, *garagarril*, *dilistaro*...— nekazaritza-lanei loturikoak dira, eta beste batzuek —*agorril*, *urri*...— egoera jakin bat adierazten dute.

B) Naturaren inguruko izendapenak, hauexek dira:

- urtarrila: *ilbeltz/ilbaltz, izotzil*.
- otsaila: bat ere ez.
- martxoa: *zozoil*.
- apirila: bat ere ez.
- maiatza: *hostaro, hostoil, lorail, orril*.
- ekaina: *ekain, errearo*.
- uztaila: bat ere ez.
- abuztua: *agorril*.
- iraila: *garoil, irail, agorril, urri*.
- urria: *urri, urrieta, urril*.
- azaroa: bat ere ez.
- abendua: *beltzil, hotzaro, illul*.

Erraz jabetuko gara eguraldiaren edo egunaren iraupen-egoeraren ingurukoak direla, bat izen ezik, *zozoil*.

C) Aroari dagozkionak bi baizik ez dira: *udail* eta *neguil*. Bata, ekaina eta bestea abendua aditzera emateko. Hilabeteotan hasten dira urtarorik seinatuenak, uda eta negua, alegia.

D) Badirudi beste izendapen batzuk erromatarrek aspaldi ospatzen zituzten jaiekin uztartuak direla; izan ere, erromatarrek Euskal Herrian edo inguruetan luzaro egon ziren, historiagileen arabera, lau edo bost mende, beraz, gizartearen maila guztietan ezarri zuten nagusitasunak halabeharrezko eragina sorrarazi zuen hainbat alorretan eta, jakina, kulturen eta hizkuntzan ere bai. Ziur asko, orduko euskaldunek erromatarren makina bat ohitura bereganatuko zuten, eta, ondorioz horrek hizkuntzan ere bere isla izango zuen. Berriz ere, erromatarren eragina Ignacio Barandiaranen iritzia bidez ekarriko dugu hona:

Hay indudablemente en el País Vasco un legado de Roma que en mayor o menor intensidad caló en los antiguos habitantes del país y que no son las cerámicas que usan o las monedas que pudieran circular por los mercados, sino hábitos mentales, actitudes del espíritu o creencias que pudieron utilizar como vehículo el nuevo idioma y

quizá se difundiesen con mayor fuerza por los cauces de la cristianización.

(Barandiaran 1978: 211)

Nire ustez, eremu honek azterketa sakon eta luzeagoa behar luke. Hala eta guztiz ere, ikerlan honetan arreta banakoa eskaini zaio arlo horri, orduko euskaldunen buru-iruditeria azaleratzeko asmoz. Mende asko igaro direnez, kontu batzuk frogatzen ez dira batere samurrak; baina, honako hauek lirateke euskal egutegian geratu diren sasoi hartako aztarnak:

- otsaila: *barantail*, *otsail*, *zezeil*.
- apirila: *ope(il)*.
- maiatza: *maiatz*.
- ekaina: *babail*, *bagil*.
- uztaila: *buruil*.
- abuztua: *abuztu*, *daguenil*.
- iraila: *buruil*.
- abendua: *abendu*.

Hilabetez hilabeteke aurreko azterketan, bakoitzaren jatorria azaltzen ahalegindu gara. *Babail* eta *bagil* lehen nekazaritzari loturik daudela aipatu arren, badirudi beren sustraia erromatarren ospakizunetan bilatu behar litzatekeela.

E) Maileguei dagokienez, antza denez, guzti-guztiak latinetik edo hizkuntza erromanikoetatik datoz. Honako hauek ditugu:

- martxoa: *marti*, *martxo*.
- apirila: *apiril*.
- maiatza: *maiatz*.
- ekaina: *arramaiatz*.
- uztaila: *santana il*.
- abuztua: *abuztu*, *agostu*.
- iraila: *seteme*.
- azaroa: *abendu*, *zemendi*.
- abendua: *abendu*.

Beraz, mailegu-kontuak zein lexiko-auziak albora lagata, badirudi hiru hilabetek besterik ez daukatela itxura batean inolako eraginik: *urtarrila*, *uztaila* eta *urria*.

Segidan, ikerlanean zehar bildutako izendapen guztiak zerrendatu ditugu, osagai eta guzti garanduta, ikuspegi orokorragoa izate aldera.

	(h)il	aro	arra-	beltz	bigarren-	handi	lehen(biziko)-	eta	txiker	Ø
URTARRILA										
beltz/baltz	+									
(h)il				+						
izotz	+									
lo	+									
urte (berri)	+									
OTSAILA										
barant	+									
katu	+									
otso	+									
zezen	+									
MARTXOA										
eba(ki)?	+									
marti										+
martxo										+
urri										+
zozo	+									
APIRILA										
apiril										+
eba(ki)?										

	(h)il	aro	arra-	beltz	bigarren-	handi	lehen(biziko)-	eta	txiker	Ø
jorra	+									
ope	+									+
MAIATZA										
hosto	+	+								
lore										
maiatz			+							+
orri	+									
EKAINA										
arra										
baba	+									
*ebagi	+									
ekain (*eki + gain)										+
erein		+								
erre										
garagar		+								
uda	+									
UZTAILA										
garagar	+	+								
gari	+									

	(h)il	aro	arra-	beltz	bigarren-	handi	lehen(biziko)-	eta	txiker	Ø
Santa Ana(ko)	+									
uzta	+	+								+
ABUztua										
abuztu										
agor	+									
agostu										+
dagoen	+									
dilista		+								
Iraila										
agor	+									
autono										+
barau?	+									
buru?	+									
garo	+									
ira	+									
seteme										+
urri	+									+
Urria										
(h)azi		+								

	(h)il	aro	arra-	beltz	bigarren-	handi	lehen(biziko)-	eta	txiker	Ø
bildu	+									
lasto	+									
urri (bigarren)	+							+		+
AZAROA										
abendu						+	+			
gaztaina-zitu										+
gorotz	+									
(h)azi	+	+								
zemendi										+
ABENDUA										
abendu					+				+	+
beltz	+									
gabon	+									
hotz		+								
ilun?	+									
lo?	+									
lo(t) + (h)azi?	+									
negu	+									

Bibliografia

AGUD, Manuel eta TOVAR, Antonio (1988-1994). *Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca*, I-XXI, ASJU 22 (1), 23 (2 eta 3), 24 (1, 2 eta 3), 25 (1, 2 eta 3), 26 (1, 2 eta 3), 27 (1, 2 eta 3) eta 28 (1, 2 eta 3).

AZKUE, Resurrección María (1969) [1905-1906]. *Diccionario vasco-español-francés* (DVEF). Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.

— (1989) [1935-1947]. *Euskalerraren Yakintza*. Bilbo: Euskaltzaindia, Madril: Espasa Calpe. (3. arg.).

BARANDIARAN, Ignacio (1973). *Guipúzcoa en la Edad Antigua. Protohistoria y romanización*. Donostia: Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa.

BERNÁRDEZ, Enrique (2008). *El Lenguaje como cultura. Una crítica del discurso como lenguaje*. Madril: Alianza Editorial.

CARO BAROJA, Julio (1984). *Sobre la religión antigua y el calendario del Pueblo Vasco*. Donostia: Txertoa Argitaletxea.

CASADO VELARDE, Manuel (1988). *Lenguaje y cultura. La etnolingüística*. Madril: Síntesis.

COSERIU, Eugeniu (1981). «La socio- y la etno-lingüística: sus fundamentos y sus tareas», *Anuario de Letras* XIX: 5-30.

DIÉGUEZ, Kepa (2008). *Eguraldia eta kultura euskaldunen artean*. Donostia: Gaiak.

— (2021). *Euskal lexiko etnometeorologikoaren azterketa*. (Doktorego-tesia, EHU/UPV).

Kontsultagai: [<https://addi.ehu.es/handle/10810/53666>].

— (2022). «Euskal lexiko etnometeorologikoaren azterketa: kultura eta kognizioa», ASJU 56 (2022): 271-299.

— (2024). «Urtaroak: ikuspegi etnolingüistikoa», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 69 (2): 93-122.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.59866/eia.v69i2.287>].

DURANTI, Alessandro (2000). *Antropología lingüística*. Cambridge: Cambridge University Press.

ERNOUT, Alfred eta MEILLET, Antoine (1932). *Dictionnaire étymologique de la langue latine. Histoire des mots*. Paris: Klincksieck.

EUSKALTZAINDIA. *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. (Argitalpen digitala).
Kontsultagai: [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegi-anbilatu&task=hasiera&Itemid=1693&lang=eu].

—. *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa*. (Argitalpen digitala).
Kontsultagai: [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehha&Itemid=466&lang=eu&layout=].

—. *Orotariko Euskal Hiztegia*. (Argitalpen digitala).
Kontsultagai: [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=bilaketa&Itemid=1694&lang=eu].

FERNÁNDEZ GUIZZETTI, Germán (1957). «La etnolingüística: del mundo del idioma al mundo de la cultura», *Revista de Antropología* 5 (1): 75-93.

GARATE, Gotzon (1998). 27.173. *Atsotitzak/Refranes/Proverbs/Proverbia*. Bilbo: Mensajero.
Kontsultagai: [http://www.ametza.com/bbk/htdocs/garate.htm].

GOROSTIAGA, Juan (1958). «Los nombres vascos de los meses», *Euskera* III: 51-55.

HARTSUAGA, Juan Ignazio (1987). *Euskal mitologia konparatua*. Donostia: Kriseilu.

LAKARRA, Joseba Andoni (zuz.) (2019). *Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa* (EHHE-200), J. Manterola (koord.). Bilbo: Euskaltzaindia.

MARTIN CAMACHO, Juan Carlos (2016). «Hacia una caracterización de una disciplina lingüística (casi) olvidada: la etnolingüística», *ELUA* 30: 181-212.

MARTIN, William (1847). *An encyclopædia of every-day knowledge, for the young*. Londres: Sherwood, Gilbert eta Piper.

MERKEL, Garlieb (1798). *Die Vorzeit Lieflands*. Berlin: Vossische Buchhandlung.

MITXELENA, Koldo (2011) [1972]. «Lengua y cultura», in *Obras Completas. Lingüística General*, II, ASJUren Gehigarriak bilduma, 55. zenbakia. Bilbo: EHU/UPV: 81-108.

— (1974). «El elemento latino-románico en la lengua vasca», *FLV* 17: 183-209.

— (1985). *Fonética Histórica Vasca*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia (ASJUren argitalpena). (3. arg.).

MONTEANO, Peio J. (2024). *Vasconia en los siglos oscuros. De la caída de Roma al reino de Pamplona (409-905)*. Iruñea: Mintzoa.

MORANT MARCO, Ricard eta DÍAZ ROJO, José Antonio (2005). *Etnolingüística*. (Argitalpen digitala).

Kontsultagai: [www.liceus.com].

MURDOCK, George Peter, FORD, Clellan S., HUDSON, Alfred, KENNEDY, Raymond, SIMMONS, Leo eta WHITING, John W.M. (1987-2000). *Outline of cultural materials*. New Haven (Connecticut): Human Relations Area Files.

PALMER, Gary B. (1996). *Towards a theory of cultural linguistics*. Austin: University of Texas Press. (Gaztelaniazko argitalpena, 2000. *Lingüística cultural*. Madril: Alianza Editorial).

SEGURA, Santiago eta ETXEBARRIA Juan Manuel (1996). *Del latín al euskara / Latinetik euskarara*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

WILKINS, David (1976). *Notional syllabuses: A taxonomy and its relevance to foreign language curriculum development*. Londres: Oxford University Press.

ZABALA, Pello (2000). *Naturaren Mintzoa*. Donostia: Alberdania.

Laburdurak

EH: *Euskaltzaindiaren Hiztegia.*

EHHA: *Euskararen Herri Hizkeren Atlas.*

EHHE: *Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa.*

ErnMeill: *Dictionnaire étymologique de la langue latine. Histoire des mots.*

OEH: *Orotariko Euskal Hiztegia.*

Oharrak

Notas

Remarques

Notes

De noms, de cognoms i de llengües subordinades

ARGENTER, Joan A.

Institut d'Estuds Catalans (IEC)

Secció Filològica

jargenter@iec.cat

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2025i70.322>

De noms, de cognoms i de llengües subordinades¹

... perquè ningú no els traurà del cap que, essent la seva llengua, la castellana, la més bella del món, l'única digna de ser enraonada, la que haurien de parlar tots els homes, si no n'hi hagués d'heretges, nosaltres, germans seus d'Espanya, ens entestem, sols per una baixa rancúnia, a voler parlar-ne una altra de tan fosca i esgarrifosa.

Agustí Calvet Gaziel

Tots els camins duen a Roma. Història d'un destí (1893-1914)

Un nom de persona, un antropònim, és una cosa singular. Ens identifica davant d'altres i ens dona identitat personal. Un nom de fonts és una cosa única, perquè en principi no significa res o significa solament qui el porta. Un cognom ja és una mica diferent, perquè ens identifica amb la tribu; tots els membres de la tribu el comparteixen poc o molt.

De vegades també els noms de fonts ens vinculen a la tribu, perquè hi ha esdevingut un nom tradicional: el del pare i el de l'avi o bé el de l'avi i el del net. Era habitual saltejar el nom a cada generació. En tot cas, sempre hi ha noms de fonts que tenen més aire de família que d'altres. Si en una tribu hi ha un Enric és més probable que tard o d'hora n'hi hagi un altre. I si mai no hi ha hagut un Ferran, i així s'anomena un nounat, la gent dirà: «Ferran? I com és que li heu posat Ferran?». La tercera pregunta ja no gosen fer-la, però podria ser: «Que és orfe?». Com si s'hagués escolat a la família sense tenir-hi dret.

A la branca materna de la meva tribu coexistien un reguitzell de persones que van rebre totes elles el nom de la patrona de Barcelona (no pas per aquest motiu). La família es va valer d'un enginyós joc d'originals, manlleus, derivats i hipocorístics per salvar l'ambigüitat, i així vaig conèixer la Mercè, la Mercedes, la Mercedites, la Xites. El més significatiu, però, és l'absència del diminutiu català *Merchenetes*. Els estudiosos del declivi lingüístic en situacions terminals han fet notar que un dels primers símptomes del susdit decli-

¹ Llegit davant la Secció Filològica de l'IEC, reunida en sessió ordinària. Barcelona, 14 de març de 2025.

vi és l'adopció de noms de fonts de la llengua dominant per parlants de la llengua recessiva. L'ús del nom *Mercedes*, sigui pronunciat [mər'seðəs], [mer'seðes] o d'una altra manera (mai amb la interdental castellana), podria ser un d'aquests símptomes, per bé que el veig més com la inducció de la forma escrita oficial castellana en la llengua oral. El símptoma més clar de «declivi», si n'hi ha cap, no està en la presència d'una forma manllevada, sinó en l'absència d'una forma original catalana: aquell diminutiu.

Però amb això dels noms cal anar en compte. Has d'anar en compte que no te'l prenguin, tot i que en circumstàncies singulars és inevitable que t'ho facin sense miraments. El nostre nom és el que ens van donar els nostres pares o padrins i poca història. Ara, els catalans tenim una experiència de segles que ens deturpin nom i cognom. No cal anar a l'època de Franco; o no cal dir en temps de Franco..., com si abans de Franco no hagués passat ja. El fet és que a generacions de generacions de catalans el primer de què els han desposseït és del nom i, potser, del cognom.

El meu nom, el que em van donar els meus pares, el nom pel qual em coneixien els meus germans, cosins, parents pròxims o llunyans, amics, coneguts, etc., era *Joan-Albert*. És veritat que feia el sant per Sant Joan, però el meu nom era i és un nom compost. De manera que si em volien fer venir cridaven: «*Joanalbert!*»; si volien fer-me fer una cosa, també. Llavors els nens estàvem ensenyats que si una persona gran ens cridava, havíem de respondre: «Què mana?» (encara que nosaltres en coneguéssim la resposta). Això ara s'ha perdut i a mi em sap greu. No solament per la tradició lingüística, sinó perquè això i allò altre i allò altre —... i vas sumant— tot conflueix en el fet que el món s'ha tornat més barroer, també a casa nostra, encara que ho comencessin els anglosaxons. I no s'ha de confondre la barroeria amb la simplicitat o l'espontaneïtat.

Però no ens perdem en incisos. Per molt que jo em digués *Joan-Albert*, hi havia uns àmbits, llocs encerclats, en què no era això el que sentia, sinó: *Juan-Alberto*. Aquest era el nom castellanitzat i l'únic que escoltava a l'escola, a les comissaries de policia, a les agències del govern, a tot allò que feia olor de «vida pública i vida oficial». I, de fet, era l'únic que sortia en els papers oficials: partides de naixement, fes de baptisme, certificat d'antece-

dents penals, passaport i DNI, en fi. Podríem dir que era com la forma escrita del nom, perquè apareixia en els papers. Llavors els papers, i més els oficials, s'escrivien en castellà. Sota el franquisme el català escrit havia desaparegut com a llengua pública.

De fet, s'havia produït un robatori des que era un nadó i això ho havia d'arrossegat tota la vida... o no, com veurem. Ben considerada, la cosa és traumàtica i l'única justificació que té és precisament que és traumàtica. N'és l'objectiu. «No ho oblidis mai, noi, vius en una terra dominada, pertany a un poble sotmès» i, encara, «fas part del botí de guerra». En resum: els que manen no són els teus. Aquí manem nosaltres, uns altres, amb uns altres noms de fonts, uns altres cognoms, uns altres costums i una altra llengua.

Un dels quasi últims damnificats d'aquesta política va ser el meu primogènit Marc.

Quan vaig anar al Registre Civil a inscriure'l com a Marc, vaig topat amb el funcionari d'ofici i després amb un altre funcionari de rang superior. Jo insistia: «Marc». I ells: «Que no, no pot ser. Ha de ser *Marcos*». Després d'un estira-i-arroxa que ja no tenia cap sentit —érem al 1971, el Règim s'havia esfilagarsat i era a les acaballes (tot i que encara havien de venir noves execucions)—. Molts funcionaris prenen actituds prospectives. Arribat un moment de la interacció entre teòrics servidors públics i una mostra (significativa) del públic, el segon funcionari va afeblir-se de manera absurda: «*Marc* no puede ser. *Marcos* o *Marco*». «*Antes italiano que catalán*», devia pensar, emulant a l'avançada la política que després seguiria el PP envers el món empresarial català. De fet, m'inclino a creure que no ho devia pensar i que considerava *Marco* un nom castellà, perquè a l'escola li havien parlat de Marco Polo. Un senyor amb el cognom de *Doña Carmen* no podia dur un nom que no fos espanyolíssim. «Entonces, *Marco*: tengo parientes en Italia». Parents italians, s'entén. El *Marc* no es va dir d'altra manera, és clar: *Marc*. (També els nostres parents d'Itàlia li han dit sempre *Marc*). Però no s'ho va dir oficialment i des del bressol.

Quan al cap del temps, el franquisme se'n va anar aparentment aigüera avall de la història, vaig poder recuperar oficialment el meu nom original i

avui és aquest el que figura als papers oficials i és l'únic d'ús públic —i de fet és, en part, el que he fet servir sempre per signar les meves publicacions—. Almenys en part: *Joan*. Perquè les publicacions, les signo *Joan A. Argenter*. També el Marc va recuperar el seu. No cregueu que no et vulguin veure cap-cot, amb això de la recuperació del nom: has de demanar-ho, fer gestions, omplir formularis, fer papers, aportar documentació —quan el que s'hauria de demanar és una indemnització per danys i perjudicis, per introducció onomàstica i per robatori de la personalitat, per rapinya als teus progenitors—: n'hi ha de tan mesells que encara creuen que els hem d'estar agraïts.

Amb els cognoms, no va anar altrament, però aquí hi ha diferències importants. Una persona és la propietària del cognom? Això ja és més discutible, perquè el cognom, com hem dit, està vinculat a la tribu. Ara, la continuïtat d'un cognom durant un temps històric determinat en una tribu no garanteix que el cognom no hagi estat espoliat, deturpat, ferit d'una manera o altra. És el cas de la castellanització d'un bon nombre de cognoms catalans. Un cognom pot haver estat potinejat de diverses maneres, la més sovintejada era a través dels oficis d'un funcionari castellà o d'una regió castellano-parlant, que havia de parar l'orella, escoltar i escriure en castellà el cognom de la gent per primera vegada —i potser havia de començar per donar-los un cognom—. Això dels cognoms no ha estat cosa de sempre, si bé fa uns quants segles que dura. Una altra via era la subversió ortogràfica. El primer funcionari que castellanitzava els cognoms ho feia, com si diguéssim, d'una manera naïf. Era una aproximació d'allò que sentia el funcionari a la grafia castellana. L'altre podia tenir ja més mala bava, sabent-ho o no, i consistia a alterar la grafia dels cognoms catalans que seguien la normativa general, les normes de l'IEC, la manera unificada d'escriure el català. El meu avi matern —en record del qual van anomenar-me— es deia Joan Giralt Quadres —en alguns papers més o menys oficials he llegit *Cuadras*—. Encara bo que va salvar la *-t* de *Giralt*! N'hi ha que la van perdre pel camí. Que el pas de *-lt* a *-l* en posició final, és a dir, que no soni la *-t*, sigui un procés fonètic regular del català no fa la grafia *-l* més catalana ni més normativa que *-lt*.

El pare de Joan Giralt Quadres, és a dir, el meu besavi, era Josep Giralt Vidal. *Vidal*, *Giralt* i *Quadres* són cognoms comuns al Garraf. També ho és

Soler —el cognom de l'àvia materna (la qual jo vaig conèixer com a «Angeleta Soler, vídua de Giralt»). *Vidal* no ha patit gaire. *Giralt* s'ha mantingut en general. Desitjaria que *Soler* tampoc no hagués patit. *Quadres* alterna amb *Cuadras*. N'hi ha que, més rancis que cultes, han mantingut la *cu*, que fa llatí i sembla de noble paratge, hi han afegit un guionet, que sempre fa goig, però han abocat en un terrible esguerro per hibridació: el cognom *Vidal-Quadras* preserva la *qu* etimològica llatina, però és esclau de la terminació castellana.

Coses semblants passen o han passat en altres racons de la pell de brau, allí on hi ha una llengua altra que el castellà. Casa de Xurxo a Meiraos do Courel, Galícia, és el nom original de la casa on va néixer una persona que m'és molt pròxima. Allí la gent es coneix més pel nom de la casa que pel cognom, el qual pot coincidir o no amb un nom de casa i amb qui sigui o no de la casa. Xurxo —diguem, *Jordi*— s'ha mantingut com a nom de la casa en la tradició oral de la gent, que és la manera com perviuen i es mantenen els noms. La persona que m'és molt pròxima no porta el cognom *Xurxo* i aquells vinculats amb la casa que el porten ho fan sota la forma *Jurjo*, una castellanització absoluta de base fonètica d'aquest nom (X::J, [x] per comptes de [ʃ]), una altra opció, no menys intrusiva, hauria estat una simple traducció (*Jorge*). Ningú de Meiraos no designa aquella casa amb el nom *casa de Jurjo* i tothom en diu *casa de Xurxo*. En canvi, tothom sap o pot saber quines persones de casa de Xurxo porten oficialment el cognom *Jurjo*.

La cosa —la cosa més trista— és que no es tracta solament d'afers administratius o de «política nacional». És que «els espanyols no catalans», com diria Gaziel (cap arrauxat), participen amb deler d'aquesta deturpació i al capdavall subjugació antroponímica. Us exposaré un parell d'anècdotes. Totes dues tenen a veure amb la percepció que gent de parla castellana (en principi, «espanyols no catalans») es fan del català, sigui en funció de l'acomodació de l'estructura del català a l'estructura de la seva llengua sigui en funció de la subordinació del català a la seva llengua. Totes dues tenen a veure també amb l'onomàstica: la primera amb un topònim i la segona amb un antropònim. El topònim és un mer exemple, podria haver estat un altre mot de la llengua amb característiques fòniques similars. L'antropònim, no; és substancial que sigui aquest.

Una vegada em vaig presentar davant un director de teatre no professional, més aviat escolar i, ben entès, en castellà. Era un navarrès castellanoparlant. M'havia de fer una prova, això que en diuen un càsting. Es va limitar a demanar-me: «A ver, di *general*». I jo vaig fer *general*, en castellà, però amb una insubornable velarització de la *l*.

«¡Fuera!», va sentenciar amb raó, però no es va acabar aquí la història. Potser per no ser tan contundent va afegir, com si hi posés interès: «¿Vosotros, los catalanes, por qué decís *Llobregata*?». Tot i que, pragmàticament, la pregunta violava la màxima de pertinència, jo li vaig contestar que no dèiem *Llobregata*, que de fet això ho havia dit ell i no cap català, i que els catalans diem *Llobregat*. I va fer: «¿Lo ves? *Llobregata*».

Suposo que per a ell, la cosa va acabar aquí, amb absoluta convicció i sense cap mena de curiositat. Jo, en canvi, vaig intentar entendre què passava i em vaig adonar que, ultra la fonètica articulatòria i la fonètica acústica, n'hi ha una altra, que és la fonètica perceptiva. El castellà no posseeix les consonants obstruents sordes /p, t, k/ en posició final de mot —és a dir no té mots com *cap*, *pet* o *poc*—. Els sons corresponents no poden cloure mot, és a dir, no poden ser percebuts com a finals. De manera que quan un castellanoparlant es troba amb un mot com cat. *Llobregat*, interpreta que aquesta -t no pot ser final absolut de mot i la seva oïda hi afegeix una vocal per tal de no trencar l'estructura sil·làbica previsible en la seva llengua (ometent que el mot no és de la seva, sinó d'una altra llengua). El navarrès hi afegia la percepció de la vocal i em renyava com si jo la hi pronunciés.

M'avanço a una pregunta o una objecció: no em demaneu si aquest senyor també sent *Montserrat* o *amistata*, demaneu-li-ho a ell. La percepció només la coneix el receptor. No crec que senti *amistata*, ja té un mot en la seva llengua, *amistad*. Més plausible fóra que percebés *Montserrat*, que és un nom propi, un topònim com *Llobregat*, aliens al castellà. De fet, ja el cinc-centista Cristóbal de Virués, poeta i militar, va escriure un poema èpic intitulat *El Montserrate*, en castellà i amb una castellanament raonable vocal final de suport (1587).

La segona anècdota és més dolorosa —per no dir més bèstia— i menys instructiva. El més interessant de l'escenari comunicatiu és que l'intercanvi

té lloc en una regió d'Espanya, entre un «espanyol no català» i jo mateix, i que la relació entre aquests dos és asimètrica, amb avantatge per a l'espanyol no català. Em demana pels cognoms:

«Argenté Giralt», dic, a la catalana. «Eso será en Cataluña». Atesa la meua posició subordinada, no vaig gosar demanar: «¿Y cómo debe ser *eso* fuera de Cataluña?», perquè si *eso* és d'una altra manera, ja no és *eso*. Si deixem de banda el vocalisme (l'absència de «vocals neutres» en una pronúncia castellana), el que estava en qüestió era la *g* en totes dues ocurrències. Déu-n'hi-do. Expliqueu-li ara a un espanyol no català que el mot català *Espanya* no solament s'escriu amb *-ny-*, sinó que solament presenta un so *a* i cap *e* (en català oriental)! Potser us farà: «[ə]?». Si ho fa, li n'haureu tret un *schwa*, la vocal neutra! O, per no sortir de l'antroponímia, expliqueu-li com pot ser que al món hi hagi un individu que pugui dir-se *Raimon* i no *Raimundo* o, en els seus termes, per comptes de *Raimundo*.

I encara una altra persona que em mereixia respecte, un basc en aquest cas, em va demanar, per sorpresa meua: «¿Pero tú no crees que se les hace un favor a esos hablantes de vasco de los caseríos al enseñarles el castellano y hacerles olvidar el vasco...?».

Evidentment, això no li ho feia dir l'animadversió envers els seus connaturs; li havia estat imbuït de la ideologia dominant. Si, segons els qui ostenten i difonen aquesta ideologia, no es pot dir tot en èuscar o si hi ha coses que solament es poden dir en castellà, però no en èuscar —i no a la inversa—, llavors és que no es tracta d'un problema de gramàtica i de lèxic, sinó d'una qüestió de pensament i al capdavall és fins a aquí que els cal arribar, a l'arrel. L'erradicació de la llengua com a sistema gramatical és una conseqüència necessària d'evitar que els *euskalduns* —i els parlants de llengües minoritzades— puguin pensar en llur llengua, que puguin concebre les coses que els permetria i com els permetria fer-ho llur llengua.

Amb això, hem arribat al moll de l'os, però no em malentengueu. No vull evocar aquí la delicada qüestió sobre si la llengua condiciona el pensament o viceversa ni si tota llengua es pot traduir a qualsevol altra, etcètera. Vull assenyalar que l'espècie humana és una, el llenguatge li és espe-

cífic i el cervell d'un humà no és gaire diferent del d'un altre i és capaç de desenvolupar les mateixes potencialitats, però allò que els humans pensem i verbalitzem en una llengua concreta és concebut des de perspectives lingüístiques diferents que aboquen a maneres de dir i a expectatives diferents.

A diferència del castellà, l'èuscar és una llengua que posseeix certes propietats, com determinades partícules discursives que el castellà desconeix, posposicions per comptes de preposicions, sufixos casuais, que ofereixen a aquesta llengua una facilitat per a encadenar seqüències de formes nominals contigües que el castellà solament podria expressar amb formes verbals o no podria expressar, i també li ofereixen la possibilitat d'evitar allò que en castellà serien clàusules de relatiu o clàusules amb entonació interrogativa. Tot plegat dota una narració en èuscar d'una densitat i un ritme nominals aliens al castellà. La pèrdua de l'èuscar orientaria diferentment o clausuraria l'expressió que hi és natural.

I ja que ens hem ficat en esbarzers gramaticals i avui els vents bufen d'on bufen en això de la gramàtica i el parlar inclusiu, no vull deixar de mencionar el comentari que l'autora d'una novel·la en èuscar fa² entre molts altres, a propòsit de la traducció castellana que ella mateixa n'ha fet³. Diu⁴:

La protagonista, Luzia, tiene un perro bóxer llamado Taka, que no había tenido sexo durante los muchos años que duró la confección de la novela en euskera, lengua en la que no hay marca de género. Al traducir la novela al castellano me tuve que plantear necesariamente si Taka era hembra o macho. ¡Y aún diremos que la forma no condiciona al contenido!

I afegeix:

Además, la ausencia de *ella* versus *él* en euskera me obligaba a una mayor frecuencia de los nombres propios, lo cual dio al texto una textura más densa.

² Lourdes Oñederra, *Intemperies (babes bila)*. Donostia: Erein Argitaletxea, 2013.

³ Lourdes Oñederra, *Intemperies*. Donostia: Erein Argitaletxea, 2015.

⁴ Comunicació personal.

Tot això ens mostra que cada llengua té una estructura pròpia, la qual fa que els parlants es fixin en unes categories i en menystinguin unes altres, que facin unes tries gramaticals i segueixin unes estratègies expressives que, si parlessin una altra llengua, no farien ni seguirien, o que no les facin ni les segueixin quan parlen una altra llengua.

Perdoneu la digressió i retornem a l'onomàstica (de fet, amb l'última citació ja hi hem tornat). D'ençà que el país va deixar el règim autoritari i autocràtic enrere i en va encetar un altre de deficientment democràtic, l'autoritat competent ens ha permès recuperar noms i cognoms, als parlants de les, constitucionalment, «demás lenguas españolas». Va ser així com el meu nom de fonts oficial castellà va convertir-se en el meu nom de fonts oficial català i així ho certifica el meu DNI. El nostre cognom també va patir una lleu modificació i va adoptar una forma ortogràfica inequívocament catalana. En el meu cas va ser una concessió del Ministerio de Justicia del Reino de España, a instància meua, i la justificació benvolent que va adduir va ser que «por tratarse de una leve modificación fonética» m'era permès fer el canvi. Això de la «leve modificación fonética» em va sorprendre una mica —no ho deien pas per l'accent tònic, sinó per la consonant final— però vaig acceptar-ho, amb les seves conseqüències: de llavors ençà els meus col·legues espanyols no catalans em dirien *Argenter*, amb totes les lletres i amb una variable pronunciació, més o menys destra, de la g, i una pronunciació errònia de les vocals, cosa que ja passava abans. Perquè aquí hi ha una qüestió gràfica: som nosaltres, els catalanoparlants no valencians, els que no pronunciem la *r* final d'*Argenter* ni *Fuster* ni *Sabater* (tant si són noms propis com si són noms comuns). La reconeixem en la pronúncia d'un valencià i la pronunciem també en mots derivats com *argentera*, *fusterejar*, *sabateria*. Sempre he dit que jo no pretenia restituir la veritat onomàstica, sinó el sentit i la correcció ortogràfica.

Quan vaig anar al Registre Civil amb la carta ministerial a la butxaca i van haver aplicat els canvis, vaig demanar un document oficial, qualsevol, per veure el goig que faria la novetat onomàstica en negre sobre blanc. Doncs, vet aquí que em vaig trobar el següent: «Joan Albert Argenter y Giralt». No sé si us heu fixat en la *y*. M'assimilaven a *Don Marcelino Menéndez*! Vaig protestar visiblement enutjat i vaig argüir que si jo havia demanat

la catalanització dels meus nom i cognom, no tenien dret a sortir-me ara amb una i grega (y) per comptes de llatina (i) (o de res). El funcionari castellà que m'havia dut el paper oficial va dir: «Bueno, esta y no tiene ningún valor oficial: es solo para separar los dos apellidos» (com si no n'hi hagués prou amb un espai en blanc: si es tractava d'estalviar paper, amb un espai en blanc ja fèiem —altrament, tant la y com la i demanen dos espais en blanc—). La funcionària catalana amb qui havia gestionat els formularis va dir-me amb més lògica i potser amb més malícia: «Es que vostè no ha demanat la traducció de la i grega. Si ho vol fer ara...», i m'allargava la mà arrossegant un nou formulari en blanc de sol·licitud de traducció per damunt la taula. És a dir, ho deia seriosament. Em va semblar que tot plegat ja era massa inri i vaig decidir que es posessin la conjunció copulativa on els cabés. La terminologia gramatical és molt sàvia. I allí va quedar la y.

De tota manera, haig de reconèixer que amb això del nom, jo he contribuït a una certa confusió. A partir d'una edat em va venir al cap que això dels noms doblats o triplicats era cosa de reis i de nobles —devia coincidir amb una de les exaltacions del llavors príncep Juan Carlos, segurament el seu nomenament com a successor de l'autòcrata, «a título de rey»—. Vaig decidir escurçar-me el nom i deixar-lo en *Joan*, que és com al capdavall es deia el meu avi, el qual no vaig arribar a conèixer, però sí a perpetuar onomàsticament. De llavors ençà tothom m'ha conegut com *Joan* i m'ha anomenat *Joan*. També la família: els meus pares i germans. Al principi els va costar una mica, sí, però s'hi van avesar al capdavall. Amb els parents més llunyans i que poc sovintejo de vegades haig de presentar-me com a *Joan Albert* per ser identificat tot d'una i evitar haver de presentar-m'hi dues vegades. I quan algú que em sembla desconegut em diu *Joan Albert*, sé que és un conegut d'adolescència —no un amic pròxim— o un company d'estudis (o algú informat a la GEC o a Viquipèdia). Tot plegat ha facilitat una certa confusió amb les denominacions i amb les referències bibliogràfiques. Sempre m'ha sabut greu per les bibliote càries.

Però vet aquí que es va esdevenir un altre fet que canviaria novament la nostra història onomàstica. L'origen remot és la companyonia i molt posterior casori del meu fill Jordi amb la Laia. Quan va néixer el seu primer fill i em van fer avi per primera vegada, van posar Joan al nadó. Gairebé era un

compromís indefugible. El pare de la Laia es diu Joan Maria i jo em dic Joan Albert. Tots dos teníem per costum fer-nos dir *Joan*. Com si fóssim caràcters onomàstics recessius, el menut es va dir i es diu Joan. Els meus nets, aquest i els que vindrien, ens tracten d'avi *Joan Maria* i avi *Joan Albert*. Cap dels dos avis no vam cedir a cedir el simple *Joan* a l'altre i els nens s'havien d'aclarir. Tenien el dret a conèixer la veritat i orientar-se en aquell embolic d'avis, del qual eren innocents. De fet, són ells que ens han torçat el braç.

Ander Manterola Aldekoa: zeanuriztar etnografoari elkarrizketa

MENTXAKATORRE ODRIUZOLA, Jon
Mondragon Unibertsitatea
jmentxakatorre@mondragon.edu
ORCID: <https://orcid.org/0000-0002-7101-0084>
DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2025i10.308>

Joxe Migel Barandiaran (Ataun, 1889-1991) apaiz, maisu eta zientzialariak Bizkaian izan duen ikasleen artean, Gurutze Arregi Azpeitia (Lemoa, 1936 – Zornotza, 2020) andrearekin batera, Ander Manterola Aldekoa (Zeanuri, 1934) jauna nabarmentzen da. Arregi eta Manterola, bi-biak, Labayru Fundazioko eta bertan habia hartu zuen Etniker Bizkaiko kide nagusi dira, eta bizitzaren atal gehiena euskal ondarea jaso eta aztertzeari eskaini diote, Euskal Herriko Atlas Etnografikoa ekimenaren baitan. Bai Arregi, bai Manterola, Barandiaranen esan-eginetara hurbiltzeko iturri onak dira, eta, horregatik, azkenari solasaldi luzea eskatu genion, testu honetara ekarri duguna.

Elkarriketan azaldu zuen legez, Manterolak 1967an ezagutu zuen Barandiaran. Haien arteko harremana ataundarraren heriotzaraino luzatu zen. 1972an, Labayru Institutuan —Labayru Fundazioa gaur egun—, Etniker Bizkaia taldea eta beronen aldizkaria koordinatzen hasi zen, Barandiaranek bertan ematen zituen irakaspenei eraketa sendoagoa eman diezaieten. 1977az gero, Eusko Ikaskuntzan lan handia egin zuen, eta, erakundearen babesa eta besterekin, Barandiaran Fundazioa eratu zuen 1988an.

Barandiaranekin batera, Manterola *Euskaldunak. Euskal etnia* (I-VII) (1978-1993, Donostia: Etor) lan-bildumaren zuzendari izan zen, eta ostean gipuzkoarraren bizitzaren eta obraren gainean lan egin zuen. Hala, besteak beste, G. Arregirekin batera, *Vida y obra de D. José Miguel de Barandiaran* (2003) idatzi zuen, eta *Eusko-Folklore. Materiales y cuestionarios* (I-II) (2006) editatu, Ataungo Barandiaran Fundazioaren barruan.

Ander Manterolaren bizitza eta lana gertutik ezagutzeko, *Zeanuritik Euskal Herrira* (2015) liburua ezinbestekoa da. Lan horretan, «Ander Manterolagaz bere bizitzearen gainean berbaz» (13-106), Igone Etxebarriak egindako elkarriketa (auto)biografikoa dago, Gurutze Arregik paratutako «Ander Manterolaren bibliografia» (229-36) zerrenda zehatza, eta Manterolaren lumako hainbat lan «Ander Manterolaren lan hautatuak» (109-227).

Hurrengo lerroetan, Sebastian Gartzia Trujillo laguna ere han zuela, 2024ko irailaren 12an, Bilbon, Manterolarekin izandako berbaldia emango dugu, oharrez hornitua. Elkarriketa bizkai-euskaraz izan zen, eta halaxe ekarri dugu hona ere. Bertan, Barandiaranen izaera eta pentsamendua ulertzeko zenbait gako eman ditu zeanuriztarrak, Gasteizko Seminarioarekin,

Euskal Herriarekin eta etnografiarekin ataundarrak zuen sakoneko lotura agerian utziz bide batez.

Gai horietan guztietan sakontzeko, Barandiaran hil eta handik gutxira, Gasteizko apaiztegiko *Surge* aldizkarian (1992) haren omenez egindako zenbakia ere oso lagungarria delakoan gaude.

* * *

Jon Mentxakatorre (JM): Gasteizko Seminarioko Barandiaranen sasoia ulertzeko, nondik hasi horren sidurrien bila? Nora jo?

Ander Manterola (AM): Bide bakarra, orduko Barandiaranen argitalpenetara jotea da. Nire ustez ez dago beste biderik. Gasteizko Seminarioan bertan ze dokumentazino egongo da? Barandiaranen ze dokumentazino? Beharbada egongo da zeozer, baina ziurrenik ezer ez. Barandiaranen dokumentazinoa [Barandiaran] Fundazioan egongo da. Sasoi horretakoa? Aldizkariak: *Gymnasium*, *Idearium*¹. Aldizkari horreek dira bidea.

JM: Denpora haretan beronek zuzendu eta argitaratutako lanak, orduan.

AM: Batez be aldizkariak. Horrezaz gainera, Joaquín Goikoetxeaundiak idatzitako Seminarioaren historia, eta orain, azkenengoz, Andrés Ibáñezek atara dauana. Baina uste dot sasoi haretarako ez dirala onak². Hor egin

¹ *Gymnasium*: Revista Bimestral de Iniciación Científico-literaria de los Seminaristas de la Diócesis de Vitoria (1927-1932) eta *Idearium*: Revista de Investigación y Síntesis de Ciencia Religiosa (1934-1935) Barandiaranek eratu eta zuzendutako aldizkariak izan ziren. Sarean digitalizatuta eta eskuragarri daude.

– *Gymnasium*:

<https://www.euskalmemoriadigitala.eus/handle/10357/2315>.

– *Idearium*:

<https://www.euskariana.euskadi.eus/euskadibib/eu/bib/1455364.do>.

Horrez gain, *Kardaberaz* aldizkaria (1933-1936) ere argitaratu zuten Gasteizko ikasle-irakasleek, Manuel Lekuona eta Jose María Arizmendiarrietaren ekimenari esker.

² Joaquín Goikoetxeaundiak (1905-1993) *Antecedentes históricos del Movimiento Sacerdotal de Vitoria* (1983, Gasteiz: Egaña) eta Andrés Ibáñezek (1920-2006) *Historia del Seminario Diocesano de Vitoria* (I-II) (2005, Gasteiz: ESET) idatzi zuten. Bi-biak Gasteizko Seminarioko irakasle izan zi-

beharreko ikerketea dago, baina mundu hori nik ez dot aztertu. Hor historia oso bat dago. Don Mateo Mujikaren bizitza aztertu behar da horretarako³. Eta, atzenean, Espainiako Eleizaren azterketea da.

Zelako giroa egoan han? Ea, Gasteizko Seminarioa famadua zan, European egoan seminariarik onena zala esaten zan. Bera eta Milangoa. Onenetarikoak zirala. Zergaitik? Ondo horniduta egoalako, bere aldizkariak eukazalako; seminaristek egindako aldizkariak. Barandiaranek beti izan eban, gauza bat aztertuta, argitaratu egin behar dala. Eta hor, batez be *Gymnasiumen*, egileak seminaristak ziran.

JM: 1916 eta 1936 artean, makina bat irakasleren inguruan, Gasteizko Euskal Eskola izentau geinkeana izan zan. Hango irakasle nagusi izan ziran Joxe Migel Barandiaran eta Manuel Lekuona, besteak beste. Zergaitik izan ziran, orduan, bertan, garrantzitsuak?

AM: Gai barriak azaldu ebezalako, bai Barandiaranek, bai Lekuonak. Azken horrek herri-olerkia batez be aztertuta, euskal olerki herrikoiak, eta idatzi eban gaur egun be irakurgarria dan *Aozko literatura*⁴. Hango maisuak beste bide batez ikusten hasi ziran inguruan egoan errealdadea. Eta erabat bardin Lekuonak eta Barandiaranek, bakotxa bere bidetik.

Barandiaran aldatu eban gehien baten Wundt eritxan batek, Leipzigecko Unibertsitateko irakasle zan batek, *Völkerpsychologie* idatzi ebanak⁵. Horrek

ren; Barandiaranen lankide lehena. Orobat, Barandiaranen 1917-1936ko egunkaria (2005) iturri garrantzitsua da.

³ Mateo Mujika (1870-1968) gotzain izan zen Iruñean 1924-1928an, eta Gasteizen 1928-1936an. Erbestera jo egin behar izan zuen. Kanbon 1945ean idatzi zuen *Imperativos de mi conciencia. Carta abierta a D. Jose Miguel de Barandiaran* ezinbestekoa da.

⁴ *Aozko literatura* (1978, Tolosa: Librería Técnica de Difusión), Kardaberaz Bazkuna elkarteak beronen bildumaren 22. zenbakian argitaratu zuen, eta Lekuonaren *Idaz-lan guztiak* bildumaren lehen liburuki lege. Obrak, gaiaren gainean, egileak XX. mendearen lehen hamarkadetatik ordu-ra arte egindakoak biltzen ditu.

⁵ Wilhelm Maximilian Wundt (1832-1920). Psikologiari izaera zientifiko modernoa eman zion Leipzigecko Unibertsitatean, 1879an eratutako Psikologia Esperimentaleko Laboratorioaren bidez. Haren lanen artean, *Völkerpsychologie. Eine Untersuchung der Entwicklungsgesetze von Sprache, Mythos und Sitte* (1900-1920, Leipzig: Engelmann) nabarmen daiteke, 10 liburukitan emana. Ha-

aldatu eban. Horrexek esan eutsan: «Zertan zabilta zu hor murgilduta liburuak irakurtzen antropologiari buruz, urruneko gauzak? Zeure inguruan daukazu zuk herri bat. Zergaitik ez dozu aztertzen herri hori? Zergaitik ez dozuz aztertzen horren pentsakerak, horren ipuinak, horrenbeste gauza?»⁶.

Horrek aldatu eutsan Barandiarani buru guztia. Orduan itxi eban berak esaten ebana, *la ciencia libresca*, eta hasi zan bere eginbeharrik handienez: herria bera aztertzea. Herriaren usteak, mitoak, ipuinak, esakerak, batez be, psikologiari jagokozanak. Horretan hasi zan-eta Wundt aitatzten, «herri-psikologia». Baina herri-psikologia zer zan orduan? Psikologia esperimental, herriak zelan pentsetan eban ikertzen eban psikologia. Ze irudi erabilten ebazan herriak? Hortik hasi ziran. Eta horrerri heldu eutsan Barandiaranek. Lehenengoz, nik uste dot, lehenago batu ziran-eta gauza batzuk. Esaterako, arabarrak Anbotoko Dameari buruzko bilketak egiten hasita egozan. Baina egiten ebezan, eta erabilten ebezan, literatura gai lez gehiago⁷. Baina Barandiaranek ez eukan begia literatura gaian, edukian berean baino.

Horregaitik berak esaten eban, guk ipuinak edo esaundak batzerakoan, berbaz berba, herriak esaten dauan moduan batu behar doguzala. Horrek emoten deutso, gainera, linguistikari berari beste bide bat: herri-literaturea⁸.

ren gainean, ikus Anduaga (2023; 2024) eta Azurmendi («Herri-psikologia, etnologia: Wundt», in 2007: 199-214).

⁶ Herriaren altxortegian dauden sineskerak, pentsaerak eta egitekoak: pluralean, bai alde fisikoa-ri, bai alde psikikoari oratuz. Askotariko adierazpenen osotasun hori da, hain zuzen, Barandiaranek *El mundo en la mente popular vasca. Creencias, cuentos y leyendas* (1960-1962, Donostia: Añamendi) lanean eman zuena.

Barandiaranen aurretik, herriaren aho-eskutiko ipuin-biltzailerik handienak Jean-François Cerquand, Wentworth Webster eta Resurrección María Azkue izan ziren. Herri-ondarea erdaraz eta ukitu literarioz eman zuten arabarren artean, Manuel Díaz de Arcaya, Sotero José Manteli eta Ladislao Velasco izan ziren. Horrez gain, aipagarriak dira Juan Iturralde y Suit nafarra, Juan Eustaquio Delmas eta Antonio Trueba bizkaitarrak, eta José María de Goizueta eta Juan Venancio Arakistain gipuzkoarrak. Azken horren *Tradiciones vasco-cántabras* (1866, Tolosa: Imprenta de la Provincia) eragin handikoa izan zen Azkuerengan, esaterako. Ikus «Euskal ondarearen biltzai-leak» (in Mentxakatorre 2023: I, 32-40).

⁸ «Jose Migel Barandiaranen ekarpena arkeologia, etnografia eta euskal mitologiara (II)» EHUko ikastaroan (Ataun, 2024ko irailak 5-6) ongi nabarmendu zen hori (ikus Mujika 2024). Herri xehearen jakintza bildu eta aztertzearen Barandiaranen bide horretan, zehaztasunik handiena

Baina euskal gaiak, Gasteizko Seminarioan, gitxi be gitxi ziran. Astean hiru edo lau ikastaldi, ez egoan besterik. Eta aldizkarietan be oso gitxi agertzen zan, gaurko mundutik ikusita. Orduan gauza handia izango zan, baina gaurko mundutik ikusita ez zan gauza handirik⁹.

JM: Gasteizko Seminarioan be, 1936ko Gerrea aurretik ja, mobimentu espiritual berezia egon zan. Horretan Rufino Aldabaldetrekuk ekarpen handia egin eban, ezta? Eta Barandiaranek be bai?

AM: Barandiaran eta Lekuona ez baina, Rufino Aldabaldetrekuk beste mundu batetik etorren. *Aldabalde* Barandiaranen kursokoa izan zan, gitxi gorabehera. Harek Frantzian ikasi eban, han egon zan behar egiten, eta gero ekarri eben Gasteizko Seminaria. Baina oso arin hil zan, gazterik, 1945ean-edo¹⁰.

Aldabalde be eragin handia euki eban, bai, batez be espiritualidade aldetik. Barandiaran ez zan sartu mundu horretan. Barandiaranena gehiago izan zan ikerketa-mundua. Lan-munduan, azterketa-munduan, hortxe sartu zan gehiago¹¹.

Sebastian Gartzia (SG): Garrantzitsua da nabarmentzea, bai Lekuona, bai Barandiaran, herrikoak ziralako, herrikoak izateagaitik, mamina zein zan asmau ebela. Zientzialariok, askotan, zientziaren metodotik goaz eta ez

Juan Manuel Etxebarriak eman du bere *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak* (I-II) obran (1995-2016, Bilbo: Labayru Fundazioa eta Euskaltzaindia).

⁹ Gasteizen euskal gaien ikasketak Kardaberaz Bazkunak sustatu zituen, Manuel Lekuonak 1924an eratua (ikus «La lengua y la cultura vascas en el Seminario de Vitoria: 1918-1936», in Manterola 2005: 153-156). Artean Euskal Unibertsitaterik ez eta, Eusko Ikaskuntza 1918an sortu zen, eta haren agerkari bihurtuko zen EINA 1907an, Julio Urkixo buru zela. *Eusko Folklore Urtekaria* 1921ean agertu zen, Barandiaran zuzendari zela.

¹⁰ Rufino Aldabaldetrekuk (1904-1945) apaiz gipuzkoarra izan zen. Parisko Saint-Sulpice Seminarioko apaiz-bidetik ikasi zuen, eta 1924an Gasteizko Seminarioko espiritualtasun berezia pizten hasi zen.

¹¹ Ondoren aipatuko diren atzerriko hainbat ikerlariren antzera, Barandiaran Jainkoaren ulermen eta artikulazio historikoaz arduratu zen. Horren adibide argiak dira *Mitología del pueblo vasco. Las piedras y los monumentos prehistóricos* (1928, Gasteiz: Montepío Diocesano) eta «Orígenes espirituales del Pueblo Vasco» (1935, *Euzkerea* 10: 606-609; <https://www.euskalmemoriadigitala.eus/handle/10357/2312>) lanak, esaterako.

dogu maminik lortzen. Barandiaran eta Lekuona, herrikoak ziralako mamina topau eben. Lekuonaren kasuan, esaterako, argi dago. Nork asmau eban herri-literaturearen huna zein zan?

AM: Huna... Eta zeintzuk ziran bideak, eta legeak, eta usteak?

SG: Eta Lekuona ez zan unibersidadean literaturea ikasitakoa, baina persona egokiena zan, herriko semea. Hori guztia zala-ta, guztiak liluratuta geratu ziran. Hori da, nire ustez, bai Lekuonagaz, bai Barandiaranegaz gertatzen dana. Herrikoak izanik, herritik haren muina hartu eben.

AM: Bai, bai, errazoi osoz. Barandiaran bere herritik hasi zan. Automnografia hasi zan egiten. Lehengoko lanak, mitologiari buruz be, ez dira besterik berak txikitan hartutako ipuinak, eta usteak, eta mitoak baino, etxean, amari hartutakoak. Hortik hasi zan, urretik eta hurkoenetik. Gero zabalduko zan besteetara. Hori izan zan bere bidea, eta gero horren espiritua sartu egin da bai etnografian, bai arkeologian; arkeologian gitxiago, beste mundu bat dalako.

Arkeologia- eta prehistoria-lanek Barandiaranen etnografia-lana estaldu dabe apur bat. Horregaitik agertzen da preshistoriagilea balitz lez. Baina Barandiaranek inportantzia gehiago emoten eutsan etnografiari. Esaten eban: «Arkeologia gauza mutua da». Hor ez dago ahotsik. Norberak esaten dauana, norberaren ustea, dago hor. Baina etnografian ez. Etnografia bizia da, ez da mutua. Etnografia hartzen dozu eta itaunak egin zeinkez, eta argitaratu egin zeinke herriak esaten deusuna. Baina beti lekukoak protagonis-tak dirala.

JM: Bide espirituala eta zientifikoa nabari dira, orduan, Barandiaraneg-an. Dana dala, lehenbizi, bere burua abadetzat eukan.

AM: Beti.

JM: Hiru kategoria erabiliko bagenduz, abadea, maisu —zentzunik zabalenean, jente askoren maisu, Seminarioan bakarrik ez— eta zientzialari, horreek zelan lotuko litzatekez beragan?

AM: Berak oso ondo lotuta eukazan. Baina lehentasuna abadea izatea zan, nire ustez. Nik Barandiaranegaz otoitz be egin dot. Barandiaran beti

izan zan abade, beti, atzeneraino. Tira, ez zan izan abade predikalaria, konzientziaz, izatez, gurariz, baino. Abadea izan zan, beti-beti.

Berak otoitz egiten eban goizean, niri esaten eustan. Laudes eta Brebirioko otoitzak. Eta goizerdian mezatara joaten zan Ataunen, eta Saran be bai. Saran, gainera, parte handia hartu eban parrokian, hango parrokoagaz. Eta lehenago, Angelun. Barandiaranek hiru ahizta eukazan monja, eta oso hartu-emon handia eukan hango bere arreba monjeagaz. Baina hortik, sentikera horretatik.

Hori ulertzeko, lehengo gizaldira joan behar dogu, gaurko gizaldian hau gauza arraroa dalako. Baina lehengo gizaldian gauza normala zan. Abade bat ikerlari izatea gauza normala zan. Gaur egun ez, beharbada, ez dakit. Baina orduko denporan, gauza normala. Azkue daukazu hor, adibidez.

SG: Zelan lotu ebazan berak ikerlaria izatea eta eleizkoia izatea? Esaterako, Vatikanotik etorri jakozan antimodernismoa eta eboluzionismoaren aurkako erespideak. Zelan moldatu zan? Askatasun osoz?

AM: Leuntasun osoz. Leun. Ez eban kontrarik egiten, baina interpretazioa bai. Interpretazioa libreza zan. Esaterako, eboluzionismoa onartu egiten eban, eboluzinoa onartzen eban¹². Modernismoari buruz, hori ez dakit ziur, zehaztasun handiz, modernismoa hemen zelan sartu zan Euskal Herrian.

Berak onartzen eban, beti eta lehenengo-lehenengo, Eleizak eta Eleizako erakundeek esaten ebena. Oso ondo onartzen eban, beti. Sekula be ez deusat entzun kontraesanik horregaz. Sekula be ez. Ez kritikarik. Orain, interpretazioa bai, bere erara, leuntasunera jotzen eban. Baina sekula ez zan egon arazorik horregaz.

JM: Barandiaranen gaitasunik handienetarikoa horixe izan zan: guztia ohi baino marko handiagoan ulertzeko ahalmena.

AM: Gainera berak Europan eukazan hartu-emonak, guztiak, gehienak hobeto esanda, katolikoak ziran; Schmidt, adibidez. Batzuk abadeak ziran;

¹² Cfr. Altonaga (2016).

Obermaier, esaterako, abadea zan. Eta Vienako Anthroposeko zuzendaria zana be erlijiosoa zan. Baegoazan beste batzuk ez ziranak, baina baziran sinismendunak. Uste dot Aranzadi bera be, ez dakit zelan jokutzen eban, baina beti egongo zan Eleizaren edo eleiz doktrinaren alde. Horretan berak ez eukan hartu-emon txarrik, ez kontradikzinorik¹³.

JM: Zelan ulertu geinke, abadea izanda, bizitza osoa, zatirik handiena behintzat, Euskal Herriari emotea? Hau da, Barandiaranegan eta beste askogan hutsitze handi bat ikusi geinke, norbera baino askoz handiagoa dan zeozeri bizitza osoa eskaintzea, kasu honetan herriari, eta herriaren bitartez gizateria osoari, ondarea ikertuaz, zainduaz eta zabalduaz. Hau da, Barandiaran, lehenengo eta akabuan be abadea izan zan, baina jardunik handiena Euskal Herriari emon eutsan, haren kulturaren iturriak ezagutu daiguzan. Zein da horren sakoneko lotura?

AM: Harek ez eukan asmorik beronen ikerketak zabaltzeko. Ha zientziamunduan sartu zan, eta hor jokatu eban. Gero, ondorioz, haren lana herri-za zabaltzeko. Baina berak ez eban egin Euskal Herriaren apologetika bat-edo zuzenean. Horrelakorik ez eban egin. Zientziaren munduan sartu eta bertan jokatu eban, Europako zientzialari askogaz. Ez eban bakarrik jokatu.

Caro Barojak¹⁴ dinoan lez, haren eragina euskal kontzientzian sartu zala? Izan leiteke hori. Baina hori izango da bigarren momentu baten, harek ez eban-eta euki hori asmoori, sekula be ez, nahi-ta bera, bere kabuz, abertzalea izan. Tira, izan zan karlista integristea hasieran, eta lehenengo poesiak integristak daukaz. Abertzalea, gaur egun esaten dogu: «ze partidutakoa?». Baina honetarako ez dau balio. Ez, ez. Barandiaran abertzalea zan, hau da, «aberriaren za-

¹³ Wilhelm Schmidt (1868-1954) antropologo eta hizkuntzalari alemaniarra eta apaiz katolikoa izan zen. Hugo Obermaier (1877-1946) prehistorialari eta paleontologo alemaniarra eta apaiz katolikoa izan zen. Anthropos Institutua 1931n Austrian eratutako teologia- eta etnologia-ikerketarako erakundea da (<https://www.anthropos.eu>). Telesforo Aranzadi (1860-1945) euskal jatorriko antropologo katedraduna izan zen Bartzelonan; gero aipatuko den eta Oviedon katedradun zen Enrique Eguren (1888-1944) geologoarekin eta Barandiaranekin batera, Euskal Herrian hainbat ikerketa arkeologiko eta etnografiko egin zituen.

¹⁴ Julio Caro Baroja (1914-1995) euskal jatorriko historialaria izan zen. Barandiaranekin lanean gaztetan hasi zen, eta bizitza osoan gertu-gertukoa izan zuen.

lea». Hau da, bere herria maite ebana, eta bere herriaren emaitza guztiak: literaturea, mitologia, ipuintegia..., baita bere herriaren usteak eta egiteak be.

Hagaitik ba, hartu eban lehenengo eginbehar edo asmoa mitologia izan zen, edo mitologiari jagokona, hau da, pentsakerea munduari egiteetan jagokona. Beste era batera esanda, mitologiatik etnografiara sartu zan. Eta etnografian, erabat, hurrekoa aztertzen eban. Orain, harek ez eban euki horretan inolako eragozpenik abadea izateagaz. Baekian izan behar ebala egizalea, zentzunduna, arerio bakoa. Horixe zan haren eginbeharra.

JM: Hortaz, abadea izateak zelan eroan eban Barandiaran Euskal Herriaren gaineko etengabeko lana egitera? Horixe, ba, itaunik haundiena.

AM: Haren kezkea personala zan. Barandiaranek ez dau euki euskal munduan maisurik¹⁵. Beharbada, Aranzadi esan leiteke, baina gehiago zan prestigio handiko laguna, katedraduna. Eguren gitxiago. Baina maisurik ez eban euki Barandiaranek. Bera izan da maisu, bera egin da maisu. Eta berau izan da etnografia munduan euki dogunik eta maisurik handiena.

JM: Barandiaranegan ikusten dogu bene-benetako abadetasuna. Misterioagazko eta Jaungoikoaganako edegite eta emote guztia. Eta horrek, era berean, eroaten dau Euskal Herria zaintzera. Eta ez da alderdikierietan sartzen den abertzaletasuna harena, askoz sakonagoa baino.

AM: Askoz sakonagoa, zutarretara doalako. Akabu baten haraxe doa. Eta hori bokazino lez dauka? Bai, bokazino lez. Bere ikerlari izatea bokazinotzkoa eban Barandiaranek. Halan, bizitzan zehar, urtero sei-zazpi bat artikulu edo liburu idazten ebazan. Urtean-urtean, gero! Horregaitik, ba, heldu zan bostehun eta pikura. Baina idazten eban ekin ahala, berak esaten ebalako ha ez zala gordeteko. Horretan be, nik uste dot, sartzen dala abade izatea: «Hau zabaltzeko da, hau emoteko da». Baina nori? Zientzia-munduan, ez herriari zuzenean, ze idatzi herrikoiak oso gitxi daukaz Barandiaranek. Badauka zeozer, euskerearen gainekoa, baina gehiago sartzen da zientzia-munduan; hau da, antropologian, edo etnografian, edo mitologian. Hor gehiago sartzen da, buruz buru.

¹⁵ Horregatik izenda daiteke, Barandiaranen iloba Luisek eginiko biografian (1980) adierazi bezala, «euskal kulturaren aitalahehen».

JM: Jasotakoaren «deboluzinoa» maila zientifikora doa lehenengo-lehenengo, orduan.

AM: Bai, lehenengo-lehenengo horraxe doa.

JM: Hark euskal gaietan maisurik euki ez, baina guk bera maisuen maisutzat euki geinke gaur egun. Izan be, askotan euskal kulturaren aitalehena eretxi jako.

AM: Bai, baina kronologikoki ez zan lehenengoa izan. Esan geinke horren aurretik Azkue egoala, baina ez zan Azkueren jarraitzaile. Estimauta eukan, baina ez zan haren jarraitzailea. Eta hori gauza txikitxo baten agiri da, ezta?

Berak, behin, kontatu eban jazoera bat. Bilbon egozala, 1919an, kongresua egon zan, *Ciencias Españolas*en kongresua¹⁶. Eta kongresu haretan hartu eban parte, uste dot, Frankowskik¹⁷. Hori Varsoviako katedraduna zan; Kroazian lehenengo eta Polonian gero. Baina Lehen Mundu Gerrea zala-ta, hemen gelditu zan.

Behin, bai Barandiaran, bai Frankowski, Azkuek etxera konbidadu etorteko esan eutsen. Eta Frankowskiri amorru emotearren-edo, pianoz, pianoa oso ondo jotzen eban-eta, azaldu eban berak batutako melodia bat. Jo eban, eta halako baten gauza bat esan eban, Barandiaranek gogoan eukana. Hau xe esan eban: «Hau konpasau aldatu egin dot, gozotasun gehiago emoteko». Azkuek ha esan eban. Handik urtenda, Frankowskik esan eutsan Barandiarani: «Yo creo que no habrá hecho lo mismo con el Diccionario, ¿no?»¹⁸.

Hori kontatu eban Barandiaranek berak. Ez dakit inoiz azaldu bada, baina harexek kontatutakoa da.

JM: Pasadizo sano esanguratsua...

¹⁶ Asociación Española para el Progreso de las Ciencias. VII. Kongresua, Bilbo, 1919ko irailak 7-12.

¹⁷ Eugeniusz Frankowski (1884-1962) arkeologo eta euskalari poloniarra izan zen.

¹⁸ Azkue ezaguna da herritik jasotakoari ukitu landuak emateagatik. Aipatutako hiztegia 1906ko *Euskara-Gaztelera-Frantsesa* berbategia da.

SG: Inportantea da. Azkue zuzentzailea zan, neurri handian. Eta Barandiaran herrikoa zan, herri xumearen esperientzien biltzaile zuzen eta adeitsuua. Azkueren anekdotea oso inportantea da, hagaitino ba, ikertzaile barentzat oso inportantea.

JM: Barandiaranen bidea osterantzekoa izan zalako, sano.

AM: Horrexegaitik Barandiaranen obrea fidagarria da, oraingorako eta gerorako be. Harek herritik jaso dau, herritik hartutako dokumentua egin dau. Herriaren pentsakerea. Ezin leiteke esan hori dana danik, baina berak batu dauana horretan dago. Izan be, Barandiaran ez zan puristea izan bere idazkeran. Gauza batzuk purismoak eraginda idatzi ebazan, baina gehien baten ez zan puristea izan.

Aitu¹⁹. Behin, Aralarren euki gendun kongresu bat, eta buruzagi zanak, Fromagek, esan eban: «La aportación del maestro Barandiaran a la mitología vasca ha sido una de las contribuciones más interesantes a la mitología europea»²⁰. Hain zehatz, hain zientifikoki batuta dago... Han ez dago datua baino.

SG: Interferentziarik gabe. Hori da positiboena. Interpretazioak gero egingo dira, gura izan ezker, baina beharrezkoa dana datu zehatzak eukitea da.

JM: Haren lan barik askoz umezurtzago gengokez.

AM: Askoz gehiago. Orain gauza ziurra daukagu, Barandiaranek batuta-koak ziurtasuna dauka. Gero mitologia berrinterpretatu egiten dan arren. Marigaz²¹, esaterako, gauza asko egiten da, baina hor dago.

Gero Barandiaranegaz batera badagoz beste batzuk, Barandiaranen bide-
tik joanda ikerketak egin dabezanak. Ikerketa oso interesgarriak dira haree-

¹⁹ Bizkaiera jasoan: *aditu, entzun*.

²⁰ *II Congreso Internacional de Mitología*, Société de Mythologie Françaisek eta Eusko Ikaskuntzak antolatua, Baionan eta Donostian, 1986ko abuztuak 30 eta irailak 2 artean. Abuztuaren 31n, Aralargo San Migelen omenaldia egin zioten Barandiarani. Henri Fromage (1915-2008) ikerlaria aipatutako mitologia elkarteko buru izan zen 1981-1992. urte artean.

²¹ Euskal pertsonaia mitologikoa, Barandiaranen esanetan, numen nabarmena.

nak. Satrustegi, esaterako, oso inportantea da. Eta Iparraldean be bai; Lafittek egindako ikerketa batzuk, esaterako, oso interesgarriak²².

SG: Esaterako, euskal mitologiaren interpretazinoa Juan Mari Lekuonak egin eban²³. Baina materiala nork aurkitu eban? Barandiaranek. Behin aurkituta, haren gainean berba egin leiteke.

AM: Hortxe dago kakoa. Nork topau eban hor edertasuna dagoala? Barandiaranek. Eta edertasun hori neurtzeko kapaz izan zan. Horregaitik, Lekuonaren obra hori, gaur egun be, primerakoa da.

SG: Are gehiago Barandiaranen *Mitología vasca*. Datu hutsak dira, baina zeozer dagoala barruntau leiteke²⁴.

JM: Halan, Barandiaranen balioetatik edo legadutik, zer hartu dozue Etniker taldeetan, esaterako? Adibidez, herritik edo ahotik harakoa, edo egiteetatik zuzenean, hartu eta ikutu ez. Ze besterik?

AM: Nik pentsau, haren maisutasuna agiri dala, batez be, beronen metodologian, azterketako metodologian. Gero, haren asmoa. Beti euki eban asmo bat, Euskal Herriko Atlas Etnografikoa egitea. Ez izen horregaz. Izen hori 1961 edo 1962an azaldu zan lehenengoz. Caro Barojak eta biek emon eben ikastaro bat Donostian, eta hantxe zertu zan lehenengoz *Atlas*

²² Jose Mari Satrustegi (1930-2003) etnografo, euskalari eta apaiz katoliko nafarra izan zen. Haren lan etnografikoak asko dira; *Mitos y creencias* (1980, Donostia: Txertoa) dugu, adibidez, ezagunetarikoa bat. Piarres Lafitte (1901-1985) kazetari, euskalari eta apaiz katoliko lapurtarra izan zen. Haren lan etnografikoak, Barandiaranen ildotik atonduak, bi dira: 1965eko «Atlantika-Pirineetako sinheste zaharrak» (*Gure Herria* 37, 2: 97-121; <https://prentsa.bilketa.eus/ark:/27020/bi00014/1965/02>) eta 1973ko «Erlisione paganoak eskualde hauietan (Erromanoak hemen nausi zaudelarik)» (*Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* 14: 121-132; https://www.culturana-varra.es/uploads/files/01_CEEN014_0121-0132.pdf).

²³ Juan Mari Lekuona (1927-2005) euskal idazlea izan zen. Aipatutako interpretazioa *Mimodramak eta ikonoak* (1991, Donostia: Erein) obran egindakoa da.

²⁴ Barandiaranek 1960an argitaratu zuen *Mitología vasca* (Madril: Minotauro) da. Haren bigarren edizioak Caro Barojaren hitzaurre garrantzitsua dakar (1979, Donostia: Txertoa).

Etnográfico de Vasconia izena²⁵. *Vasconia* izena berak erabilten eban. Zer dala-ta? Ba, izen neutroa dalako.

Harek asmo hori eukan. Baina ez Atlas Etnografiko azalekoa. Horretarako, galdeketa bat atondu egin eban, beronek, eta galdeketa hori, gaur egun be, bizi da, nahi-ta edonon ezin aplikau leitekean. Galdeketa hori da Euskal Herri nekazaria batez be aztertzeke, uritarra ez. Itsasokoa be gitxi sartzen da. Baina orduan horrek densidade gehiago eukan, horretarakoxe egin zan. Halan be, oso baliotsua dala uste dot, galdeketa basikoa dalako, oinarritzkoa dalako. Ez dau galdera gatzik egiten, ez. Galdera normalak egiten dauz: aurrean daukazuna²⁶.

Hagaitik ba, nik uste dot, Barandiaranek emon deuskuna zera da. Alde batetik, metodologia, eta metodologian bertan, zehaztasuna. Ez da bakarrik batzea, ezpada zehatz batzea. Eta horrek leialtasuna eskatzen dau, lekukoa-gazko leialtasuna. Gehien baten horixe da emon deuskuna.

Gero, horrezaz gainera, proiektu bat emon deusku. Hau da, gai edo parte txiki baten ez gelditzeke egitasmoa. Esaterako, etxea aztertzen, edo auzoa aztertzen, edo lanak aztertzen, edo igarote-errituak (*ritos de paso*) aztertzen, edo heriotzea aztertzen. Osotasun baten egiteko baino, osotasunean ikusten dalako kultura bat. Kulturea ez da ikusten partzialtasunean, osotasunean baino. Horixe da harek emon deuskuna.

JM: Lehen aitatu dozu, Wundtegaz egon ostean, Barandiaranek herriaren sustrai edo mun sakonetara jo gura ebal. Orduan, zelan azalduko zeunke harek egindako lan-behar guztiaren ikuspegia edo filosofia, haren zertarakoa? Esan gura da: hori guztiori, zer ulertzeko edo nora heltzeko? Luzeago esanda: Badakigu Barandiaranek preminaz behar egiten ebal. Begien aurrean eukan mundua apurka-apurka bajoakon, desagertzen joakon, eta haren erregistroa ahalik eta zehatzen egin behar zan, interpretazino luzeetan lotu barik. Orduan, benetako helburua beharbada ez zan etnografia bere

²⁵ Etniker Euskal Herriaren *Atlas Etnográfico de Vasconia* lana sarean eskuragarri dago: <https://www.etniker.com/atlas-etnografico-de-vasconia> eta <https://atlas-etnografico.labayru.eus> helbideetan.

²⁶ Barandiaranen galdeketaren jatorriaren eta izaeraren berri hemen aurki daiteke: <https://www.etniker.com/atlas-etnografico-de-vasconia-grupos-etniker-euskalherria>.

horretan, ezta? Benetako helburua, baina, ez ete zan, ba, herriaren autokonprendidutea edo etnologia?

AM: Haren hasierako kezkea erlijiosoa da. Haren kezkea da, ikustea ea zeintzuk diran kultura honen oinarri erlijiosoak. Hortik jo eban²⁷.

Nik ez dakit nork esan eutsan Wundtegana joateko. Berak be sekula ez dau esan. Beharbada entzutetik, alemanieraz hasi zan-eta ikasten. Beharbada hortik jakin eban... Baina gehien baten, esandako moduan, ha oso sakona zan, eta herriaren hunera joten eban.

Barandiaranek sarritan esaten euskun, ikerketak ez daukala azkenik. Hau da, zuk batzen dozu gai bat eta aztertzen dozu gai bat. Baina horrek berorrek eskatzen deutsuz beste gai batzuk. Hori holan eukan. Horregaitik ba, ikusi eban zahartzaroan ez zala gai lan handirik egiteko. Baina guri esaten euskun, ikerketa sakonak eta sakonagoak egin behar dirala, eta ez ixteko inoiz ondorioa. Zabalik ixteko azkena be, beste galdera batzuetarako.

JM: Edegierea, zabaltzea beti.

SG: Misteriora edegierea. Misterioa beti misterio izango da.

AM: Bai, hori izango da.

JM: Barandiaran noiz ezagutu zenduan?

AM: 1967an egin nintzan abade. Behin, 67an, Areatzako zubitik noala, ikusi neban abade txiki bat, garrikoa jantzita. «Ene —esan neban—, hau Barandiaran da!». Nik osabea neukan abadea, Barandiaranen kursokoa, eta lagunak ziran euren artean, eta hortik, ba, ezaupidea egin genduan. Aurkeztu nintzan haren aurrean, eta bazkaltzen konbidau ninduan. Hau egoan Museo Etnografikoan behar egiten, eta hurreko fonda batera joan ginan, eta hantxe bazkaldu genduan. Hortxe izan zan lehenengoko hartu-emona. Baina gerora hartu-emon handian hasi nintzan, handik urte batzuetara, [De-

²⁷ Ikus Euskal Etnologia Eskolaz Manterolak eta Barandiaranek esandakoa, biek «On Jose Migel Barandiaranekin elkarrizketa Iparraldean» testuan erakutsitako solasaldian (in Manterola 2015: 135-151).

rioko] Seminariora bialdu ninduenean, 1967-1968an. Eratzen hasi nintzan ikasketa batzuk euskal kulturari buruz, eta Barandiaran ekarri neban.

Handik denporea garrenera, Jose Mari Irazola²⁸ eta biok egon ginan Barandiaranegaz, eta esan geuntsan, bagenekian-eta Etnikerren behar egiten egoala, ea gura eban Etniker talde bat Bizkaian sortu. Orduantxe ekarri genduan Bibliotekara. Orduan ez egoan Euskal Bibliotekarik seminarioan, eta hantxe emon euskuzan hasierako jardunak²⁹. Urtean sei bat bider etorren zan, hile birik behin. Nik ekarten neban Ataundik. Etorten zan goizean, goizeko hamaiketan, egiten genduan saio bat, gero bazkaldu, eta barriro arrastian beste saio bat egiten genduan.

Saioak beti izaten ziran: «Ea, zuk zer idatzi dozu?». Harek ez eban azalpen magistralik emoten, ez. «Zer hartu dozu herritik?», esaten eban. Noizean behin egiten ebazan ohar batzuk, baina gehien baten indarbarritu egiten eban guk egindakoa. Beti txalotu, eta gehiago egiteko esan. Haren irakaske-ta ez zan magistrala, orduan; gehiago zan Sokratesek egindakoa, maieutikoa.

JM: Eta Barandiaranek Deriokook ondo prestaurik ikusi zinduezan?

AM: Gu? Ez ba! Esango deutsut: Han bardin hartzen eban unibersitario bat nahiz herriko neska edo mutil bat. Barandiaranek ez eban azterketarik egiten, harek personea eginiko lanetatik aztertzen eban, ez tituluetatik. Betti-beti hori.

JM: Seminarioko sasoi haretan oso arduratuta egoan, abadegaiak bai abade-bidean, bai herriagazko hurkotasunean, bai aro garaikidearen erronken aurrean ondo prestetan.

AM: Baina, zehatz esateko, abade-bidearen galdera hori ez egoan gure artean. Gu sartzen ginan etnografian bertan, eta kitu. Ondorio hori ez egoan geure buruan, Etniker taldean. Baina neure bizitzan eragin handia izan dau. Baita abade lez be.

²⁸ Jose Mari Irazola (1938-2008) apaiz katoliko bizkaitarra izan zen, euskararen alde lan handia eginikoa.

²⁹ Labayru Fundazioko Euskal Biblioteka, 2024ko apiriletik Ander Manterola Euskal Biblioteka izena duena. Haren gainean, ikus <https://www.youtube.com/watch?v=nZM0IZSbq5A>.

JM: Eta hori zelan ikasi dozu beraganik?

AM: Bere izakeratik.

JM: Izan be, bere buruaren gainean berba egitekoa ez zan, ezta? Gauzeari neurria hartzen ekiana bai...

AM: Bai, bai, ez eban gauza handirik esango harek. Baina nik ikusten neban bere iloba Pilarregaz³⁰ errosarioa errezetan... Bazkalaurretik otoitz egiten genduan. Nik ez neutsan laguntzen mezatara, goiz emoten eban-eta. Monjearen bizitza eroaten eban, eta ikerketak egiten ebazan gero. Baina danaren gainetik, abadea.

JM: Eta bestetara? Zuen formazino intelektual, filosofiko eta teologikoan, sakatu egiten eban?

AM: Bat be ez. Baina bat be ez, gero! Gainera beste mundu batetik etorren Barandiaran, beste mundu batetik etorritakoa zan. *Ciencia librescatik*, liburuetatik.

JM: Zuok ezagutu zenduen, eta beragaz behar egin, berak 70 urtetik gora eukazanean, eta pentsamentua erabat formadua eukanean.

AM: Bai, bai, guztiz. Bere krisirik handiena gerrea izan zan.

JM: Hori esanguratsua da, ezta? Nahi-ta Iparraldera joan, beti erbestez berba egin eban.

AM: Bai, bai. Eta erbestea bakarrik ez. Berak eban mina, eta lantzean behin azaltzen eban hori. Erbestera joan zan, bere kontura, 1936ko irailean. Baina beti euki eban ustea, gerrea amaituta, barriro deituko eutsiela Gasteizko Seminariorako. Han ez eban ezer txarrik egin. Baina sekula be ez eutsien deitu. Hagaitino irakurri egin behar da Oxfordetik, 1946an, Ballester gotzainari idatzitako karteia, autobiografikoa dalako³¹.

³⁰ Pilar Barandiaran (1911-2008) Joxe Migelen iloba izan zen. Erbestera joan zenetik eta gora, bizitza osabaren ondoan egin zuen, idazkari eta zaintzaile.

³¹ Barandiaranen 1936-1953ko egunkarian (2009) aurki daiteke: «Memoria enviada por José Miguel de Barandiaran al Obispo de Vitoria Excmo. Sr. Dr. D. Carmelo Ballester. Oxford, 15 de Abril de 1946». Carmelo Ballester (1881-1949) Gasteizko gotzain izan zen 1943-1948an.

Hantxe azaldu eban eukan mina, bere barruko mina. Hori karteori irakurri egin behar da. Ze harek bokazinoa Seminariorako euki eban, Seminarioko irakasle, ikertzaile edo laguntzaile izateko, eta hortik atera egin eben. Gero opatu eutsien Manilara (Filipinak) joateko, baita Estatu Batuetara be, baina halakorik ez eban gura.

JM: Eta gero, oster, Nafarroako Unibersidade sortu barrira joan zan.

AM: Antonio Fontán, gero Senatuaren presidente izan zana, hori joan jakon Ataunera, eta agertu eutsan Euskal Kulturaren katedrearen asmoa, eta ea berak onartuko ete eban³². Ez eukan ezelako eragozpenik horretan. Inoan, ba, ze: «Ni joango naz euskal kulturea azaltzen edo ikertzen infernura be bai, gero handik urtetan ixten banabe!».

SG: Lehen Juan Mari Lekuona aitatu dogu, euskal mitologiaren interpretatzaile lez. Baina herriaren huna ezagutzen eban beste mirari bat, Xalbador bertsolaria izan zan. Ha be herrikoa zan, eta jakintsu-jakintsua³³.

AM: Barandiaranek asko estimetan eban.

JM: Barandiaranek Xalbador maite eban?

AM: Bai, eta haregaz egon zan, Jon Bilbaogaz batera³⁴. Joan jakozan, orduan ezaguna ez zanean Xalbador, Urepelera edo inguruetara, eta alkarregaz egon ziran. Xalbadorren bertso batzuk harrigarriak dira...

JM: Xalbadorrek daukan berezitasuna da, eta agian Barandiaranegaz konparaketa bat egin leiteke egunen baten, bere bertsoen ehuneko handian gai bi agiri dirala: Jaungoikoa eta Euskal Herri mindua.

AM: Herri ulerkerea dala-ta, Barandiaranegaz lagun zan André Varagnacek, irakasle zanak —nik Parisen eskola batzuk euki nebazan haregaz—,

³² Antonio Fontán (1923-2010) filologoa, kazetaria eta Espainiako Senatuko buru izan zen 1977-1979an. Barandiaran eta Nafarroako Unibertsitatearen arteko harremanaz, ikus Begiristain (2011).

³³ Fernando Aire, *Xalbador* (1920-1976) artzain eta bertsolari behenafarra izan zen. Gartzia da, *Xalbador, beldur-erlijiotik maitasun-sinesmenera. Jende xumearen erlijio-jakintza* (2018, Bilbo: IDTP eta Desclée de Brouwer) lanaren egilea.

³⁴ Jon Bilbao (1914-1994) euskal gaien ikertzaile eta bibliografoa izan zen, *Eusko Bibliografiaren* egile.

esan eutsan Barandiarani baten, Bigarren Mundu Gerrea inguruan, ea zergaitik ez eban, ba, idazten euskal etnografiaren gaineko liburu bat³⁵. Eta harek erantzun: «Ez, nahiago dot, nik neuk, ikerketa-munduan jarraitu». Eta ez eban idatzi. Eta gai zan idazteko. Tira, gero beste gauza batzuk egin dauz osotasunera joateko.

JM: Bai, eta Barandiaranek baeukan esaldi eder bat, herritik hartutakoa: «Ez gara gure baitan, besteren baitan baizik».

AM: Herriko esakerea da hori. Iparraldekoa da hori, nik pentsau.

JM: Erabili egiten eban?

AM: Sarritan! Baina sarri-sarritan! Hori bere apologetikarik handiena zan: *Ez gera gure baitan...* Esakerea polit-polita.

SG: Oso gaurkoa, gainera.

AM: Gaurkoa eta betikoa. Baina batez be gaurkoa.

SG: Baina ez dago modan.

AM: Ez da modan egongo, baina egiarik handiena da.

SG: Ez dakigu zer galtzen gabilzan hori onartu ezta.

AM: Gure nortasuna galtzen dogu. Eskapismoa da hortik ateratea.

³⁵ André Varagnac (1894-1983) folkloreaken ikerlari frantziarra izan zen, Société du Folklore Françaisen sortzaileetako bat.

Bibliografia

ALTONAGA, Kepa (2016). «Jose Migel Barandiaran antieboluzionista maitagaitza eta B.L.ren *Apologetika apurrak* (1934)», *Ekaia* 29: 179-194.
Kontsultagai: [https://ojs.ehu.eus/index.php/ekaia/article/view/14804].

ANDUAGA, Aitor (2023). «*Völkerpsychologie* as a field science: José Miguel de Barandiaran and Basque ethnology», *Journal of the History of Behavioral Sciences* 60.
Kontsultagai: [https://doi.org/10.1002/jhbs.22258].

— (2024). «*Völkerpsychologie* como ciencia de campo: José Miguel de Barandiarán y la etnología vasca», *Arxiu d'Etnografia de Catalunya* 27: 7-42.
Kontsultagai: [https://doi.org/10.17345/aec27.3978].

AZURMENDI, Joxe (2007). *Volksgeist. Herri gogoa. Ilustraziotik nazismora*. Donostia: Elkar.
Kontsultagai: [https://jakin.eus/show/c76aa58ccae08fb12d15e0b5150ff0283ce3f97c].

BARANDIARAN, Joxe Migel eta MANTEROLA, Ander (zuz.) (1978-1993). *Euskaldunak. Euskal etnia* (I-VII). Donostia: Etor.

— (2005). *Diario personal. 1917-1936* (I-II). Ataun: Barandiaran Fundazioa.

— (2009). *Diario personal. 1936-1953* (I-II). Ataun: Barandiaran Fundazioa.

BARANDIARAN, Luis (1980). *Barandiaran'dar Jose Migel. Euskal-kulturaren aitalen*. Tolosa: Librería Técnica de Difusión.
Kontsultagai: [https://euskera zaintza.org/PDF/Kardaberaz/Bilduma/BARANDIARAN'dar%20Jose%20Migel.pdf].

BEGIRISTAIN, Maria Amor (2011). «Jose Migel Barandiaran en la Universidad de Navarra», *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* 86: 321-341.
Kontsultagai: [https://revistas.navarra.es/index.php/CEEN/article/view/204].

FACULTAD DE TEOLOGÍA DE VITORIA (1992). «Don José Miguel de Barandiaran, sacerdote ejemplar», *Surge. Revista Sacerdotal de Espiritualidad y Apostolado* 533.
Kontsultagai: [https://www.euskariana.euskadi.eus/euskadibib/eu/media/group/1417321.do].

MANTEROLA, Ander (2015). *Zeanuritik Euskal Herrira*. Bilbo: Labayru Fundazioa, Zeanuriko Udala eta BBK Fundazioa.
Kontsultagai: [https://argitalpenak.labayru.eus/profila/zeanuritik-euskal-herrira].

MENTXAKATORRE, Jon (2023). *Euskal ahozko ipuinak eta lurpeko eremua. Antologia eta azterketa* (I-II). Bilbo: Labayru Fundazioa eta Amorebieta-Etxanoko Udala.

MUJKA, Amagoia (2024). «Barandiaranen ekarpena; oparoa, ertz ugarikoa eta guztiz deskubritu gabea», *Gaur* 8: 17-19.

Kontsultagai: [https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2024-09-28-07-00].

MUJKA, Mateo (1945). *Imperativos de mi conciencia. Carta abierta a D. José Miguel de Barandiaran*. Kanbo: Bloud et Gay.

Kontsultagai: [<https://www.eusko-ikaskuntza.eus/es/fondo-documental/fondos-documentales/do-2814>].

Liburu aipamenak

Reseñas de libros

Comptes rendus de livres


Book reviews

Charrando aragonés.

La lengua aragonesa en su Zona de Uso Predominante

EITO MATEO, Antonio, IRANZO SANZ, José Angel, MARCUELLO SERVÓS, Chaime eta PARDOS CALVO, Alejandro
2025ean argitaratua, 268 or.
Bilduma: Papers d'Avignon, 13. zk.
Argitaletxea: Prensas de la Universidad de Zaragoza
ISBN: 978-84-1340-974-0

ARTZA BIKANDI, Jon
Soziologoa eta argitalpen alorreko teknikaria
jartza@euskaltzaindia.eus
ORCID: <https://orcid.org/0009-0006-5373-7462>
DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2025i70.302>



Aragoiera Europako hizkuntza erromanikoen artean zaharrenetariko bat da, eta UNESCOren arabera galtzeko arrisku larrian egon arren, oraindik ere mintzatu egiten da. Iruzkindu duzun argitalpenak aragoieraren erabilera esanguratsua den esparru geografikoaren barruan aztertut du. Informazioa zuzen-zuzenean jaso zen eta horrek hizkuntza horren gaur egungo egoera hobeto ulertzea eta beronen jagote-lanaz eta sustapenaz hausnartzea ahalbidetu du. Ikerketalana 2023an egin zen eta Johan Ferrández d'Heredia katedraren babesaz izan zuen.

Azterketa lau ikerlarik osaturiko lantaldeak egin zuen. Alde batetik, Antonio Antonio Eito Mateo eta Chaime Marcuello Servós Zaragozako Uni-

bertsitateko Psikologia eta Soziologia Departamentuko irakasle eta ikerlari-
riek parte hartu dute. Bestetik, Alejandro Pardos Calvo unibertsitate eta
departamentu bereko irakasle eta ikerlari-laguntzaileak. Azkenik, baina ez
azkenengo, José Angel Iranzo Sanz unibertsitate bereko Matematika eta
Estatistika Departamentuko irakasle eta ikerlariak.

Lehentxoago esan dugu, aragoiera, esparru mugatu batean bada ere, era-
bili egiten den hizkuntza dela. Baina, «zenbatek erabiltzen ote dute?», «zein
testuingurutan?», «non gehien eta non gutxien?»... galdera nagusi horiei
erantzutea izan da ikerketaren zioa. Erabileraren eremu geografikoa zehaz-
terakoan, Administrazioak legez ezarritakoa aintzat hartu zen; horrek batik
bat F.J. Llerak¹ 2001ean egindako azterketaren (Francisco José Llera Ramo
2021) eremuarekin ia bat egiten du, nahiz eta ikertu den azterketaren ere-
mua doi bat handiagoa izan.

Lana hiru garapen-etapetan banatu zen. Lehenbizi, azterketa-eremuko
Goi Aragoiko herriak bisitatu ziren, laginak estatistikoki zehazteko asmoz.
Bigarrenik, laginaren ezaugarriak eta kopuruak zehatz betetzen zituzten he-
rritarrak hautatu ziren. Kanpo geratu ziren, jakina, turistak, ausaz bertan
egokitu zirenak edo eskualdearekin lotura berezirik ez zuten herritarrak.
Guztira, solasaldiak gehiago izan arren, 1.002 inkesta egin ziren 146 udale-
rritan, denak aurrez aurrekoak; azterketa hau burutzeko erabili den ordu-
kopuruaren erakusle ditugu berak. Azpimarratzekoa da, ikerketa honek ara-
goieraren errealitate soziala ezagutzeko duen balioa, etorkizuneko hizkun-
tza-politikak egituratzeko duen baliagarritasuna eta gerora izan daitezkeen
ikerketetarako eskaintzen duen markoa.

Aurrerago sartuko gara datu zehatzagoetan, momentuz azterlanaren goi-
buru nagusiak adieraziko ditugu. Zoritzarrez, genituen usteetatik oso hurbil
daudenak: aragoiera gutxi erabiltzen da, eta batez ere, herri txikietako adi-
neko hiltunek mintzatzen dute. Belaunaldien arteko transmisioa kinka la-
rrian dago eta irakaskuntzan duen presentzia ia deuseza da.

¹ LLERA RAMO, Francisco José (2001). *Estudio sociolingüístico de las hablas del Alto Aragón*. (Argi-
talpen digitala).

Kontsultagai: [http://lenguasdearagon.org/pdf/publicaciones/Estudio_sociolinguistico.pdf].

Badira, hala ere, bestelako datu baikorrak ere. Estatusaren alorrera jotzen badugu, duela bi hamarkada, herritarren % 30ek zuen aragoieraren berri. Beste askok gaztelaniaren aldaera gisa ulertzen zuten, alegia, Aragoiko herri-hizkerako hitz batzuez osaturiko gaztelaniatzat jotzen zuten aragoiera. Oraingo azterketa honek dio, ordea, biztanleen % 60k aragoiera gaztelaniatik berezitua den hizkuntzatzat daukala. Bada alderik!

Hizkuntza-gaitasunaren alorrean, datu zehatzik ez dago, baina errealitatea irudikatzeko kopuru batzuk aurkeztu dituzte. Aztertu den erabilera handiko esparruan, hamar lagunetik zortzik diote aragoiera ulertzeko gai direla. Kopuru horrek beheraka egiten du beste gaitasunei buruz galdetzen denean. Hitz egiteko gai % 34 da, idazteko, % 29 eta irakurtzeko, % 69. Datu horiek ez dira 2011n egindako erroldatik (Reyes Ánchel, Gimeno Chabier eta beste 2017)² asko aldentzen.

Kopuru zehatzetara bagoaz, aragoierak zenbat hiztun ditu? Azterketa honek 50.000 hiztun inguruko kopurua eskaini digu; hots, aurreko ikerketek adierazten zutena baino kopuru altuagoa. Tamalez, horiek aragoieraz «zerbait» dakiten hiztunak dira, esan nahi da, denek ez dute hura menperatzen, ezta are gutxiago erabiltzen. Beraz, horren jakitun izanik, inkestatuen erantzunoi filtro bikoitza pasa diete ikerlariak: hala, alde batetik aragoiera nagusiki edo gaztelania adina erabiltzen duten hiztunak hautatu dira; eta bestetik, gaztelaniaz idatzitako bi esaldi aragoierara itzultzeko eskatu zaie berriemaileoi. Ondorio gisa, hiztun-kopurua hasierako % 34tik % 16,45era jaistea ebatzi da. Halaber, ikerlariak konturatu dira, aragoieraz gaztelaniaren paretsuan hitz egiten dutela aitortu dutenen artean, badela bi hizkuntzok ongi bereizten ez duen hiztun-kopuru bat, arestian esan bezala, aragoiera eta gaztelania (aragoieraren ukitu batzuekin) elkarrengandik bereizteko gai ez direnak. Datu horiek guztiak aintzat hartuta, aragoieraren hiztun konpetente edo erabatekoak 12.000-24.000 kopuru-tarte horretan daudela aditzera eman digute. Harago joanda, hiztun erabateko horietako

² REYES, Ánchel, GIMENO, Chabier, MONTAÑÉS, Miguel, SOROLLA, Natxo, ESPLUGA, Pep eta MARTÍNEZ, Juan Pablo (2017). *L'aragonés y lo catalán en l'actualitat. Anàlisi d'o Censo de Población y Viviendas de 2011*. Zaragoza: Prensas de la Universidad de Zaragoza.

Kontsultagai: [<https://zaguan.unizar.es/record/60448?ln=es>].

zeintzuek erabiltzen duten aragoiera lanean, lagunekin, familiarekin... go-goan hartzen badugu, hizkuntza maiztasun nabarmenaz erabiltzen duten hiztunen kopurua askoz txikiagoa da, 3.200-8.500 kopuru-bitartera mugatzerainokoa. Laburbilduz esan dezagun, 2011ko erroldak (Reyes Ánchel, Gimeno Chabier eta beste 2017) aurkezturiko datuen antzekoak direla eta Nagorek³ (2022) eta Llerak (2021) erakutsitako kopuruak baino apur bat handiagoak.

Hizkuntzaren erabilera eskualdeka arakatuz gero, daturik onenak Ribagorzak eskaintzen ditu (ia hiztunen heren bat bertan kokatua da), Cinca Medio (% 18) Jacetania (% 13) eta Somontano (% 13) eskualdeek ere kopuru esanguratsuak dituzte.

Hasieran esana dugu, aragoiera herri txikietan, pertsona adinduek eta testuinguru ez-formaletan erabiltzen dutela. Testuinguru formaletan, harreman profesionalean, merkataritzan... aragoiera nekez entzuten da, gaztelania dugu jaun eta jabe. Bada, ordea, salbuespen bat: berriemaileen % 10ek herri-administrazioarekin aragoiera erabiltzen dutela diote, batez ere ahozko komunikazioan. Ikertzaileen aburuz, herri-erakundeek horretarako erraztasunak ematen dituztelako gertatzen da hori.

Etorkizuna irudikatzeko orduan, Joshua Fishmanek esandakoa datorkigu gogora. Alegia, hizkuntza bat berreskuratzeko lehen baldintza hizkuntza hori erabiltzen edo gertu duten pertsonen kontzientzia piztea da. Horri begira jartzen bagara, ikerketak nolabaiteko bitasuna azaltzen digu: inkestatu-rikoen % 85ek aragoiera oso gutxi edo ezer ere ez dela erabiltzen dio, baina aragoieraz hitz egiteko gai direnengan arreta jarriz gero, kopurua % 14ra jaisten da. Horrezaz gain, inkestatuen % 70ek aragoierak erabilera zabala goa izan dezan nahi luke. Beraz, hor bada konpromiso-gradu bat, nahiz eta asmo horiek gauzatzeko bakoitza zer egiteko prest dagoen galdetuz gero,

³ NAGORE LAÍN, Francho (2002). *El aragonés hablado en el Alto Aragón: Del bilingüismo diglósico a la sustitución lingüística*, in A.M. Lorenzo Suárez, F. Ramallo Fernández eta X.P. Rodríguez Yáñez (arg.), *Proceedings from the Second International Symposium on Bilingualism*. Vigo: Universidad de Vigo: 967-987.

Kontsultagai: [<http://webs.uvigo.es/ssl/actas2002>].

emaitzak kaskarragoak diren... Horren harira, *Charrando aragonés* liburua-
ren egileek uste dute, hurrengo urteetan beste ikerketa batzuk egin behar
izango direla, oraingo azterketa honek eskaini duen argazkia norantza mu-
gitzen den jakiteko.

Lanaren mugak aipatzeko orduan, ikertzaileek aitortu dute, baliabide
urriak izatearen ondorioz, azterketaren esparrua aragoiera «indartsu» da-
goen eremura, bakar-bakarrik, mugatu dela, eta oso interesgarria litzateke-
la eremu hori Huesca probintzia osora eta Zaragozako iparraldera zabaltzea,
Zaragoza hiria barne. Azken urteotan izan diren barne-migrazioak direla
eta, Aragoiko hiriburuan aragoieraren hiztun-kopuru adierazgarria bizi den
ustea dute.

Era berean, eta hau geure iritzia da, ikerketa honetan 1.200 inkesten
datu kuantitatiboak modu zehatz eta oso ongi egituratuan eskaini dira. Hu-
rringo batean elkarrizketa horietako batzuk argitaratu ere egin litezke, ara-
goieraren hiztunen profila ezagutzeko, batez ere.

Mugak muga, oso ikerketa zorrotza iruditu zaigula erantsi nahi diogu gure
iruzkinari. Lana ugari eginez, orain arte informazioa urria izan duen azter-
keta-eremua osatzen eta aberasten duena, eta geroan etorriko diren ikerke-
ta berriei oinarri edo zoru bikaina jarriko diena.

Literatura, llengua i lloc. Termodinàmica aplicada

SUBIRANA, Jaume

2025ean argitaratua, 110 or.

Bilduma: Nuevos Cuadernos Anagrama, 93. zk.

Argitaletxea: Editorial Anagrama

ISBN: 978-84-339-4716-1

* * *

Literatura, lengua y lugar. Termodinámica aplicada

SUBIRANA, Jaume

Itzultzailea: Juan Gabriel López Guix

2025ean argitaratua, 116 or.

Bilduma: Nuevos Cuadernos Anagrama, 94. zk.

Argitaletxea: Editorial Anagrama

ISBN: 978-84-339-4657-7


URRUTIA, Andres

Euskaltzainburua

aurrutia@euskaltzaindia.eus

ORCID: <https://orcid.org/0000-0002-2139-7137>

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2025i70.320>



No suele ser usual, en el mundo de la literatura y el ensayo sobre la propia literatura, la posibilidad de reseñar el mismo libro, publicado al unísono en la misma colección y escrito en una lengua (catalán) y traducido a otra (castellano), libro, además, que trata de algo tan importante como el futuro de una literatura, en este caso la desarrollada en lengua catalana, que se encuentra en una situación específica, que presenta rasgos comparables con otras como las que tienen como vehículo la lengua vasca y la gallega.

Parte el autor Jaume Subirana (1963), escritor y profesor universitario de literatura catalana, de una relación entre tres conceptos básicos en el siglo XXI para la literatura catalana, como son literatura, lengua y lugar, que sirven de título para el libro, basándose en algo tan alejado de la literatura como son la termodinámica, la entropía y el polisistema.

Superando los clichés del estado-nación de Herder y del proteccionismo, el aislamiento y la militancia de los años cincuenta y sesenta del siglo XX de la literatura catalana, sostiene el autor que el estudio tradicional de la literatura ya no es suficiente para explicar la literatura como actividad social y culturalmente significativa.

Subirana tiende, de acuerdo con las leyes de la termodinámica aplicada, a pensar en la literatura en parámetros de energía y entropía, ya que así se ven las literaturas en términos de sistemas. Por encima de los manuales e historias al uso en la literatura catalana, el autor echa en falta el análisis del papel de los diferentes agentes del subsistema de la lengua catalana y su relación con la literatura y las culturas vecinas. Cifra dichos agentes en «autores, traductores, editores, críticos, academia, sistema escolar, público, instituciones, librerías, premios» (pág. 15).

Tras esa afirmación, Subirana explica la termodinámica como aplicación de unas leyes físicas a «los sistemas literarios y culturales» que «son elementos dinámicos y complejos que conviven (e interactúan) entre sí

en equilibrios más o menos estables en los que se intercambia energía, a menudo en un sentido y no en otro, y no siempre somos conscientes de ese hecho ni lo tenemos en cuenta, ni se hace el esfuerzo de analizar (al modo de los científicos) tal convivencia, sus implicaciones y consecuencias» (págs. 17-18). De ahí que estas dos primeras leyes de la termodinámica que Clausius formuló en 1865, se sinteticen en la forma siguiente: «1. La energía de un sistema aislado es constante. 2. La entropía de un sistema aislado tiende siempre a aumentar (o permanece constante)» (págs. 18-19).

Salvando las distancias y traduciendo este planteamiento a términos literarios, está claro que se producen intercambios espontáneos entre sistemas que buscan un equilibrio:

Traducido a ejemplos que vemos todos los días en la dinámica de nuestro sistema literario: entre literatura catalana, literatura en español y literatura internacional (por nombrar de algún modo la literatura básicamente anglosajona que nos coloca el mercado mundial) hay intercambios espontáneos (más allá de voluntades y campañas) que van sobre todo en una dirección (de los elementos con más temperatura a los que tienen menos) y tienden a buscar el equilibrio, la no (o menor) diferencia. Eso afecta a libros, autores, editores, medios de comunicación y formas de reconocimiento. Y, lo repetimos, pasa de manera espontánea e inevitable, salvo que decidamos intervenir en el sistema de sistemas (aportando energía). La energía cambia y se redistribuye en un flujo permanente de relaciones y en una dirección determinada. Así debería poder ser nuestra forma de pensar y hablar sobre la cultura y la literatura.

(*Literatura, lengua y lugar. Termodinámica aplicada*, págs. 21-22)

A partir de ahí, este concepto de energía puede ayudar a profundizar en el análisis de los sistemas literarios y superar clichés periclitados en el tiempo.

De este modo cabe superar la equiparación herderiana entre lengua, nación e identidad cultural, arquetipo del romanticismo y aplicada en Cataluña. Hoy, sin embargo, dada la alta movilidad y la escala geográfica de esta,

el autor propone una idea que recibe de otros y que sitúa el «nodo» de su reflexión más allá de la simple nación. Ese rápido movimiento lo lleva a una heterogeneidad cultural en la que una comunidad puede tener dos o más sistemas literarios y *v. gr.* la literatura catalana no ser solo la literatura de los catalanes.

La territorialidad de la literatura catalana queda así liberada y también la representación de la comunidad catalana, como ya ocurre con el inglés. Ello lleva al concepto de «bomba cultural» que traslada del autor Thiong'o y su «descolonizar la mente» y que conlleva:

... aniquilar la creencia de un pueblo en sus nombres, en sus lenguas, en su entorno natural, en su tradición de lucha, en su unidad, en sus capacidades y, en último término, en sí mismos. Les hace ver su pasado como una tierra baldía carente de logros y les hace querer distanciarse de esta. Les hace querer identificarse con aquello que les resulta más lejano, por ejemplo con las lenguas de otros pueblos en lugar de las suyas propias. Les hace querer identificarse con aquello que es decadente y reaccionario, todas las fuerzas que ahogarían de buena gana las fuentes de su vida. Incluso plantea dudas profundas sobre la legitimidad moral de la lucha. Las posibilidades de victoria y de triunfo se ven como sueños remotos y ridículos. Los resultados que se buscan son la desesperación, el desencanto y un deseo de muerte colectiva. En medio de esta tierra baldía que ha creado, el imperialismo se presenta a sí mismo como la única cura y exige que los dependientes canten himnos de alabanza con un estribillo constante: «El robo es sagrado». De hecho, este estribillo resume el credo sagrado de la burguesía neocolonial en muchos Estados independientes africanos.

(*Ibidem*, págs. 35-36)

Esta bomba cultural no es bélica, es una bomba hidráulica que mueve líquidos y gases y, en nuestro caso, sistemas literarios y que habría que utilizarla para favorecer a aquellos que pierden «creencia, los periféricos, los otros» (pág. 38).

El auge del plurilingüismo es ya un hecho y, en consecuencia, las literaturas como la catalana no son sino una pieza de un sistema de sistemas, de un polisistema que vive y evoluciona constantemente en relación con otras

literaturas y de ahí que su análisis haya de efectuarse en su integridad, teniendo en cuenta:

... todos los libros (de todas las calidades y categorías, todos los distribuidos y todos los que se venden), todos los autores (también los inéditos o anónimos, también los «negros»), todo lo que se escribe (que es diferente de lo publicado), todo lo que se lee, el ámbito esencial de las traducciones, la prescripción, el uso en clave pública o política de lo literario... Si nos falta un nombre específico para eso, busquémoslo.

(*Ibidem*, págs. 44-45)

Todo ello exige superar la preocupación retórica por la literatura catalana y la realización de una política efectiva que desborde sus propias tendencias endémicas y los viejos clichés relativos a la potencia editorial de Barcelona, la abundancia de escritores y premios, el elevado número de servidores públicos que son filólogos catalanes, el enamoramiento de los gobernantes por las conmemoraciones especialmente literarias, la retórica literaria de honor y servicio, que genera muchas veces el rechazo hacia ciertos escritores por no entrar en el canon de esos gobernantes que elevan a los poetas como santos culturales a quienes encomendar el nacimiento de un nuevo Estado europeo, la convivencia con acento o sin él y la hegemonía y la subordinación, incluso la invisibilidad de las lenguas diferentes del castellano.

He ahí un conjunto de rasgos que abren el camino a realidades actuales como el universo de las bibliotecas y los medios de lectura, la contradicción entre la apertura y el cierre de librerías, los clubes, festivales y casas de escritores, la transmisión del oficio de escribir y el punto y aparte de cada año, el día de Sant Jordi. Hay datos positivos que contraponer a los del párrafo anterior.

Lo dicho implica una ruptura del sistema literario catalán clásico en base en unos factores que Subirana enumera de la forma siguiente:

- I. Catalanohablantes que escriben en catalán. II. Escritores nacidos en España fuera de los territorios de habla catalana que han adoptado el catalán como lengua literaria. III. Escritores en catalán que no son españoles de nacimiento. IV. Ciudadanos catalanes que escriben en otras lenguas. La mayoría en castellano. V. Autores que escriben en catalán y castellano. VI. Residentes nacidos en otros países u otros territorios

del Estado que escriben en Cataluña su obra en lenguas que no son el catalán. VII. Y aún nos quedan los emigrados (categoría llamada a crecer, si sigue la tendencia de muchos jóvenes profesionales).

(*Ibidem*, págs. 76 y ss.)

Concluye Subirana que «el sistema de la literatura en Cataluña es más grande que el de la literatura catalana, pero al mismo tiempo la literatura catalana desborda o va más allá de la literatura en Cataluña. Y eso pasa delante de nuestros ojos y de nuestras cajitas y etiquetas con una tendencia innata a la homogeneización y la desorganización siempre que no hagamos nada (no añadamos energía)» (pág. 87).

Lo digital y la inteligencia artificial llevan a que ya no será necesario saber catalán para escribir en catalán, de ahí que sea necesario el cambio de perspectiva de forma radical, de tal manera que:

... la manera tradicional de etiquetar y adscribir la literatura (y, de ahí, de intentar incidir en ella) no es mala: sencillamente ya no es suficiente. Por limitada, adánica y desenfocada. Y la «culpa» no es del capitalismo ni del nacionalismo, es de la termodinámica, con lo cual ya no deberíamos hablar de culpa.

(*Idem*, pág. 93)

Las conclusiones son evidentes, el espacio en que concluyen literatura, lengua y lugar «ha cambiado y, sin embargo, seguimos mirándolo y hablando de él pensándolo como si no hubiera sido así: seguimos planteando la confluencia de lugar, lengua y literatura como hace cincuenta, cien o incluso ciento cincuenta años» (pág. 95), y eso no solo en la literatura catalana sino en cualquier otra literatura, lo que hace que la identidad sea cada vez menos territorial y menos estable.

Subirana como investigador de la cultura y, más concretamente, de la cultura catalana, da su testimonio sobre su situación:

... con una regresión evidente en el uso de mi lengua, del peso social de la literatura y de la capacidad de los gobiernos para incidir de algún modo en el devenir colectivo.

(*Ibidem*, pág. 98)

Y muestra una actitud abierta:

Abiertos a todo y sin renunciar a nada. Quizás el día de Sant Jordi puede darnos pistas en este sentido: momentos de mezcla de elementos con prevalencia o inclinación (plus de energía) hacia el catalán, con una elevada presencia pública (aceptada, consensuada) de los libros y la literatura también por encima de la inercia, el sistema y la energía dejados a su propio albur. San Jordi es un ejemplo de actuación (de energía añadida al sistema) mejor (más eficaz, más dúctil, menos excluyente) que la política, la religión o los reconocimientos y campañas administrativas.

(*Ibidem*, pág. 99)

Junto con una inclinación por el cambio en el análisis de los sistemas literarios no mayoritarios:

De otro modo, si lo dejamos todo tal como nos lo enseñaron y utilizamos las mismas etiquetas, los mismos instrumentos de medida y las mismas presuposiciones que cuando estudiamos, las literaturas no mayoritarias corren el riesgo de convertirse en glaciares: muy bonitas, muy simbólicas, poderosas pero mudas, cada vez menos accesibles, más pequeñas y seguramente destinadas a desaparecer.

(*Ibidem*, pág. 104).

Tras los capítulos del libro se incluyen las jugosas notas que sustentan el libro y las referencias bibliográficas que hacen que esta publicación, breve pero enjundiosa, sea una guía nueva para adentrarse en el fenómeno de las lenguas y literaturas minoritarias, lo que supone para los vascos, *mutatis mutandi*, motivo de reflexión suficiente para conocerlo.

Euskera Ikerketa Aldizkariaren *idazketa arauak*

Normas de redacción de la revista
Euskera Ikerketa Aldizkaria

Règles de rédaction de la revue
Euskera Ikerketa Aldizkaria

Guidelines for contributors to the journal
Euskera Ikerketa Aldizkaria

Euskera Ikerketa Aldizkariaren idazketa arauak

Hauek dira *Euskera Ikerketa Aldizkariaren* oinarrizko idazketa-arauak. Aldizkarira aurkezten diren lanek araubide hori bete beharko dute. Hala-ber, malgutasuna eskaini eta arautuak ez dauden xehetasunak bideratzeko, Humanitateetako Chicago estiloak finkatzen dituen arauak onartuko dira (<https://www.chicagomanualofstyle.org/home.html>).

Euskera Ikerketa Aldizkariaren helburua ikerketa-lan originalak diren artikuluko akademiko eta zientifikoak argitaratzea da.

Eskuizkribu bat ebaluaziorako igorri aurretik, bermatu egin behar da haren edukiak aldizkariaren jakintza-esparruetara egokitzen direla.

Eskuizkribu motak. Egileentzako orientabide modura, *Euskera Ikerketa Aldizkariak* bere jakintza-esparruetako eskuizkribu mota hauek onartzen ditu:

1. Artikuluak: ikerketa-lan originalak, jite teoriko zein enpirikodunak, garapen tekniko eta analitiko egokia dutenak, eta alorreko aldizkari zientifikoek erabiltzen duten ohiko formatua izatea.
2. Ikerketa artikuluei eskatzen zaien hedadura, garapen teoriko eta zehaztasun analitikoa izan gabe, labur-labur, aurkikuntza esanguratsuak, ekarpen berriak eta orain arteko literatura zientifikoaren interpretazioak egiten dituzten azterketak eta ikerketa-oharrak.
3. Dokumentuak eta txostenak: aldizkariaren ikerketa-esparruan egin diren dokumentazio eta material-ekarpenen behaketa- eta azterketa-lanak.
4. Liburuen iruzkinak: aldizkariaren jakintza-esparruan, interes akademikoa duten argitalpen berriak aztertzen dituzten saiakera izaerako lanak.

Hizkuntzak. Artikuluak, oharrak, txostenak eta iruzkinak Euskal Herriko mundu akademikoan erabiltzen diren hizkuntzatan argitaratuko dira. Beren-beregi euskaraz argitaratzea sustatuko da, baina ingelesez, gaztelaniaz eta frantsesez idatzitako lanak ere lekua izango dute. Horietatik kanpo bes-

te hizkuntzaren batean idatzitako artikulua iritsiko balitz, Idazketa Batzordeak luke onartzea ala ez.

Lanak igortzea. Eskuizkribuak aldizkariaren webgunea erabiliz helarazi behar dira. Lehenbizi erregistratzeko urratsak bete behar dira, eta ondoren, fitxategiak *Euskera Ikerketa Aldizkari*ra igortzeko jarraibideak bete behar dira. Eskuizkribuarekin batera aurkezpen gutun bat erantsi behar da, eta hor artikuluaaren tipologiaren berri emateaz gain, hura aintzat hartzeko eta aztertzeko eskaria egingo da. Gutun horretan, egileak lauzpabost lerrotan lanaren ekarpena ere azalduko du. Halaber, lana beste aldizkari batzuetara igorri ez izanaren adierazpena egingo du, eta egile eskubideak lagako dizkio aldizkariaren editore den Euskaltzaindiari.

Lanen aurkezpenak. Eskuizkribuak igortzean, egilea esaten ari da aldizkariaren lanak aurkezteko prozedurak ezagutzen eta onartzen dituela eta, halaber, *Euskera Ikerketa Aldizkari*aren argitalpen prozedura onartzen duela.

Igorritako artikulua behin betikoak izango dira, behar bezala idatziak, akats linguistikorik eta mekanografikorik gabeak. Horretarako, komeni da nork bere ordenagailuan zuzentzaile ortografikoa instalaturik izatea eta hura aplikatzea artikulua Euskaltzaindira bidali baino lehenago.

Artikuluaren hasieran, egilearen/egileen kideztza (unibertsitatea, ikergunea, erakundea, etab.) eta helbide elektronikoa ezarriko dira.

Testua idazteko 1,5 lerroartekoa erabiliko da, eta zein-nahi argitasun edo zuzenketatarako, orrialdearen albo bietan, 1,5 cm-ko koskarekin idatzirik aurkeztuko dira lanak. Orrialdeak eta oin-oharrak segidako zerrendan zenbatuko dira.

Testu-gorputza 12 puntukoa izango da.

Esparru akademikoan ohikoak diren letra tipoak onartuko dira (Arial, Times New Roman, Calibri...). Artikuluaren atal eta azpiatal guztiak zenbaki arabiarretan eta hierarkikoki zenbakituko dira: 1., 1.1, 1.1.1, 1.2, 1.2.1, 2., etab.

Beste hizkuntza bateko hitz solteak letra etzanez idatziko dira. Halaber, letra etzanez idatziko dira liburuen izenburuak eta aldizkariaren izenak.

Artikuluak, zuriuneak aparte, ez dute 30.000 karaktere baino gutxiago eta 60.000 baino gehiago izango (tauletako testuak barne). Liburu aipamenek, hemen ere zuriuneak aparte, ez dute 6.000 karaktere baino gutxiago eta 10.000 baino gehiago izango.

Originalak (bi kopia, horietarik bat anonimoa) nahitaez euskarri elektronikoa (DOC(X), ODT edo RTF formatuetan) eta aldizkariko webguneko plataformaren bidez helaraziko dira. PDF bertsioa ere bidali behar da.

Taulak eta irudiak. Lerro eta zutabeetan ematen den informazioa Taula izenarekin izendatu behar da. Argazkiak eta grafikoak Irudia izenarekin izendatu behar dira. Taulak eta irudiak ordena kronologikoaren arabera zerrendatu behar dira, taulak alde batetik eta irudiak bestetik. Bietan iturria adierazi behar da. Taulak eta irudiak deskribatzeko oinak 10eko letra-gorputzarekin idatziko dira, esandako horien aurretik.

Orokorrean, material grafikoa, mapak, laminak, argazkiak eta abar 1300 pixeleko gutxieneko zabalera tamaina izango dute eta 300 dpi-ko bereizmena. Irudiak eta taulak, eskuizkributik aparte, beste fitxategi batean txertatuta igorri behar dira. Irudi kopuruaren ondorioz, artikulua luzerak araututako muga gainditzen badu, aldizkariaren Idazketa Batzordeak erabakiko du argitaratu ala ez.

Idazlanaren formatua

Lehen orrialdea

Artikuluaren izenburua lau hizkuntzatan (euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa).

Egilearen izen osoa. Beheko lerroan, egilearen kategoria profesionala eta zein erakunderi atxikia dagoen. Lehenbizi erakunde nagusia eta jarraian, balego, erakunde nagusitik eratorritakoak. Halaber, helbide elektronikoa eta egile bat baino gehiago bada, nor izango den gutuneriaren jasotzailea.

Jarraian, lanaren laburpena aurkeztuko da. Ikerketa-artikuluarekin batera, haren laburpena (gehienez ere 500 karaktere) eta gako-hitzak (gehienez

ere sei) emango dira. Laburpenak eta gako-hitzak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez idatziak izan behar dira. Esan gabe doa artikulua hirugarren hizkuntza batean idatzia badago, hizkuntza horretan ere aurkeztu behar direla aipatutako gako-hitzak eta laburpena. Gomendatzen da laburpenak argi adieraztea zein diren ikerketaren helburuak, metodologia eta erabilitako dokumentazio-iturriak, eta, jakina, zein diren aurkikuntza edo ondorio nagusiak.

Bigarren orrialdea

Ikerketa-artikulua, oharra, txostena edo liburu-aipamena aurkeztzen da. Aintzat hartu behar da arestian zehaztu diren baldintzak bete behar dituela.

Oin-oharrak, aipuak eta erreferentzia bibliografikoak

Aipu laburrak. Lau lerro baino laburragoak direnak testuan bertan jasoko dira eta testu-gorputzaren tamaina bera izango dute. Komatxoaren eredu hierarkia honen arabera izango da: «xxxx “xxx ‘xxx’ xxx” xxx». Azkenik, aipuaren amaierako puntua erreferentziaren ondoren ipiniko da: «[...] jarraitzen zuen Zaldibiak» (Intxausti 1999).

Aipu luzeak. Aparteko pasarteetan idatziko dira, letra tamaina 10,5 puntukoa izango da eta testu arruntetik bereizteko, ezkerretik eta eskuinetik 1,5 cm-ko koska utzi behar da. Halaber, aipuaren aurretik eta ondoren, tarteko lerro zuri bat utziko da. Kasu honetan, amaierako puntua erreferentziaren aurretik jarriko da: «[...] jarraitzen zuen Zaldibiak». (Intxausti 1999). Aipuko lehen lerroak ez du ondokoak baino barrurago egon behar.

Aipuaren barruko paragrafo artean lerro zuririk ezin da sartu.

Idatzi gabe geratzen den esaldia edo esaldi zatia kako zuzen edo parentesi karratu artean eta hiru etenpuntu jarrita adieraziko da: [...].

Aipaturiko erreferentzia guztiak, ahalaz, testu barnean txertatuko dira, artikuluaaren bukaeran erantsi ohi den bibliografiarekin lotuz, honela: (Larramendi 1729), (Mitxelena 1961: 123).

Egile bakarra denean, deitura eta urtearen artean ez da komarik jarriko: (Villasante 1961).

Bi egile direnean, bi deiturak puntu eta koma bidez bereiziko dira: (Furet; Ozouf 1977). Hainbat libururi erreferentzia egiten zaienean, argitasuna helburu, bestelako formula batzuk erabili ahal izango dira: (Deumert eta Vandebussche 2003; Coupland, Kristiansen eta Deumert 2011).

Egileak hiru baino gehiago direnean, lehena eta *et al.* edo «eta beste» jarriko da. Bukaeran, erreferentzia guztiak zerrendatzen direnean, egile guztiak agertu behar dira.

Egilerik ez denean obra bera aipatuko da, eta izenburua luzea bada, eten-puntuak erabiliko dira: (Registro... 1829: 133).

Erreferentzia bibliografiko osoak artikuluaaren bukaeran zerrendatuko dira, oinarritzko eredu honen arabera:

AZKUE, Resurreccion Maria (1896). *Proyecto de ortografía: sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao: Müller y Zavaleta.

LAFON, René (1975). «Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques», in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris: Société de linguistique de Paris: 331-337.

LARRAMENDI, Manuel (1729). *El imposible vencido: arte de la lengua bascongada*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

MITXELENA, Koldo (1959). «Euskal-itzak zein diren», *Euskera* 4 (1959): 206-214.

MITXELENA, Koldo, SARASOLA, Ibon (1990). *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV/EHU.

URKIXO, Julio (1967). «De paremiologia vasca: Oihenart conoció los “Refranes y sentencias” en vascuence de 1596», *ASJU* I (1967): 3-44.

ZUBIMENDI, Joxe Ramon, ESNAL, Pello (1993). *Idazkera liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Dokumentua modu elektronikoan soilik eskura daitekeenean, honela aurkeztuko da:

WALIÑO, Josu (2016). «Euskara eta Internet: Zortzigarren lurralde konkistatzen», *Euskera* 61 (1): 42-44.

Kontsultagai: <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf>. (2018ko ekainaren 4an kontsultatua).

Dokumentuak beste euskarri batzuetan argitaratu direnean (CD-ROM, DVD), irizpide berak erabiliko dira, baina amaieran euskarria zein den adieraziko da kako zuzenen edo parentesi karratuen artean: [...].

Egileak artikulua bibliografia oinarritzko eredu horren arabera antolatuko du. Kasuan-kasuan izan daitezkeen zehaztapenak edota berezitasunak argitaratzaile-arduradunarekin batera konpondu behar ditu.

Normas de redacción de la revista *Euskera Ikerketa Aldizkaria*

Estas son las normas básicas de redacción de la revista *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. Los trabajos que se presenten a esta revista deberán cumplir dicha normativa. Para ofrecer una mayor flexibilidad y ayudar en aspectos que no estén lo suficientemente detallados, se tendrán en cuenta las normas que dicta el estilo Chicago para Humanidades. Los artículos adoptarán y utilizarán las reglas establecidas por el Chicago Style for Publication in the Humanities (Chicago Manual of Style. <https://www.chicagomanualofstyle.org/home.html>).

Euskera Ikerketa Aldizkaria tiene por objeto la publicación de artículos académicos y científicos que sean trabajos originales de investigación.

Antes de enviar un manuscrito para su evaluación, le rogamos que verifique que su contenido se ajusta a los ámbitos temáticos de la revista.

Tipo de manuscritos. Como orientación para los autores, *Euskera Ikerketa Aldizkaria* acepta para su consideración, dentro de sus ámbitos de estudio, estos tipos de trabajos:

1. Artículos: deberán ser trabajos de investigación originales, de carácter teórico o empírico, con un adecuado desarrollo teórico o analítico y tener el formato habitual de las revistas científicas especializadas.
2. Estudios y Notas de Investigación: deberán informar brevemente de hallazgos singulares, nuevas aportaciones, replicación de hallazgos o añadidos a la literatura científica que justifiquen su publicación sin la extensión y desarrollo teóricos o el detalle analítico requerido a los artículos.
3. Documentos e informes. Deberán presentar trabajos en los que se realice una exploración y análisis de aportaciones documentales sobre las materias y temas tratados por la revista.
4. Crítica de libros: serán trabajos ensayísticos que analicen novedades editoriales de interés académico y científico en el ámbito de la lengua vasca.

Lenguas. Los artículos originales de investigación, las notas, los documentos e informes y las críticas de libros se publicarán en cualquier idioma utilizado en el mundo académico del País Vasco. Se priorizará la publicación en euskera, pero tendrán cabida a su vez, los trabajos escritos en inglés, castellano o francés. Si llegase un trabajo escrito en una lengua diferente a las citadas, sería el Consejo de Redacción el que decidiera publicarlo o no.

Envío de trabajos. Los manuscritos deben ser remitidos utilizando la página web de la revista, registrándose y siguiendo las instrucciones para remitir ficheros a *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. El manuscrito se acompañará de una carta de presentación pidiendo la consideración del manuscrito y una orientación sobre su tipología. En esta carta el autor explicará en 4-5 líneas cuál es la aportación del trabajo que presenta y la declaración de no envío simultáneo a otras revistas. Así mismo, en esta carta figurará la cesión de derechos al editor.

Presentación de trabajos. El envío de manuscritos presupone, por parte de los autores, el conocimiento y aceptación de estas instrucciones, así como de las normas del proceso editorial de *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. Los artículos enviados serán definitivos, debidamente redactados, libres de errores lingüísticos y tipográficos. Para ello, es recomendable tener instalado un corrector ortográfico en el ordenador y aplicarlo antes de enviar los artículos a Euskaltzaindia.

Para la redacción del texto se utilizará interlineado de 1,5 líneas, y para cualquier aclaración o corrección, los trabajos se escribirán con sangría de 1,5 cm a ambos lados de la página. Las páginas y notas al pie se contarán cronológicamente. El cuerpo del texto será de 12 puntos. Se aceptarán tipografías típicas en el ámbito académico (Arial, Times New Roman, Calibri...).

Todos los apartados y subapartados del artículo se numerarán en números arábigos y jerárquicamente: 1., 1.1, 1.1.1, 1.2, 1.2.1, 2., etc.

Las palabras sueltas en otra lengua se escribirán en cursiva. Los títulos de libros y revistas también se escribirán en cursiva.

En general, la longitud de los artículos, sin contar los espacios, no debe ser menor de 30.000 caracteres ni mayor de 60.000 (incluidos los textos de

las tablas). Las críticas de libros, igualmente, sin contar los espacios, tendrán no menos de 6.000 caracteres ni más de 10.000.

Los originales (2 copias, una anonimizada) serán enviados mediante la plataforma en formato electrónico (formatos DOC (X), ODT o RTF). Una de las copias se debe enviar en formato PDF.

La información proporcionada en filas y columnas debe llamarse Tabla. Las fotografías y gráficos deben llamarse Imagen. Las tablas y las imágenes deben enumerarse cronológicamente, las tablas por un lado y las imágenes por otro. Ambas deben indicar la fuente.

Los subtítulos para los pies de foto y las imágenes deben escribirse en cuerpo 10 y colocarse encima de las tablas e imágenes.

En general, el material gráfico, mapas, láminas, fotografías, será de un tamaño mínimo de 1300 píxeles de ancho y 300 ppp, con la mayor calidad posible. Las figuras, cuadros o imágenes deberán enviarse en un archivo aparte del trabajo, no incluidas en el texto. En el caso de que la extensión resultante de los trabajos por causa de las ilustraciones sea mayor, el Consejo de Redacción decidirá si es pertinente su publicación.

Formato del escrito

Primera página

Título del trabajo en euskera (además en castellano, francés e inglés).

Nombre completo del autor y la categoría profesional con indicación debajo de cada autor, de la institución, universidad o centro de investigación donde ejerce su actividad (primero la institución general, seguido de la institución o instituciones subordinadas), dirección postal completa y dirección de correo electrónico. En caso de varios autores se indicará el responsable de correspondencia.

Después se proporcionará un resumen (máximo de 500 caracteres) y palabras clave (máximo de seis). Los resúmenes y las palabras clave deben

estar escritos en euskera, castellano, francés e inglés (Abstract y Keywords). No hace falta decir, que si el artículo está escrito en una tercera lengua, las palabras clave y el resumen también deben enviarse en dicha lengua. Se recomienda que el resumen exponga con claridad la finalidad del estudio o investigación (objetivos); los procedimientos básicos y/o fuentes documentales utilizadas (métodos); los principales hallazgos encontrados (resultados), y las conclusiones más relevantes, así como resaltar los aspectos nuevos e importantes del estudio.

Segunda página

Será la de arranque del texto del manuscrito propuesto que, en todo caso, habrá de atenerse a las ya citadas características generales.

Notas, citas y referencias bibliográficas

Citas breves. Las de menos de cuatro líneas se incluirán en el texto y tendrán el mismo tamaño que el cuerpo del texto. Las comillas dependerán de la siguiente jerarquía: «xxxx 'xxx' xxx» xxx». Finalmente, el punto final de la cita se colocará después de la referencia: «[...] Zaldibia continuó» (Intxausti 1999).

Citas largas. Se escribirán en un pasaje aparte, con un tamaño de letra de 10,5 puntos y sangría de 1,5 cm a izquierda y derecha. Además, antes y después de la cita, se dejará una línea blanca intermedia. En este caso, el punto final se colocará antes de la referencia: «[...] Zaldibia continuó». (Intxausti 1999). La primera línea de la cita no debe ser más profunda que la siguiente.

No se pueden insertar líneas blancas entre los párrafos de la cita.

La oración no escrita o parte de la oración se indicará entre corchetes y con tres puntos de corte: [...]. Todas las referencias citadas deben, si es posible, incluirse en el texto, vinculándolas a la bibliografía que suele ad-

juntarse al final del artículo, como sigue: (Larramendi 1729), (Mitxelena 1961: 123).

Cuando hay un solo autor, no se coloca coma entre el nombre y el año: (Villasante 1961). Cuando son dos autores, los dos nombres se separan por punto y coma: (Furet; Ozouf 1977). Cuando se haga referencia a varios libros o artículos, si se considera necesario, se podrán utilizar otras fórmulas (Deumert y Vandenbussche 2003; Coupland, Kristiansen y Deumert 2011).

Cuando los autores son más de tres, deben aparecer el primero y luego *et al.* o «y otros». Al final, cuando se enumeran todas las referencias, deben aparecer todos los autores.

Cuando no haya autor, se mencionará la obra en sí, y si el título es largo, se utilizarán puntos de corte: (Registro... 1829: 133).

Las referencias citadas se darán completas al final del artículo, ordenadas alfabéticamente, de acuerdo con este modelo básico:

AZKUE, Resurrección María (1896). *Proyecto ortográfico: sujeto a censura por parte de quienes cultivan el euskera*. Bilbao: Muller y Zavaleta.

LAFON, René (1975). «Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques», en *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. París: Sociedad de Lingüística de París: 331-337.

LARRAMENDI, Manuel (1729). *Lo imposible vencido: el arte del euskera*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

MITXELENA, Koldo (1959). «Euskal-itzak zein diren», *Euskera* 4 (1959): 206-214.

MITXELENA, Koldo, SARASOLA, Ibón (1990). *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos vascos antiguos*. San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa y UPV/EHU.

URKIXO, Julio (1967). «Sobre la paremiología vasca: Oihenart conocía los "Refranes y sentencias en euskera" de 1596», *ASJU* I (1967): 3-44.

ZUBIMENDI, Joxe Ramón, ESNAL, Pello (1993). *Idazkera liburua*. Gasteiz: Servicio General de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Cuando el documento sólo esté disponible en formato electrónico, se presentará de la siguiente manera:

WALIÑO, Josu (2016). «Euskara eta Internet. Zortzigarren lurraldea konkistatzen», *Euskera* 61 (1): 42-44.

Disponible: <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf>. (Consultado el 4 de junio de 2018).

Cuando los documentos se publiquen en otro soporte (CD-ROM, DVD), se seguirá el mismo criterio, pero al final se indicará el soporte entre corchetes: [...].

El autor organizará la bibliografía del artículo de acuerdo con este modelo básico. Podrá consultar con la persona a cargo de la editorial para resolver cualquier problema específico o particular.

Règles de rédaction de la revue *Euskera Ikerketa Aldizkaria*

Voici les règles de base de rédaction de la revue *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. Les travaux présentés à la revue devront respecter ces règles. Pour offrir une plus grande flexibilité et apporter une assistance sur des aspects qui ne seraient pas suffisamment détaillés, on tiendra compte des règles édictées par le Chicago Style for Publication in the Humanities (<https://www.chicagomanualofstyle.org/home.html>).

L'objet de la revue *Euskera Ikerketa Aldizkaria* est la publication d'articles universitaires et scientifiques issus de travaux de recherche originaux. Voici les principaux domaines dont traitera la revue :

Avant d'envoyer un manuscrit pour qu'il soit évalué, nous vous demandons de bien vouloir vérifier que son contenu corresponde aux domaines d'étude proposés.

Type de manuscrits. Pour orienter les auteurs, sachez que *Euskera Ikerketa Aldizkaria*, parmi ses domaines d'étude, accepte d'examiner ce type de travaux :

1. Articles : il devra s'agir de travaux de recherche originaux ayant un caractère théorique ou empirique, avec un développement théorique ou analytique adéquat, et ayant le format habituel des revues scientifiques spécialisées.
2. Etudes et notes de recherche : elles devront faire état brièvement de découvertes singulières, de nouvelles contributions, d'interprétation de découvertes ou d'ajouts à la littérature scientifique qui justifient leur publication sans l'extension et le développement théoriques ou les détails analytiques requis pour ces articles.
3. Documents et rapports : ils devront présenter des travaux de recherche et d'analyse des contributions documentaires dans l'un des domaines de recherche dont traite la revue.
4. Critique de livres : il s'agira d'essais analysant les nouveautés éditoriales à caractère universitaire dans l'un des domaines de recherche dont traite la revue.

Langues. Les articles de recherche originaux, les notes, les documents et rapports et les critiques de livres seront publiés dans l'une des langues utilisées dans le milieu universitaire du Pays Basque. La priorité sera donnée à la langue basque mais auront également leur place les travaux rédigés en anglais, en espagnol ou en français. Si un article est présenté dans une langue autre que les langues citées, c'est le comité de rédaction qui décidera de le publier ou pas.

Envoi des travaux. Les manuscrits devront être remis en utilisant la page web de la revue, ils devront être enregistrés et suivre les instructions de téléchargement des fichiers sur *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. Le manuscrit sera accompagné d'une lettre de présentation demandant l'examen du manuscrit et une information quant à sa typologie. Dans cette lettre l'auteur devra expliquer en quatre ou cinq lignes de quelle nature est sa contribution ainsi qu'une déclaration stipulant qu'elle n'a pas été présentée simultanément à d'autres revues. La lettre contiendra aussi la cession des droits à Euskaltzaindia.

Présentation des travaux. L'envoi des manuscrits suppose de la part des auteurs la connaissance et l'acceptation de ces instructions ainsi que des règles de procédure éditoriale de *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. Les articles envoyés seront définitifs, rédigés comme il se doit, exempt d'erreurs linguistiques et typographiques. Il est pour cela recommandé d'installer sur l'ordinateur un correcteur orthographique et de vérifier le texte avant d'envoyer les articles.

Au début de l'article il convient de préciser l'appartenance de l'auteur ou des auteurs (université, centre de recherche, institution...) ainsi que les adresses électroniques.

Pour la rédaction du texte on utilisera l'interligne 1,5 et pour tout type d'éclaircissement ou de correction les travaux seront présentés avec un alinéa de 1,5 cm des deux côtés de la page. Les pages et les notes figureront en pied de page par ordre chronologique.

Pour le corps du texte on utilisera une taille de caractère de 12 points.

Seront acceptées les polices habituellement utilisées dans le milieu universitaire (Arial, Times New Roman, Calibri...). Tous les paragraphes et

sous-paragraphes de l'article seront numérotés en chiffres arabes et de manière hiérarchique : 1., 1.1, 1.1.1, 1.2, 1.2.1, 2., etc.

Les mots isolés en langue étrangère s'écriront en italique. Les titres de livres et de revues s'écriront également en italique.

De manière générale, les articles, sans compter les espaces, devront compter au moins 30 000 caractères et au plus 60 000 caractères (y compris les textes des tableaux). De la même façon, les comptes rendus de livres, sans compter les espaces, devront compter entre 6 000 et 10 000 caractères.

Les originaux (2 copies, dont une anonymisée) seront envoyés sur la plateforme du site web de la revue sous leur forme électronique (formats DOC (X), ODT ou RTF). Une version PDF du document devra également être envoyée.

Tableaux et images. L'information présentée sous forme de lignes et de colonnes doit être nommée Tableau. Les photos et les graphiques doivent être nommés Image. Les tableaux et les images doivent être classés de façon chronologique, les tableaux d'un côté et les images de l'autre. Ils doivent tous les deux indiquer quelle est leur source. Les légendes de photos et d'images doivent avoir une taille de police de 10 et figurer au-dessus des tableaux et des images.

De manière générale, le matériel graphique, les cartes, les gravures, les photos devront avoir une résolution minimale de 1300 pixels et 300 ppp. Les images et les tableaux seront envoyés dans un fichier à part. Dans le cas où les travaux dépasseraient la longueur maximale fixée à cause du volume des images, le comité de rédaction décidera si leur publication est pertinente.

Format du document

Première page

Titre du document en quatre langues (basque, espagnol, français et anglais).

Nom complet de l'auteur. Ligne suivante, sa catégorie professionnelle et nom de l'institution, de l'université ou du centre de recherche où il exerce son activité. Tout d'abord l'institution générale, puis la ou les branches de l'institution concernée. L'adresse électronique et, dans le cas d'auteurs multiples, sera indiqué le nom du destinataire du courrier.

On fournira ensuite un résumé (avec un maximum de 500 caractères) et des mots-clés (6 au maximum). Les résumés et les mots-clés doivent être écrits en basque, en espagnol, en français et en anglais. Il va sans dire que si l'article est écrit dans une troisième langue, les mots-clés et le résumé doivent être écrits dans cette même langue. Il est recommandé d'exposer clairement dans le résumé la finalité de la recherche, la méthodologie, les sources documentaires utilisées et enfin quelles sont les principales découvertes et les conclusions les plus significatives.

Seconde page

Elle présente l'article de recherche, les notes, le rapport ou la référence du livre. Il ne faut pas perdre de vue le fait que le texte doit répondre aux exigences précisées plus haut.

Pieds de page, citations et références bibliographiques

Citations courtes. Celles qui ont moins de quatre lignes seront insérées dans le texte et auront la même taille de police que le corps du texte. Les guillemets respecteront la hiérarchie suivante : « xxxx "xxx 'xxx' xxx" xxx ». Enfin, le point final de la citation sera placé après la référence : « [...] continuait ainsi Zaldibia » (Intxausti 1999).

Citations longues. Elles figureront dans un passage à part et auront une taille de police de 10,5 points et un alinéa de 1,5 cm à gauche et à droite par rapport au reste du texte. De plus, avant et après la citation on laissera une ligne vide. Dans ce cas le point final sera placé avant la référence : « [...] continuait ainsi Zaldibia ». (Intxausti 1999). La première ligne de la citation ne doit pas avoir de retrait par rapport à la suivante.

On ne doit pas insérer de ligne vide entre les paragraphes de la citation.

La phrase non écrite ou la partie de phrase sera indiquée entre crochets et avec trois points de suspension : [...].

Toutes les références citées doivent si possible être insérées dans le texte et reliées à la bibliographie qui est habituellement ajoutée à la fin de l'article, ci-après : (Larramendi 1729), (Mitxelena 1961: 123).

Lorsqu'il n'y a qu'un auteur, on ne met pas de virgule entre le nom et l'année : (Villasante 1961).

Lorsqu'il y a deux auteurs, les deux noms sont séparés par un point-virgule : (Furet ; Ozouf 1977). Lorsqu'il est fait référence à plusieurs livres ou articles et si on l'estime nécessaire, on pourra utiliser d'autres formules (Deumert et Vandebussche 2003 ; Coupland, Kristiansen et Deumert 2011).

Lorsqu'il y a plus de trois auteurs, il convient de citer le premier et ensuite la formule *et al.* ou et autres. Enfin, lorsque les références sont listées, tous les auteurs doivent être cités.

Lorsqu'il n'y a pas de nom d'auteur, on ne mentionnera que le titre de l'œuvre et, si le titre est long, on utilisera des points de suspension : (Registro... 1829 : 133).

Toutes les références bibliographiques citées seront présentées à la fin de l'article, classées par ordre alphabétique, selon le modèle suivant :

AZKUE, Resurrección María (1896). *Proyecto ortográfico: sujeto a censura por parte de quienes cultivan el euskera*. Bilbao: Muller y Zavaleta.

LAFON, René (1975). « Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques », in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris : Société de linguistique de Paris : 331-337.

LARRAMENDI, Manuel (1729). *Lo imposible vencido: el arte del euskera*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

MITXELENA, Koldo (1959). «Euskal-itzak zein diren», *Euskera* 4 (1959): 206-214.

MITXELENA, Koldo, SARASOLA, Ibón (1990). *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos vascos antiguos*. San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa y UPV/EHU.

URKIXO, Julio (1967). «Sobre la paremiología vasca: Oihenart conocía los “Refranes y sentencias en euskera” de 1596», *ASJU I* (1967): 3-44.

ZUBIMENDI, Joxe Ramón, ESNAL, Pello (1993). *Idazkera liburua*. Gasteiz: Servicio General de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Lorsque le document n'est disponible qu'en format électronique, il sera présenté de la manière suivante :

Nom, Prénom de l'auteur (année de publication), « Titre de l'article », *Titre de la publication*, numéro : p.-p., <http://www.xxxxxxxx>. (Il faut également citer la date de consultation).

WALIÑO, Josu (2016). « Euskara eta Internet. Zortzigarren lurraldea konkistatzen », *Euskera* 61, 1: 42-44.

Disponible: <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf>. (Consulté le 4 juin 2018).

Lorsque les documents sont publiés sur un autre support (CD-ROM, DVD), la même méthode sera utilisée, mais à la fin le support sera indiqué entre crochets : [...].

L'auteur organisera la bibliographie de l'article selon ce modèle de base. Il pourra en référer au responsable d'édition pour résoudre tout problème spécifique ou particulier.

Guidelines for contributors to the journal *Euskera Ikerketa Aldizkaria*

These are the basic guidelines for contributors to the journal *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. Papers submitted to this journal must follow these guidelines. To give greater flexibility and assist with aspects not defined in sufficient detail, the guidelines established by the Chicago Humanities style. Papers must adopt and use the rules laid down by the Chicago Style for Publication in the Humanities (Chicago Manual of Style. <https://www.chicagomanualofstyle.org/home.html>).

The purpose of *Euskera Ikerketa Aldizkaria* is to publish academic and scientific papers that are original research work. These are the main subject areas of the journal:

Before submitting a manuscript for assessment, please make sure its content fits into the fields of study proposed.

Manuscript types. As guidance for authors, *Euskera Ikerketa Aldizkaria* accepts for consideration the following types of work within its fields of study:

1. Papers: these must be original research work, of a theoretical or empirical nature, in appropriate theoretical or analytical depth and in the habitual format for specialist academic journals.
2. Studies and research notes: these must report briefly on singular findings, new contributions, replication of findings or additions to the academic literature to justify their publication without the theoretical length and depth or the analytical detail required in full papers.
3. Documents and reports: work submitted must explore and analyse documentary contributions to the subject and topics dealt with by the journal.
4. Book reviews: these will be essay-type pieces analysing new publications of academic and scientific interest in the field of the Basque language.

Languages. Original research papers, notes, documents and reports and book reviews will be published in any language used in the academic world of the Basque Country. Publication in Basque will be prioritised but work written in English, Spanish or French will also be acceptable. In the event of a piece arriving in a language other than those mentioned above, the Editorial Committee will decide whether to publish it or not.

Sending work. Manuscripts must be sent in via the journal's website, registering and following instructions for uploading files to *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. The manuscript must be accompanied by a covering letter requesting it be considered and an indication of its type. In this letter the author must explain in 4-5 lines what the contribution of the work submitted is, and declare that they are not sending it to other journals at the same time. The letter must also include a grant of rights to the publisher.

Submission of work. Sending in manuscripts implies that authors are aware of and agree to these instructions, as well as to the rules of the *Euskera Ikerketa Aldizkaria* editorial process. The papers sent must be final, properly written and free from language and typographical errors. It is therefore advisable to have a spell checker installed on the computer and to use it before sending papers off.

The author or authors' institution (university, research centre, institution, etc.) must be cited at the beginning of the paper together with the pertinent email addresses.

Line spacing of 1.5 is to be used to write the text, and scripts must have a margin of 1.5 cm at both sides of the page for any explanations or corrections. Pages and footnotes are to be numbered in order.

Body text must be in 12 point.

Typical fonts in the academic sphere (Arial, Times New Roman, Calibri...) will be accepted. All sections and subsection of the article are to be numbered hierarchically with Arabic numbers: 1., 1.1, 1.1.1, 1.2, 1.2.1, 2., etc.

Individual words in another language are to be written in italics. The titles of books and journals must also be written in italics.

In general, articles must be of no less than 30,000 or more than 60,000 characters, not counting spaces but including text in tables. Book reviews must be between 6,000 and 10,000 characters, not counting spaces.

Originals (2 copies, one anonymised) must be sent via the platform in electronic format (DOC (X), ODT or RTF formats). One of the copies must be sent in PDF format.

Information arranged in rows and columns must be called Table. Photographs and graphs must be called Image. Tables and images must be numbered in order, tables on one side and images on the other. The source must be indicated in both cases. Subtitles for captions for photos and images must be written in 10-point body text and placed over the tables and images.

In general, graphic material, maps, plates and photographs must be at least 1300 pixels wide and 300 ppi, in the best resolution possible. Figures, boxes and images must be sent in a separate file from the work, not included in the text. In the event that the illustrations make the piece longer, the editorial committee will decide whether to publish it.

Format of the document

First page

Title of the work in Basque (as well as in Spanish, French and English)

Full name of the author and their professional status, stating the institution, university or research centre where they work under each author (first the general institution, followed by the subordinate institution or institutions), full postal address and email address. If there are several authors, it must be specified which of them is responsible for correspondence.

After this an abstract must be given (maximum 500 characters) with key words (up to six). Abstracts and key words must be written in Basque, Spanish, French and English. Needless to say, if the paper is written in a third language the key words and abstract must also be sent in that lan-

guage. It is recommended that the abstract clearly outline the purpose of the study or research (aims), the basic procedures and/or documentary sources used (methods), the main findings (results) and the most salient conclusions, as well as highlighting the important new aspects of the study.

Second page

This is where the text of the manuscript submitted begins, in all cases conforming to the general features mentioned above.

Notes, quotations and bibliographical references

Short quotations. Those of less than four lines are to be included in the text and will be the same size as the body text. The quotation marks must conform to the following hierarchy: «xxxx “xxx ‘xxx’ xxx” xxx». Finally, the full stop at the end of the quotation must be placed after the reference: «[...] Zaldibia continuó» (Intxausti 1999).

Long quotations. These are to be written as a separate paragraph, with a font size of 10.5 points and a 1.5 cm margin to the right and left. Also, an intermediate blank line must be left before and after the quotation. In this case, the final full stop must come before the reference: «[...] Zaldibia continuó». (Intxausti 1999). The first line of the quotation must not be deeper than the following one.

Blank lines must not be inserted between the paragraphs of the quotation.

Unwritten sentences or part-sentences are to be indicated by an ellipsis between square brackets: [...]. A references cited must, if possible, be included in the text, linking them to the bibliography that generally comes at the end of the paper, as follows: (Larramendi 1729), (Mitxelena 1961: 123).

When there is a single author, no coma goes between their name and the year: (Villasante 1961). When there are two authors, the two names are separated by a semi-colon: (Furet; Ozouf 1977). When reference is made to

several books or articles, if it is felt necessary, other formulas may be used (Deumert & Vandenbussche 2003; Coupland, Kristiansen & Deumert 2011).

When there are more than three authors, the first must appear followed by *et al.* or and others. At the end, when all the references are listed, all the authors must appear.

If there is no author, the work itself is mentioned and, if the title is long, an ellipsis is used: (Register... 1829: 133).

The references cited are to be given in their entirety at the end of the paper, in alphabetical order, according to this basic model:

AZKUE, Resurrección María (1896). *Proyecto ortográfico: sujeto a censura por parte de quienes cultivan el euskera*. Bilbao: Muller y Zavaleta.

LAFON, René (1975). «Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques», in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. París: Sociedad de Lingüística de París: 331-337.

LARRAMENDI, Manuel (1729). *Lo imposible vencido: el arte del euskera*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

MITXELENA, Koldo (1959). «Euskal-itzak zein diren», *Euskera* 4 (1959): 206-214.

MITXELENA, Koldo, SARASOLA, Ibón (1990). *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos vascos antiguos*. San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa & UPV/EHU.

URKIXO, Julio (1967). «Sobre la paremiología vasca: Oihenart conocía los "Refranes y sentencias en euskera" de 1596», *ASJU* I (1967): 3-44.

ZUBIMENDI, Joxe Ramón, ESNAL, Pello (1993). *Idazkera liburua*. Gasteiz: Servicio General de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Where the document is only available in electronic format, it is to be presented in the following way:

WALIÑO, Josu (2016). «Euskara eta Internet. Zortzigarren lurraldea konkistatzen», *Euskera* 61 (1): 42-44.

Available: <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf>. (Consulted on 4th June 2018).

Where the documents are published on some other medium (CD-ROM, DVD), the same criterion is to be followed, but at the end the medium is to be indicated between square brackets: [...].

The author must organise the bibliography of the paper in accordance with this basic model. They may consult the person responsible at the publisher to settle any specific or individual issue.

2025erako harpidetzaren prezioa / Precios de suscripción para el 2025 / Prix de l'abonnement pour 2025 / Subscription prices for 2025

Euskal Herria: 20 €

Atzerria / Extranjero / Etranger / Other countries: 25 €

Zenbaki solteen prezioa 2025erako / Precios de los números para el 2025 / Prix des numéros pour 2025 / Prices of issues for 2025

Euskera Ikerketa Aldizkaria 2025, 70 (1): 20 €

Euskera Ikerketa Aldizkaria 2025, 70 (2): 20 €

Salmenta eta banaketa / Venta y distribución / Vente et distribution / Sale and distribution

Euskaltzaindiko Argitalpenak Zerbitzua

Plaza Barria, 15

48005 BILBO

Tel. 94 415 8155

e-mail: euskeraaldizkaria@euskaltzaindia.eus

Eskatzaileak, datu pertsonalak eman behar dituen gero, eskatzaile horrek esanbidezko baimena ematen du datu horiek Euskaltzaindiaren fitxategi informatikoan sar daitezela; fitxategiaren xede bakarra zerbitzu pertsonalizatua eskaintzea da. Fitxategia Datuen Babeserako Agentzian inskribatuta dago, eta, berori kudeatzeko, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa (Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzkoa) eta horren garapenerako gainerako arauak betetzen dira. Eskatzaileak bere datu pertsonaletan sartzeko, horiek zuzentzeko, ezereztzeko eta horien aurka jartzeko eskubideak ditu, eta badu eskubideon berri. Eskubide horiek idatziz egikaritu ahal izango ditu, helbide honetara mezu elektronikoa bidaliz: info@euskaltzaindia.eus. Edozein kasutan ere, eskatzaileak bermatzen du emandako datu pertsonalak egiazkoak direla.

* * *

El solicitante autoriza expresamente a que los datos personales aportados en relación a su pedido, sean incorporados al fichero informático de Euskaltzaindia, destinado exclusivamente a dar un servicio personalizado al usuario. Dicho fichero resulta inscrito en la Agencia de Protección de Datos y es gestionado de acuerdo a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre sobre Protección de Datos de Carácter Personal y demás normativa de desarrollo. El usuario queda informado de sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición respecto de sus datos personales, pudiendo

ejercitar estos derechos por escrito mediante correo electrónico a la dirección info@euskaltzaindia.eus. En cualquier caso, el usuario garantiza que los datos personales facilitados son veraces.

* * *

L'acheteur donne son autorisation expresse pour que les informations personnelles relatives à sa commande soient intégrées au fichier informatique d'Euskaltzaindia qui est destiné exclusivement à offrir un service personnalisé à l'utilisateur. Ce fichier est inscrit à l'Agence de Protection des Données et est géré conformément à la Loi Organique 15/1999 du 13 décembre sur la Protection des Données à Caractère Personnel. L'utilisateur est informé de ses droits d'accès, de rectification, d'annulation et d'opposition relatifs à ses données personnelles et peut demander l'exercice de ses droits par écrit, en adressant un courrier électronique à info@euskaltzaindia.eus. Dans tous les cas, l'utilisateur garantit l'exactitude des données personnelles qu'il aura fournies.

* * *

The applicant expressly authorises that the personal data provided in relation to his/her order may be included in the Euskaltzaindia computer file, intended exclusively to provide a personalised service to the user. This file is registered with the Data Protection Agency and is managed in accordance with the provisions of Spanish Organic Law 15/1999 of 13 December 1999 on the Protection of Personal Data and other implementing regulations. The user is informed of his/her rights of access, rectification, cancellation and opposition with regard to his/her personal data, and may exercise these rights in writing to the email address info@euskaltzaindia.eus. In any event, the user guarantees that the personal data provided are truthful.

IKERKETA ARTIKULUAK

Amande ANIN, Christian MALMOSE eta Virginie BOILLET

Non gogoa, han zangoa? *Demolinguistika aurreikuspenak: hizkuntza-politikaren ibilbidearen oinarriak marrazteko tresna Ipar Euskal Herrian?*

Katixa DOLHARE ZALDUNBIDE

Ipar Euskal Herriko poesiaren argiak eta itzalak, 1940tik hona

Odei GUIRADO IRASUEGI

Arikala: aisialdi antolatua eta euskararen hizkera informalaren lanketa hezkuntza-testuinguru formalean

Ana JAUNARENA

Noketaren higatzea Ortzaizen

Maddi ORMAZABAL, Ane BERRO eta Irene DE LA CRUZ-PAVÍA

Euskal hizkeren erritmoa

Maddi KINTANA MORCILLO

BAM (Baiona-Angelu-Miarritze) eremuko eta inguruetakoz gazteen euskarazko hizkera arrunta

Idurre ALONSO, Odei GUIRADO, Aritz BEREZIARTUA, Jon MENTXAKATORRE eta Xabier LASA

Lagunarteko hizkera langai ikastolan: bi ikasturteko esku-hartzearen implementazioa eta emaitzak

Kepa DIÉGUEZ

Hilabeteak: ikuspegi etnolinguistikoa

OHARRAK

Joan A. ARGENTER

De noms, de cognoms i de llengües subordinades

Jon MENTXAKATORRE ODRIÓZOLA

Ander Manterola Aldekoa: zeanuriztar etnografoari elkarriketa

LIBURU AIPAMENAK

Jon ARTZA

Charrando aragonés. La lengua aragonesa en su Zona de Uso Predominante

Andres URRUTIA

Literatura, lengua y lugar. Termodinámica aplicada

